

TAKIJI KOBAYASHI

Itzulpena: Hiromi Yoshida
Hitzaurrea: Iñigo Aranbarri

共闘

NAGUSIA KANPOAN BIZI DA

1928KO MARTXOAREN 15A



Katakrak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Takiji Kobayashi

***NAGUSIA KANPOAN
BIZI DA***

***1928KO
MARTXOAREN
15A***

Takiji Kobayashi

***NAGUSIA KANPOAN
BIZI DA***

***1928KO
MARTXOAREN
15A***

Itzultzailea:
Hiromi Yoshida

Jatorrizko izenburua (1929): *Fuzai-jinushi*

Jatorrizko izenburua (1928): *1928nen 3gatsu 15nichi*

Egilea: **Takiji Kobayashi**

Bi lanen jatorrizko lizentzia: **Domeinu publikoa**

Argitalpen honen lizentzia: **Creative Commons**

Azaleko argazkia: **Egile ezezaguna (National Museum of Denmark)**

Azaleko argazkiaren lizentzia: **Domeinu publikoa**

Barruko argazkia: **Kazumasa Ogawa (National Museum of Denmark)**

Barruko argazkiaren lizentzia: **Domeinu publikoa.**

Itzulpena: **Hiromi Yoshida**

Azalaren diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: **2017ko maiatza**

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31.001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka Aitortu-EzKomerziala-LanEratortirikGabe 4.0 Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau koptatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Ezin da lan honen lan eratorririk egin.

ISBN: 978-84-16946-05-1

Lege gordailua: LG NA 1032-2017

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
HITZAURREA (Iñigo Aranbarri)	19
NAGUSIA KANPOAN BIZI DA.....	25
1928KO MARTXOAREN 15A.....	173
POLIZIAK TAKIJI KOBAYASHI HIL EGIN DU	271





ARGITALETXEAREN OHARRA: **KOBAYASHI: AZALA ETA BORONDATEA**

Zientziak eta literaturak asko dute amankomunean;
bietan, konparazioak eta ikasketak
funtsezko garrantzia dute;
artistak, zientzialariak bezala,
batera behar ditu irudimena eta intuizioa.
Maksim Gorki

Japoniako literatura proletarioa munduko oparoenetako bat da. Berezi Takiji Kobayashik idatzi zuen, 1920ko hamarkadan. Etorriko zen faxismoarekin alderatuta, garai aski liberal bat izan zen hamarkada hura. «Armadaren izen ona hain zegoen lur jota ofizialek andregai aurkitzeko zailtasunak baitzeuzkaten eta jendaurrean ahalik eta gutxien janzten baitzuten uniformeak»,¹ eta hala ere, urrezko aroa izan zen langileen nekazarien, ikasleen, feministen eta baztertuen aldeko mugimendu sozialentzat. Eragile horien baitan sortu ziren Japoniako artista engaiatuak. Afixak, margoak, eleberriak, antzezlanak, poemak idatzi zituzten militarismoaren, inperialismoaren, arrazakeriaren,

¹ Zeljko Cipris in Denji Kuroshima, *Una bandada de cuervos*, Ardicia, 2014 Madril. 13. or.

sexismoaren eta kapitalismoaren kontrako dinamika orokor batean. Tartean izan ziren Hiroichiroo Medakoo, Shigeharu Nakano, Yuriko Miyamoto, Ineko Sata, Taiko Hirabayashi, Shigeji Tsuboi, Hideo Oguma eta Denji Kuroshima. 1925ra bitartean estatuak errezeloz begiratu zuen mugimendu sozialistaren eta feministaren sorrera. Zentsura existitzen zen, eta, 1925etik aurrera, «agitazio antikapitalista ilegala izan zen».

Bi eleberriok irakurrita, kentzen zaigu artearen eta politikaren arteko afera klasiko bati buruzko zalantza kentzen zaigu. Ez du tokirik «Zergatik idatzi eleberri bat, berez, borroka politikoa egin nahi bada?» galderak. Literatura gehiago delako sentimenduen kontu bat gertakizunena baino –Terry Eagletonek dioenez–. Gehiago da transzendentzia munduko gatazkak baino. Gehiago da originala komenentzia soziala baino. Gehiago da zehaztasuna abstrakzioa baino. Gehiago da geure tau-pada printzipio orokorra baino.

Eta hori da Kobayashik literaturari egiten dion ekarpena. Ezin da norbanakoen ezagutza sistematiko bat lortu. Eagletonek dioen bezala: «Lor daiteke hainbat milioiren inguruko zientzia bat –demografia edo soziologia deitutakoa–, baina ezin da egin ikerketa zientifiko bat erretreta hartu duen eta errepidearen aldameneko landako etxean bizi den almirante jubilatuaren inguruan».² Eta, gisa berean, ezin da zientzia bat egin, errezeta liburu bat, norbanakoak praktika politikoetan dauzkan aukeren inguruan. Baina zehaztasun hori landu daiteke eleberri batean, poema batean.

Bi eleberri liburu bakarrean

Lau lan nagusi idatzi zituen bere bizitza laburrean Kobayashik. *Kanikosen* arrantza-ontziko lan-baldintza

² Terry Eagleton, *Como leer un poema*, Akal, 2010 Madril. 21. or.

nardagarriei buruzkoa da ezagunena, inguruko erdaretan maiz argitaratua. Idatzi zuen azken lana ere –*Burkidea*– argitaratu dute gaztelaniaz –hura ari zen idazten Kobayashi atxilotu, torturatu eta hil zutenean–. Eta tartean badira beste bi lan nagusi, liburu honetan jasotzen ditugunak, Yoshida Hiromiren itzulpen detailezko batekin, oin-ohar xumez lagunduta.

Batetik, *Nagusia kanpoan bizi da* eleberria *Senki*³ (Gerra Bandera) aldizkarian atalka argitaratua. Nekazari pobretuetako egunerokotasun gogorrean kokatua. Japoniarrek ainu herria bizi zen Hokkaido uhartearen kolonizazioaren eremuan lekutua. Ezaguna den Japoniaren modernizazioa –feudalismotik gizarte industrialerako biraketa– bere basakeria gordinenean adierazia. *Kanikosenen*, jende xehearen antolaketa-ri aurre egiteko «enpresa berdin nazioa» paradigma erabiltzen zuten boteretsuek –eta beren tokiko administratzaileek– *Nagusian*, aldeiz, «bake soziala berdin tradizioa» paradigma erabiltzen dute. Alegia, berritasuna jabearen onuran erabili behar dela soilik, jende xehea antolatzen bada, hiriko eragina jasotzen badu, irakurtzen badu, galbidea hasiko dela. Hori kontatzen du *Nagusia*k: jende xehearen ahalduntzea. Nork bere burua indartzen duenean sortzen zaion inozentzia guztiarekin, teatralitatearekin, talka guztiarekin.

Bestetik, 1928ko martxoaren 15a kontakizuna *Chuukooron*⁴ (Aldizkari Zentrala) agerkarian argitaratu

3 1928 eta 1931 artean 41 ale argitaratu zituen literatura aldizkaria. Literatura proletarioa argitaratu zuen aldizkari garrantzitsua izan zen. 1928ko martxoaren 15eko gertakizunen ostean Japoniako bi artisten talde nagusiek (Japoniako Arte Proletarioaren Federazioa eta Arte Abangoardisten Aliantza) Japonia Osoko Arte Proletarioen Federazioa osatu zuten. Federazio hark argitaratu zuen *Senki*. Ale asko debekatu zizkieten, baina harpidedunek aurrez jasotzen zituzten aleak. Federazioak Gazteentzako *Senki* eta *Emakumeentzako Senki* ere argitaratu zituen.

4 1887tik argitaratzen den hilabetekari literarioa. Ryukoku Unibertsitatearen giroan sortu zen. Orduki, aldizkariak nobelak eta erreportajeak lantzen

zuen. Eleberri horretan, Japoniako langile-mugimenduaren aurka estatuak egin zuen makro-operazio bat kontaktzen da. Aktibismoari buruzko eztabaidak, antolakuntza, baina funtsean tortura: proletario militanteek eta *intelligentsiako* kideek jasan zutena. Alegia, antolakuntzaren osteko porrota.

Nola idatzi zuen Kobayashik?

Artez doa Kobayashi. Zehatza izateak ez duelako zertan barrokismoan bukatu. Toki handiagoa dauka klimaren deskribapenak gosez hiltzen diren nekazarien heriotzak baino. Garaiko Japoniako idazle askok bezala, Errusiak ez zuen eragin politiko soil bat izan –berezi nabarmena 1918an Armada Gorriaren eta gerrilla komunisten kontra frantsesekin, britainiarrekin, txekiarrekin eta kanadarrekin egin zuten Siberiako Interbentzioaren (Shiberia shuppei) ostean⁵-. Txekhov, Dostoiievski eta Tolstoi adopziozko autoreak izan ziren orduko Japoniako literaturan.

Idea sofistikatua adierazpen soilekin ekarri zituen Kobayashik. Juan Ramon Jimenezek esango zukeen bezala: hitz egiten den bezala idazten duena urrutia-go iritsiko da idazten den bezala idazten duena baino. Zeren, nola esplikatu uharte baten kolonizazioa? Nola, botere politikoaren urruntzea? Nola, miseria? Nola azaldu torturatuek torturatzailaren lan-baldintza txarreko abegikortasuna sentitzea? Nola erakutsi zer metodo erabiltzen dituen botereak jende xehea –

ditu, filosofia, ekonomia, politka, kultura eta gai sozialen inguruan. 40.000 aletik gorako zirkulazioa du gaur egun.

5 «1920ko ekainean atzerriko tropa guztiek alde egin zuten sobietarrek aurrera egin zutelako, baina japoniarrek bi urte gehiago jarraitu zuten borrokan, 1922ko udazkenean Siberiatik kanporatu zituzten arte (nahiz eta 1925era arte Japoniako armada umiliatuak ez zuen erabat alde egin sobietarren lurraldetik Japoniako armada umiliatuak sobietarren lurraldetik)» in Kuroshima. 12. or.

ideologikoki eta komunitarioki- ahultzeko? Nola eman plastizitatea militarizatzen ari den gizarte bati? Nola eman forma erreal bat kapitalen kontzentrazioari?

Nagusian irakurriko duzun bezala, «Garai bateko lur-jabeak ez bezala, Kishinok ez zekien ezer laborantzari buruz». Kobayashiren garaia, neurri batean, gure garaia delako. Zer daki josteaz jantzigintzaz aberasten den enpresaburuak?

Kontzientzia inputatua eta alderdia

Aipatu ditugu, jada, bi nobelen pieza nagusiak: antolaketa, borroka, giza-harremanak, generoa, boterea, tortura. Baina gai horiek orrialdez orrialde erregai batek elikatzen ditu: kontzientziaren inguruko gogoetak. Kontzientzia afera dinamiko gisa planteatzen da: errealitate material aldakorren eta pertsonaien arteko harremanen ondorio gisa. Kontzientzia teoriaren eta praxiaren menpe planteatzen du egileak.

Nobela hauetan -idazlearen beste bi nagusietan bezalaxe- ez da proletarioa idealizatzen. Norbait zapaldua izateak ez du heroi eta eredu egiten. Are gehiago, *Nagusian*, argi agertzen da nekazari txiro batzuen misoginia, adibidez. Jakintza alienaziorako eta lur-jabeak boterean bermatzeko erabiltzen duen gizon jakintsua azaltzen da.

Akaso, adibide behinena Nobegen pertsonaiak haragitzen du. Nobegeni beldurra diote. Alkohola edaten duenean, indarkeria erabiltzen du. Neskak gaizki tratatzen ditu. Nobegenen aurrean, kontzientzia politikoa duen Kenek pentsatzen du egun monotonoeekin, lan gogorrarekin, itxaropenik gabeko bizitzarekin edonork buka dezakeela Nobegen bezalakoa izaten. Alegia: «Alprojak ez dira errudunak. Alproja izateko aukera baizik ematen ez digun sistema da erruduna».

Kobayashik bere garaiko afera filosofiko-politiko bat lantzen du muinean: kontzientzia. Engelsek Meh-ringi gutun batean: burgesiaren interesak defendatzen dituzten proletarioen ideologia. Gerora, Lukácssek, fal-tsutasunaren ezaugarria alboratu, eta «kontzientzia enpirikoa» izenez garatu zuen.⁶ Alegia: zapalduak arrakala bat dauka boteretsuek ezarri dioten kontzientzia enpirikoaren eta askapenera eramango duen «kontzientzia inputatu»aren artean.⁷ Zapalduak kontzientzia berri bat sortu behar du, berez jasotzen ez duena.

Susan Buck-Morssek azaltzen du Lukácsen ideia-ren garapena. Berez, enpirikoki existitzen diren proletarioek ez dute mundua «proletarioen ikuspegi»-tik ikusten. Horrela, kontzientzia inputatuaren bidez, proletarioek beren posizio objektiboen ikuspegi argi batetik pentsatuko lukete. Lukácsen teoriaren arabera, zubi bat sortu behar zen kontzientzia enpirikotik inputatura: alderdia. Alderdia proletarioen kontzientzia kolektiboaren gorpuztea zen. Alderdia teoria egokiaren jabe izan behar zen, «klase iraultzailearen abangoardia» zelako. Nobelok idatzi zirenean, 1920ko hamarkadan, halako irakurketa egiten zen nazioartean, faxismoaren goraldiaren aurretik.

Halere, Kobayashik ez du alderdi zehatz baten apolo-gia egiten lanotan. Erakunde mota asko aipatzen dira. Esan genezake antolaketari berari egiten zaiola laudorio: elkartasunaren eta azterketa kritikoaren dinamikari. Nobelok irakurrita, gogora etorri zaigu Bertolt Brechten *Neurria (Die Massnahmen)* antzezlaneko

6 1920ko martxoan argitaratu zuen *Klase kontzientzia*. Gaztelaniaz, Georg Lukács, *Historia y conciencia de clase: Estudios de dialéctica marxista, Razón y revolución*, 2013 Buenos Aires. 143-186. or.

7 Susan Buck-Morss, *The Origin of Negative Dialectics: Theodor W. Adorno, Walter Benjamin, and the Frankfurt Institute*, 1977 New York. 67. or.

pasarte bat, alderdiari eta antolakuntzari gorazarre egiten zaionekoa: «Norbanakoak bi begi dauzka; alderdiak mila begi dauzka. Alderdiak zazpi estatu ikusten ditu; norbanakoak hiri bat ikusten du. Norbanakoak ordu bat dauka, baina Alderdiak ordu asko dauzka. Norbanakoa hil dezakete, baina Alderdia ezin da akabatu, zeren masen abangoardia da eta bere borroka metodo klasikoekin zuzentzen du, errealitatearen jakintzatik aterata». Kontzientzia norberaren heriotzara arte; hara eleberrion beste ezaugarrietako bat, bereziki 1928ko martxoaren 15an: porrotak ere kontatu behar dira, gaingitu ahal izateko. Hilko zaituzte agian, baina beste norbaitek har dezake gerra-bandera.

Hara, Japoniako bi eleberri, Iñigo Aranbarriren hitzaurre eder batekin: Kobayashi munduko literaturan eta Euskal Herriko konstelazioan kokatzeko. Eta, eleberririk irakurri ostean, 1933an AEBn Kobayashiri buruz argitaratuko ohar bat topatuko duzu.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Armiarma atariaren salbokonduktuari, hantxe argitaratu zelako, orain urtebete, lehenengoz, 1928ko martxoaren 15a Jose Luis Otamendik zuzenduta.

Iruñea

2017ko maiatza



HITZAURREA

Idazle batzuei, ez gutxiri, errealitatea datorkie bila fikzioa idazten ari direla. Takiji Kobayashi da horietako bat. Eleberri proletarioa halakotu izan duten beste egile askoren antzera, ez du irakurleak goiz batean karraldo iratzartzen den inor aurkituko Kobayashiren lanetan, ezta bere burua axolotl baten gogoan ikusten duenik ere Jardin des Plantes beti zoragarriko akuarioanean. Beste era batekoa da, izenburuetatik bertatik hasita, idazleak irakurleari eskaintzen dion tratua. Japonian gaude, 20ko hamarkadaren hondarretan: gizaldiz gizaldi hego haizearen aldaketarik ezagutu ez duen gizartea errotik ari da mudatzen; ezarian-ezarian, burgesia nazionala ari da sortzen jende xehearen miseriak bere horretan dirauen artean. Eta goseak gogoseari deituta, berdin da nekazari esan, arrantzale zein hirietako obrero.

Katakarak-en edizio honi esker, Kobayashiren bi nobela labor irakurtzeko aukera du aurrenekoz euskal irakurleak. Eta biek dute, bat bederak bere maneran, ongi jasotzen bizitzak eta literaturak bat egiten duen

puntu horretaz Akita-ko idazleak zuen ustea. Oso bes-telakoak izanagatik, antzekoa da planteamendua bi lanotan: egoeraren aurkezpen oinarritzkoa, pertsonaien arian-ariko kontzientzia hartzea, gatazka ikusaraztea eta ondorio itxaropentsua. Horra, gutxi-asko, eskema klasiko bat Kobayashik bere erara jantziko diguna.

Nagusia kanpoan bizi da 1929an eman zen argitara, eta oinarrian, bi urte lehenago Japonia iparraldean, Otaru suprefekturan izaniko gertaera batzuk jasotzen ditu. Fresko sozial handi batean giza paisaia ezin hierarkizatuagoa ageri zaio irakurleari. S deituriko herrian, kanpoan bizi den nagusi batentzat egiten dute lan maizterrek arroz soroetan. Igaro da errusiarren kontra-ko gerra (arrastoa ere utzi du komunitatean), hasia da herria aisialdi eta formazio elkarteetan-eta egituratzen (nola ez, boteretik eraturikoak guztiak), badira moder-nitate izpi batzuk (zinema-areto bat), baina funtsean dena dago gertuago Erdi Aroko eskema produktibotik beste ezeretik baino. Landa herriaren eta hiriaren arteko kontrastea, ezin agerikoagoa da. Lana beltz egiten da; lurrak ez du, ordea, nagusiari ordaintzeko adina ematen, eta ate-joka da gosea. Eta ipuin klasikoetan bezala, nagusia ona ez bada, hagitzez bihozberagoa da hark herrian utzi duen administratzailea. Izuaren praktikan laguntzeko, hor du armada, zeina nola beste-la, nekazari txiroenen semez osatua dagoen. Esan gabe doa: dagoeneko ia dena prest dago leherketa soziale-rako. Ia dena diogu, injustizia ikusgarri eginen duen gatazka agertzeko ezinbesteko elementua falta baita oraindik eszenan, Kobayashiren obretan huts egin ezin duen aktantea: irakurketen bidez kontzientzia hartuta gizartea astinduko duen sindikalista.

Hori dena kontatu beharra daukan eskua da Kobayashirena. Eta hala, antzezlan moral gaitz bat da

irakurleari lerroz lerro erakutsiko diona. Mexikoko eta Sobietar Batasuneko iraultzaren kronista izan zen John Reed-en antzera, zinema-aretoko asanbladen beroa azalduko du; Azkoiti eta Azpeitiko 1766ko matxinadaren azterketarik zorrotzena egina utzi zuen Ildfonso Gurrutxaga historialariaren gisara, ondarea nola banatua zegoen erakutsiko du; eta zergatik ez esan, gatazkaren erdian, bi neska-mutil gazteren arteko amodio xaloaren zirriborroa marrazten ausartuko da, ez Txomin Agirrek baino gaiztoago. Paisaiaren (eta bertan urtzen diren andre-gizonen) deskribapen ederrik eginagatik tarteka, ezagun du urgentziazko literaturaren gaitza (aldizkari batean eman zuen aurrenekoz argitara, atalka), dena presaka idatzia balego bezala, lehenbailehen amaitu nahi balu bezala. Nola? Inongo konplexu estilistikorik gabe, eta idazkera postmoderno askok nola, frixtan eta era guztietako materialak erabiliz, izan elkarrizketa arrunt, deskripzio bizkor zein benetako panfletoen zati. Barne-elementuen artean orekarik bilatu nahi ez duen *patchwork* handi bat da nobelatxo hau.

Alde horretatik, eta sakon-sakonean dabilen zaina bera duen arren, bestelakoa da 1928ko martxoaren 15a. Hau ere urte berean eta *Nagusia kanpoan bizi da* bezalaxe aldizkari batean atalka plazaratua, zabaletik estura eginen du Kobayashik, landa-eremu largotik polizia-etxe bateko ziega itora, eta espazioak ez ezik planteamenduak berak behartzen duela esanen nuke nik sakonago aztertzeraz giza kondizioa. Abiapuntua, atzera ere, benetako gertaera bat.

1928ko otsailean hauteskundeak izan ziren Japonian, lehenbizikoak gizonezkoen sufragio unibertsalaren bidez egin zirenak. Alderdi Komunista sorreratik bertatik debekatuta bazegoen ere, haren

babesari esker lortu zuen hainbat alderdi ezkerrekok legebiltzarrean sartzea. Egoerak izututa, gobernua soilik aulki baten aldearekin iritsi zuen Giichi Tanaka lehen ministroa komunisten ehizan zebilen: 1.652 susmagarri atxilotu ziren egun gutxitan; horietako bostehunen bat epaitu ziren hurrengo hilabeteetan. Kartzela zigor larriak ezarri zitzaizkien, eta besteak beste, Nekazarien Alderdia, Japoniako Gazteriaren Liga Proletarioa eta Japoniar Sindikatuen Kontseilua ilegalizatu ziren. Egun haietako giroa da Kobayashik bildu nahi izan duena.

Giroa arras teatrala da ostera ere. Hasieratik bertatik, ezpal zorrotzak pertsonaien karakterizazioan. Sindikatukoak etxeetan biltzen hasten direlarik, gizar-tea aldatzeko ametsetan dabiltza, baina gizonak dira. Etxekoandreaki beldurra ematen diote, itxuratik hasita. Eta hor datoz aurreneko ziriak: «Iraultza sukaldean hasten da».

Alde honetatik, eta irakurleari errepresoreen eta errepresaliatuen arteko auzia gordin agertuko zaiola jakinda, eskertzekoa da Kobayashiren ahalegina pertsonaiei zimurrak aterata, manikeismoa gainditzeko: emakumeek kezka praktikoa agertuko dute borrokaren etekinaz; militanteak arduratuta agertuko dira langileen borrokaren izpi txikiena iristen ez delako kalera; tortura saioen ostean atxilotuak poliziez errukitzen hasten dira hain lan gogorretan jartzen dituztelako...

Tortura baita, azken beltzean, ilunpetatik argitara datorren gai nagusia. *Pedro eta kapitaina* baino mende erdi lehenago argitaratua, Mario Benedettik bere antzezlanean landuko dituen alderdi asko agertzen zaizkigu hemen ere, era primarioago batean planteatua, hori bai. Eta Harkaitz Canok *Twisten* iradoki bezala, azken finean rola zehatz banatuak dituen antzezpen baten aurrean gaudelako, elkarrizketa gogorren lekuko

da irakurlea. Tortura sistematikoa da, mekanizatua dago, ohiko eginbeharra da beren orduak betetzen baino ari ez diren funtzionarioentzat. Eta Kobayashi lañotasunetik umorera dabil kulunka: «Aizu, Ogawa, oso gogorra egiten zait. Jaiegunetan ere deitzen naute lanerako. Neka-neka eginda bukatzen dut».

Bitartean, irribarre garratzez, seguruenik hala izanen zela dio irakurleak bere bostean, horrenbesteko xehetasunez kontatzen zaio dena. Banbu-makilez zigortzen dira gatibuak, orratzak sartzen dizkiete, arkatzak hausten atzamar artean, barruak lehertu arte dauzkate zintzilik, hotzetan uzten dituzte hiltzen. Hain latza da dena non atxilotuetako bat, une batean irakurleak infiltratua izan daitekeela ere sinesten duen Pedro hori, arren eta arren ari zaion bere kapitain partikularrari hiltzeko mesedez, emateko azkena sufrimenduari. Eta Watari, hori baitu izena gizonak, hiru aldiz hiltzen da. Eta gertaera batzuen eta besteen artean, Kobayashi-ren balore betierekoen itzala: kontzientzia hartzearen garrantzia, duintasunaren indarra, zapalduen arteko elkartasuna.

Gauzak zer diren. Nobela labur hau argitaratu eta lau urtera ere ez, Tokko-k, Polizia politiko inperialak, atxilo hartu zuen Takiji Kobayashi Alderdi Komunista klandestinoan sartzea lortu zuen satorrarekin bilera batean zegoela Akasaka-n, Tokioko egungo finantza-barrutian. Bere pertsonaiak bezala, tortura jasan behar izan zuen idazleak. Banbu-makilaz jipoitu zuten, hotzetan eduki, harik eta, bazihoakiela ikusita, ospitalera eraman zuten arte. Hurrengo egunean hil zen. Ohar ofizialak, bistan da, unibertsalak dira, esku berak idazten ditu munduaren lau muturretan: «Bihotzak huts egin zion».

Idazle batzuei, bakan batzuei baino ez, eurek idatzitako fikzioa datorkie bila bizitzen ari direla. Takiji Kobayashi da horietako bat. Asmatzen hasita, ezin osa liteke zirkulu gordinagorik.

Iñigo Aranbarri
Etxauri, 2017ko apirila

***NAGUSIA KANPOAN
BIZI DA***

Nobela hau, Nekazariantzako irakurgai berria bezala, Japoniako bazter guztietako errentari eta nekazari behartsu orori eskaintzen diet. Araki Mataemon-⁸ edo Naruto Hicho-ri⁹ bezala, lurrean etzanda eta lasai irakur dezatela, deskantsatzen.

8 [Itzultzailearen oharra: liburuko guztiak hala dira] Samuraiei buruzko Japoniako nobela klasiko ospetsu bat.

9 Japoniako nobela klasiko ospetsu baten izenburua.

1

«Don, don, don»

Buztinez egindako paretak mapa bat zirudien. Markez pitzatuta zegoen eta horman bermatuz gero, buztin koxkorrak erori egiten ziren.

Yoshizo-k, erdi negarrez, lanpararen kristalezko hodiari distira ateratzen zion. Eskuz eusten zuen hodiari putz egin zion, kristala lausotu egiten zen. Kea sortuko balitz bezala. Gero, egunkari-orri batzuk maruskatu eta hodiaren barrualdea garbitzeari ekin zion. Lan horren ondoren, eskuetan petrolio usaina itsatsita geratu ohi zitzaion. Kea isurtzen ari zen lastozko teilatu erdi eroriaren zirrikituetatik, baita gaizki egindako leihoetatik ere. Kanpora ateratzen zen kea, euri astunarengatik-edo, zuzen gora igo ezinda ari zen, zeharka lerratu eta lurraren gainean zabaltzen zen.

Yoshizok gorrotatzen zuen lanpararen hodia egunero garbitu beharra.

—Atso nazkagarria! Tramankulu zikin hau, puska dadila! —esan eta negarrari eman zion. Atzean, paretako buztin-aleak erori ziren. Urruti, behiaren marru

lasaia entzuten zen. Eta hari jarraituz, beste behi baten marrua entzuten zen. Lanbroa zirudien euri fina eta hotza ari zuen.

—Yoshi! Zer ari zara hor, potrojorran? —esan zion amak etxe barrutik.

—Oraintxe noa!

Ama sutegiaren aurrean, lur hezean makurturik, suari putz egiten ari zitzaion.

Begietan kea sartzan zitzaion bakoitzean, begiak mantalarekin igurzten zituen. Euria gelditu gabe ari zuen. Zurak hezetasuna zuen. Sutegian tarteka sortzen zen garrak, amaren aurpegian distira egiten zuen une batez.

—Piztu azkar lanpara!

Etxe-barrua kez beteta zegoen sutegia bailitzan. Ezin zituen begiak ireki. Yoshizok, apal batean hazta-muka bilatu zuen lanpara jartzeko oinarria.

—Ama, ez dago oliorik.

—? —Ama zutitu egin zen.—Ez dago? Orduan,zoaz Yamarirengana.

—Eta sosak?

—Ez daukagu sosik! Esaiozu uzteko!

Yoshizo, amaren atzean, lanpararen oinarria eskue-tan zuela, joan ala ez erabakitzen ari zen.

—Zoaz, azkar! Kaka zaharra!

—Sosa! —Yoshizok bizkarra paretaren kontra jarri-rik esan zuen.—Bestela ez digu utziko!

—Erosi nahi bai, baina ez dago dirurik!

—Dirurik gabe, ezin da... Ezin da!

—Zoaz! Alde! Azkar!

Yoshizok, amak joko zuelakoan, beti bezala buruan eskuak jarri eta atzeraka egin zuen. Eta zalapartaka atzealdeko atetik atera zen, hanka bat txankletan, bes-tea hutsik.

—Atso nazkagarria!

Momentu batez ate ondoan geratu zen ama nola zegoen ikusteko. Eta isil-isilik barrura sartu eta lurretik txankleta bat jaso zuen. Lur hezearen usaiak sudurrean eraso zion.

Kalera ateratzeko bide estu batetik pasa behar zuen, bazterretako belar bustietan hankak higuinez igurtzirik. Kanean, gutxi gora behera landutako egur puska luze asko zeuden. Argindar-zutoinak ziren. Laster herri honetan ere argiak piztuko ziren. Egunero etortzen ziren argindarra jartzeko langileak beraien erremintekin. Zutoinak herritik gero eta hurbilago zeuden. Herriko umeek egunero kontatzen zituzten, eta eztabaidatzen ari ziren herrira iristeko zenbat falta ziren. Umeak langileei begira-begira egoten ziren egun osoan, lanean nola ari ziren ikusteko.

—Badaukazue arrebarik? Zuetako inork ez du arrebarik?

Umeek, lotsaturik, elkarri bultzaka egin zioten.

—Honek badu! —esan zuen batek— Bai, ezta?

—Ba bai.

—Bai? Eta ederra da? Esaiozu arrebari gauean bisitan joango naizela, ados? Eta umeek irri egin zuten. Gustuko zuten horrela langileen ondoan denbora pasatzea. Iluntzen hasten zuenean, etxerako bidea hartzen zuten, makilaz bide-bazterreko belarra jotzen zuten eta txistuka egiten zuten.

300 metro aurrerago, kaleko bi aldeetan, 30 bat denda zeuden guztira: etxeko tresnak saltzen ziren denda, postetxea, bizartegia, nekazaritzarako lanabesak saltzen ziren denda, hazi-denda, paper-denda-eta. Dendek erdigunea osatzen zuten.

Yoshizok, ile motzeko burua eta sorbaldak euriarekin mela-mela eginda, korrika jarraitu zuen. Teilatupe

batean, hiruzpalau haur «Don-Don»¹⁰era jolasten ari ziren. Yoshizo, lanparako oinarria eskuan, haiengana hurbildu zen.

—Don Don, Don! —batek.

—Don Don, Don! —besteak.

—Teniente koronela haiz? Irabazi diat! Dibisio-jenerala nauk-eta!

—Kaka zaharra! —esan zuen besteak goiko ezpaina mingainarekin igurtziz.

—Don Don, Don!

—Don Don ... Egon. Itxoin, mesedez! —bere txartelak berriz ordenatu zituen.

—Don Don, Don! —batek.

—Don Don, Don! —besteak.

—Kapitain jenerala!

—Eta ni, mariskal nagusia! Begira! —eta besoak goraka altxatu zituen.

—Hara, kapitain jenerala galdu duzu? —beste batek galtzailearen txarteletan begiratu zuen —zer gehiago daukazu?

—Isilik egon zaitez! Ez dut galduko!

Yoshizo pasa zela ikusirik:

—Hara, hor zaude Yoshi! Jolastu gurekin! —esan zion irabazleak.

—Aizu, parte har ezazu!

Yoshizok lagunekin jolastu nahi zuen. Baina, ez zeukan txartelik. Inoiz ez zion erosi. Yoshizo mutu geratu zen.

—Ez al daukazu?

—Zure ahizpa laster Sapporora doa, ezta?

Beste ume bat txiza egiten ari zen kalera begira, goiko arropa zilborra erakusteko moduan igoz.

—Nork esan dizu?

10 Joko japoniar bat.

—Txori batek. Eta lepezuri¹¹ sartuko dela.

—Bai? Lepazuri sartuko da?

—Bai, e! Zure ahizpa, lepezuri? —eta builaka hasi ziren.

Yoshizok ez zuen lepezuri zer zen ulertzen, baina, bat-batean aurpegia gorritu zitzaion atximurka egin izan baliote bezala.

—Zeru gorria, oskorria, iluntzen ari du... —urrunean neskata batzuen kantua entzun zen.

Yoshizo, bat-batean negarrez lehertu zen.

—Utziogu negarrari, mainontzi alaena! —esan eta bultza egin zion sorbaldan Yoshizori. Bultzadarekin lanpararen oinarria lurrera erori zitzaion, eta lanpararen olio apurra lurrean barreiatu zen more koloreko uhinen forma eginez.

—Nik ez dut bultzatu! Nik ez dut bultzatu! —esan zuen mutikoak atzeraka eginez.

—Nik ere ez!

—Aizu, zuk bultzatu duzu!

—Nik ez!

—Nik ere ez!

—Amari esango diot! —Yoshizo garrasika eta negarrez korrika hasi zen kalean barrena. Txankletak kendu, eskuekin hartu eta jarraitu zuen.—Amari esango diot! Amari esango diot!

Ama, etxe atzeko baratze txikiaren ertzean, ume txikienari txiza egiten laguntzen ari zitzaion. Oiloak, baratzeke lerroetan saltoka, inguruari urduri begiratzten zioten jateko zerbaiten bila.

—Begira, hor dabil oiloa... kukurruku, kukurruku... Tira, zuk txiza egin, polit hori. Pzzz, pzzz, pzzz! —zioen amak.

11 Japonieraz prostitutei lepezuri esaten zaie.

—A, a, a, ama... —esanez, indarra egin zuen umeak pozarren.

—Hori, hori... —amak hanketatik eutsi zion umeari.

Orduantxe ikusi zuen Yoshizo herrenka eta esku batean txankletak zintzilik zituela hurbiltzen. Mutila etxean sartu orduko, zarata izugarria entzun zen. Kupilak eta kuboak apaletatik erori ziren. Yoshizok atean estropezu egin eta bere burua lurrera bota zuen. Une berean, Yoshizoren negar-garrasia ere entzun zen.

—Ume zikin hori! Lagunekin haserretu zara?... Eta zuk, txiza egin duzu?

Umeak zakil txikia bustia zuen ihintzaren punta goizean bezala.

—Oso ondo, polit hori.

Yoshizo, lur hezearen gainean buruz gora etzanda jarri zen berriro. Eta ama ikusita, garrasika eta negarrez hasi zen, bueltaka.

S izeneko herria

Yoshizo zotzekin ontziak jotzen ari zen.

—Anaia ez dator —esan zuen. Eta masailak puztu zituen.

Afaltzeko ordua zen baina Ken, Yoshizoren anaia zaharra, ez zen artean etxera iritsi. Antza, baratzeko lana bukatu eta gero, zuzenean joan zen herriaren erdigunean zegoen Gazteen Ikastegira.¹² Kenek armadan sartzeko gaitasun probak egin behar zituen laster. Ken soldadu joatea, hil ala biziko aferak bat zen bere familia pobrearentzat. Justu-justu bizi ziren, eta lan egiteko gai zen seme batek alde eginez gero, are pobreago bizi beharko zuten. Gazteen Ikastegian sartuz gero,

¹² 1926tik 1936ra Japonian egon zen eskola mota bat. Derrigorrezko hezkuntza bukatu eta gero, ez institutura ez lanbide eskolara ez zihoazen mutilei heziketa militarra ematen zien.

armadan denbora gutxiago pasatzeko aukera izango zutela zioten. Horregatik zihoan Ken Gazteen Ikastegira, baratzeke lanean lur jota bukatu eta gero atsedetik hartu gabe.

Ama, ume txiki biluzia bizkarrean harturik, kanpora atera zen. Umeak eskuak bizkarrean zituen eta hankak mugitzen ari zen. Umearen azal xamurrak amari kili-ma egiten zion. Eta amari oso polita iruditu zitzaion.

—Ume txintxo polita zara —esan zion eta erritmo alai batez mugitu zen. Gogoratzen ari zen behin batean umea horrela bizkarrean hartuta zuela, bat-batean batzera erori zitzaiola...

Iluntzen ari zuen eta zelaia urdin-beltz geratzen ari zen. Bizkarrean oilo-azala jartzeko moduko hotza egiten zuen.

Ken eta bere familia S izeneko herrian bizi ziren. Herri hura Ishikari zelaian zegoen kokatuta. Haize gogorrek jotzen zuen beti han. Guztira ehun bat etxe zeuden, binakako edo hirunako multzoak osatuz. Etxe multzo horietako batzuk tren-geltokia zegoen herritik pasatzen ziren. Bidean sokaren korapiloak bezala zeuden: errenkan. Eta beste batzuk soroen tartean ezkutatuta zeuden. Herriaren erdigunean, berriz, bidearen bi aldeetan berrogeita hamar bat etxe zeuden.

Zelai gainetik etortzen zen haizeak herriko erdiguneko etxeetako atea eta leihoak kolpatzen zituen eta hauts handia altxatzen zuen. Haizea zelaian zehar igarotzen zen. Soroetan lanean ari zirela ikusten zuten herrirako bidearen gainean hauts-zurrunbiloa urrutira iristen zela.

Norabide guztietara begira jarrita, mugarik gabeko zelai zabala baizik ez zen ikusten. Neguan are okerragoa zen egoera. Argindar-zutoinak lerro batean ikusten ziren urrutiraino, tente ipinitako pospoloak bailiran,

eta horiek bistatik kanpo, zelai laua ikusten zen, ezeri trabarik egin gabe. Unean-unean, elurraren kontra landatutako makaldi batzuk zeuden, erratz multzoak ziruditenak, haizearekin mugitzen ziren, eta zuhaizti azpiko belardiak ikusten ziren oihal batean egindako zimurrak bailiran.

Herritik bi kilometrotara-edo, lurra Ishikari ibaia-
ren goialderantz inklinatuta zegoen. Ibaitek gertu
kalabaza baratzeak eta artadiak zeuden. Baratzeetako
lerro tarteetan harri handiak zeuden lur gorriarekin
eta hondarrekina batera. Ishikari ibaiak urtean behin,
maiatzean-edo, gainezka egiten zuenean, toki horiek
ur azpian geratzen ziren. Baratzeen bukaeran, landu
gabeko lur sailak zeuden eta ondoan ibaira jaisteko
ezponda. Umeak kanabera hartuta, ibaira jaisten ziren,
gerriraino iristen zitzairen belarraren artetik.

Ibaia-
ren bestaldean hondarrezko malenkonia ze-
goen, eta itxura guztietako baratzeak zabaltzen ziren
koloretako oihal-pusketez egindako mantak balira be-
zala. Nekazarien etxeen teilatuak, gertuko etxekoan
bezalaxe, deformatu ziren.

Emigrazioarako gida

Gaur egun Barruko Japonian,¹³ nork bere lur-saila izatea da errentari gisa lan egitea. Baina Hokkaidora emigratzen baduzu, lur-sail bat emango dizugu errentan, eta bost urtetan lur horren %60 baino gehiago landuz gero, lur-sail horren jabea izango zara. 500 area ala 990 areako lur sail bat izango duzu. Bestalde, ekonomikoki ondo bazabiltza, 200 areako lur-saila soilik 800 yenen truke salduko dizugu. Lanean ahaleginak egiten jarraitzen baduzu, ondo bizi ahal izango zara.

Hokkaidora Emigratzeko Gonbidapena, Hokkaidoko Diputazioa

13 Japoniak lau uharte nagusi ditu: Hokkaido, Honshu, Shikoku eta Kyushu. Lehen, Honshu, Shikoku eta Kyushu Barruko Japonia osatzen zuten. Garai batean Hokkaido Kanpoko Japonia gisa zen ezaguna eta «lurralde berezi» esaten zioten.

Urte batzuen buruan, lurra landu ondoren, arroza, zealak eta barazkiak oparo aterako zaizkizu, eta aberastu egingo zara. Zure txabola egurrezko etxe-bizitza bihurtuko da eta etxeko lorategian landatutako arbolek fruta ugari emango dizkizute. Ondo merezitako aberastasuna lortuko duzu. Zure lur-sailean zure semeak jarraituko du, eta gero zure bilobak. Eta etorkizunean, zure ondorengoek, lur-sailagatik harro kontatuko dute lur hori euren arbasoen lanak atera zuela aurrera.

Luberriketa eta Laborantzarako Gidaliburua, Hokkaidoko Diputazioa

Egia esan, nazio honetan, populazioaren eta janariaren arazoa inoiz baino larriagoa denez, Hokkaido eta Karafuto-ko¹⁴ lurrak lehenbailehen lantzen hasi behar gara. Horregatik orain ez da norberak bere probetxua bilatzeko garaia, nazioaren onerako zerbait egin behar dugu. Gerra-denborako soldaduak bezalaxe, guk orain, luberritze eta laborantza lanetan senperrenak eginez, gure nazioa aberastu behar dugulakoan nago.

Norbait jaunak kontatua

«Produktu enbargoa», «Ez sartu», «Lurra berreskuratzeke eskaera», «errenta garestia» eta abarregatik, Barruko nekazariak, hain estu eta larri bizi zirenek, nola egingo zieten uko horrelako hitz ezteiei? *Emigratorako gida* oso asmakizun ona izen zen.

S izeneko herriaren lurra, orain dela ia 30 urte lantzen hasi ziren. Baina orain, nekazari guztiak bihurtu al dira 500 edo 990 areako lur-sailen jabe? Haien txabolak egurrezko etxe bihurtu al dira?

«Espero dut bidean inorekin ez topatzea»

Ken eta bere familiak ere gidaliburu hura irakurri zuten, eta elurpeko Hokkaidora etorri ziren bizitzera. Haiek ere errentariak ziren, etxean

14 Sajalin uhartearen hegoaldea. Bigarren Munduko Gerrara arte Japonia zen, handik aurrera Sobietar Batasuna, egun Errusia da.

nekazaritza-produktu ugari bazituzten ere, ezin zituzten ukitu ere egin, ezta jateko ere.

Kenek justu gogoratzen zuen gurasoekin jaioterritik atera zeneko eguna. Orain dela hamalau edo hamabost urte. Arreba txikia bizkarrean jasota etxeratu zenean, zer edo zer arraroa sentitu zuen. Ken, arreba bizkarrean lotzeko gerrikoa lepoan, arnasestuka, dortokak bezala luzatu zuen burua.

—Ama, nahikoa da, ezta? —esan zuen.

Ama, soka bat eskuan, urduri zebilen. Aita, berriz, lurrean eserita, erretzen ari zen bestaldera begira. Amak, Ken ikusita, inoiz baino zorrotzago begiratu zion semeari eta esan zion:

—Kanpoan egon zaitez!

Aita isilik zegoen.

Ken berriz ere kanpora atera zen bizkarretik errotzen ari zen arreba gorago jasoz. Erdi negarrez zegoen. Ordubete beranduago itzuli zen etxera. Etxea hutsik zegoen; gelaren erdian, kaxa handi bat eta zapiz bildutako pakete bat zeuden. Aita eta ama surik gabeko sutondoan zeuden eserita. Argi gorrixka ilunaren azpian, aitari masailak gero eta txupatuago geratzen ari zitzaizkiola iruditu zitzaion.

—Azkar ilundu dezala —esan zuen aitak, bere buruari hitz egingo balio bezala.

Ilundu zuenean, paketeekin batera, kanpora atera ziren. Mendian gora igotzen hasi zirenean, hankapean herriko argiak ikusi ziren. Ken, erdi lotan zegoen eta aitak arrastaka zeraman semea. Haran ilun sakonean haizea zebilen, zarata izugarria ateratzen zen. Ken une hartaz ondo baino hobeto oroitzen da, txikitant entzundako ipuin zaharrez bezalaxe.

—Espero dut inorekin ez topatzea —errepikatzen zuen aitak hamar pauso eman berritan.

Aitak berrogeita hamar bat urte zituen eta kolkoan Hokkaidora Emigratzeko Gida zeukan.

Hokkaidoko Diputazioak aipatzen zuen lurra (lur horren %60 baino gehiago landuz gero lur hori zurea izango da!) tren-geltokitik 80 edo 120 kilometrotara zegoen. Beraz, lurretik ateratako produktuak merkatu-raino garraiatzeko diru asko ordaindu beharra izango zuten eta ondorioz irabazia urria izango zen. Hori gutxi balitz, Hokkaidoko negua, Robinson Crusoeren kasua baino tristeagoa zen! Negurako ezin izaten zuten jakirik gorde eta udaberrian ere soroak elurpean egoten ziren. Nekazari batzuk gosez hil ziren. Izan ere, Ishikariko, Kamikawako eta Sorachiko¹⁵ lur emankor ugari, gobernuak oso merke saldu zizkien aristokrata ohiei eta jende dirudunari, Hokkaido aurrera eramateko aitzakiarekin. Beraz, non sartu ziren emigratu zuten nekazariak? Kushiro eta Nemuro¹⁶ aldean soilik. Han lurra soberan zegoen, zohikatzez beteta zegoenez inork ez zuen nahi, ezta oparitura ere.

«Luberriketarako diru-laguntza» zelakoa eman zien gobernuak, baina diru hori ez zen inondik ere nahikoa. Familia osoa Barrutik hara joan eta bizitzen jartzeko gastua ordainduz gero, urtebeteren buruan ahituko zitzairen. Azkenean, banketxeari interes baxuko mailegua eskatu behar izan zioten, nola edo hala bizi ahal izateko. Lur antzua lantzen bospasei urte pasa zituzten, baina orduan zorrez leporaino, itotzeko moduan zeuden nekazari etorkin guztiak. Eta lur emankorretan zer gertatu zen? Dirudunek lur emankor ugari oso merke erosi eta gero, nekazari etorkinei utzi zieten errentaren truke lantzen, eta lana ondo eginez gero, lurraren erdia dohainik emango zietela hitz eman zieten. Baina,

15 Denak Hokkaidoko eskualdeen izenak.

16 Kushiro eta Nemuro ere Hokkaidoko eskualdeak dira.

nekazariak lurra ondo landu arren, lur-jabeek ez zieten euren hitza bete nahi izan.

Kenen aitak, Hokkaidora etorri eta bi urte pasa ondoren, bere lurra utzi egin zuen. *Hokkaidora Emigratzeko Gonbidapenak* sortu zion itxaropena desagertuta zegoen. Beste erremediorik gabe, aita Kishino izeneko jauntxoaren landetxean hasi zen lanean errentari gisa.

—Jornalaria izatea baino hobea da!

Nagusiak kanpoan bizi dira

Lehen, herri guztietan, errentarien txabola erdi erorien artean, nagusiaren etxearen hormak nabarmentzen ziren kurriloa bezain zuri. Pobreen eta aberatsen arteko desberdintasuna izugarria izaten zen. Baina hori aspaldiko kontua zen. Orain, Hokkaidoko nekazari herrietan, nagusiak ez ziren bertan bizi. Ez zeuden herrietan. Izan ere, nekazari herrietan, ez zegoen kultur ekitaldirik; simaurren eta abereen kaken usaiez beteta zeuden. Nekazari zahar, konkortuak besterik ez zeuden; nork bizi nahi zuen toki horietan? Jakina, nagusiak ez zuten kulturarik gabeko herri pobreetan bizi nahi, lehengo nagusiek ez bezala. Eta, beraien orde zoroiez eta errentariez arduratzeko administratzaile bat jarri ohi zuten. Sistema horrekin, nagusiak Tokion ala Otarun ala Sapporon egoten ziren, hirietan beraz. Eta errentak kontatzeaz soilik arduratzen ziren. S izeneko herria ere horietako bat zen.

Kishinoren landetxearen sarreran, zinkezko oholekin estalitako egurrezko etxetxo bat zegoen: hura zen administratzailearen etxea. Administratzailea Yoshimoto deitzen zen.

Lehenengo aldiz etorri zenean, errentariak bildu zituena eta esan zien:

—Jabea kanpoan den bitartean, ni lur-jabetzat hartu behar nauzue.

S herriko lur-sail jabetzaren zerrenda:

19.834 area	Udalarena
14.876 area	Unibertsitate batena
11.900 area	Yoshiokarena (bizitokia: Asahikawa)
49.585 area	Kishinorena (bizitokia: Otaru)
19.834 area	Babarena (bizitokia: Hakodate)
20.826 area	Katayama Bizkondearena (bizitokia: Tokio)
29.715 area	Korekiyo Takahashirena (bizitokia: Tokio)
14.876 area	Bost nekazarien lursailak batuta

Polizia-agentea eta Yamari jauna

Herriko erdigunean, S Herriko Gazteen Elkartea eta S Herriko Neska Ezkongaien Elkartea zeuden. Herriko eskolaren ondoan, Formazio Etxea zegoen eraikia. Bertan, bilerak egiteaz gain, antzerkiak eta bestelako kultur ekitaldiak antolatzen zituzten. Eskolako zuzendaria Formazio Etxeko lehendakaria ere bazen. Lehendakariordea, berriz, Yamari jauna zen. Tresna-denda bat izateaz gain, bertako militarren elkarteko lehendakaria ere bazen. Elkartean herriko polizia-agente bakarra eta Kishino landetxeko jauna zeuden ohorezko aholkulari gisa.

Gazteen Ikastegia ere, Formazio Etxearen eraikinean egiten zuten, arratsaldeko 7etan.

Polizia-agentea, bi egunetik behin tren-geltokia dagoen H herrira joaten zen bizikletaz. Gizon gazte otzana zen, eta errentarien artean ere izen ona zeukan. Bide bazter batean txiza egin ohi zuen, bizikleta bertan utzita, ezpata gerrian zintzilik. Lanean ari ziren nekazari errentariak hori ikusten zuten. Libre zegoenean, nekazari errentarien etxeetara joan eta hizketan aritu ohi zen. Baina, behin Kishino landetxeko errentariak beraien errentari buruz hitz egiteko alkatearengana joan zirenetik, polizia-agentek utzi egin zion errentariekin harremanak izateari. Eta zurrumuruak zabaldu ziren: Kishino jaunak polizia-agenteari dirua ematen ziola.

Kenen amak, zurrumurrua entzundakoan, aspalditik ezagutzen zuen polizia-agentea gorrotatu zuen.

—Ze norberekoa den! —zioen. Hala ere, zurrumuru hori ukatu nahi zuen, Ishida polizia-agentea ez zela horrelakoa.

Ishida, berriz, geroztik Yamari jauna eta Yoshimoto administratzailearekin batera sarri ikusten zuten paseatzen.

Yamariren dendan, nekazari errentariak zorra zeukaten. Nekazariak ez zuten dirua hileroko edo astero jasotzen, askoz gutxiagotan baizik, eta horregatik gauzak beti zorretan erosi behar izaten zituzten. Urtean bitan-edo kobratzen zien Yamarik, eta hor zegoen gako. Adibidez, labana bat erosi eta bertan ordainduz gero, berrogeita hamar sen¹⁷ kobratzen zien. Baina ordainketa gerorako utziz gero, berrogeita hamazazpi edo berrogeita hemezortzi sen kobratzen zien. Guztia modu horretan saltzen zuen. Nekazariak bazekiten

17 *Sena* izan zen Bigarren Mundu Gerrara arte Japoniako moneta. 1946tik aurrerakoa Yen Berria da.

hori, baina etxeko tresnak saltzen ziren denda bakarra zenez, beste irtenbiderik gabe, salneurri horretan erosi behar izaten zuten. Horrela, hiru urte ere ez ziren pasa Yamari dendaria ederki aberastu zen arte. Yamari dendariak armiarmak bere sarera harrapakinak ekartzen dituen bezala, nekazari pobreak bere dendan bildu eta hor lotzen zituela ematen zuen.

Halako batean herrian Kreditu eta Salerosketa Kooperatiba sortu zutenean, ordea, Yamari dendariari arazo larria sortu zitzaion. Kooperatiba horretan gauzak askoz merkeago eskura zitzaketenez, nekazariak Yamariren dendan erosketak egiteari utzi eta kooperatibara joaten hasi ziren. Baina Yamari ez zen isilik geratu. Nekazariari esan zien «nire dendan ez badituzue erosketak egiten, esker-tzarreko horiek, daukazuen zorrak berehala ordaindu beharko dituzue!» Hori entzunda, nekazari errentari bihotz-onekoak kikildu eta izutu egin ziren. Ondo pentsatuta, Yamariren dendan erosketak ez egitea oso esker txarrekoa zela pentsatu zuten.

Yamarik esan zuen diruz ordaintzea zaila egiten baldin bazitzaien, zerealez ordain zezaketela. Nekazariak handizkariari saldutako prezio berarekin erosten zizkien Yamarik zerealak. Horrela, zorrak kobratzeaz gain, hartutako zereal horiek saltzen zituen; horrela, bikotza irabazten zuen.

Yamari dendariak titulu asko zeuzkan: «Tokiko militarren elkarteko lehendakaria», «herriko garbiketara saileko burua», «heziketako aditua»... Nekazariak miretsi egiten zuten... Errentariak, Yamari dendariarekin topo egiten zutenean, bide bazterrera alboratu eta alkateari edo eskolako zuzendariari baino arreta handiagoarekin agurtzen zuten.

Gazteen Ikastegian, berriz, Yamari dendariak formazioari buruzko hitzaldiak ematen zituen.

Ilunpeko bidea

Ken eta gazteek Gazteen Ikastegian entrenamendu militarra bukatu ondoren, Yamariren hitzaldira joan behar izan zuten. Nekatuta zeudenez, hitzaldian lo hartzen zuten askok. «Gazteen eginbeharrak», «pentsamolde onak», «nekazari izateko harrotasuna»... Yamariren hitzaldiak beti berdinak izaten zirenez, inork ez zuen entzuten.

Kanpora ateratakoan, lo kuluxka egin ondorengo gorputzari hotzak gogor egin zion eraso. Lanbroa gelditu eta ateri zegoen, baina bidean zihoala gomazko zapatak lohiz zikindu zitzaizkion. Iluntasuna erabatekoa zen, zerua ez zen ikusten. Eta I-k burua lurraren mailan zeukan, norbaiten oinpean izango balu bezala. Euriz bustitako belardiak distira egiten zuen noiz behinka.

—Bukatu al duzue lehenengo txandakoa? —galde-tu zion atzetik Shichinosukek. Kenek logure handia zeukan.

—Ez, oraindik ez. Langileak falta zaizkit.

Norbait apropos bezala hasi zen ahozabalka.

—Ken, zu soldadu joango zara?

—Beharbada ez. Baina, agian bai.

—Daukazun gorpuzkerarekin, ez zara joango? Beraz, Gazteen Ikastegira ere ez daukazu joan beharrik.

Orduan, isilik zegoen Takeda hasi zen:

—Soldadu joateko epea mozteagatik Gazteen Ikastegira joaten bazarete, oker zaudete!

«Beti bezala hasi da» pentsatu zuen Shichinosukek eta barregurari eutsi zion. Takedak jarraitu zuen.

—Zertarako dago Heziketa Ikastegia? Ba, soldadu joango direnak entrenatzen ari diren bitartean, gainontzeko gazteak potrojorran ez aritzeko! Horregatik jarri zuten Gazteen Ikastegia. Soldadu ez direnek ere ikasi behar dutelako militarren diziplina.

—Beraz, gure Gazteen Ikastegia ez da batere serioa... ezta? —Shichinosukek Takeda imitatu zuen, bide bazterrean txiza eginez. Belarretan, txizak zarata handia atera zuen.

—Bai—erantzun zuen serio Takedak.

Beharbada, nekazariak edozein langile baino goizago jaiki eta lanean aritzen dira makurtuta, hala ere, hirietako bazterretan bizi ziren korearrak baino bizi-modu negargarriagoa daramate. Hala eta guztiz ere, nekazari herrietako gazteak kaskarinak direla esango digute? Lan gehiago egitera behartu nahi gaituzte? Eta ondorioz zer lor dezakegu? «Utziok astakeriak esateari!» pentsatu zuen Kenek.

—Shichi, noiz zoaz Otarura?

—Ba, laster.

—Laster?

Ken triste jarri zen Shichik urrutira joan behar zuela pentsatzean. Kenek maite zuen neska, Kinu ere Sapporo-ra joana zen liho-lantegian lan egitera. Baina, hortik urtebete pasa gabe, taberna batera pasatu zelako zurumurrua iritsi zitzaion Keni.

Lagunak isilik geratu ziren. Pausoak eman ahal lurreko lohiak ateratzen zuen zarata baizik ez zen entzuten. Arroz-soroko azalak distira egiten zuen kristalezko taula bat bailitzan.

Shichinosuke, hutsaren peskizan, kantu askoren lehen notak txistukatzen ari zen. Zerbait zerabilen buruan.

—Sangoren soroan ez dituzte etekin onik ateratzen
—esan zuen Shichinosukek belar bat lurretik ateraz.

—Zorte txarrekoa da Sango.

Sangok, berea ez zen zohikatzez beteriko lurretik etekinak ateratzeko, senperenak egin zituen bere osasuna sakrifikatuz. Ondorioz, udalak eta diputazioak sari bat eman zioten, esanez «nekazari on gisa, lan ugari eta ahalegin handiak egin dituzu. Saria merezi duzu nekazari guztien eredu zarelako.» Kishinok lurjabeari eskatu omen zion Sangori emateko saria.

Sariaren agiria marko batean jarri eta kez belztutako paretan jarri zuen Sangok. Handik bi hilabete pasa gabe, Sango neuralgia gaiztoak harrapatu zuen. Minaren minez, ohean ezin zuen bueltarik eman. Ohean etzanda jarri ondoren, goizaldera arte minez sufritzen zuen. Sango, iher eta lehorra geratu zen lasto-sorta bezalaxe, eta ezin zuen jaiki. Ohean etzanda, egunak sari-agiriari begira pasatzen zituen.

Egoera hori, ordea, ez zitzaion Sangori bakarrik gertatzen. Higashi-Sansengo nekazari bat, Itoren andrea, arroz-soro hotzean lan egin eta gero, gerritik gaixo jarri zen. Hiru hilabetez minez egon ondoren, herrenka ibiltzen zen.

Batzuetan, Yoshimoto administratzailearen etxean bildu ohi ziren nekazari errentariak. Denek hezurdura sendoa eta esku lodiak zeuzkaten, baina, batzuk gerritik gaizki zeuden, eta beste batzuk bizkar-hezurretik. Gorputz-atal bat edo bi gaizki zeukaten. Denek.

Herriko erdigunearen kanpoaldean, soro arteko bidezidor bat hartu zuen Takedak, besteak agurtuz.

—Ken, Takeda zitala, Yamariren dendara joaten omen da —esan zuen Shichinosukek, txistua jotzeari utzirik.

—Bai...

—Eta, ba al dakizu Kishino Otarutik etorri eta Gazteen Ikastegian eta Gazteen Elkartean muturra sartzen ari dela?

—Bai?

—Abek eta Banek esan didate. Zerbait daukate esku artean.

—Tira... —Kenek ez zekien garbi zertan ari zen bere nagusia. Baina, asmatuko lukeela iruditu zitzaion.

«Ai! Ze beroa! Ze beroa!»

Ken etxeko atzealdera joan zen zangoak garbitzera. Lurrezko pasabidetik pasatzean, oin-zolak hoztu zitzaizkion. Kenen oin-hotsak entzunda, amak esan zuen:

—Ken, zu al zara?

—Bai —ahopeka erantzun zuen Kenek. Kimonoaren behealdea jaso, eta bankuan jarri zen. Zalditegitik las-toaren usain hezea zetorren.

Yoshizo, lanpara pean ahuspez etzanda, eta hankak zabuka, bospasei orri besterik ez zeukan liburu iruidun zaharkitu bat ari zen ikusten, hatz bat miazkatu eta orriak pasatzen zituen.

—Arreba, irakurri hau mesedez —esan zion Yoshizok arrebari. Arreba kuxin bat josten ari zen sutondoan.

—Ergela zara gero! —arreba izutu zen, oihala eskuan, hatz bat agora eraman zuen— Ergela! Orratza-rekin ziztatuko dizut hatza!

Yoshizok, barkamena eskatuz bezala, arrebari begiratu zion.

—Arreba, aizu, txakur honi zer gertatuko zaio?

—Nola jakingo dut nik!

—Aizu!

—Zaude isilik!

—Aizu, mesedez! Bestela bihurrikeriatan ibiliko naiz!

Ken, sutondoan jarri zen hankak gurutzaturik. Haztak sarde bat bezala erabiliz, burua hazkatu zuen.

Etxe barruko sabaia eta paretetako oholak belztuta eta distiratsu zeuden luzaroan jaso zuten kearengatik. Sabaiko habe eta enborretatik zintzilik zeuden kedarrak haizearen eta beheko suaren indarrarekin mugitzen ziren. Gelako lanpara bakarra erdian zintzilik zegoen. Lanparak itzal borobila ematen zuen eta sabaiko habearen argizko zirkulu bat marrazten zuen. Lanpara mugitzean, bere itzala ere mugitzen zen. Norbait lanpararen ondotik pasatzen bazen, bere itzal beltz handia leihotik ikus zitekeen, zurezko leihoaren markoak deformatuta. Lanparak zaratatxo bat egiten zuen eta olioaren xurgatzen zuen. Noiz behinka argitasun nahikoa ematen zuen, baina beste batzuetan, ilunago jartzen zen bat-batean, xukapaperrak argitasuna xurgatu izan balio bezala.

—Lehen Abe eta Ban etorri dira.

—Bai? Zertarako?

—Aizu anaia, zein da indartsuagoa, txakurra ala otsoa? Txakurra ezta?

—Herriko bideari buruz hitz egitera etorri dira. Bidea konpontzeko, aurten ere udalak ez duelako dirurik jarriko.

—Aurten ere ez... Udalak konpontzen ez badu, zergatik deitzen da Herriko bidea? Iseka egiten digute! Aurten ere udazkenean arroza garraiatzeko gastu handia ordaindu beharko dugu...

—Anaia, txakurra indartsuagoa da, ezta?

—Eta zer egin nahi dute?

—Denbora daukagunean, denon artean konpondu beharko dugula. Udalak ez dauka-eta dirurik.

—Anaia, txakurra da, ezta?

—Zaude isilik! —garrasika esan zion bat-batean.—
Beti bezala, gu zapaltzen gaituzte! Gure ahulgunea
aprobetxatzen dute! Udalak ez badu ezer egiten, dena
gure kalterako da! Badakite dirurik ez dagoela esaten
badute, azkenean guk geuk egin beharko dugula. Zine-
gotzi guztiak lur-jabeak dira! Nahi dutena egiten dute!

Behin, S herrian nekazari errentariak udalaren kon-
trako auzia ipini zuten. Hokkaidon, udala lur askoren
jabea zen, eta udalen lur-sailetan nekazari errentari
asko ari ziren lanean. Horregatik, askotan izaten zen
udalaren kontrako auziren bat. S herrian, zinegotzi
guztiak lur-jabeak zirenez, epaitegiak errentarien alde
egin zuen gogor.

—Bihar Yoshimoto administratzailearekin hitz egin
behar dugu.

Hortzetako tinta¹⁸ erdi joanda zeukan amak. Gaine-
ra hortzeria gaizki zeukan, eta hortzen artean arroz ale
zuri bat ikusten zitzaion.

—...

Kenek, amuarraingazitua sutan jarri eta erre egin
zuen. Eta gari eta arroz egosiari ur beroa bota eta jan
zuen.

Lanpara pixka bat mugitzen hasi zen, kanpoan
haizea zebilen. Horman guztien itzal handiak isla-
tzen ziren, lanpararen agindupean handitzen eta
txikitzen ziren.

Yoshizo, erdi lo zegoen sutondoan hankak luzatuta.

—Ama, zer da itakoa? Gaur Yamarirenera itakoa eto-
rri da, eta aitaren arima jaitsi omen du. Eta esan omen
du aita hil eta gero, orain suaren eraso jasaten ari dela.

—Benetan?

18 *Ohaguro* deitzen da gizon eta emakume aristokrata ezkonduak eta samuraiek bereziki izan zuten hortzak beltzez tindatzeko tradizioa. Mendebaldeko eraginarekin desagertu zen.

—Itakoa, atso zahar bat da, ezta? Atso zaharra! Yamarirenean *aburaageak*¹⁹ egiten ari ziren itakoari emateko.

—Orduan *oinarisama*²⁰ izango da.

—*Oinarisama* azeri-jainkoa da, ezta? Azeria! —esan zuen bat-batean oihuka Yoshizok.

—Bai.

—Bai, ezta? —erabaki zuen Yoshizok—Katzuren semea Yoshi, txakurrarekin Yamarirenera joan zen, eta errieta egin omen zioten!

—Jakina! *Oinarisama* ez da txakurrekin joateko toki bat! —arrebak.

—Yamarireneko andrea, negarrez ari zen «senar gizajoa» errepikatuz, begiak gorri-gorri zeuzkan!

—Jakina! Jakina! Gizajoa!

—Aizu, anaia, azeria... —une horretan, sutondotik txinparta bat atera zen ziztu bizian, nora eta Yoshizoren kalabaza formako zakilera.

—Ai, ai, ai, ze beroa! Ze beroa!

Yoshizok liburua bota eta atzeraka erori zen. Kimonoaren aurrekaldeak haizea eman zion. Negarrez eta garrasika hasi zen:

—Ai, ai, ai, ze beroa!

—Begira! Suaren jainkoa haserretu egin da, bere aurpegi parean zakila jarri duzulako!

Keik, Yoshizoren arrebak, iseka egin zion egurrezko erregelarekin bizkarra hazkatzen:

—Hobe zakila galduko bazenu!

—Nazakagarria zara! Lepazuria! —Bota zion Yoshizok negar-zotinka. Inoiz entzun gabeko biraoa entzunda, denak Yoshizori begira jarri ziren.

Ama, bat-batean Yoshizo buruan jotzen hasi zen.

¹⁹ Tofuarekin egindako janari tradizionala. Azeriek gustuko dutela esan ohi da.
²⁰ Bi esanahi ditu: tenplu txiki bat ala arroz egosia ozpinarekin.

—Entzun al duzu Ken!? Ez dakit non ikasten dituen, baina egunotan horrelako birao asko esaten ditu ume honek!

Erregela bizkarrean, aurpegiko kolorea aldatu zitzaion Keiri ezustean. Aurpegia gero eta zurbilagoa eta gogorragoa zuen.

Une horretan, tupustean, Kei Yoshizo erregelaz jotzen hasi zen, hortzak estutuz, hitzik esan gabe. Jotzen zuen bakoitzean, erregelak haizearen kontra zarata ateratzen zuen. Eta negarrez hasi zen.

—Bihar goizeko hiru eta erdietan-edo soroa jorratzera joan behar dugu, berandutzen ari zaigu-eta... —baina, Kenek ezin zuen lokartu. Etxaurretik norbait igaro zen bide lokaztuan zarata ateraz. Ken altxatu egin zen. Argirik gabeko lurrezko pasabidetik, kontu handiz, sukaldera joan zen. Konketako ura eskuz hartu eta edan zuen. Zalditegian zaldiaren buztanak gorputza jotzen zueneko soinua entzuten zen.

Burusiaz tapatu zuen bere burua. Handik gutxira, malgukiak laxatuak izateagatik gaizki zebilen hormako erlojuak mantso-mantso jo zituen zazpiak.

2

S herriko Mutualitatearen inaugurazioa

Pareko hormaren goialdean *Tennoren*²¹ argazkia zegoen.

Formazio Etxearen hormetan, *Tennoren* argazkiaz gain, Nogi²² kapitain-jeneralarena eta Saigo²³ jaunarena zeuden, baita Japonia eta Errusiaren arteko gerratearenak eta odolez zikindutako bandera militar zaharkitu bat marko batean jarrita. Tribunaren ezkerrean, modaz kanpoko hiru eskopeta zahar zeuden apaingarri gisa jarrita. Nogi kapitain-jeneralaren historiarekin beti gozaten zuten nekazariek, hainbeste aldiz entzunda ere.

Eszenatokian, Sko mutualitatearen inaugurazioaren programazioarekin batera, bi eslogan zeuden ezker-eskuin. Batak, «Itsasoa, soroa, mendia eta basoa ustiatu baino lehenago, ustia dezagun geure arima» zioen, eta besteak, «Burujabetza espiritua, obediencia zuzena eta laguntasuna!».

21 Japoniako enperadoreari *Tenno* esaten zaio, eta Erromako Inperioko enperadoreari, berriz, *Koutei*.

22 Mareske Nogi (1849-1912): militar ospetsua. Japonia-Errusia Gerran arrakasta handia izan zuen.

23 Takamori Saigo (1928-1977): politikari eta militar ospetsua. Japoniako modernizazioan parte hartu zuen.

Zeremonia bukatzerakoan, trago bat hartzeko auke-ra zegoenez, inoiz baino nekazari gehiago bildu ziren. Tren-geltokia dagoen H herritik ere etorri ziren. Neka-zari-errentari gehienek Sko edo Hko jauntxoekiko urte bateko ala biko zorra zutenez, hartzekodun bakoitzari agurrak eta eskerrak ematen ibili behar izaten ziren. Errentari bat arroz-saltzaile handi bat agurtzera joan zen, eta patxadaz galdetu zion:

—Zer moduz aurtengo uzta?

—Tira, ba momentuz, nahiko ondo... denoi esker... —esan zion errentariak, hitz bakoitzean burua markurturik. Abe eta Ken begira zeuden. Kenek ere zorrak zeuzkan. Giro hartan hartzekodunak agurtzea kome-ni zitzaion. Gainera, soldadu joateko deituko baliote, diru gehiago eskatu beharko zuen. Etxean, aita gaixo zegoen eta soroko lana egiteko ama bakarrik gera-tuko zen. Ken, kasualitatez, bere hartzekoduna zen jauntxoaren ondora joan zen, eta agurtu zuen. Agurtu ondoren, gorri-gorri jarri zen. Ken errentarien eredu-tzat zeukatenez, X jaunak ere gogo onez agurtu zuen. Aretoan, konturatu gabe, landetxe berean lan egiten zuten errentariak elkarrekin eseri ziren. Horrela, lur-jabeen arabera taldeak osatuz ari ziren hizketan. Nahiz eta landetxe berekoak izan, errentariak oso gutxitan izaten zuten elkarrekin biltzeko aukera. Eguzkiak erretako esku eta lepo sendoak ez zihoazen ondo gutxitan jazten zuten jaietako arroparekin. Pitzatutako eskuan zigarroa lagun, edozein gairi buruz hitz egiten zuten: emazteari buruz, arrozen haziei buruz, ilarrari buruz, *azukiari*²⁴ buruz, eguraldiari buruz, bizitzari bu-ruz, lur-jabeari buruz...

Horrelako lekuetan zerbait erretzekotan, zigarroa erre behar zutela pentsatzen zuten errentariak. Eta *Bat*

24 Japoniako lekale mota bat; Euskal Herrian ere gero eta ezagunagoa da.

markako zigarroa²⁵ erretzeko moduak salatzen zuen ez zeudela zigarroa erretzera ohituta.

Tartean bazen gazteen talde bat, aretoaren bazter batean bildutakoa. Gazte haiek gauetz Hra parrandara bizikletaz joateko ohitura zeukaten. Eta herriko neskekin ligatzen ibiltzen ziren. Inguruko jendea kontuan hartu gabe garrasika, oihuka eta barre-algaraka ari ziren etengabeko hizketan. Batez ere neskei buruz ari ziren. Haietako batzuk gradurik gabeko betaurrekoak zeuzkaten jantzita, eta beste batzuk zetazko zapi beltzak zituzten lepoan. Haiek, ordea, Gazteen Elkarteko ekitaldietan eta herriko jaietan, inork baino lehenago parte hartzen zuten, lan handia eginez. Izan ere, neskekin brometan aritzeko egoera proposak ziren.

Umeak korrika zebiltzan harrapaketan jolasean. Helduen gainetik salto egiten zuten, helduen artean erortzen ziren, helduen artean korrika pasatzen ziren zalapartaka zebiltzan, gustura asko. Noiz behin-ka, errieta egiten zieten, baina segituan hasten ziren berriz ere korrika, irrintzika. Aretoa tabako-keak bete zuten, eta sabaiaren erdian lainoa bezalako geruzak osatu ziren.

Abe-san²⁶

—Otarura joatea erabaki diat —esan zion Shichinosuke Keni, Aberekin zeudenean.

—Lantegi batean hasiko nauk. Izeba bat zeukaat Otarun, gainera... Baina, Ken, horrek ez dik esan nahi nekazaritzarekin nazkatu naizenik, eta ez zeukaat

25 Garai bateko tabako marka bat ezaguna. Ingelesezko *bat* –saguzar-izena zuen.

26 *-san*: japonierazko errespetuzko atzizki bat ingelesezko Mister eta Miss-en parekoa. Lagunen artean gutxiagotan erabiltzen da. Helduagoekin erabili ohi da: Abe, Ken eta Shichinosuke baino helduagoa denez, «Abe-san» deitzen diote.

hirian arrakasta soziala izateko asmorik. Abe-sanekin hitz egin nian, eta ondo pentsatuta erabaki diat...

—Bai... —Kenek bazekien.

—Kanpotik hobeto ikus daiteke gure herria nola dagoen —esan zuen Abek beti bezalako ahots baxuarekin eta doinu lasaiarekin. Kishinoren landetxean zerbait berezia izaten zenean (ume bat jaio zela, baten bat hil zela, errentarien afera zela, errentari buruzko negozioak zirela) beti Abe arduratu ohi zen, beste errentariarik eskatuta. Berak eraman ohi zuen gauzak konpontzeko neke handiena. Berrogeita bat edo bi izango zituen, eta inoiz ez zen zakar portatzen, inoiz ez zuen garrasirik egiten. Oso gizon lasaia zen, batzuetan lasaiegia.

Beti ahapeka hitz egiten zuen, ahoa ia ireki gabe.

Shichinosukek esan ohi zuen barrezka:

—Abe-san gelako txoko batean egonez gero, inor ez da konturatuko, eta berak ere hor isilik jarraituko du.

Herrian familia aurrera eraman behar izaten zuten edadeko gizonezkoek —berrogei, berrogeita hamar bat urtekoek— askoz bizitza serioagoa zeramaten, parrandan ibiltzea gustuko zuten gazte kaskarinekin alderatuta. Errentari-gatazka izaten zutenean, haiek ziren lan egiten lehenak eta kementsuenak, nekazarien sindikatuan lanean ari ziren gazteen ostean. Abe horietako bat zen.

Abek, Asahikawako nekazarien sindikatukoek ekartzen zituzten Sindikatuko Berriak eta Proletarioen Egunkaria irakurtzen zituen: arroz-sorotik irtendakoan, hankak lokatzez zikinduta garbitu gabe, estufaren ondora hurbildu eta hantxe eserita. Egunkari bat irakurtzeko egun batzuk pasatu ohi zituen, letra bakoitza ondo irakurriz, bihi ale txikiak banaka-banaka jasotzen ariko balitz bezala. Hariz konpondutako betaurreko puskatuak janzen zituen irakurtzeko.

Abe, hegala okertuta zeukan lastozko kapela gorritzatua buruan, soroko bide zidorrean, makurtu samar, ibiltzen ikusi zuen. Inork ez zuen pentsatzen «halako gizon bat jauntxoek kontra jarriko zenik» esan zuen Yoshimoto administratzaileak.

Gazte eredugarria

—Begira, Takeda harro-harro dago, kondekorazio gorria paparrean! —Shichinosukek tribunalaren aldera kokotsa altxatu zuen. Abe, ezer esateke, irribarrez zegoen.

—Aizu Ken, barregarria da, bai Gazteen Elkar-tean, baita Mutualitatean ere Takeda burugogorra eta beste gazte neskazale kaskarinak kondekorazioarekin saltoka dabilzala! Berez, Ken, zu bezalako gazte eredu-garriari eman beharko lizkieke dominak!

Ken, ustekabea, goibel jarri zen.

—Txiste bat da, txiste bat! Kar kar kar...

Ken aspaldi saritu zuen udalak gazte eredugarri gisa. Artean osasuntsu zegoen aita, sari-agiria eskuan, pozarren, etxean zer egin ez zekiela hara eta hona zebilen. Ken bera ere oso pozik zegoen egin izan zituen ahaleginarengatik saritu zutelakoan.

Baina handik gutxira, Kenen lagun zahar batek —txikitan eskolan elkarrekin ibilitakoa, eta udaletxeko langilea zen orain— esan zion:

—Lehengoan, herrira Kishino etorri zenean, Yoshio-karekin ari ziren udaletxean hizketan eta esan zion «gaur egun, nekazari gazte batzuk pentsaera erradikala izateko joera daukate, eta lur-jabe handiok kezkatuta gaude».

—Kenen lagun hori tea ateratzera joan zitzaionean, entzun omen zuen haien elkarrizketa. Yoshiokak zera

proposatu zion Kishinori: «sariren bat ematen badiegu, pozik jarraituko dute soroko lanean. Bestela, gaizki bukatuko dugu».

Eta Kishinok esan omen zion:

—Luxuzko sari bat egingo dugu urrezko apaingarriekin-edo. Eta gehiegizko zeremonia solemne bat antolatuko dugu. Hartara nekazari inozo horiek pozarren lan gehiago egingo dute.

—Ez da egia izango?

Ken eskolako zuzendariak fidatzen zenez, harengana joan eta entzundakoa kontatu zion.

—Horrelako tontakeria ezinezkoa da. Zuk gurasoak ondo zaintzen dituzu eta lanean ere ahalegin handiak egin izan dituzu. Horregatik saritu zaituzte, merezi duzulako! —esan zion zuzendariak. Kenek «Jakina! Egia da!» pentsatu zuen.

Bakarrik Abek esan zuen lur-jabeek eta haien esanetara zegoen udalak asmatutako azpijoko maltzur bat zela.

—Are pobreago izanez gero, hobeto ulertuko genuke «gazte eredugarria» izatea zer den.

Orduan Kenek pentsatu zuen denak jeloskor zeudela, baita Abe ere.

Baina, gero, aita gaixo jarri ondoren, etxean langile bat falta zenez, lan eta lan ibili eta gero (uzta eskasa ozta-ozta atera zuten urteetan), irabazi gutxi horiek guztiak lur-jabeek eramaten zizkietela ikusita, gero eta lanerako gogo gutxiago izaten zuen. Jada ez zuen garai bateko grina. Etsipenak eta gogoeta ilunak hartua zuten Ken. Sufrimendu hori amaierarik gabekoa iruditu zitzaion.

—Hau al da gazte eredugarriaren bizitza? —gogoratu zuen lehenago Abek esandakoa.

Geroztik, «gazte eredugarria» deitzen zioten bakoitzean, gorri-gorri jartzen zen Ken.

Takeda

Zeremonia hasi egin zen.

Hasierako agurrak Takedak egin zituen. Takeda, beti bezala, panpinazko soldadua bezala tente jarri zen oholtza gainean, eta hitzaldi bat emango balu bezala, ahots serioarekin hasi zen. Ezohiko esamolde konplexu batzuk erabili zituen, gainera eta iltzeek bezala jo zituzten nekazarien belarri-gingilak.

—...krisialdi honetan denok elkarrekin egon behar gara kanpotik datozen pentsamolde erradikalen eta hiriko bizimodu ustelen kontra! Eta elkarri laguntzeko ahaleginak egingo ditugu kementsu! Modu osasuntsuetan, gure herria aurrera eramango dugu.

—...gaur, Asahikawako dibisiotik Watanabe kapitaina etorri zaigu gure ohorerako. Eta landetxetik, Yoshioka jaunaren ordezkari Matsuyama jauna, eta errentarien administratzaile bezala, ni neu. Hemen, denok elkartasunean bilduko gara eta herrian etekin handiak aterako ditugu.

Shichinosuke, Takedaren hitz bakoitzari iseka egiten ari zen.

—Takeda, txikitari bihurria baino bihurriagoa zena, nola dagoen orain! —bota zuen ironia osoz.

—Asko ikasiko zuen —aipatu zuen Kenen aurrean zegoen errentariak.

Shichinosuke, «ikasi» hitza entzundakoan, barrez lehertu zen.

—Bai ederki ikasi duela! Gure nagusia eta X jauna poztu egingo dira! Hau bakea! Lasaitasuna!

Shichinosuke horrelakoa zen, Ken ez. Nekazariak normalean ez zeukaten umore puntua zeukan, eta hitz-jokoekin eta txisteak kontatzen trebea zen oso.

Lur-jabearen ordezkaria

Kishino, landetxearen jabearen ordezkari Matsuyama jaunak ireki zien atea. Matsuyama jaunak bere itxurarekin bat ez zetorren haurren antzeko ahots mehe bat zeukan. Gainera, hitz egiten ari zela askotan eskua sudur-ondora eramaten zuen. Hori ikusita, nekazariak gutxietsi egin zuten gizon hura. Shichinosuke kontatzen ari zen gizon hark eskua zenbatetan eramaten zuen sudur ondora «zazpi... hamaika...» eta lagunei barrea eragiten zien. Matsuyamak zioen:

—Lur-jabea eta errentariak, aita-emeak bezalakoak dira. Edo beste era batera esanda, burua eta eskuak bezalakoak dira. Esan nahi dut, bien arteko harremanak estuak direla, eta biek elkarri laguntza emanaz lan egin behar dutela. Bestela, gure jaki garrantzitsuena den arrozik gabe geratuko ginatke. Gaur egun, errentariarekin gatazkak izaten dira han eta hemen, baina herri honetan behintzat, horrelakorik gerta ez dadin nahi dut. Horretarako ere, elkarte honek balio izango duela espero dut —hitzaldiaren haria galtzen zuen batzuetan eta nola edo hala bukatu zuen lur-jabearen ordezkariak.

—Ados. Hala nahi izanez gero, errenta jaitsi ezazue!
—esan zuen norbaitek umoretsu. Beste guztiek atzera jiratu eta barre egin zuten.

Sassa aitona

Zeremonia izaten zen bakoitzean, bukatu ondoren, kopa bat hartzeko aukera izaten zen. Edateko egokiera hori inoiz galtzen ez zuten horietako bat zen Sassa aitona. Eta kexatu zen:

—Aspertuta nago. Atera dezatela edatekoa lehenbailehen!

—Bai, bai, ados nago, Sassa aitona! —dibertitzen ari zen Shichinosuke.

—Asper-asper eginda nago!

Sassa aitonak beti sake hotza edaten zuen taza erdi puskatuan, piper lehortua janez. Hori zuen pikatzeko gustukoena. Mozkortu ondoren, ahots garratz ozenarekin kantu lizunak zatika kantatuz, balantzaka etxeratu ohi zen. Edozein etxetan, Sassa aitona bisitan joaten zenean, sakea ateratzen zioten. Ez bazeukaten sakerik, Sassa aitona nabarmenki urduritzen zen, umea bailitzan, eta sorbaldan tristezia lagun, etxerako bidea hartu ohi zuen.

Sassa aitona, batzuetan gaez kalera ateratzen zen eta goizaldera arte ez zen itzultzen. Behin batean, mozkor-mozkor eginda, arroz-soro batera erori, eta lo geratu zen makila ustela bailitzan. Bila joan zenak esnatu nahi zuen, baina zoriontsu jarraitu omen zuen lo.

—Putatekin ohean balego bezala dago lo!

Sassa aitona, hala ere, politikari zegokionean herriko jakintsuena zen. Tokyo *Asahi* eta Hokkai *Times* egunkarien harpideduna zen (herriko erdialdeko jendea alde batera utzita, harpidedun bakarra zen), eta garai hartako politikarien —Hamaguchi, Tanaka, Tokonami, Hatoyama eta abarren— berri asko zekizkien. Bere aldameneko familiaz baino askoz informazio gehiago zuen! «Aurki Tokonamik hau eta bestea egingo ditu, eta ondorioz, Tanakak hori eta bestea egingo ditu»

eta abar, esaten zuen, ziur asmatuko balu bezala. Bera Seiyukai-ren²⁷ alde zegoen.

Behin batean Abek galdetu zion:

—Aitona, zergatik zaude Seiyukairen alde?

Eta aitonak erantzun:

—Onena delako! Onena nekazarietzat, gainera. Seiyukaik ekonomia hobetuko du eta ondorioz lanpostu asko sortuko dira.

—Seiyukairen alde zaudela jakinda, Elkartean laguntza ederra emango dizu, aitona! —esan zion txanxetan Shichinosukek.

—Hala bedi! Hala bada Seiyukairen alde egongo naiz beti!

Militarren pentsamoldea herri nekazarietan ere zabaldu behar da

Hurrengo hizlaria, Watanabe Kapitaina izan zen.

Militar txapela besazpian zuen. Belaunetarainoko boten ezproien zarata lagun, oholtza gainera igotzearekin batera, ordura arte hizketan ari zen publikoa isilik geratu zen. Hala ere, segituan hasi ziren berriz xuxurlatzen; umeak hitz eta pitz hasi ziren kapitainaren sorbaldetako galoietako izarrei eta ezpatari buruz. Beste batzuk eztabaidatzen hasi ziren. Helduak so-roan lanean ari zirela, militar bat edo beste igarotzen zenean, lana utzi eta bistatik galdu arte haiei begira egoten ziren. Militarrei zegokienez, bai umeek, bai helduek berdintsu jokatzen zuten.

Kapitainaren hitzaldiaren izenburua *Herri nekazarietako izpiritu militarra* izan zen. Armadan zeuzkaten agindu zorrotzak, arau zuzenak eta aginte-sistemari buruzkoa. Adibide asko azaldu zituen, horiei esker,

27 Garaiko alderdi politiko bat (1900-1940). Zentro eskuinekoa, isolazionista, ongizate estatuaren aldekoa, gobernu ardura handiak izan zituen.

Japoniako armadak inoiz atzerritarrek menperatu gabe jarraitzen zuela eta horregatik, izpiritu militar horiek herri nekazarietan ere zabaldu behar zirela ondorioztatu zuen. Eta gaineratu zuen, kanpotik iritsitako pentsaera gaiztoak gazte jendea harrapatuz gero, estatutu horretako ordena guztia hankaz gora jarriko zela, eta horrelakorik gerta ez zedin, izpiritu militarra nekazarien artean zabaltzea beharrezkoa zela.

Takeda eta besteak, oholtza gaienari Kapitainaren hitzaldia noiz bukatuko zain zeuden. Eta bukatu bezain agudo, inor baino lehenago hasi zen Takeda txaloka.

—Aizu, Abe-san —esan zion Aberi errentari batek atzetik.—Zer da «kanpotik sartutako pentsaera gaiztoa» delakoa? Denek aipatzen duten hori?

—Ez dakit, ba... Herri honetan ez da egongo... —esan zuen Abek eta gaineratu zuen txantxetan bezala, beste gai batez arituko balitz bezala.—Hala ere, errenta jaisteko eta jaisteko esaten temati jarraituko bagenu, lur-jabea haserretu eta pentsatuko luke guk kanpoko pentsaera gaiztoak hartu ditugula —eta ahoa ireki gabe barre egin zuen Abek.

Takeda, berriz igo zen oholtzara, eta azaldu zien nolakoak izango ziren elkartearen helburua, izaera, ekitaldiak eta bazkide izateko baldintzak. Takedaren azalpenaren ondoren, ikuskizun batzuk izan ziren: *Biwa-jotzaileen*²⁸ saioa, *rakugoa*²⁹ eta *Otaru Egunkari*ko edadeko kazetari baten hitzaldi moral bat. Horiek guztiak bukatu eta gero, sakea atera zieten.

—Zenbat denbora egon garen horren zain!

—Txakurra bezala egon gara!

Urdailera sake beroa isurtzen imajinatzen, gero eta egarri handiagoa sentitu zuten nekazariak. Izan ere, gutxitan edaten zuten sakea.

28 Musika tresna tradizional bat. Gitarraren antzekoa.

29 Japoniako ahozko tradizioko jenero bat.

—Gaur ez omen daude neska gazte zerbitzaririk.

—Egia ote da? Ze pena!

—Takedaren ideia izango da! Gazte eredugarria izateko!

Hala ere, emazteak eta paparrean lorea zeukaten zerbitzariak sakearekin sartu ziren, eta gizonezkoak pozik jarri ziren.

Takedak, eskailera bat ekarri eta hormaren goialdean paper bat jarri zuten denek ondo ikus zezaten:

18 litro sake	Eskolako zuzendariak eskainiak
30 yen	Kishino jaunak eskainiak
Dozena bat botila garagardo	X jaunak eskainiak
Dozena bat botila garagardo	Yoshioka jaunak eskainiak
Ehun esku-oihal	H herriko alkateak eskainiak
10 yen	Soma jaunak eskainiak

Elkarte honen inaugurazioa ospatzeko eskaini dizkiguzue bihotz onez eta eskuzabaltasunez. Bihotz-bihotzez eskertzen dizuegu.

Mutualitateko administratzaileak

—Hara!

—Nola gastatzen duten dirua! Banengoen, ba!

—Eskertzekoa da, benetan.

Kopak eta sake-ontziak txin-txin hotsa ateratzen ari ziren.

Elkarteko administratzaileak, gonbidatuak eta hizlariak gero landetxeko administratzailea zen Yoshimotoren etxera joan ziren. Eta han jende pobrerik gabeko bankete bat izan zuten. Htik neska zerbitzari

batzuk etorri ziren bizikletaz. Goizaldera arte parrandan zeuden. Neska zerbitzariak ere han geratu ziren.

Abe, Ken eta beste lagun batzuk lehenago atera ziren kalera. Zeru urdin-ilunean, goi-goian, izarrek dizdiz egiten zuten. Irteeratik urruti samar, batzuk txiza egiten ari ziren. Haien ondotik pasatzean...

—A, Abe! —Banek deitu zion ahots garratzez. Ken eta Shichinosukek burua makurtuz agurtu zuten. Ban, Aberengana hurbilduz ahapeka esan zion:

—Ikusi duzu ezkutuko asmoa! Jar zaitetz hangoekin kontaktuan, segituan!

Ken, isilik zegoen, baina, erabaki zuen halako batean Aberekin hitz egin behar zuela.

3

Sada triste zegoen

—Eta?

—...

Sada hitzik gabe gelditu zen.

Ken ere isildu egin zen. Isilik jarraitu zuten bidean.

Egunez eguzkitan zegoen sorotik haize epela zertorkien, eta masailetan jo ondoren, atzera joan zen. Aurrera joan ahala, igelak ere isilik geratu ziren, baina, atzetik berriz hasi ziren korroka.

—Zer gertatzen zaizu?

—...

—Zer?

Sadak isilik zirauen. Bere profila makurtua zuri-zuri ikusten zen ilunpetan.

—Ibai aldera joango gara?

—...

Kenek ibai aldera jo zuen, eta Sadak jarraitu zion. Txantxetan, ukalondoan bultza egiten zionean, barrezka hasten zen Sada, baina une hartan, beherantz begira eta gorputza gogortuta zeukala zirudien. Neska hitzik

gabe geratzen zenean, Kenek ez zeukan irtenbiderik. Inguruko etxeetan, kearekin eltxoak kanporatzen ari ziren leiho irekietatik. Etxe batean, beheko arropa besterik ez zeraman emakume bat ikusten zen lurlean etzanda. Arrats sargoria zen. Ibai ondorako belarditik pasatzean, hosto meheek aurpegian jo zuten. Xuxurlak entzuten ziren han eta hemen. Bikote batzuk izango ziren. Bigarren jorraketa bukatu ondoren, denbora librean zeukaten.

Ibai ondora atera zirenean, elkarriketa ozen bat eta zaldia garbitzearen zarata entzun ziren behekaldeetik. Hondarretara jaitsi eta lurmuturrera joan ziren. Han sua egiten ari ziren. Arrantzan ari ziren eta arrainak toki batean biltzeko asmotan, sua hartutako egur puskek ibaira botatzen ari ziren. Egurrek, txinpartak botatzen zituzten eta airean arku gorri bat marraztu zuten ibaira botatzean. Uretan isla garbiak uzten zituzten.

—Polita da.

Orain, Ken isildu zen. Isiltasuna nagusitu zen

—Haserre zaude? —galdetu zion Sadak.

Sada horrelakoa zen. Hitz eskax horietan ageri zen Sadaren nortasuna. Tupustean, maitagarria iruditu zitzaion, eta haserre balego bezala, neskaren sorbaldeetatik eskuekin heldu eta besarkatu egin zuen. Ondorioz, hanka-puntak hondarretan sartu zitzaizkion.

Sadak, beti bezala, ezpain estu itxiak pixka bat hurbildu zizkion Keni. Neskaren ezpainetan arrain usaina sentitu zuen Kenek.

—Zer jan duzu? Garbitu ezpainak!

Sadak, aurpegi serioarekin, ezpainak igurtzi zituen maukarekin, umetxoa bailitzan.

Belarrak zapaldu eta hor gainean eseri ziren. Gertuko suaren eraginez, urruneko zuhaiztiko itzalak garbi ikusten ziren gorri-beltz.

—Ken, gustuko duzu Abe-san?

—Harekin ez ibiltzeko esan nahi duzu, ezta?

—...

—Zuk ere hitz egin beharko zenuke Ban-san edo Abe-sanekin... Ni ere hasieran...

—Biak jatorrak dira. Baina, lehengoan mutualitateari buruzko paperak banatzen ibili ziren, eta ni, geroztik...

Mutualitatearen benetako helburua zein zen? Horren atzean nortzuk zeuden? Gauza asko ezkutuan zeudela eta errentariak ez zitzatela engainatu jartzen zuen paperean.

—Oso esker-txarrekoak direla diote haserre, hainbeste mesede izan ondoren...

—Nor dago haserre?

—...

—Zu ere Aberekin haserre zaude? ...Bai!?

—Denok gaude haserre.

—Tonto alaena!

Biak hitzik gabe geratu ziren, egoskor.

—Aizu, Sadatxo —hitz egiteko tonua aldatu zuen Kenek— Sadatxok nahi du ni gazte eredugarri bat izatea, ezta?

Kenek Sadari batzuetan zu esaten zion, eta beste batzuetan Sadatxo. Sadak bazekien zerbaite serioa kontatu nahi zuenean soilik deitzen ziola Sadatxo.

—Badakit ez duzula egingo tontakeriarik, baina triste nago.... Jende guztia zutaz gaizki esaka hasiko litzatekeela uste dudalako...

—Baina Sadatxo, Kishino landetxean, inork ez du gaizki hitz egiten ez Abe-sani buruz, ezta Ban-sani buruz ere.

—Jakina, oso jatorrak dira eta... Hala ere, Abe-sanengatik urrutiratzen hasi dira...

—Errentari ez direnak, beharbada bai. Gu errentariak gara.

—Aldatu zara...

—Ez al zenuen espero gazte eredugarri batek horrelakorik esatea? —Kenek bere buruari barre egin zion mespretxuz—Gazte eredugarria! Gazte eredugarria!

Sadak tupustean gora begiratu zuen.

Sua itzali zuten, eta ilunpetan geratu ziren. Ur gainean, noizbehinka, hotsa entzuten zen, txipli-txapla, txipli-txapla... Arrainak ziren.

—Egunen batean ulertuko duzu... Tira, berandu egin zaigu. Itzuliko gara.

Ken altxatu egin zen eta jantziaren aurrealdea astindu zuen. Belar hezearen usaina sudurrera sartu zitzaion. Sada geldi zegoen, eserita.

—Etxera, ezta? —esan zion Kenek berriro. Sada jaiki zen.

—Itzuli behar dugu?

Ken belarra apartatuz ibiltzen hasi zen.

*Harantzago, Herritik kanpo, ehunka kilometrotara...*³⁰ txistuka jotzen ari zen norbait.

—Takeda izango da txistuka doana. Goazen bestaldera. Gazte eredugarri hark ikusten bagaitu... —esan zuen Kenek, eta barrez lehertu zen.

—Aizu, mesedez, ez errepikatu «gazte eredugarria» kontu hori! —esan zion Sadak goibel.

Sada triste zegoen. Ken ikustean, beti poz handia sentitzen zuen, zerbaiten esperoan. Hala ere, ez zekien garbi zergatik, eta beti bukatzen zuen zerbait falta zela sentitzen. Keni barrua hotza zeukala iruditzen zitzaion. Horrek ematen zion tristezia.

³⁰ Soldaduen abesti zahar bat.

Herrirako kalera jiratu zirenean, ondoko belarditik emakume baten barre isila entzun zen, norbait kilika egiten ariko balitzaio bezala. Baina Ken eta Sadaren oin-hotsak entzunda, isilik geratu zen. Ondoren, belarra bereizteko hotsa entzun zuen.

—Aizu, Sadatxo... egun hauetan jendea iji-aja bizi da, ligatzen eta nahi duena egiten, hala ere polizia isilik dago. Badakizu zergatik? Zergatik daude denak hain pozik gaueko ordu hauetan? —Neska-mutilak ondo pasatzen ari zirela ikusita, hunkitu egin zen Sada.

—Lur-jabeek eskatzen omen diote poliziarri nekazariekin gogor ez jokatzeko.

«Emoziorik gabeko mutila da hau!» esan baina Sadak ez zion entzun.

—Hemen ez dago zinerik, ez *soba*³¹ jatetxerik, ezta aisialdirako ezer ere... Gazte jendea aspertzea normala denez, neskekin ligatzen uzten diete bederen. Zer iruditzen zaizu? —esan eta barre egin zuen Kenek.— Ze lur-jabe bihotz-onekoak gureak, ezta?

—Eta Abe-sanek esaten du... «Abe» aditu orduko nazka-aurpegia jartzen duzu... Ba, Abe-sanek Otaruko lantegian lan egiten zuenean, lantegiko bazter batean botata zegoen hari puska batekin kanpora ateraz gero, segituan kalera bidaltzen omen zituzten, lapurrak zirelakoan. Aldiz, gizonezko langileek emakumezkoak haurdun uzten dituztenean, ez omen diete ezer esaten.

—Ez da egia izango?

—Entzun. Arrazoia hau da: neskekin ligatzea debekatzen baldin badiete, erreta bukatzen... —Kenek esaldia bukatu baino lehenago, Sadak barreari eman zion.

—Kaka zaharra! —Ken mutu geratu zen. Baina segidan hasi zen hizketan—. Lana gogorra egiten zaienean,

31 *Soba* espagetiaren moduko janari tradizional bat da.

segituan joko dute sindikatura. Hori ez zaie kome-
ni nagusiei. Horregatik uzten diete neskekin ibiltzen,
bederen.

—Ondo pentsatuta daukate. Eta orduan, adminis-
trazzaileek-eta egindako Neska Birjinaren Elkartea,
zertarako izango da?

Kenek, Sadari bizkarra emanda, ahotsa goratu zuen:

—Horren atzean maltzurkeria dago! Azala behin-
tzat polita jarri nahi dute. Neska txintxoak zaretela, eta
mutil eredugarriak garela goraipatuz, zapaltzen gaituz-
te. Ederki ari dira.

—Ez dut ulertzen.

Tren-geltokia zegoen H herritik kotxe zahar bat ze-
torren karrika batetik herriko erdigunera, kapota aske
zeukan, eta auto-argi zurbilak zabuka zituen. Etxe
baten atarian, txistua jo zuten ozenki, bezeroak era-
kartzeko. Yamariren dendako atea norbaitek ireki zuen
zaratarekin, eta ziztu bizian atera zen kalera.

Ken eta Sada, kale nagusitik sororako bidezidor ba-
tera sartu ziren.

—Gero eta zailagoa egingo zaigu iluntzean elkar-
tzea —esan zion Kenek bereizterakoan.

Sadak, ezer esan gabe, ezpainak estutu zituen.

Ken etxera joan eta ohean sartu zen; lokartzen ari
zela, atariko ateak herdoilaren zarata egin zuen.

—Kei zara? Zertan ibili zara orain arte? —esan zion
amak, beroarengatik lo egin ezinda zegoen. Kei, berriz,
amari erantzun gabe sartu zen. Kortxo ondoan, gerri-
koa askatzen ari zeneko zarata besterik ez zen entzun.

4

«Gezurti alaena!»

Ishikari ibaiaren goialdean, zerealak eta arroza garraiatzeko ontzi motordunak igotzen ari ziren, pan! pan! hotsa egiten zuten. Zarata horiek, noizean behin, oso urrutiraino iristen ziren.

—Hara, ontzi motorduna da! —errentariek soroan zutik jarririk entzuten zuten.

Yoshizo, herriko errepidean korrika zihoan. Gerrikoaren korapiloa sabel ondoan zeukan (berez atzean egon beharko litzateke), eta lokatzez zipriztindutako tripa zikina bistan zuen, indar guztiarekin ari zen korrika. Ontzi motordunaren hotsa entzun zuelako. Ume batzuk, arroz-soro arteko pasabideetan zetozen korrika. Yoshizo korrika zihoala, haien figura txikiak ikusten ari zen. Halako batean herriko errepidean elkartu eta batera hasi ziren korrika.

Umeak ibai ondoan eseri ziren hankak zabuka. Ibaia bihurri zihoan, isilik eta ezkutuan bezala. Sakona zen.

Ontzi motordunaren zaratak entzuten ari ziren, baina artean ez zuten ezer ikusten. Halako batean, ontzi

urdina azaldu zen. Zeru urdinean ke borobil gardena botatzen zuen bizkor. Balantzaka eta hain mantso zertorenez, ez zekiten aurrera egiten ari zen ala geldi zegoen. Atzean txalupa bat zeraman. Umeak, eskuak eta hankak azkar mugituz, txolarre talde bat bezala ari ziren denak batera «Aupa! Aupa!» oihuka hasi ziren.

Ontzikoek lemazainaren gelatik eta makina gelatik txanoari eraginez agurtzen zituzten. Umeak poztu egin ziren, eta berriz hasi ziren «Aupa! Aupa!» oihukatzen.

—Aizu, ontziaren zarata hori —esan zion Yoshizok aldameneko lagunari, haren eskua hartu eta bere paparrera eramanez.— Nire bihotza taupadaka ari da, ezta? Bi soinuak berdinak dira! Ontziaren bihotzaren hotsa da beraz! Hala esan zion arrebak.

—Bai, ezta?

—Gezurti alaena!—esan zuen hirugarrenak.— Motorraren hotsa da!

—Motorra? Garbigailuaren hotsa da! Ez ontziarena da! Sasi-jakintsu hori! —kontra egin zion Yoshizok.

—Hori, hori! —Bazterrean zeudenak Yoshizoren alde jarri ziren.

Eztabaida txiki bat izan zuten.

Une horretan, S herriaren goialdean, su festa batzuk ikusi ziren. Uda gorriko zero urdinean, goi-goian, etxafuegoak lehertzen ziren, birritan, hirutan, eta gero oihartzuna zetorren bueltan.

Yoshizo eta lagunak pozarren saltoka hasi ziren irrintzi eginez.

—Aizue, berandu egiten bazaigu, gaizki!

Denak hasi ziren etorritako bidean atzera itzultzen. Atzean geratzen ari zirenek oinetakoak kendu zituzten.

Kishino jauna, bere andrearekin eta alabarekin batera, landetxera etortzekoak ziren egun hartan bertan.

Tokion bizi ziren lur-jabe aristokratak ere noiz behinka Hokkaidora etortzen ziren, hartzak ehizatzen joateko, errentariak eta herritarrak morroitzat harturik.

S herrian, egun hartan, bai alkatea, bai Yamari jauna, bai eskolako zuzendaria, denak ari ziren zalapartaka Kishino familiari ongietorri egiteko prestaketetan.

Lur-jabea, bere andrea eta alaba

Bi kotxe zetozen herriko errepidean abiada handiz, atzean hareazko ke erraldoi bat sortuz.

Kishinoren landetxeko errentari guztiak, guztira ehun eta hamazazpi edo hemezortzi, errepideko bi aldeetan zeuden ilaran. Hirian beste lantxo batzuk zeuzkatenek ere, jai hartu zuten-eta, herrian geratu ziren ugazaba eta bere familiari ongietorri egiteko.

Bero egiten zuen. Denei gerrian zintzilik zeukaten oihalak izerdia xukatzen zien.

—Lan handia daukagun garaian etorri gero, hobe...

—Bai, lanean jo eta ke ari garela ikus dezatela, ezta?

—Hori, hori.

—Andrea emakumeentzako unibertsitate batean ikasitakoak omen da.

—Unibertsitatean? Emakumeentzako? Tira, tira...

—Oso andre jantzia eta prestua omen da.

—Aizue, hori ezinezkoa da! Emakumeek unibertsitatean ikastea? Ezinezkoa da. Ez dago emakumeentzako unibertsitaterik. Eta ez da egongo!

—Hori da, nahiz eta azkarra izan...

Errentariak, taldeetan, txotxolokeriak esaten ari ziren.

—Kishino jauna bihotz-onekoa balitz, askoz gogo handiagoarekin lan egingo genuke.

—Ez du ulertzen langileen sentimendua, ez baita inoiz lanean ibili!

—Aldi honetan gu abisatu gabe etorri dira... Lehenago jakin izan bagenu, bilera bat egin eta gure eskaera guztiak paperean jarrita emango genizkioke. Hurrengoan, horixe egin behar dugu.

Abe, ezer esan gabe entzuten ari zen. Abek ondo zekien zergatik ez zien esan lehenago administratzaileak Kishino jauna eta familia bisitan etortzekoak zirela. Duela bi urte, administratzaileak hanka sartze bat egin zuen; orduan, bezperan ez, baizik eta askoz lehenago abisatu izan errentariei lur-jabea etortzekoa zela. Hori entzunda, errentariek bilera egin eta lur-jabeari kexak eta eskaerak azaldu zizkieten. Horrek arazo handia sortu zuen. Administratzailearentzat eskarmentu ederra izan zen. Horregatik, oraingoan, errentariei ez zien bilera egiteko astirik eman.

Autoen atzeko hautsen artean ume batzuk korrika zihoazen, lastozko txankleta gastatuak jantzirik. Autoa mantso hasi zen. Umeak bola handi bat bailitzan autoan zintzilikatu ziren. Autoa administratzailearen etxearen aurrean gelditu zen gasolina-usaina botatzen.

Kimonoaren mauka bat eskuan hartu eta behelaldea ondo itxiz, andrea airos atera zen autotik. Autoan ibiltzeko ohitura zuela ematen zuen.

—Ai, kotxe kaxkarra! —esan zuen, dotoreziaz betondoa zimurtuz.

Ondoren, udako kimono garestia jantzita, Kishino jauna atera zen banbuzko kapela eskuan. Horren atzetik alaba azaldu zen krema koloreko soinekoa jantzita. Bigarren autoan, bila joan ziren alkatea, eskolako zuzendaria, administratzailea eta Hko polizia komisarioa zihoazen.

Errentariek, bakoitzak bere moduan, gerria makurtuz agurtu zituzten.

—Ongi etorri, ongi etorri...

Sassa aitonak, kotoizko oihalarekin aurpegia igurtziz, gerria makurtu zuen. Gorputz osoan sake-usaina zeukan. Jende artera atera eta jendearekin harremantetan jartzeko beti sakearen laguntza behar izaten zuen.

—Oso sasoiko ikusten zaituztet! Hori da onena! Gogor eutsi lanari!

Errentariak, ugazabaren hitz bakoitzean gerria makurtzen zuten. Sassa aitonak, bere aurpegia ukabila bailitzan zimurtuz, losintxazko irrifarra zeukan ezpainenetan.

—Lan handia egiten ari zarete —esan zuen ugazabandreak. Soro zabalera begira jarri zen eta arnasa hartu zuen.

Errentarien emazteak eta alabak, ugazabandreaki eta alabari begira zeuden, erabat liluratuta. Haien atzetik zihoazen, haien jantziei buruz elkarri komentatuz. Hokkaidoko herri nekazarietako errentarien emazte eta alabek, ordea, ez zituzten sekula jantzi horiek ikusi, ezta ukitu ere. Modaz kanpo geratutako aldizkari zaharkituetan soilik ikus zitezkeen. Hala ere, beraien ugazabandrea hain dotore eta xarmagarri izatearekin harro sentitu ziren.

—Aizu, txora-txora eginda zaude! Zure onera etorri behar duzu! —esan zion Banek emazteari bizkarrean zaplada bat emanez.

—Zer moduzkoa izango da aurtengo uzta? —galdetu zion Kishino jaunak administratzaileari, arroz soro ertzean makurturik eta arroz-landarearen burua ukituz. Garai bateko lur-jabeak ez bezala, Kishinok ez zekien ezer laborantzari buruz; urtean zenbat errenta jaso behar zuen baizik ez zekien.

—Erdipurdi, oraingo. Bigarren jorraketa garaian, nahiko ondo zihoan. Baina hil honen hasieran zomorro kaltegarriak sortu ziren eta... Iaz uzta oso gaizki atera

zen, eta aurtan zerbait berreskuratuko balute ere... ezer gutxi irabaziko dute. Erabat akituta daude...

—Tira... eta zer moduz dago arrosa?

—Ba... oraingoz... ez dago jakiterik udazkenara arte. Biak ala biak oso baxu ari ziren hitz egiten.

—Arreta handiz ibili behar duzue. Bestela...

—Bai, bai, jakina!

—Tira.

Egia esan, Kishino beldurtuta zegoen. Izan ere, errentari batek bizkarrean bultza zezakeen eta sorora bota. Hori imajinatuz, edozein zaratarekin edo edozein mugimendurekin izutu egiten zen. Hala, ehun bat metro ibilitakoan, izerdi patsetan zegoen. Hala ere, ezer gertatuko ez balitz bezala, duintasuna mantentzen saiatu zen.

—Txanda honetan ez didate eskaera-zerrenda eka-rriko, ezta?

—Lasai, oraingo honetan, ez diet bilera egiteko astirik eman.

—Ados —esan zion Kishinok, «Lasaitu egin naiz!» gehitu gabe. Eta buruaz baietza eman zion lasai asko. Eskuan zuen arroz-burua sorora bota zuen, soroko ur gainean zirkulu txikiak zabaldu ziren bata bestearen atzetik arroz-kanaberen artean.

—Aizu, nekazariak beti uretan aritzen zarete lanean, ezta!?

—Bai, hala da, andrea.

Bizpahiru soro-sailetatik ibili ondoren, soro batean, Kishinoren alabaren adineko neska gazte bat ari zen lanean, belaunetaraino uretan, buruan zapia eta horren gainetik lastozko kapela jantzirik. Lokatza aurpegian zipriztintzen zitzaion bakoitzean, maukarekin kentzen zuen.

—Bai hankekin, bai eskuekin... nahiko lan!

—Ez, ez, ez da ezer. Bost axola zaigu —esan zion, losintxazko irribarre eginez.

—Aizu, eskolarako, arroz landare batzuk eraman nahiko nituzke.

Hori entzunda, errentarien emazteak eta alabak denak batera joan ziren arroz-kanaberak hartzera. Administratzaileari alabak oso ondo egin zuela iruditu zitzaion: «Ba, ederki egin du neska horrek!» esan zuen.

Emakumeek gerria makurtuz landareak eskaini zizkioten.

—Eskerrik asko —esan zien Kishinoren alabak, eta emakumeen eskuak ikusi zituen. Eskuak? Hauek eskuak dira, ala? Alabak «Hara!» esanez, ustekabeen ahoa eskuarekin estali zuen.

Soro guztiak ikusi ondoren, Kishinotarrak eta herriko agintariak, oso gustura, administratzailearen etxera erretiratu ziren.

Ban-san

Arratsean trago bat edatera gonbidatuta zeudenez, errentariak pozik etxeratu ziren bizpahiru laguneko taldeak osatuz.

—Aizu, Abe! Izerditan bukatu dut! —esan zion zakar Banek ahots garratzez, nekazariak erabiltzen ez zuten modu batean. Abe beti bezala, isilik, irribarre egin zuen. Ken haien atzetik zihoan aurpegian urduritasuna zeriola. Ban eta Aberekin beti ibiltzen ziren lauzpabost lagun. Beste batzuk Kishinotarrei buruz ozenki ari ziren.

—Haien jantzi finak, guri esker lortzen dituztela konturatu beharko lukete! —esan zuen Banek.

Aurrean zihoan nekazari batek atzera jiratu eta esan zion Bani:

—Kar kar, dena garbi esaten duzu.

Hori entzunda, Ban bera ere «kar kar» hasi zen, barre-algaraka.

Banek gauzak argi eta garbi adierazteko ohitura zeukan, eta horregatik begitan hartua zeukan Kishinok. Administratzaileak, noiz behinka proposatzen zion Bani errentaria izateko eskubidea erosi beharko zuela, hartara nekazari independentea izateko. Proposamen hori, azk en finean, Kishinoren lurretik Ban botatzeko trikimailu bat besterik ez zen. Eta, Ban isilik zegoenean, nahi izanez gero administratzaile jarriko luketela proposatu ohi zioten. Banek, halere, beti «kar kar» batekin erantzuten zien beti eta administratzailea etsita itzultzen zen.

—Aizu, Katsumi, despistatuz gero, barrabiletako ilea ere Kenduko digute! —esan zion Banek aurrean zihoanari, eta berriz ere barre-algaraka hasi zen.

—Kar kar! —Bestea ere hasi zen barrez.

—Aizu, Ban-san —esan zion Abek ezer aipatu gabe egon eta gero.—Arratsean administratzailearen etxera joaterakoan, nire etxetik pasako zara mesedez?

—Ados.

Banek kimonoaren behealdea jaso eta hanka iletsuak agerian utzi zituen. Eta hankak alferrik mugitzen eta harri-koxkorak hankarekin jotzen ari zen.

Nobegen

—Aizu, Ken —deitu zion atzetik Nobegen ezizeneko mutil altuak.—Haietako batekin oheratu nahiko nuke!

—Alajaina! Hoalakoak pentsatzen aritu haiz! —esan zion amorrux Kenek, normalean ez bezala.

—Zertan pentsatuko diat bestela? —Nobegenek irri-barre lizuna egin zuen.

Herriko errentariak beldurra zioten Nobegen altuari. Noizean behin menditik jaisten ziren hartzei baino beldur handiagoa! Nobegen, alkohola edanez gero, edozer gauza egiteko gai zen. Izugarrizko indarra zeukanez, borrokan hasiz gero, inork ezin zion irabazi. Behin batean Nobegen norbait erasotzen hasi zen, eta bospasei lagun saiatu ziren geldiarazten. Azkenean Nobegenek lokatzez betetako sorora bota zituen. Hori gutxi balitz, neskekin ere gaizki portatu ohi zen. Mozkorraldia pasatakoan, buruan oihala jarri eta lo gelditu ohi zen. Eta errepikatzen zuen, «Ez dut ezer egiten. Nik ez dut inoiz ezer egiten!»

Kenek ez zekien zergatik, baina ondo moldatzen zen Nobegenekin. Kenek pentsatu zuen: «Egun monotonoak, lan gogorra, itxaropenik gabeko bizimodu eternoa... martxa honetan, edozein mutil gaztek joka dezake Nobegenek bezala. Are gehiago, denok daukagu Nobegen izateko aukera». Horregatik, Kenek ez zuen besteek bezain gaizki ikusten mutil zakar hori. Edozein herritan egongo ziren alprojak, ezinbestean.

Hala eta guztiz ere, Ken pentsatzen hasia zen ezinezkoa zela betirako alproja izatea. Horrela ez zen ezer konponduko: «Alprojak ez dira errudunak. Alproja izateko aukera baizik ematen ez digun sistema da erruduna. Inor ez da horretaz konturatzen» pentsatu zuen.

—Tira, gaur kopa bat hartzeko aukera diagu behintzat.

—Aizak, Gen, mozkorra...

Nobegenek buruaz baietz esan zion «Ados, ados» esango balu bezala.

—Zer gertatzen zaizue? —galdetu zien Banek txantxetan bezala.

—Gazte eredugarriarekin ez daukat ezer egiterik — esan zuen Nobegenek burua hazkatuz, eta begiak erdi itxirik.

—Zeinengatik ari haiz gazte eredugarria esaten? —
esan zuen Kenek umore txarrez eta mutu geratu zen.
Abek, barrez, ia zabaldu zuen ahoa.

Zelaiko ardiak

Errentarien emazteak hiruretarako joanak ziren administratzailearen etxera, afaria prestatzera. Ezkontza zela, hildakoentzako zeremonia zela, ospakizuna zela, Kei eta lagunak beti pozik joaten ziren laguntzera. Administratzailearen etxeko tximiniari kea zerion. Gutxitan zerion kea. Etxeko atzealdeko sarreratik emazteak zalapartaka ari ziren sartu-irtenak egiten, beso sendoetan edo ontzietan porruak zeramatzaten.

Lur-jabearen alabak buruko min pixka bat zeukan. Trenez zetorrela, leihotik paisaiatzat gozatuz eta liburua irakurriz, imajinatu zituen txokolate koloreko teilatua zuten nekazari-etxe bukoliko, eder eta xamurrak. Baina, errealtatea bestelakoa zen. Alabak bizpahiru txabolen barrualdeak ikusi zituen. Ilunpetatik zaldikakaren eta lasto ustelaren kiratsa zetorren, itotzeko modukoa zen. Ilunpetatik euli mordo berrunbakea zertorkien, eta bihi-aleak bailiran aurpegia jotzen zioten, nahigabe garrasi txikia atera zitzaion. Haur batek, begi handiak eta tripa puztua zituenak, sutegitik su-hautsa hartu eta ahoan sartzen zuen. Atarian arroz egosia zuen kikara eta amuarrai gazituaren zati bat zeuden utzita. Horien ganean euliak zeuden beltz-beltz bilduta. Gelaren bazterrean kortxoak eta burusiak zeuden tolestaturik, eta horien gainetik oilo bat jaitsi zen burua lau norabidetara mugituz. Administratzailearen etxera itzuli ondoren, neska etzanda geratu zen zapi bustia bekokian jarririk.

Ilundu zuenean, lanparak piztu zituen. Lehenengo aldia zen alabak benetako lanpara bat ikusten zuela. Elektrizitatezko argiarekin ohituta zegoenarentzat lanparako argia askoz ilunagoa zen. Baina, lanparak sortzen zuen giroak poza eman zion lur-jabearen alabari.

—Ze polita!

Pentsatu zuen Tokioko eta Otaruko lagunei postala bidali behar ziela lanpararen berri emanaz.

Iluntzen hasi zenean, errentariak etortzen hasi ziren. Administratzailearen etxeko lurrezko sarrera, lastozko alfonbra batzuekin estalita zegoen, eta *chochin*³² batzuk jarrita zeuden. Lurrean eserita zeuden errentariak, alaba ikusita, bizkarra zuzendu zuten eta arretaz agurtu zuten.

Alaba Kristauen elizara joaten zen, eta nekazariak zelaiko ardiak bezala, tolesgabeak iruditu zitzaizkion. Ez zeukatela aitak Otarun zeukan lantegiko langile harroen antza izpirik pentsatu zuen.

Horrekin, soilik horrekin bukatu da

Takeda, bere lagun batzuekin, inor baino goizago etorri zen. Kishinorengana joan eta esan zion jabeak errentariei beti mesede handia egiten zenez, nolabait eskerrak emateko, sumo-txapelketa bat antolatuta zutela. Kishino, oso pozik jarri zen, gutxitan bezala, irribarreak aurpegia betetzen zion.

Kishino umore onez zegoen. Lorategiko leku altu samar batean zutitu eta errentariei hitzalditxo bat eman zien eta segituan sartu zen barrura. Administratzaileak proposatua zion hori egiteko.

32 Japoniako argi tradizional bat. *Washi* paperezkoa kanpotik, kandelak ala olio-lanparak barrutik.

—Gero, banan-banan ikusiko zaituzte jaunak —
esan zien administratzaileak.

—Yoshimoto jauna, Yoshimoto jauna! —esan zuen
Banek jendartetik—Guk ere esan nahi diogu zerbait
Kishino jaunari, eta denok batera gaudenean hitz egin
nahi dugu jaunarekin. Horregatik, orain, hemen...

—Hori ezinezkoa da.

Jendea hizketan hasi zen, builaka.

—Aizue, ezin duzue! Isildu zaitetze, faborez! —
Yoshimoto jendea kontrolatzen saiatu zen.— Gaurkoa
ez da negoziatzeko bisita bat. Hurrengo batean egingo
duzue, faborez!

—Bai, Ban-san, ni ados nago administratzailearekin.
Afaria ere laster da-eta! —esan zuen errentari batek.

—Ken, ulertzen duzu, ezta? —esan zion Abek. Gu-
txitan bezala zegoen hunkituta.

—Engainatu egin gaituzte... Dena den, Abe-san,
gero banan-banan ikusiko omen gaitu eta orduan hitz
egin dezakezu.

—Gero banan-banan? Ez, ez, horrek ez du balio. Guk
elkartuta egon behar dugu.

—...

Ken kexu zen. «Gero banan-banan ikusiko gaitu?
‘Ondo segi’ edo ‘Lanean ondo jarraitu’ edo horrelako
gauzak esateko? Tira, orduan aukera hori probestuko
dut» pentsatu zuen Kenek.

Kishino jauna, bi kuxinen gainean, lasai asko ze-
goen eserita hankak gurutzaturik. Kishinok etxe
barruan bestelako itxura bat zeukan: modu horretan
eserita, ematen zuen gela osoa berak betetzen zuel, eta
guztien gainetik zegoela.

Ken ikusi zuenean, kokotsaren punta pixka bat bes-
terik ez zuen altsatu.

—Hau Ken Taguchi da —aurkeztu zion administratzaileak.

—A, bai. Hau, —administratzaileari begirada bat bota eta gero alboan zeuden andrea eta alabari esan zien— hau da herriko gazterik eredugarriena.

—Ba, segi ondo. Jarraitu txintxo lanean. Gazteen esku dago gure etorkizuna —esan zuen Kishinok kokotsa pixka bat goratuz. Eta hurrengoari sartzeko deitu zion.

Horrekin bukatu zen bisita.

Ken izerdi patsetan zegoen. Ezin zuen Aberen aurpegia argi ikusi. Gorri-gorri zegoen. Kikilduta zegoen. Hain koldarra zen bere burua indar osoz zapaldu nahi zuela paper puska bat bailitzan.

Nobegen jada mozkortuta zegoen; begirada finkoa zuen, eta neska bat harrapatu nahian-edo, ingurura begira zegoen.

—Ken! Ken! Ken!

Kenek ez zion erantzun.

—Ken, oso umore txarrean hago! Zer dela eta?

Ken, mutu, kanpoko ilunpera atera zen.

5

Eraikuntzako langileak

Eguzki kontinentala lurra erretzen ari zen. Gandua zabuka ari zen gar zuria bailitzan eta horren eraginez, bagonetak pasatzeko gaizki jarritako trenbideak, deformatuta ikusten ziren aingira baten antzera. Lurrari aire beroa zerion.

Eraikuntza-lanean ari ziren langileak erdi biluzik zeuden. *Fundoshia*³³ bakarrik zeramaten soinean. Eguzkiak erretako gorputz beltza iraultzen ari ziren. Lurra baino beltzagoa zen. Eta lur-hautsez zikindutako bizkarrean izerdiak marrak egiten zizkien. Haietako ehun bat korearrak ziren.

Bihurgune latzetan, bagonetaren kanpoaldeko gurpilak airera igotzen ziren. Ken eta beste batzuk, uzta-garaia bukatu eta gero, eraikuntza-lanean aritzera etorri ziren. Lan arriskutsua zen.

Sorachi ibaitik Ebetsuraino eta Ishikariraino ura eramateko lanak ziren, laurogei bat kilometroko ubide luzea egiten ari ziren. Ubide horri esker, zonalde

³³ Antzinako galtzontzilo japoniar tradizionalak.

horretan hamar mila bat areako arroz-soro ederrak egingo ziren. Ondorioz, Hokkaidoko arroz ekoizpena areagotu egingo zen.

Inguru horretan, herriko lur-jabeek Ubidearen Elkarte osatu zuten, alkatea zen burua, eta diputazioek diru-laguntzak edo interes gutxiko maileguak eman zituzten. Takushoku Bankuak³⁴ interes berezi batekin onartu zien urteroko mailegua. Hokkaido ekonomikoki hobetzeko hori zen bankuak egin behar zuena. Lanak kartzelako presoen esku utziko zituen. Eraikuntzarako langile-jornalariak kontratatuz gero, oso merke aterako zitzaien: langile normalari eguneko hiru edo lau yen ordaindu behar zitzaien, langile-jornalari, berriz, berrogei edo berrogeita hamar sen.³⁵ Beraz, tartean norbaitek irabazten zuen langileei ordaindu beharreko dirua.

Lur-jabeek, ia dohainik egin zitzaizkien arroz-soroak. Soroak egindakoan, banketxeei ordaindu beharreko zorra errentarekin erraz ordainduko zuten.

Kenek ere ulertzen zuen hori guztia. Azken finean, nork ordaintzen du? Errentariak eta langile-jornalariak! Hori argi eta garbi zegoela iruditu zitzaion.

—Hara! —egin zuen oihu norbaitek.

Bagoneta bat irauli zen zarata beldurgarriak atarez. Buruz behera iraulitako bagonetaren lau gurpilak jiraka ari ziren. Bagonetako langilea lurrez estalita zegoen. Baina inork ez zion jaramonik egin. Ken, bat-batean arnasa hartu ezinda geratu zen.

—Hurrengo bagonetakoa, hori ikusita, izutu egin zen eta atera-ez-atera zegoela, nagusia haserretu zitzaion eta agindu zion ateratzeko.

34 Lehen Hokkaidon zegoen bankua.

35 Japoniako garai bateko moneta. 100 senek egiten zuten yen bat.

Armada Kenen herria, Stik gertu, maniobrak egitera etortzekoa zen, eta Sko etxeetan ostatu hartu behar zuten militarrek.

—Militarrei behintzat arroz zuria eman behar diegu, bestela lotsagarri geratuko gara! —Kenen amak askotan esan zuen. Horregatik etorri zen Ken ubideko obretara lanera. Baina Kenekin batera etorri zirenetako batzuk, ez zuten iraun hiru egun ere. Lana utzi egiten zuten.

—Guk lana utzi eta etxera goaz. Baina zuek...

Kenek lana bukatu eta gero, gorputz osoan mina izaten zuen. Sorbaldak puztu egiten zitzaizkion zornea zeriola.

—Obretako langileak ez omen dira gizakiak. Kantu batek esaten du *jornalariak eta gizakiak borrokan ari dira...*

—Sassa aitonak esan zuen Hokkaido ekonomiko-ki altxatzea ezinezkoa izango dela langile-jornalaririk gabe.

—Hala da?

—Utziozue tontakeriak esateari! —Kenek amorrua sentitu zuen.

—Lanera sartu aurretik, biluztu egiten gaituzte, eta bat, bi, hiru... zenbatzen dute. Leiho guztiak iltzeekin itxita.

«Nik ere bihar utziko diot lanari» pentsatu zuen Kenek: «Militarrek ere guk jaten duguna jan dezatela! Ez zait inporta horregatik lotsagarri geratzen bagara ere!».

Hurrengo egunean, goizeko hirurak aldera, kanpoko lagun batek deitu zion Keni, batera lanera joateko.

—Nik utzi egingo diot —erantzun zion Kenek.

Uste zuen joan zitekeela. Esnatu zenean ezin zen zutik jarri, gorputzeko minagatik, eta arrastaka ibili behar zen.

—Zer duzu? —ama jaiki egin zen Kenek esandakoa entzunez.

Kenek, ezer esan gabe, burusiarekin bere burua estali zuen.

—Aizu, Ken, mesedez, beste bi egun gehiago eutsiko diozu mesedez? Bi egun!

—Ezin dut. Gorputz osoan min izugarria daukat-eta.

Eta mutu geratu zen. Ezin zuen mina jasan, gainera logura ere bazuen.

Amak, Kenen ondoan jarraitzen zuen kexatzen. Eta Ken ama entzuteaz nazkatu egin zen. Halako batean, konturatu gabe, lokartu zen.

«Hara, militarrek dira!»

Etxeko atzealdeko baratzean, Yoshizo makurtuta mintzo zen:

—Japoniak irabazi du, Japoniak irabazi du, eta Errusiak galdu du.

Inurrien habia makilaz nahasten ari zen.

—Inurri gorriak, errusiarrek. Inurri beltzak japoniarrak. Inurri zikin horiek! Japoniarrak suntsitu nahi dituzue zuek! Demonioak! Madarikatuak!

Yoshizo, haserre balego bezala, makilarekin inurrien habia bultzatzen hasi zen.

—Aizu! Geldi! Geldi! —tiro bat entzun zuen urruanean. Yoshizok, burua jaso zuen izututa. Beste tiro batek jarraitu zion lehenengoari. Makila bertan botata, kalera irten zen ziztu bizian. Begiak zabaldu zitzaizkion.

—Hara, militarrek dira!

«Zertan ari zarete! Gure arroza, gure arroza...»

Eguerdian, militarrek eta udaletxeak etorri ziren militar bakoitza noren etxean egongo zen erabakitzeke. Ken eta beste batzuk, gazteen elkartekoak alegia, egun bat pasa behar zuten maniobrak ikusten. Militarren egiteko gogorrak ikusiz, kinka larrietan nola jokutzen ikasi behar omen zuten. «Arriskutsua da!» pentsatu zuen Kenek. Ordurako ez zeukan agindu hori betetzeko gogorik. «Hitz ederrak botatzen dituzte beti!» pentsatu zuen, «Ikusi nola gauden errentariok! Oso gaizki bizi eta dena jaso behar dugu. Hau ez al da kinka larrietan nola jokatu behar ote den ikastea?»

Goizean goiz tiroak entzun ziren. Hegazkinak zeru oskarbian zarata handia ateratzen hega egiten zuten. Noiz behinka, eguzkia zegoen tokiaren arabera, hegazkinen hegoek diz-diz egiten zuten. Errentariak, soroetan, batzuetan zerura begiratzen zuten bekokian eskua jarririk, eta umeak liluratuta zebiltzan.

Yoshizok Keni eskatu zion elkarrekin kanpora ateratzeko. Kaleko beroak erre egiten zuen. Geldi egonda ere, besazpitik izerdia ateratzen zitzaion, deserosoa zen. Yoshizok, txistua jotzen ikasi berria zuen, pozik zegoen. Anaiaren beso batetik zintzilik ala anaiaren bizkarrera igota, txistuka ari zen.

Herriko erdigunean, postetxearen aurrean, zaldi militar ederrak zeuden lotuta. Gerrian poltsa txiki bat zeraman soldadu bat paperean zerbait idazten ari zen telegrafoz bidaltzeko.

—Ze zaldi ona! Konpara ezazu gurearekin!

Yoshizo, zaldiaren ondotik alde egin ezinda, aurretik, atzetik eta behetik ari zen begiratzen.

—Aizu, anai, soldadu joanez gero, zu ere zaldi-gai-
nean ibiliko zara! A ze inbidia!

Herriko etxe guztietan «Ostatua» irakur zitekeen. Bi anaiak erdigunetik atera zirenean, hiru militar ikusi zituzten poliki-poliki hurbiltzen. Sorbaldan eskopeta bana zeramaten, txaketako goiko bi botoiak askaturik, kapela azpian zapia zeukaten; oinetakoko metalezko piezek zarata ateratzen zuten.

—Hau al da S herria? —horietako batek galdetu zien herriko erdigunea eskuaz seinalatuz. Beste eskuan mapa bat zeukan.

—Bai, hala da —esan zion Yoshizok presaka, Keni aurrea hartuz. Oso harro sentitu zen Yoshizo.

Tiroak ekialdetik entzuten zirenez, haranzko bidea hartu zuten bi soldaduek. Bidean, zaldi kaka berriak zeuden.

—Hara! Hara! Begira! Begira!

Yoshizok ezohiko garrasi bat egin zuen. Urruti, arroz-soroaren beste muturrean, zaldizko soldadu batzuk ikusten ziren. Yoshizo guztiz liluratuta zegoen. Ibai ondoan, hogeï-hogeita hamar herritar zeuden militarrei begira. Yoshizok Ken eskuan ukitu zuen eta korrika hasi zen. Jendearen besazpietatik pasa eta aurreneko ilaran jarri zen. Ehun bat soldadu zeuden han deskantsatzen, eskopeta bana alboan zuten. Belar hezearen eta izerdiaren usaina herritarrenganaino iritsi ziren. Itzalean, bizpahiru soldadu zeuden buruz gora etzanda, tripatik gora biluzik. Batzuk buru-makur eserita, beste batzuk etzanda, soldadu guztiak akituta zeuden. Aurpegia, berriz, gorri-gorri zeukaten odol guztia hor bilduta balute bezala, kezkatzeko modukoa zen. Txamarraren bizkarrean izerdiak orban borobil handi bat egiten zien.

—Zer egin ote dute hain nekatuta bukatzeko?

—Ihesi etorriko ziren. Begira, erabat lur-jota daude!

Tiro bat entzun zen, gertu samar. Zuhaitzitik txori multzo bat atera zen zerbaitek jaurti balu bezala. Eta beste tiro bat. Une horretan, soldadu-buruia zela zirudiena zutitu egin zen, eta zerbait agindu zien. Metal zaratak entzun ziren. Mugitu nahi zuten, baina hain nekatuta zaudenez, ezinezkoa egiten zitzaien.

—Mugitu azkar! Mugitu azkar!

Soldadu-buruak oihuka agindu zien ahots zakarrez.

—Soldadu izatea zoragarria da... Turutaren hotsa entzunda, bizkarrean hotzikara sentitzen dut. Hunkitu egiten naiz. —esan zuen Kenen ondoan zegoenak. Gizon hura militar ohi bat zen, Tsingtaoko guduan³⁶ eskuineko eskua elbarrituta geratu zitzaion eta geroztik lan egin ezinda, sasi eskale bat zen.

—Gerra ez da ikusten edo pentsatzen duzuen bezain beldurgarria. Denok elkarrekin, multzoka erasotzen badugu.... —militar ohiak apropos goratu zuen ahotsa ingurukoek ondo entzun zezaten.

Soldaduak, hondarrezko lur ibilgaitzaren gainean hasi ziren oinez, lokatzezko panpina baldarrak ziruditen. Denak mutu, urrutiko puntu batean finkatzen zuten begirada, aurrera zihoazen norbaitek bultzatuko balitu bezala. Gaixo zegoen bati bi soldaduk sorbalde-tatik eutsi zioten, bakoitzak alde batetik, baina gaixoa ez zen zutik jartzeko gai. Lepoan ez zeukan indarririk, eta aurrera joan ahala, buruak atzera eta aurrera egiten zion.

Ibai ondotik ikusten ari ziren herritarrak erretiratzeko hasi ziren. Une horretan, zuhaitzitik irrintziak entzun ziren. Beste soldadu talde bat zen, kapela desberdina zeramaten eta ezpata bana eskuan, korrika zetozen beste taldearengana. Bat-bateko eraso bat

³⁶ Japoniak eta Erresuma Batuak Alemaniaren Tsingtaoko (Txina) portuari eraso egin zioten 1914ko urriaren 31an. Hiria setio japoniarren eta alemanen lehenengo talka izan zen.

zen. Akituta zeudenek ezin zuten ezer egin, eta arroz sorora erori ziren. Ondorioz, zapatekin zapaldu zuten ontzen ari zen arroza.

—Et, et, et! —arroz-soroaren bestaldean zeuden nekazariak ziztu bizian joan ziren besoak altxatuz. Ken ere hasi zen korrika. Nekazariantzat, arroza zapaltzea, beraien haurren hankak edo besoak ebakitzea bezain ankerra zen.

—Zer demontre egiten ari zarete!?

—Ez zapaldu arroza!

Nekazarien garrasia, ordea, soldaduen irrintziek ezabatu zuten. Ofizialak bazekien arroza zapaldu zutela, baina agintzen jarraitu zuen. Nekazariak, makila bezain tente geratu besterik ezin zuten egin.

Azkenean tregua-turuta jo zuten.

Soldaduek, kontu handiz, saltoka atera ziren sorotik, arroza ahalik eta gutxien zapaltzeko.

Ofiziala izerdia xukatzen ari zen, haserre.

—Gero armadako kontablea etorriko da, hari deklaratu eta kito!

Nekazariak bazekiten hori. Ongi jakin ere. Armadak zenbaterainoko kaltea egin zien deklaratzeko bazuten, jendeak esango zien: «Deklarazio honekin irabazteko asmoa duzue?» ala «Japoniako herritarra izanda, armadari dirua kendu behar diozue, lotsagarri horiek!» ala «Batzuk ez dute ezer txarrik deklaratzeko Inperio-ko soldaduen aurka, eta zuek bai?»... Errentari pobre bihotz-onekoek zer egin zezaketen? Gainera, errenta ordaintzeko garaian, lur-jabeak ez zituen kontuan hartuko jasandako kalteak.

Soldaduek errentariak esaten ari zirena entzuten zuten, sinpatiarekin. Kenek pentsatu zuen soldadu horietako batzuk errentarien semeak izango zirela.

Arroz soro zapaldu horretako errentariak soroan sartu ziren eta zapal dutako arroz-kanaberak zutitzen hasi ziren, zeramika puskak bildu eta ontzi bat osatu nahian bezala. Kenentzat jasanezina zen hori ikustea.

Erreprimitzeko praktika izan daiteke

Soldadu pare batek Yoshizoren etxean ostatu hartu zuten, eta biharamunean, Yoshizo inor baino lehenago esnatu zen. Harrituta balego bezala begiak zabal-zabalik ireki eta gela osoa begiratu ondoren, tupustean jaiki zen. Bezperan ondo garbitu eta distiratsu utzi zituzten eskopetak eta ezpatak hormaren kontra ipinita zeuden, motxilarekin batera. Yoshizo horien aurrean eseri zen, eta bere buruarekin isil-hizketan, samurki ukitu zituen, beirari musu ematen zion arrainak bezala.

Une horretan ama etorri zen. Ama, semea ikusita, txunditurik, bat-batean belarritik heldu zion bortizki.

—Aizu! Ergel alaena! Oso garrantzitsuak dira gauza horiek, eta zerbait gertatzen bazaie...

Ken esna zegoen ohean. Aurreko egunean, ilun-izean, Ken etxe ondoko txabolatik egurrak ateratzen ari zela, bi soldadu ari ziren iturrian hankak garbitzen. Hizketan ari ziren:

«Etxe hau desastre bat da...»

«Bai, behintzat janari ona izango dute...»

«Hala ere...»

Gehiago ez zuen entzun, eta ahapeka hasi ziren barrez.

«Polita da.»

«Eta... sexy samarra ere bada.»

«Bai, herrietan gutxi ikusten diren eder horietakoak»

«Jateko onaren orde...»

Eta biak batera barre-algaraka hasi ziren.

Ken txabolako ilunpetik entzuten ari zen, eta gorri-gorri jarri zen.

Kei, gainera, soldaduak etorri zirenetik, urduri eta pozik zegoen, eta horrek amorrua ematen zion Keni.

Soldaduak jaiki egin ziren, eta Yoshizok, segituan, ur ontzia eraman zien. Gero zapatak atarian atera zizkien, txukun-txukun; soldaduek zer nahi zuten alde zurretik ondo pentsatuz, ondo zaindu zituen. Keik, berriz, eguzkiak erretako lepoan hauts zuriak eman zituen. Lepoan zati batzuk txuri, beste batzuk beltz samar geratu zitzaizkion.

Otorduetan Keik zerbitzatu zuen. Yoshizok hori ikusita muturra ipini zuen.

—Soldaduak zaintzeko emakumeok ez duzue balio! Kendu hortik, arreba! Neuk egingo dut-eta!

Soldaduek irri egin zuten zer esan ez zekitela.

Ama, bezperan bezala, jateko ezer itxurosorik ez zeukatela errepikatzen ari zitzaien.

Arratsaldean euri-zaparrada hasi zuen. Seiak alde-ra, soldaduak lokatzez beterik itzuli ziren. Hitz egiteko gogo izpirik gabe, goitik beheraino nekatuta zetozen; estropezu eginez gero, berehala eroriko ziren buruz behera. Ama, soldaduak horrela ikusita, erdi-negarrez ari zen. Ken ere laster soldadu joan zitekeen.

Soldaduekin egoteko azkeneko gaua zen, eta lasaiago zeudela jakinda, amak agindu zion Keni oilar bat akabatzeko. Eta Yamariren dendara joan eta bi litro sake prestatzeko eskatu zion, soldaduentzat zelako aitzakian.

Sakea edan ahala, soldaduak kuarteleko kontuekin hasi ziren. Yoshizo, berandu arte egon zen esna, «Oraindik ez daukat logurarik, oraindik ez!» esan zuen.

—Mutiko, zuk ere soldadu izan nahi duzu? Kar kar...

—Ni ere nekazaria naiz —esan zuen batek.—Nire lehengusu bat errejimentu batean zegoenean, bere herrian errentarien eta lurjabeen artean gatazka bat izan zen. Milaka errentarik parte hartu zuten gatazka horretan. Alarma-kanpaiak, txistuak, itzela izan ziren orduko iskanbilak eta istiluak! Eta lur-jabeak udalari laguntza eskatu zion. Udalak poliziari. Poliziak armada-ri... Azkenean, nire lehengusu horri ere tokatu zitzaion bere herriko gatazka erreprimitzera joatea. Baina, bere gurasoak, anai-arrebak, ahaideak eta lagunak herri horretan bizi ziren eta berak bazekien lur-jabeak ze gaizki tratatzen zituen errentariak... Eta bera armadan. Asko sufritu omen zuen.

—Ai, ai, ai... —buruarekin baietz esan zuen amak, ondo ulertu ez bazuen ere.

—Harrera hobezina egin diguzue, eta horregatik gogoratu naiz lehengo kontuarekin... militarra naizenez, etsaitzat hartuko nindukezuen, baina... —esan eta barrez lehertu zen—Inguru honetan zer moduz dago gatazka? Gure herrian ia urtero izaten da. Herri guztietan errentariak bizitza gogorra daramate, eta gero eta okerrago gainera... Egunen batean, baliteke gu herri honetara etortzea, ezpata eskuan, gatazka erreprimitzera...

—Ez dut uste! —denak barrez hasi ziren.

Gero, Kenek Aberi kontatu zion elkarrizketa hura.

—Bai, egia... herri askotan izaten dira gatazkek... horregatik, txanda honetako soldaduen entrenamendua, nekazarien gatazkek erreprimitzeko praktika izan daiteke.

Hurrengo egunean, eguerdian, turutak jo zuen, eta herritar guztiak kanpora atera ziren. Kei, ilea txukun bilduta, Yoshizorekin atera zen eta soro arteko pasabide estuetan saltoka joan zen. Herritik alde egiten

zutela abisatzeko turuta hotsak hunkitu zituen. Soldaduen oin-hots erregularrekin batera hautsak harrotu ziren. Bi egun etxean pasa zituztenak ikustean, besoak inarrosi zituzten anai-arrebek.

—Begira, begira, hantxe gure soldaduak! —Yoshizok berehala aurkitu zituen bere etxean ostatu hartu zuten soldaduak eta arrebari maukatik tira egin zion.

Soldadu bat Keirengana jiratu zen, irribarrez. Kei gorri-gorri jarri zen, belarri-gingilak ere halaxe jarri zitzaizkion! Eta eskua altxatu zuen, baina paparreraino bakarrik...

Turutaren hotsa gero eta urrutiago entzuten zen, eta halako batean desagertu zen.

Soldaduek alde egin zuten.

Herritarrak, soldaduek utzi zuten larruaren usaia-
ren eta hautsaren artean geratu ziren.

6

Bi aho dauzkan kaparra

—Nahi baduzu etorri tea hartzera. Beste bizpahiru lagun etorriko dira, baita Asahikawakoa ere.

Kenek bazekien Aberenean edo Banenean lauzpabost lagun bildu ohi zirela tarteka. Baina Kenentzat lehenengo aldia zen.

Lana bukatu ondoren, lastoz beteriko jantzia kendu eta beste bat jantzi zuen. Eta etxetik atera zen. Yoshizo, bere buruarekin hizketan, horma batean txakurraren edo azeriaren itzala islatzen jolasean ari zen.

—Nora zoaz, anaia? Ni ere zurekin joango naiz —esanez, etxeko sarreraraino joan zen. Anaiaren ezezkoa entzun eta temati jarri zen.

Egunak udazken itxura hartua zuen. Gaueko zerua izarrez beteta zegoen, uraren usaina zerion. Bihi gutxi zuten arroz-kanaberen hots kaxkarra entzuten zen.

Gobernuak arroza erosiko zuela erabaki zenetik, eta urte hartan uzta ona ez zela jakinik, arrozaren salneurria gero eta gorago ari zen. Baina errentariengana ez zen sekula ezer onik iristen.

—Gaur egun, nor dauka arroza eskuan? Nekazari-
riek behintzat, ez.

Arroza salduta zegoen azaroan edo abenduan, beraz, «hilabete merkeenetan». Edozein nekazarik bazekien gobernuak arroza erostea kaka zaharra baizik ez zela.

Hala ere, nekazari batzuek esaten zuten gobernuak gauzak ondo pentsatuta egingo zituela.

Kenek gobernuaren arroz-erosketa gogor kritikatu zuenean, Sassa aitonak eskuan zuen egunkariarekin jo zuen eta esan zion:

—Aizu, ez duzu *Tokio Egunkaria* irakurtzen? Zer jakingo duzu zuk? Zu bezalako nekazari xumeak, buru txikia dutenak, zer dakite? Zu baino mila aldiz azkarragoak diren kapitalekoek ondo pentsatu ondoren erabakitzen dute. Irakur ezazu *Tokio Egunkaria*! Irakurri eta gero hitz egin ezazu! Ulertu al duzu? —eta aurpegia zimurrez bete zuen.

Urte hartan, euri asko eginez gero, arazo larriak sortuko ziren.

Aberen etxe aurreko ilunpetan, txakurra supituki hasi zen zaunkaka. Etxe barrutik norbaitek deitu zion txakurrari. Leiho txiki batean itzal handi bat azaldu zen eta atariko atea ireki zen. Abe atera zen.

Asahikawakoa ez zen artean azaldu.

Zortzi bat lagun zeuden bilduta, gazte bakarra Ken zen. Beste guztiak, edadeko errentari zintzoak ziren. Ustekabekoa zen hori Kenentzat. Kenek gazteak bilduko zirela espero zuen. Baina, ondo pentsatuta, edadekoak, fundamentu handia zutenak biltzea normalagoa zela konturatu zen. Helduek landako lurraren sakonean sustrai ikusezinak finko jarririk zeuzkatela zirudien.

Bileran uztari buruz hitz egin zuten.

Yoshimoto administratzaileak ez zizkion uztari buruzko informazio zuzenak ematen lur-jabeari. Errentariak administratzaileari soroetan zenbat uzta zegoen erakusten zioten, baina alferrik. Errentariak administratzaileari «sugea» deitzen zioten ezkutuan. Errentari bati familiako bat hiltzen zitzaionean, lur-jabeak dirua gutun-azal batean sartuta bidali ohi zion administratzailearen bidez. Yoshimoto administratzaileak, ordea, gutun-azala ireki eta diru horren zati bat berarentzat gorde ohi zuen. Ondoren gutun-azala ondo itxita ematen zion eman behar zionari. Hori gutxi balitz, soro arteko bideak eta ubideak konpondu nahi zituelako aitzakiarekin, lur-jabeari dirua eskatzen zion. Eta diru hori guztia berarentzat gorde eta lanak errentariei eginarazten zizkien, batere ordaindu gabe. Garai hartan —baita gaur egun ere— urteko uzta zenbatekoa izango zen jakiteko, soro bakoitzeko 306 metro koadro arroz jaso eta aztertzen zuten. Sistema horri *tsugobari* deitzen diote. Yoshimoto administratzaileak askotan egin nahi izaten zuen, «Ez baduzue jasotzen, errenta igoko dizuegu» amenazu eginez. Baina, ez zuen biltzen urteko kopurua kalkulatzeko. Jasotako zerealak bere etxeko ehunka oiloei, oilarrei, antzarei eta indioilarrei emateko ziren.

«Suge» horrek H herriko taberna bateko lepezuri bat zuen maitale.

—Kishino baino askoz maltzurragoa da. Kishino ez da hain gaiztoa. Okerrena Yoshimoto da, Suge bat da! —esaten zuten errentariak.

—Kaparra bat bezalakoa da, benetan.

—Bai, bi aho dauzkan kaparra bat da —esan zuen Kenek aurpegia gorrituz— aho batekin lur-jabeari odola xurgatzen dio, eta bestearekin gu xurgatzen gaitu.

—Bai, halaxe da.

—Lur-jabeak badu nahikoa odol kaparrari eskaintzeko, guk... —esan zuen Kenek, baina bukatu baino lehenago, Banek esan zuen ahots garratzez :

—Hori, hori. Hor dago gakoa.

—Zerbait gertatzen denean, hura izango da inor baino lehenago zigortu behar duguna.

Odolezko gutuna

—Ken, ze ondo ezta? Soldadu joatetik libratu zara! Zorte handia duzu! —esan zuen auzoko errentari batek. Papera bihurrituz egindako sokatxoarekin pipa garbitzen ari zen.— Ishiyama sendiko Shin eraman dute soldadu.

—Bai... Sentitzen dut.

—Ez ba! Shin pozik omen dago. Armadan, ez dauka egunero patatak eta kalabazak jan beharrik. Lana ere, nekazaritza baino errazagoa eta lasaiagoa omen da. Horregatik, soldadu sartzea askoz hobea dela esaten dute.

—Ez da egia izango!

—Hala ere, familiak orain langile bat faltan dauka... Horregatik, esaten du familia osoa armadan sartzea litzatekeela onena!

—Soldadu bila nekazariengana jotzen dute! Armadara joan berri diren gehienak nekazari pobreak omen dira!

—Ez dakit egia den ala gezurra den, baina —esan zuen Abek— zera entzun dut: armadan sartzeko proba egitera joan eta emaitzaren zain daudenei alkateak odolez zin egitera behartzen omen ditu ezkutuan, herriaren ohorea izan dezaten.

Une batez guztiak isildu ziren:

—Bai?

—Benetan?

—Bai zera...

—Nik posible dela pentsatzen dut —esan zuen poliki Abek, beti bezala, bazter batean, bere hatzetako azkazalei begira.

—Ez da soilik alkatearen ideia bat. Alkateak atzean beste batzuk dauzka. Zeren badira nekazari gazteek «pentsaera txarra» dutelakoan urduri daudenak. Irakur itzazue egun hauetako *Hokkai Times* edo *Otaru Egunkaria*. Nekazari munduko albiste onez beteta daude: herri batean zoriontsu bizi direla, neska-mutil langile eta zintzo asko daudela, Gazteen Elkarteak ekitaldi zoragarriak egiten dituela, ospatzeko moduko proiektuak daudela... Beti gauza onak kontatzen dituzte! Baina, errealitatea zein da? Agintariek zoroek bezala xurgatzen dute gure izerdia. Gu, nekazariok, isilarazi eta betirako lanean jartzeko trikimailu guztiak erabiltzen dituzte: egunkariak, aldizkariak, *Tenno* familiaren ospakizunak, armadarako probak, Gazteen Ikastegia, armadaren entsegua direla, eskola... Gu isilarazi eta haien menpe edukitzeko edozer aprobetxatzen dute. Gainera, jendea kontura ez dadin, maltzur jokutzen dute. Arriskutsua da, inork ezin die eskapo egin. Nekazari inuzenteak errez erortzen dira haien sareetan.

—Konplikatua da! —esan zuen Banek— Ikaragarri konplikatua!

—Amorregarria bada ere, poliki-poliki jendea geureganatu behar dugu, bihiak banan-banan bilduko bagenu bezala.

—Lagunik gabe, makalak gara —esan zuen Shigek, hortz batzuk falta zitzaizkion, nekazaritzaz aparte ez zekien ezeri buruz.

Nekazarien sindikatuko Arakawa-san

Kanpoan, txakurra zaunkaka hasi zen.

—Arakawa-san izango da —Abe zutitu eta atarira joan zen.

—Ai, barkatu, barkatu.

Arakawak artilezko poltsa lurrera bota zuen. Hogeita bi edo hogeita hiruko mutil argal bat zen. Ile luzea zeukan.

—Eskerrik asko etortzeagatik.

—Lasai.

Arakawa gelan sartu eta bizkor «Kaixo!» esanez burua tente jarri zuen. Eta zapi belztu zikindu batekin aurpegia eta lepoa igurtzi zituen.

—Uzta kaxkarra izango da. Aurten arazo handia izango dugu.

—Ia Kishinok nola jokutzen duen...

—Nola jokatu? Zer esan nahi duzu?

Barrezka, eta txantxetan zer esan zuen:

—Bada garaia nola jokatuko duen asmatzeko! Harren landetxean hamar bat urtean lanean aritu zarete!

Denak barrez hasi ziren.

Arakawak, ahots garbiarekin, gai asko hartu zituen hizpide, batzuetan denei barrea eragiten zien.

—Akita probintzian, heldu gabeko arrozaren salmenta egiten dute. —Errentariiek asmatu zuten estrategia berri bat zen. Askotan, errenta ordaindu ezinda zebiltzanean, lur-jabeek heldu gabeko arroza saldu egiten zuten. Edo, errentariei soroetan sartzen. Akitako errentariiek lur-jabeei aurrea hartuz, beraiek saltzen hasi ziren merkatariiei. Errentariiek eskuratzen zuten diruarekin lur-jabeak ezin zuen ezer egin.

—Guk ere hori egingo bagenu? —esan zuen Arakawak barrez.

Herrian nabarmen jaisten ari zen nekazarien bi-zi-kalitatea. Gero eta okerrago zeuden. Alkateak eta polizia-komisarioek nekazarien bertutea goraiatzten ahalegin guztiak egin arren, jan ezinda zeuden nekazariak ezinbestean jo beharko zuten euren nagusien kontra.

Urte hartako egoeran, gaizki zeudenak ez ziren errentariak bakarrik. Lur gutxi zeukaten lur-jabeak ere gaizki irabazten hasi ziren. Haiek lur gutxi zeukatenez, uzta ere txikiagoa izaten zuten. Eta gastuak gero eta handiagoak ziren: ura, zerga mota ezberdinak, bizirau-teko gastuak... Horiek guztiak ordaintzeko, jasotzen zuten errenta ez zen inondik ere nahikoa. Uzta gehiago atera nahian soroak konpontzen bazituzten lurra hipotekatu eta dirua eskatu behar izaten zioten bankuari. Horrek urteroko ordainketak handitzen zituen. Eta, beraz, zor handiagoa zeukaten. Lur-jabe handi aberatsak lur-jabe txikiak zapaltzen hasi ziren. Errentariak baino gehiago sufritzen ari ziren. Hala eta guztiz ere, lur-jabe izatearen harrotasuna mantentzen zuten, hala uste zuten: «Txiroak bagara ere, errentariak eta gu guztiz ezberdinak gara!»

Kenen etxearen parean, ibaiaren bestaldean bizi zen Hirose lur-jabe txiki horietako bat zen. Echigotik etorri zen. Diruz gaizki eta itotzear zegoen arren, lurrak itotzen zuen arren, ez zien bere umeei errentarien umeekin jolasten uzten. Bazirudien esaten ziela: «txiroak gara, baina gu ez gara errentariak.»

Arakawa Barrualdeko nekazarien berri ematen hasi zen. Sufrearengatik tinta bezalako kolorea hartu zuen tea edanez:

—Barrualdean, errentarien eta lur-jabeen arteko gatazketan, *dontzukia* egiten dute.

Errentariak lur-jabea etxetik ateratzen zuten, ubide gainean buruz behera zintzilikatu eta uretan sartu eta atera egiten zuten. Baina, Hokkaidoko kasuan, lur-jabeak kanpoan bizi zirenez, zoritxarrez, ezinezkoa zen *dontzukia* egitea.

—Kishino zintzilikatzen badugu... —esan zuen batek txantxetan bezala.

—Kishinori *dontzukia* egitea...

—Tira, halako bortizkeria Kishinori egitea ere...

Arakawa mutu zegoen, gainontzekoak entzuten zituen.

—Ederki aguantatuko luke tipoak.

—Bai, itxura hori du!

—Zertan ari zarete... ergelak...

—Kishino gizon gogorra izango da, baina gu asko gara!

—Kar kar, hori frogatzeko egoerak izango ditugu egunen batean —barrez eta alai esan zuen Arakawak.

Polizia Arakawaren atzetik egoten zen, eta kartzelan askotan egondakoa zen. Mugimendu politikoetan parte hartzen zuen. Kenek ere bazekien hori eta pentsatu zuen: «Nolatan egon daiteke Arakawa hain lasai eta alai?» Kenek ez zuen ulertzen.

Errusiako Iraultzaren ondoren, bertako nekazarien bizitza nola aldatu zen? Haiek behar eta nahi zuten bezala gertatu al zen? Errusiako kasua ikasita, Keni iruditu zitzaion Japoniako nekazariak zeramatzen bizitzan ez zuela ezerk funtzionatzen behar bezala, eta inor ez zela horretaz konturatzen.

Kenek bilera bukatu baino lehenago alde egin behar izan zuen, etxea urruti zuelako eta biharamunean goiz jaiki behar zuelako.

—Txiza-gura daukat.

Abe ere kanpora atera zen Kenekin batera.

—Abe-san, nik ere lagundu nahi dizuet. Ahalegin guztiarekin parte hartuko dut. Edozertan —esan zuen Kenek, zeukan asaldurari eutsirik, Aberi aurpegian begiratu gabe. Hori esateagatik bakarrik, ahotsa dardarka hasteko zorian zeukan.

—Bai? Lagunduko diguzu? Pozten naiz!

Gaueko haize finak masail gorrituak igurtzi zizkion. Udazkena zen. Bidean zihoala, ozenki esateko gogo sortu zitzaion.

—Ikusiko duzue, nik ere...

Errepikatu zion bere buruari.

Katsu alarguna

Eskuinera biratu eta hor zegoen Katsu alargunaren etxea. Luzaroan euriak eta haizeak jasan ondoren erabat zaharkituta zegoen lastozko txabola bat zen. Atzeko hormaren kontra bizpahiru enbor jarrita zeuden haize zakarrari nolabait eusteko.

Senarra hil zela lauzpabost urte pasa ziren. Harrezkero bakarrik aritzen zen lanean. Eta senarra hil zitzaionetik, urtean ume bat ekartzen zuen, eta horrela, elkarren antzik ez zeukaten hiru haurren ama izan zen. Aitak nortzuk ziren ez zekiten. Gizon asko etortzen ziren Katsu alargunaren etxera ezkutuan. Hori zen Katsuren lana. Herriko neskak koskortzen zirenean (Kinu bezala, adibidez), Sapporora edo Otarura joan ohi ziren lanera. Ez zuten euren amen, nekazari pobreen, bizitza osorako izerdi eta lur-hautsen zikinkeriarik nahi izaten. Horregatik herriko mutilei ikaragarri kostatzen zitzaaien emaztegaia aurkitzea. Andregairik gabe, ezin zuten ezta dirua poltsikoan Hra joan, gauez Katsurengana joan ohi ziren.

Halako batean, Katsuren etxetik gizon bat atera zen. Atarian argiarekin bere aurpegia ikusten zen. Takeda zen!

—Takeda! Zikin hori! Beti guri sermoia botatzen eta hemen bukatu duzu!

Ken poztu zen Takedaren alde iluna ikusi zuelako.

—Ikusiko duzu! Madarikatua!

7

Shichinosukeren gutuna

Ken sorotik itzuli zenean, ama haserre aurkitu zuen.
—Begira, seilua falta denez sei sen kobratu dizkidate!
Gutuna Shichinosukek bidalitakoa zen. Kenek, hankak garbitzeko astirik eman gabe, sutondora arrastaka joan eta gutun-azala ireki zuen:

Goizeko bostetan jaiki eta seietarako lantegian sartzen naiz. Olioiz beteriko txapela zimurto bat daramat, hotza buruan, bizkarra konkorturik, bazkaria poltsan. Nire aurrean eta atzean, lagunak joaten dira, presaka nire antzera. Lantegian, ezin naiz lasai egon. Goizeko seietatik arratsaldeko bostak arte, nerbioak geziaren soka bezain tente eduki behar ditugu.

Ni hona etorri nintzenetik, makina batek bi lankide harra-patu ditu. Haragi xehatua bezala geratu ziren. Horietako baten emaztea, geroztik, puta bezala ari da lanean, umeak hazteko. Bestea, Aomori probintziako errentari baten semea omen zen. Hotzikarak ematen dizkit.

Lantegian, makina erraldoien zaratek oihartzunak egiten dituzte. Hasierako astean, lana bukatu ondoren ere zarata horiek belarrietan geratzen zitzaizkidan. Gorputzean, berriz, hezur guztiak desegingo balira bezala sentitzen nuen eta

egunkariko orri bat irakurtzeko gai ere ez nintzen izan. Iruditu zitzaidan tonto bihurtuko nintzatekeela betirako. Baina orain ohitu egin naiz.

Lehengo egunean, Kinurekin egon nintzen. Kishinok eraman duen «hotel» batean ari da lanean. Kishinok enpresa asko kudeatzen ditu: zerealena, itsasoko produktuena, ongariarena, arrozarena, hotelak dauzka, lantegiak... Horrez gain, burtsa-merkatuko bazkidea da, banku eta enpresa batzuetako akzioduna da, merkataritza ganbarako kidea da, baita herriko zinegotzia ere. Eta milaka areako soroen eta granjen jabea ere bada.

Kishinok sardinzarrekin egindako ongariak lehengo urtean saldu gabe utzi zituenez, urte berriko ikuskapen ofiziala ez zuen gainditu. Hori dela eta, ongari horiek bere lurreen salneurri propioarekin saltzen dizkigu. Badakizue ezta? Horrez gain bidegabekeria gehiago egiten ditu.

Kinuk esan zidak hotelean hogeit hamar bat neska dauzkala lanean. Kishino astean bi aldiz-edo azaltzen omen da bere hotelean, eta joaten den bakoitzean bere gelara neska-langile bat deitzen omen du masajea emateko. Neska guztiak beldurtuta egoten omen dira haien txanda noiz helduko zain. Ez baldin badiote ematen alde egiten esaten die. Baina, noski, alde egiteko dirua balute ez lukete hotelean lan egingo. Hango neska guztiak horretan sartu ziren familiarentzat dirua irabazi nahi zutelako, ni bezala! Neska batzuk Kishinoren gelatik ezer gertatu ez balitz bezala ateratzen dira. Ilea orrazten ateratzen omen dira, baina gehienak hortik atera bezain laster negarrari ematen omen diote... Ingurukoek, hori ikusita, penatuta gelditzen dira. Kishino etortzen den bakoitzean, beti egiten omen du gauza bera.

Nekazariak ez dakite Kishinok neskekin egiten duena. Nik dena jakin dut hona etorrira. Abe-sanen bidez hona etorri garrenok langileen arazoak ikertzen ditugu. Nik ez nekian ezer horri buruz, baina lagunek bultzatuta hasi nintzen, eta orain oso pozik nago. Hemen lagunekin asko ikasten ari naiz.

Batez ere nekazariei eta nekazarien egoerari buruz asko irakatsi didate, eta jakin dut nekazariok ez dugula irtenbiderik mundu honetan. Martxa honetan bizitza gero eta miserableagoa izango da.

Demagun nekazari guztiok geure lurra daukagula. Eta ez dugula errenta ordaindu behar; eta behar dugun guztia guk egiten dugula eta ez dugula ez saltzen ezta erosten ere. Horrela, zoriontsu izango gara. Baina badakigu mundu osoan inon ez dagoela horrela bizitzerik.

Hirietan garbi ikusten da. Lantegi handietan egunero ekoizten dituzten bizitzan beharrezkoak diren gauzak. Produktu horiek, nekazari herrietako bazter guztietara iristen dira uholdea bezala. Eta nekazariok zer egiten dugu neguan, soroko lanik ez dagoenean? Lanpararen azpian eskuz sokak edo oihalak egiten ditugu... Ezin da lantegietako lanarekin alderatu. Hokkaidon, gaur egun, inon ez dute halako lanik egiten nekazariok. Eta halere, lanera kanpora joaten jarraitzen dugu...

Horregatik, nekazariok, dena erosi behar dugu. Horretarako dirua behar da. Dirua lortzeko bide bakarra daukagu nekazariok. Soroan egin ditugunak saldu behar ditugu. Baina, nekazariok munduko saltzailerik traketsenak gara.

Ken, zuk ere badakizu, zein nekazarik pentsatzen du hirietan nola aldatzen ari den merkatua? Ze nekazarik hartzen du kontuan merkatuaren salneurri aldaketa? Zergatik ez du kontuan hartzen? Zergatik ez da inor salneurriaren aldaketaz jabetzen?

Gogoratzen zara orain dela hiru urte ilarraren prezioa izugarri garestitu zela? Orduan esaten zuten Herbeheretan ilar gutxi atera zenez, Londresetik eskaera handia iritsi zelako zela. Baina orain, Otarun entzun dudana bestelakoa izan da. Hura ere erdi egia zen. Baina, Otaruko Tatsu izeneko merkataritza-enpresak ilar guztia erosi omen zuen gero nahi zuen salneurrian saltzeko. Eta enpresa hori hasi zen zabaltzen Europako afera hori guri sinetsarazi arte. Herri txikietakoa nekazari xumeek nola jakingo zuten egia?

Hurrengo urtean, nekazari guztiak hasi ziren ilarrak landatzen. Horrekin aberastu egingo zirelako ametsetan. Oso ondo zaindu zituzten eta udazkena iritsi zen... Eta zer gertatu zen? Salneurria oso baxua izan zela! Herbehereetan uzta zoragarria izan zuten. Hori ere erdi gezurra zen. Prezio baxuenetan erosi zuen enpresa handi hark. Trikimailu hori ulertzea zaila da. Urte hartan, zenbat nekazarik egin zuten euren buruaz

beste? Eta zenbatek alde egin zuten ezkutuan zeukaten guztia bertan utzirik? Argi esango dizut, hirietakoek agintzen diate.

Nekazariak hirietakoen menpeko munduan sartuta, ez da ezer onik aterako. Mendi arteko herrixketan, ez dago merkatuaren giroa ezagutzeko modurik. Lantegietan, atzo erosi zituzten materialekin egindakoak bihar saldu ditzakete. Hori etengabe gertatzen da urtean zehar! Eta salmentaren arabera, erabaki daiteke egunean zenbat lan egin behar den. Eta nekazariak? Lehenengo materialekin zerbait ekoiztu arte urtebete pasa behar izaten da! Ze gogorra den!

Lantegian harrigarriena «makina» da. Gizaki batek egunero eta gauero urtebetean egindako lana makina batek egun batean egiten du! Makina horiek osatzen dute lantegia. Guk, makinaren ondoan zutik, eskuak mugitu besterik ez dugu egin behar. Honekin alderatuta ze lasaia den nekazaritzaren mundua! Lokartzeko modukoa da! Nekazaritzaren mundua ikaragarri atzeratuta dago.

Hirietan bizi diren lur-jabeentzat ere mundu hau azkarregi doa aurrera. Lur-jabeentzat ere bai. Konturatu dira lur-jabe izatea ez dela nahikoa. Eta orain zer egingo dute? Nekazariak ahal den errentarik garestiena kobratzeaz gain, hirian negozio asko dauzkate, mota askotakoak. Kishino da horren adibide bat. Haiek, lamiak bezalakoak dira, esaterako. Hots, gorputzaren goiko partean lur-jabeak dira, eta beheko partean, berriz, kapitalistak. Beheko partea, gainera, handitzen ari zaie, eta goikoa txikitzen. Hori dela eta, gaur egungo lur-jabeek ez dute kontutan hartzen errentariak zer nolako egoeretan bizi diren, ez dute pentsatzen errentariak ere aurrera doan mundu honetara egokitu behar dituztenik. Ez daukate besteengan pentsatzeko astirik. Beraien burua babesteko nahikoa lan daukate. Haien buruan errentariei ahalik eta diru gehien kobratzea besterik ez dago.

Errentariak ezin dute ezer espero nagusiengandik. Ehun urte itxaron eta gero ere ez digute ezer onik egingo. Gure ikerketa taldeko batek esaten du: «Gizarte honetako egitura ez baduzu aldatzen, nekazariak gero eta okerrago bizi beharko dugu». Baina, hiriko bizimodu azkarrean egokitzeari lehen-tasuna emanaz, nekazariak banan-banan, sakabanaturik hasiko bagina lanean, jende maltzurren atzaparretan eroriko

ginateke. Zerbait lortu nahi badugu sindikatua eratu behar-ko genituzke, edo elkar-lanean lurra landu eta negozioa jarri, tartean merkatari gaiztorik sar ez dadin. Baina hori ere ez da erraza izaten. Ez da zertan ondo atera. Beraz, oraingoz egin dezakeguna hau da: gatazkak sortu eta gure eskubideak aldarrikatu. Laburtuz, Errusian bezala, nazio honetan ere, langileek eta nekazariak aginduko bagenu, bizimodu hobea lor genezake. Bestela ez. Gure ikerketa taldean hala uste dugu. Taldekoek esaten dituzten guztiak zuzenak dira, eta hunkigarria da.

Historian zehar, inoiz gertatu al da nekazarien herrixka bat estatuko zentro politiko eta ekonomikoa izatea? Inoiz funtzionatu al du modaren, artearen eta diplomaziaren zentro gisa? Pentsatze hutsak barregura ematen digu. Lehen, bospasei hiri besterik ez zeuden. Baina orain zenbat daude? Denbora gutxian, bat-batean, ugaritu dira eta populazioaren erdia baino gehiago hirietan bizi dira. Baina, hiria eta herria, ez dira bata bestearen etsaia. Gaur egungo gizarte sistemarengatik ematen dirudi elkarren aurka daudela.

Kishinori buruz, gauza interesgarri bat kontatu didate: Demagun S herriko errentarien kontura 5.000 yen irabazi dituela. Diru hori Takushoku Bankuan sartzen du. Kontuan hartu: bankuak, maskara mokofina jarrita, nekazariak itotzen dituzten handikien buruzagiak direla. Eta zenbat nekazarik dakite hori? Ia inork ez! Gero diru horrekin zer egiten du? Ba, besteei utzi. Izan ere, bankuek dirua uzten dietenak lur-sail baten jabe diren nekazariak eta Yamari bezalakoak (negozioak dauzkatenak) dira. Beraz, errentariei banketxeek ez diete dirurik uzten.

Yamari noizean behin H herrira joaten da, ba al dakizu zertarako? Bankuan mailegua eskatzeko. Alegia: bankuan urteko %10eko intereseko maileguak hartzen ditu. Zertarako? Diru hori errentari behartsuei uzteko hileko %3ko edo %4ko interesarekin. Hara, horrek esan nahi du Yamarik berea ez den dirua alde batetik bestera mugitze hutsarekin %26 irabazten du, jasotzen duen %36ri bankuaren interesa kenduta. Baina diru hori, berez, non sortzen da? Ba geuk ordaintzen dugun errenta da! Beraz, errentariok diru berarekin bikoitza sufritzen dugu.

Kishinok, ordea, bankutik dibidendua hartzen du. Diru hori ere, finean, nekazariei kendutakoa da.

Diru horren zati bat, gainera, gure lantegian inbertitu dezakete, adibidez. Alegia, guk langileok baldintza txarretan gorputzari egurra emanez ekoiztutako produktuak nekazariei garesti saltzen dizkiete. Horra sorgin-gurpila! Handikiek egiten duten guztia, bata bestearekin lotuta dago.

Kishinok, zirkulu borobil hau betirako mantentzeko, merkataritza ganbarako kontseilariaren kargua hartu du, eta hiriko zinegotzia ere bada. Dauzkan kargu horiekin guztiekin, bai poliziarekin, baita diputazioarekin ere, harreman sakonak izan ditzake. Alegia, kargu horiek ederki aprobetxatzen ditu bere negoziarako.

Demagun gure herriko ekonomia ondo ez doala jabetzen dela Kishino. Zer egin dezake? Ba, bere alderdiko zinegotziak xaxa ditzake eta herrira trenbidea eta geltokia ekarriko lukete, adibidez. Ondorioz, inguruko luraren prezioa igo egingo litzateke. Garestitutako lurra etxebizitzak egiteko erabiliko balu izugarritzko irabaziak izango lituzkete lur-jabeek. Holakoa da historia. Eta nekazari xumeek ez dute hau guztia ulertzen.

Eta, kostatuko zaie ulertzea. Baina, Ken, asko kostatuko zaigun arren, eta denbora eta pazientzia behar ditugun arren, zerbait egin beharko genuke. Guk erakutsi behar genieke benetako egoera. Bestela nork egingo du? Abe-sanek esan dit gure herrian ere bilerak egiten dituztela Asahikawako nekazari sindikatukoekin. Ken, zuk ere parte hartuko bazenu, pozgarria litzateke niretzat ere.

Kinuk esan du herrira itzuliko dela. Ez dakit zergatik baina itzuli beharko duela esan dit. Ondo pentsatuta, hura ere gajo bat da. Ez da bere errua. Nekazarien bizitza txiroak eragin du dena. Nekazariak gero eta bizitza okerragoa daukagu eta martxa honetan gero eta neska gehiagok Kinuk bezala bukatuko dute.

Zutaz asko galdetzen didate, baina Sadari buruz ez diet ezer ere kontatzen.

Otaru eta S herrian pentsatzen dudan aldiro jabetzen naiz diodanak zentzua duela: kontserba lantegiak, Takushoku

Buildinga,³⁷ goi mailako bankuak, mota askotako lantegiak, kanalak, biltegiak, parkeak, luxuzko etxeak, autoak, baporeak, harrikatzak garraiatzeko nasa... Horiek guztiek zurrumbilo erraldoi batek bezala orro egiten dute batak bestearen kontra. Hiri aglomerazio honetan nabilenean ez zait buruan sartzen mundu honetan nekazari lokaztu gerri-okerrak existitzen direnik. Herri nekazarietan belarra, mendiak, arroz-landareak, ibaiak eta ongarriak besterik ez daude! Gainera, litekeena da Otaruko jendeak benetako nekazariak inoiz ez ikusi izana.

Berriz idatziko dizut.

Nekazariok engainatu izan gaituzte eta engainatzen gaituzte. Egoera horri amaiera eman behar diogu. Hori da garrantzitsuena. Eskumuinak denoi.

Horrela idatzi zion Shichinosukek. Ken afaltzen ari zen eta berriz irakurri zuen gutuna, arretaz. Ondoren, gutuna eskutan, Aberengana abiatu zen.

³⁷ Hokkaidoko banketxe indartsuenaren eraikinaren izena. Garaian Hokkaidoko toki izenei ingelesea gehitzen zitzaion modernitatearen sinbolo gisa.

8

«Nekazari izateaz nazkatu egin naiz»

Bi astetan ez zion euria egiteari utzi.

Hasieran, euria kristalezko hodi lodi luze bat bezala ari zuen. Noizean behin trumoiek zerua urratzen zuten. Egunez ere ilun egoten zen etxe-barruan euriak argitasuna ematen zuen.

Zeruak ez zuen atertzen, eta euriteak luze jo zuen. Jendea zain egoten zen ateraldi laburrak noiz izango. Euria, ordea, etengabe ari zuen. Hala joan ziren lau egun. Bosgarren egunean, nekazariak kezkatzen hasi ziren. Ezin ziren lasai egon. Etxeko teilatupean, zutik zeuden errentariak, kanpora begiratzen zuten, lurra lokaztuta zegoen, ustelduko balitz bezala.

—Zein gizajoak garen nekazariok.

Sassa aitona Tokio *Egunkaria* irakurtzeaz aspertuta zen. Gazte jendeari traba egiten zion, etxean potrojo-
rran aritzen zen.

—Gizajoak gu! Ez dago konponbiderik. Amorrua ematen dit! —zioen.

Arroza ontzeko garai garrantzitsuenean hogeai egun pasa ziren euripean. Errentarien etxetxoak kikilduta zeuden, abandonatutako zakarrontziak bailiran. Lur jota zeuden.

«Erosten ditugun materialei urte bete kostatzen zaie fruituak ematea» Sichinosuke harrituta zegoen. Hori gutxi balitz, urtebete eutsi ondoren, orain, etekini gabe geratzeko zorian zeuden. Martxa horretan, nekazariak hiriko industriaren atzean geldituko ziren, modaz kanpo eta itota. Garbi zegoen.

—Nekazari izateaz nazkatu egin naiz —esan zien Kenek bildu ziren lagunei.

Egitekorik gabe zeuden, paperean marrak egin eta *shogi*-militarrera³⁸ jokatzeko hasi ziren.

Ama, zapi zimurtua zirudien titia ematen ari zen ume txikiari, begirada galduarekin leihotik kanpora begira.

—Ai, ai, ai... euriaren hotsak buruko mina ematen dit —esan zuen lokian eskua jarririk.

—Egunen batean, Sko errentari guztiak, sardinzar lehorrak bezala³⁹ ilaran urkatuko gaituzte. Ikusgarria izango da —esan zuen batek, eta inork ez zuen txantxa gisa ulertu.

Aterkiak hartuta, bospasei lagun atera ziren soroak ikustera. Batek proposatu zuen, bidenabar, «Sugea» bisitatuko zutela. Harekin pixka bat hitz egitea komeni izango zitzaielakoan. «Bestela, ez genuke administratzailea bisitatuko!» pentsatu zuten guztiak.

Administratzaileak atea ireki eta aurpegi horizta puztua atera zuen. Errentariak zirela ikusi zuen unean nazka-aurpegia jarri zuen.

38 *Shogi* Japoniako xake jokoa da. *Shogi*-militarrean pieza bakoitzak militar batena egiten du.

39 Hokkaidon sardinzarrak airean zintzilikatuta lehertzeko ohitura handia dago.

—Zer duzue? —ahots eztiarekin.

—Ezer berezirik ez.

Etxean, bisita bat zeukan. H herriko komisarioa zen. Errentariak hori ikusi eta, arrazoiarekin, kikildu egin ziren. Administratzailea oso urduri jarri zen. Eta esan zien:

—Presa daukazue? Orain nik... geroago bazatozte...

—Tira, euri honekin kezkatuta gaude, soroak ikustera atera gara...

—Bai, euri honen eragina kontutan hartuko dut. Ados, etorri beranduago.

—Horrela ez dugu nahi adina uzta jasoko... hori dela eta, aldez aurretik Kishino jaunarekin hitz egingo bazenu... —esan zuen Kenek; eta administratzaileak aspertuta balego bezala erantzun zion:

—Ados, ados! Baina zuk ez daukazu niri agintzeko eskubiderik. Nik dena kontuan hartzen dut.

Komisarioa eta administratzailea elkarrekin zeuden! «Konspirazioen bat amarauntzen ari dira» pentsatu zuen Kenek etxerako bidean. Herrian, polizia-agenteari eta eskolako zuzendariari barazkiak, oilaskoa eta abar oparitzen zieten, «urteko lehenengo uzta» esaten zioten. Bestalde, herriko jauntxo horiek herriko dirudunekin eta agintariekin harreman handiak zeuzkaten. Kenek hori hitzez hitz azaltzen zien errentariei, baina ez zuten ulertzen.

Iluntzean, lagunak besteren baten etxean biltzen ziren. «Etxean bakarrik erotu egingo ginateke» pentsatzen zuten.

—Zer egingo dugu?

—Kishinok nola jokatu ote du...

Errentari batzuk, etsipenak hartuta, alkoholetan murgiltzen hasiak ziren. Mozkortuta, zentzurik gabeko gauzak ozenki esan ohi zituzten.

«Halakoei zakur esaten zaie»

Sunagawako ikatz-mendirako joan zirenak, zaldiarekin bagoneta tiratzera joan zirenak, H herrira errepideko lanetara joan zirenak, ubideko lanetara jomalari joan zirenak, zaldiarekin udako basogintzara joan zirenak... horiek denak irailaren hirugarren astean-edo itzuli ziren herrira.

Nahiz eta arroz-buru asko ustelduta eta belztuta egon aurrera atera behar zuten nola edo hala. Handik hona, hilabete osoan errentariak lan eta lan aritu ziren, goizeko hiruretatik arratseko zazpiak edo zortziak arte. Uzta, guztira, soro osoaren erdia izan zen.

Erdia! Hainbeste lan hain etekin gutxi ateratzeko?

Ken, arrozaren hauts artean kuzkurtu egin zen.

—Nahikoa da, nahikoa da! —esan zuen haserre, eta lanari utzi zion. Atarian eseri zen.

—Kei, zapaldu pixka bat zuk.

Kei anaia hain amorraturik ikusita, gogorik gabe zutitu zen. Ama sukaldean zegoen mutu.

—Soro osoaren erdia! Ze ondo, ezta!? Urtebete lanean jo eta ke emaitza hau lortzeko! Kishinori errenta ordainduta, ez zaigu ezer geldituko! Edo okerrago! Nekazariok urtebetez lanean jardun ondoren, kilo bat eta erdi arroz jatea ere ez dugu merezi?

—Iaz ere ez genbiltzan batere ondo... Kishino jaunak zer esango ote du...

Amak zintz egin zuen:

—Zuk bakarrik ez... Nekazariok berrogeita hamar urtetan, ederki aritu izan gara lanean —amak mukia xurgatu egin zuen.

—Bai, itxaropena galdu gabe, aurten ez bada, hurrengo urtean, hurrengo urtean ez bada... eta horrela, egunen batean ondo aterako delako itxaropenarekin. Eta, azkenean, hau al da guretzako oparia? «Sentitzen

dugu» esaten digute eta kito? Oso ondo! Sorotik ateratako arroz-landareetatik aleak ateratzen ditugu. Eta badakigu ale guztiak Kishinok eramango dizkigula. Hala eta guztiz ere, lekak Kendu, aleak atera, eta makilaz joz ale zuriak ateratzen ditugu. Lan ikaragarria egiten ari gara. Gu nekazariok, on-puska tontoak gara! Benetan!

Takeda etorri zen.

—Jo eta ke ari zarete!

—Zer esan nahi duzu? Begira, arroz-zorroak!

Amak lastozko estera gaineko arroz-zorroak eskue-tan hartu eta askatu egin zituen:

—Altxamenduren bat egingo genukeela genioen.

Takeda barrez lehertu zen, behartuta balego bezala.

—Aizu, Ken, zurekin hitz egin nahi dut. Lana bukatu eta gero, etorriko zara gure etxera, mesedez?

Ken mutu zegoen.

—Aurtengo uzta ezagatik, gatazkaren bat gerta liteke... Halakorik gertatuz gero, gure herria lotsagarri geratuko litzateke, eta Mutualitatearentzat ere ez litzateke ona izango...

—Zuek zenbat uzta atera duzue? —galdetu zion Kenek gaiz aldatuz.

—Erdia, ozta-ozta.

—Eta errenta ordaindu ostean?

—Ba... jan gabe geratuko gara. Baina, konponbide bat edo beste bilatu dezakegula uste dut.

«Administratzaileak hau bidali zidan» pentsatu zuen Kenek. Eta ironiaz beteta esan zuen:

—Ban-sanek galdetu dit, ea egia den datorren udaberrian, H herrian udal hauteskundeak dauzkatela eta Kishinok zinegotzi izateko izena emango duela. Horregatik, aurten behintzat, ez du inongo arazorik nahi izango. Horretarako errentariak ondo menperatu

beharko gintuzkeela esan omen du «Suge»ak. Gu hil ala biziko kinka larrian gaude. Eta gure patua haien desiraren arabera erabakiko al da?

—... —Takedak isilune baten ondoren, esan zuen—
Ez da egia izango.

Takedak, beste gai batzuetaz zerbait hitz egin eta gero alde egin zuen. Kenen etxetik kanpoko ilunpetara atera eta esan zuen bere lotsa ezkutatu nahiko balu bezala:

—Bihar ere eguraldi ona egingo du!

«Halakoari zakurra esaten zaie! Zakur zikina!»

Beste landetxeetan errenta jaitsi egin zutela, edo jaitsiko zutela, zurrumuru horiek iristen zitzaizkien Kishinoren landetxeko errentariei. Horrelakoak entzuten zituzten bakoitzean urduri jartzen ziren.

Errentarien negoziatzaile aukeratuak Ban, Sassa aitona eta Takeda izaten ziren, eta haiek sarri askotan joaten ziren administratzailearengana.

—«Suge» zikin hark badaki zein egoera larrian gauden, eta hala ere erabat dago Kishinoren alde! Orain, nagusiaren eta gure artean, estututa, burtzoratuta dago! —esan zuen Banek argi eta garbi, Sassa aitonarekin eta Takedarekin Kenen etxera iristean.

Falta zena lur-jabearen erantzuna besterik ez zen. Horren arabera erabakia hartuko zuten. Horren zain egon baizik ez zeukaten, beste egitekorik gabe.

Bai, hamar urte pasa dira

Gaua gero eta luzeagoa zen.

Ama sukaldean ura eskuan hartuta edaten ari zelarik, hortzetan mina sentitu zuen. Gerria egurra bezala gogortuta zaukan, eta inoiz baino min handiagoa sentitu zuen. Amak Yoshizori eskatzen zion gerrian masajea

emateko, horren truke paga emango ziola. Yoshizok ez zuen gogo handirik, baina baietz esan zion sosa pixka bat eskuratzeko. Gaua isila izaten zen. Patatak jaten zituzten sutegiko hautsen artean berotuta edo lapi-koan gatzarekin egosita. Horiek jan eta gero, etzanda, edozein gaiz hizketan aritzen ziren. Yoshizok, denen artean etzanda, eskuak kokotsean jarriarik entzuten zuen. Gustatzen zitzaion giro hori.

Amak lehengo kontuak oso gogoan zeuzkan.

Ohean sartutakoan ere, ezin zen lokartu gorputzeko minekin. Goizaldera arte egoten zen ohean jiraka. Ordura arteko bizitzaz hausnartzen hasi zen «Ez nuen espero Hokkaidora bizitzera etorriko ginela. Bizpahiru urte arituko gara Hokkaidon lanean —esaten nion neure buruari—. Eta dirua egin eta gero, jaioterrira itzuliko gara eta bakean biziko gara. Denok gauza bera pentsatuz igaro genuen Hokkaidoren eta Barruaren arteko itsasarte. Eta orain, konturatu naiz handik hamar urte pasa direla! Inguruko trastei begiratzen diet berriz... Hamar urte pasa dira! Beraz bai, hil behintzat, jaioterrian hil nahi dut.»

Baten bat Barruko herrira joango zela entzuten zutenean, herri berekoak harengana joan eta enkar-gu batzuk ematen zizkieten: herri horretan zeuden ahaideei gutunak eta opariak eramaten zizkieten, eta hango berriak ekartzeko eskatzen zieten.

Denek amesten zuten egunen batean jaioterrira itzuliko zirela. Ezkutuan alde egin zuten herri hark, orain, xarma misteriotsu bat zeukan.

Udazkeneko gaua luze bat zenez, askotan jaikitzen zen txiza egitera. Erdi lotan, zerbait ahapeka madarikatu zuen komunetik atera zenean, hotzikarekin dardarka hasi zen. Udazkeneko gau hotz bat zen. Isiltasuna nagusi. Zeru urdin ilun garbian ilargiak izotza

zirudien. Neska gazteek ere, etxearen eta komunaren arteko lurrean egiten zuten txiza.

Mokiri⁴⁰

Udazkenean bukatzen zen uztaren garaia. Eguraldi ona egiten zuen eta merkatari asko zetozen nekazarien kartera diruz beteta egongo zelakoan. Agure bat gelditu zen etxe-aurrean. Txirrina jo zuen. Argazki asko zintzilik zeuzkan: aldare budista bat zuen bizkarrean. Kotoizko oihalak saltzen zituena ere etortzen zen. Toyama probintziatik, berriz, botikari batek tiradera askoko kaxa handi batean mota askotako botika ugari ekartzen zituen. Etxeko atarian azalpenak ematen aritzen ziren. Zaldia marraztuta zegoen propaganda paper bat umeei ematen zieten. Inork nahi ez zuen botika-zorroa uzten zuten. Hala ere, nahiz eta negu luzea zain zeukatela jakin, nekazariak ez ziren gai azpiko arroparako oihal puska bat erosteko ere.

Urteberri eguna, ordea, behar bezala pasatu nahi izaten zuten eta horregatik, urtea berritu bitartean errentari batzuk kanpora lanera joaten ziren. Goizean goiz neskek zalgurdia arbiz, patataz, artoz eta abarrez bete eta H herrira saltzera joaten ziren. Haiek ere zalgurdi gainean jartzen ziren. Gurdian *chochin* bat ipintzen zuten. Ahots polita zeukatenek modan zeuden kantuak kantatzen zituzten. Egunak urratzen zuenerako Hra iristen ziren.

Hn barazkiak saltzen zituzten: batzuk azokan eta beste batzuk etxez etxe. Eta eguerdi aldean, hutsik geratutako zalgurdian barrezka eta txantxetan itzuli ziren. Barazkien truke irabazi zutenarekin azpiko

40 Sakea serbitzeko modu bat. Basoa ertzeraino sakez betetzean datza.

arropak egiteko oihala-eta erosten zituzten eta gozokidendan zerbait erosi eta jaten zuten.

Nobegenek H herrian barazkiak saldu eta sosa pixka bat irabazten bazuen, argindar-zutoin batean bere zaldia lotu eta geltoki aurreko tresna-denda batean sartzen zen *mokkiri* bat edatera. Arrain lehor puskak pikatzen zituen.

Nobegen ez zen bakarra. Nekazari gehienak etxera itzuli baino lehenago denda horretatik pasatzen ziren *mokkiri* batekin gozatzeko. Denda aurrean nekazarien zalgurdi asko zeuden lotuta. Gehienak behorak ziren. Noizbehinka zaldiak pasatzen zirenean, arrantzaka hasten ziren, aurreko hankak bortizki altxatuz. Orduan dendatik nekazariren bat ateratzen zen aurpegi gorri-tuarekin behorak beste alde batera eramateko.

Nobegen, ondo mozkortu eta gero, lepozuriak zeuden jatetxe batera joan ohi zen. Hango neskek Nobegen ezagutzen zuten. Eta ez zuten batere gustuko, mozkor zegoenean neskak jotzen zituen. Behin, Nobegen eta neska batek atea izorratu zuten, mahaia irauli, borrokan aritu eta neska eskaileretan behera erori zen patata-zaku bat bailitzan.

Nobegenen zaldiak, kantoi isil batean lotuta, jabearen zain egon behar izan zuen biharamunera arte.

Hil eta geroko bizitza⁴¹

Urtero bezala, Otarutik monje budista entzutetsu bat gonbidatu zuten, eta Sko tenplu batean sermoiak eman zituen lauzpabost egunetan. Tenpluaren aurrean, zerrenda bat jarrita zegoen. Tenpluari dohaintza eman ziotenen izenak ageri ziren: Kishino, Yoshioka eta beste

⁴¹ Budismoko kontzeptu bat. Pertsonak egun duten bizitzaren aurretik beste bat izan zuten, eta ostean beste bat izango dute.

lur-jabe handien izenak lehenengo, eta gero Yoshimoto, Yamari eta beste batzuenak. Kishinok mila yen eman zizkion. Monjea Kishinok ekartzen zuen Otarutik.

Sko edadekoak ekitaldi budista horren zain egoten ziren, umeak jaien zain baino irrika handiagoarekin.

Zaharrek urtean zehar ongi gordetako kotoi latzezko kimonoa jantzita, bilobari eskutik helduta abiatzen ziren tenplura. Soro arteko bidexketatik iltze herdoildu okerrak ziruditen. Kenen ama ere huts egin gabe joaten zen urtero.

—Bizi garen mundua samingarria zaigu. Tristuraz, nazkaz, negarrez eta bakardadez beteta dago. Zergatik, ordea? Aurreko bizitzaren ondorioa delako. Aurreko bizitzan egin genituenak orain ordaintzen ari gara. Beraz, eutsi behar diogu. Shakak⁴² halaxe kontatzen du —esaten zuen monjeak. Edadekoek, esaldi bakoitzean *Namuamidabutsu*⁴³ errepikatzen zuten.

—Baina, Amidaren⁴⁴ ondora joaten zaretenean, zeruko mundu zoragarri horretan, zoriontsuak izango zarete. Esango dizue «Tira, gizakien munduan asko sufritu duzue. Hala eta guztiz ere Budismoaren arauei jarraituz, kexatu gabe, ondo eutsi diozue. Orain bakea lortu duzue». Tira, orain, eskuak batu, eta esan ezazue *Namuamidabutsu*, eta lasai eta bakean bizi zaitezketete. Loto-loreen gainean eser zaitezketete.

—Eskertzekoa da hitz hauek entzutea...

—Eskerrik asko, eskerrik asko...

—*Namuamidabutsu*.

—*Namuamidabutsu*.

Nekazariak, konturatu gabe, hirugarren bizitzari buruz pentsatzen zuten. Denbora askoan bizitza mingarria zeramaten. Eta hobetzeko itxaropenik ez

42 Budismoaren fundatzailea.

43 Otoitz egiteko formula bat.

44 Shaka esateko beste modu bat.

zeukaten. Modu horretan naturala zen pentsatzea «hil eta geroko bizitzan, agian...». Zenbat eta zaharragoak izan, orduan eta itxaropen handiagoa zuten hil eta geroko munduarekiko.

—Arazoak pazientziarekin konpondu behar dituzue! —zioen behin eta berriro monjeak.

Kinu

Kinu herrira itzuli zela enteratu zen Ken.

—Otarun egon dela nabari da! Begira, nola dagoen jantzita! Familia oneko alaba prestua dirudi. Herriko txakurrek zaunka egingo diote, ez daude eta ohituta neska finekin. Herriko mutilen artean ere tirabira batzuk sortuko dira.

Keni ez zion komentarioak graziarik egin.

Kinu ez zuen gogoko. Herrira itzuli zen, eta zer? Keni berdin zitzaion.

—Kinutxu itzuli dela? —Sada, toteldu egin zen. Keni aurpegira begiratu zion, haren pentsamendua irakurri nahian bezala.

—Ergel hori! —esan zuen Kenek, eta ezpainak ukitu zizkion.

Sadak, une batez mutu egon ondoren, esan zion:

—Bai? Ba, pozten naiz!

Bat-batean saltoka hasi eta korrika alde egin zuen Sadak. Atzera begiratu gabe.

Bizpahiru egun geroago, Keni zurrumuru bat iritsi zitzaion belarrietara. Kinu haurdun zegoela. Unibertsitario batek-edo utzi zuela. Horregatik hoteleko lanari utzi behar izan zion, eta ezkutuan itzuli omen zen.

Aita haserretu egin zen alabarekin. Atarian ostiko bat eman zion eta Kinu erori egin zen. Buztinezko lurrean eserita «Ganbarako txoko batean-edo, utziko

didazu hemen bizitzen, mesedez?» eskatu omen zion negar-malkotan.

Kinuren inguruko zurrumurru gehiago zeuden.

Kinuk, haurdun egon arren, lanean jardun zuen etxekoei laguntzeko. Bere esku zuri txikiek, ordea, ez zuten balio nekazaritzako lanetarako. Sukaldean otorduak prestatzen zituen, eta jatekoak mahaian ipini ondoren, sukaldeko txoko batean eseri eta han egoten zen hitzik gabe, zirkinik egin gabe. Etxekoek utzitako hondarrak jaten zituen. Kenek gaizki pasatzen zuen zurrumurru horiek entzuten.

Egun batean, Banenetik berandu samar etxeratu zenean, ama zurbil zegoela ikusi zuen.

—Kinuk bere burua urkatu omen du. Laguntzera joan zaitezten nahi dute!

Ken, hitzik gabe atera zen kanpora.

—Azkenean... —pentsatu zuen. Zeruan ilargia ageri zen. Kinurekin bizi izan zituen gauza asko etorri zitzaizkion gogora.

Kinu trastelekuan zegoen zintzilik. Zazpi-zortzi lagun zeuden esku-argiarekin. Aitak ustekabean aurkitu omen zuen trastelekuan. Zintzilik zegoen Kinuren gorpua kulunkan ari zen poliki. Esku-argiarekin ikusten ari zela, gorputz osoan hotzikara bat sentitu zuen.

—Herriko lotsa desagertu egin da —esan zien aitak, zurbil, herritarrei.

Keni iruditu zitzaion tragedia hau ez zela soilik Kinuren kontua. Horren atzean, gauza asko zeudela aztertzeko.

Kinuk zer pentsatua eman digu Otaruri eta S herriari buruz!

9

«Aizue, andreok...»

Kishinoren erantzuna iritsi zen.

Morroi bat Banengana joan zen, esanez administra-
tzailearen etxera joateko.

Ken Kinuren hiletara zihoala, Banekin topatu zen.

—Badakigu erantzuna nolakoa izango den. Ez dago
entzun beharrik.

—Bai, Kishino Kishino da. Gero pasako naiz.

Katsuren etxearen aurrean, aita desberdinak zituz-
ten hiru ume ari ziren arrainak harrapatzen, sorotik
zetorren ura bertan geldituz. Gorputza lokatzez zi-
priztindurik zeukaten, eta zilbor inguruko lokatza erdi
lehortuta.

—Aizu! —mutiko batek deitu zion.

—Zer?

—Aizu, kaka duzu aurpegian! —kantari hasi zi-
tzaion.

Neska ere ez zen makala:

—Gen'ichi, *gen, gen*, gerritik behera kakaztua!

Lur-jabearen erantzuna nolakoa izango ote zen? Ken, pixka bat beldurtu zen, eta bihotzean kilima bat sentitu zuen.

Administratzaileak Ban ikusi bezain agudo nagusiaren gutuna jaurti zion:

—Begira! Banengoen ba ni! Halakoak esan zenituztelako temati jarri da nagusia! Ergel baino ergelagoak zarete!

Gezurti madarikatu hori! Uste duzu guk esandakoa hitzez hitz Kishinori esan diozula sinisten dugula? Zuk, zeure burua babesteko, errentariok gatazka bat sortzekotan gaudela esan diozu! Gezur hutsak esan dizkiozu! Guk errespetu osoz bitartekari bezala zu jarri zaitugu, eta ederki jo diguzu adarra!

Ban, gutuna poltsikoan sartuta, administratzailea agurtu gabe atera zen.

—Badakizue, eskandaluak muntatzea zuen kalterakoa da! —esan zuen administratzaileak. Banek ez zion kasurik egin.

Administratzailea oso urduri zegoen, eta ez zekien zer egin. Izorra dadila!

Banen etxean bospasei lagun bilduta zeuden. Ken Kinuren hiletara joan zen baina segituan atera zen handik, Kishinoren gutunari buruz lehenbailehen jakin nahi zuelako. «Ni ez naiz ni nintzena» pentsatu zuen «Baina Kinuk ulertuko nau».

Ban etxera itzuli zen. Denak Banengana jiratu ziren. Une horretan, gelan urduritasuna zen nagusi.

—Kar, kar!

Ban barrura sartu gabe, ezer esan aurretik barrez hasi zen. Eta poltsikotik gutuna aterata, «Agur, agur» egingo balu bezala astindu zuen.

—Akabo! —Banek bat-batean.

—Akabo? —Beste guztiek batera.

—Banengoen, ba ni!

—Akabo, benetan?

Indarrrik gabe geratu ziren denak.

—Tira, horrekin ez gara gehiago kezkatuko. Bigarren urratsari buruz pentsatu behar dugu —esanez, denen aurrean eseri zen Ban.

Abe, betaurrekoak jantzita, lur-jabearen gutuna poliki irakurtzen hasi zen.

—Eman behar dugun hurrengo urratsa hau da. Gure artetik negoziatzaile bat aukeratuko dugu. Eta hori joango da Otarura Kishinorekin buruz buru hitz egitera. Oraindik ez da liskarrerako garaia. Hori gerorako utz dezakegu.

—Baina, Ban-san, zu izango zara-eta liskarra sortzen lehenengoa! —esan zuen edadeko errentari batek txantxetan.

Banek buruan eskuak jarri zituen modu puztu batean, eta barre egin zuen.

—Ordena errespetatzeagatik da. Ezta?

—Bai.

—Baina Ban, zuk pazientzia gutxi daukazu eta ez zara negoziatzaile egokia!

—Aizue, ni nahiko negoziatzaile ona naiz, e! —esan zuen Banek lotsatuta.

Kenek, ordea, zioen bere baitan pentsatu zuen: «Zertarako ibili behar dugu hain mantso, pausoz pausoz? Garbi dago alferrik izango dela!»

—Liskarra apustu bat bezalakoa da. Ahal den ondoen prestatuta egon behar dugu —esan zuen Abek Banen antzera.

Errentarien emazteak kezkatuak zeuden eta komentarioak trukutzen zituzten, binaka edo hirunaka etorri ziren Banen etxera. Batzuk, umea besotan, titia ematen zuten. Beste batzuk umea bizkarrean

zeramaten. Bizkarrean zihoan ume bat negarrez hasi zen eta amari ipurdian ostikoak ematen zizkion. Banen etxeko atarian gero eta giro zaratatsuagoa zegoen.

Errentarien emazte guztiak zikinduta zeuden. Barretetik atera berri den lapa-belarra bezalakoak ziren: beltzak, eta lur-usaina zerien. Eta, hil ala biziko kinka larri hartan, aurpegia krispatu egin zitzaien.

—Aizue, andreok, —hasi zen Ban, hitz egitean beti isten zituen begiak, eta hitz bakoitzean kokotsa altxatzen zuen— entzungo didazue, faborez? Aurten lan eta lan aritu gara, lo egiteko ia astirik gabe. Eta horri esker, benetan, horri esker, ikusten dugun bezalaxe gauden: jatekorik gabe, sosarik gabe. Hori dela eta Kishino jaunari eskatu diogu mesedez ez gaitzala hiltzen utzi. Eta, hona hemen haren erantzuna. Gutun hau. Bertan jartzen du inozoak garela, erotuta gaudela, kartzelan sartuko gaituela eta abar. Aspalditik esaten da lur-jabeak eta errentariak aita- semeak bezalakoak direla. Baina gezurra da! Gezur galanta gainera! Aitak semea ez du horrela tratatzen!

—Bai...

—Ai, ai...

Emakumeek ez zekiten zer esan.

Bat-batean ume bat negarrez lehertu zen. Ama umea jotzen hasi zen, bere buruak patata bat zirudien.

—Isilik egon ume mukizua! —esan zion amak haserre bizian.

Une horretan Sassa aitona eta Takeda azaldu ziren, nagusiaren erantzunari buruz hitz egitera. Sassa aitona eskuan zeukan Tokio Egunkaria astindu zuen eta ahots marrantatuarekin galdetu zuen:

—Zer pasatzen da? Zer pasatzen da? E? Zer duzue?

«Bizia kendu nahi didazue ala?»

Negoziatzaileak Otarura abiatu eta hiru egun pasa ondoren, postal bat iritsi zitzaien errentariei. Abek bidalitakoa zen:

Ez da gurekin zintzo portatzen. Ez gaitu ikusi nahi. Goizeko zazpitan joan ginen haren etxe ederrera —pentsa, sarrera-tik atarirainoko lorategi izugarrian muino bat eta putzu bat daude!— eta han, ordu erdi zain egon eta gero, esan ziguten «dendara» joan zela. Etxetik denda horretara oinez 40 edo 50 minutu daude... eta hara joan ginen. Eta han, 20 minutu zain egon ondoren, lantegian zegoela esan ziguten. Lantegirainoko bidea erakutsi ziguten. Eta itzuli ginen: ezkerrera, eskuinera, ezkerrera, eskuinera... askotan galdu ginen. Nola edo hala iritsi ginen lantegira. Baina, ez genekien nondik sartu behar zen, ezta zeini esan behar zitzaion nagusiarekin egon nahi genuela. Jende askori galdetu genion, izerdi hotza bizkarrean, baina erantzuna beti berdina zen: «Hotelean dago!» Eta hotelera joan ginen, eta han: «Merkataritza ganbaran dago». Negarrez hasteko zorian ginen. Gaueko hamaiketan, azkenean, etxean harrapatu genuen. Zaratarik gabeko kotxe batean mozkortuta itzuli zen etxera.

—Bizia kendu nahi didazue ala? Egun osoan nire atzetik ibili zarete! —gu ikusterakoan haserre bizian oihukatu zigun.

Sassa aitonak ez zuen ezertarako balio izan. Segituan esan zion «Barkatu, zuk daukazu arrazoi osoa, nagusi jauna. Nekazariok berekoiak gara, eta beti gehiegi eskatzen dugu». Ulertezina da. Azkenean, Kishinok esan zigun:

—Ez baduzue alde egiten, poliziarri deituko diot.

Hurrengo egunean, hala ere, hiru orduz aritu zen gurekin hitz egiten.

—Zuen eskaerak ezin ditut onartu. Zuen atzean zirikatzen zaituzteten asaldatzaileak daukazue —esan zigun.

Zein da «asaldatzailea» ordea? Ba, nekazarien sindikatua omen da, haren ustez.

Erabakia eman digu. Ez dago konponbiderik. Hemen ez dugu zereginik eta herrira itzuliko gara.

Ken herriko errentari guztiak bisitatzen zebilen etxe etxe. Banek Keni eman zion lehenengo lana zen. Errentariak zer egin behar zuten garbi zegoen. Horretarako errentari guztiak adostuta eta batuta egon behar zuten. Hori esplikatzeko ari zen Ken. Etxe guztietatik pasa ondoren, neka-neka bukatu zuen Kenek.

Bat ados agertu ondoren, aldamenekoak nazka aurpegia erakutsi zion.

Batek esan zuen:

—Egoera larri hau konpondu behar dugu, baina modu baketsurik ez bada, gero gure kalterako izango da...

Beste batek honela esan zuen:

—Kishinori lezio bat emango diogu!

Eta ia guztiak harriturik esan zioten:

—Hara! Ken, nor eta zu hasi zara ardura honekin?

Hori esaten zioten bakoitzean, bihotza taupadaka hasten zitzaion Keni eta belarriak gorritzen zitzaizkion.

Banek eskatutako lan txiki hori bukatu ondoren, harro sentitu zen, eta bere buruan konfiantza lortu zuela iruditu zitzaion.

«Ba al dago trastelekuan?»

Ken etxe atzeko baratzean afarirako artoak biltzen ari zela, amak garrasi egin zion:

—Ken! Ken!

Amaren garrasi horretan izu-laborria sumatu zuen semeak, eta lepotik harrapatu balute bezala sentitu zen.

Etxean sartu zen ziztu bizian. Eta hor ikusiko, lur-jabearen administratzailea zen! Polizia-agentea! Udaletxeak! Poltsak! Guztiak argi printza bezala pasa ziren Kenen begietan.

—Sentitzen dugu, baina Otarutik agindu digute, errentarien arrosa bahitzeko —administratzaileak poliki eta ahots baxuz esan zion atarian zutik jarraitzen zuen Keni.

Ken etxeko atzealdera joan zen ezer esan gabe. Denek jarraitu zioten atzetik. Ama, izugarri urduri zegoen, administratzaileari eta harreman onak zeuzkan polizia gazteari gauza bera errepikatzen ari zitzaien.

—Sentitzen dugu, baina hau da egin behar duguna —esan zion poliziak gogaiturik.

10

Errentamenduari buruzko bitartekaritza-auzia

Ordena errespetatu behar da, berriz ere!

Kenek pazientzia galtzeko zorian ikusten zuen bere burua. Errentamenduari buruzko bitartekaritza-auzia eskatu behar zutela jakin zuenean.

—Alferrikakoa da itzulinguruak egitea! —esan zien Kenek beldurrik gabe. «Azken finean, Ban eta Abe ere zaharrak dira!» pentsatu zuen.

Ban eta Aberen arabera, «arazoa kanpora atera» behar zuten. Ordura arte egin ez zutena. Handiki gehienei ez zaie gustatzen «arazoa kanpora ateratzea», eta hori irtenbide bat zela iruditu zitzaien.

Uzta bahitu zietenetik, errentari gehienek erabakia hartu zutela ematen zuten.

—Nagusia ez da gure aita, ezta gu haren semeak ere —esan zuen errentaririk otzaneanak.

Errentariek ez zeukaten jateko arrozik. Trastelekuan bai, bazeukaten, baina arroz hori bahituta zegoenez, ezin zuten ukitu ere egin.

—Ale bat janda ere, errudun izango zarete! —zioen poliziak noizean behin etorrita. Kishinok esanarazten ziola ematen zuen. Errentariiek, «errudun» hitza entzunda, bizkarrean hotzikara sentitzen zuten.

Gau batean, Yoshizo eta ama iluntzean H herritik zetozen. Iluntasuna aprobetxatuz, norbaiten baratzean patatak eta artoak lapurtu zituzten. Amak mantalez bildu eta etxera ekarri zituen. Mantaletik barazkiak erori ziren.

—Ez esan ez anaiari, ezta arrebari!

Etxean barruan ama lur jota geratu zen. «Azkenean, lapurretan ibili naiz...» pentsatu zuen.

—Kishino jaunak bultzatu nau lapurretara! Haren erria da! Ez da nirea.

Eserita, orduak pasa zituen hutsari begira.

—Ama, nahi baduzu, eskola bukatu eta gero, egunero ekarriko ditut. Ni inork ikusi gabe, trebe ibili naiteke lapurretan!

—Tonto alaena! —amak errieta egin zion.

Jatekorik gabe geratu ziren errentariak txandaka bildu ziren Banen etxean. Auziaren afera espero zena baino azkarrago zihoan aurrera.

Takeda eta Sassa aitona behin eta berriz errepikatzen zuten «Beste konponbide bat ez da egongo?» edo «modu baketsuago bat izango bagenu».

Ban eta beste errentari bat joan ziren alkatearengana, eta ahoz eskatu zioten Errentamenduari buruzko bitartekaritza-auzia. Alkateak eskaera hori berehala pasa zuen Asahikawako auzitegira. Eta han errentarien eskaera onartzearekin batera, uztaren bahiketa balio-gabetu egin zuten. Errentariiek, gorputza lotzen zien soka askatu balitzaie bezala, arintasuna sentitu zuten:

—Ai, ai, orain lasai gaude!

Errentariak beraien uzta segituan H herriko neka-
zarien biltegian sartu eta entrega agiria lortu zuten.
Horrela, nahi zutenean sal zezaketen, eta dirua lortu.

Errentamendu-auziaren erakundeko morroia

Diputaziotik Errentamendu-auziaren erakundeko morroia etorri zen. Paper-zorro beltz bat zeraman ezkerreko besazpian, eta ezkerreko sorbalda pixka bat goratuta zeukan. Banen etxean sartu zen. Esertzerakoan, ihizko kuxinaren gaineko hautsak molestatu zion. Praken belaunekin kontuz ibili zen. Ez zegoen eroso. Errentarien azalpena entzuten ari zen zigarro bat lagun. Etengabe ari zen erretzen. Eta denbora asko pasa gabe, sutegiko errautsen gainean zigarro-puntak pilatu ziren, klarion zurizko hesolak bailiran.

Banen ordez, Abek eman zion azalpena. Hasieratik azaldu zion, kronologikoki, zehatz-mehatz.

—Ba... tira... Kishino jauna... pixka bat pasa da nire iritziz.

—Pixka bat?

Arduradunek alde egin ondoren, Banek ardura-dunen keinuak antzeratzen zituen eta denak barrez lehertu ziren.

—Mengel hark zer daki nekazarioz!

Bitartekari hautatu zituztenak bertako gauzez ondo eta asko zekiten ospe oneko batzuk ziren: Soma landetxeko administratzaile zaharra, Hko alkatea, Sko eskolako zuzendaria eta abar.

Epailea jarri zuten bitartekari-buru.

—Kezkatzekoa da. Ez dago-eta gure egoera benetan kontuan hartuko lukeen bitartekaririk —esan zion Kenek errentari bati.

—Lasai, haiek pertsona prestuak dira. Gure onerako egingo dute lan —esan zion besteak. Hori entzunda, Ken adoregabatu egin zen.

Epaitegitik lehenengo zitazioa iritsi zitzairen.

Epaitegira joateko, Banek gutxitan erabiltzen zuen kimono bat jantzi zuen.

—Ez doakit batere ondo... Zer iruditzen zaizue?

—Kimonoz jantzitako hartza ematen duzu.

—Hartza? Gizajoa ni! Kar, kar!

—Nekazariok inoiz ez dugu janzten kimono onik. Normala da kimonoa jantzita gaizki gelditzea!

Epaitegira abiatzerakoan, Banek gaineratu zuen:

—Auzi hau ez bada ondo ateratzen, gureak egingo du!

Nor eta nor daude lotuta?

—«Esker txarreko zakur zikinak! Ni honaino ekarri eta lotsagarri utzi nauzue. Ikusiko duzue!» Epaitegiaren erdian Kishino garrasika hasi zitzaigun haserre. «Nahi duzuen egin ezazue! Ordainetan betirako zapaldu egingo zaituztet!» Hau al da gizakiak gizakiari esateko hitzak? Nahiz eta nagusia izan, bidegabekeria galanta da! Berrogeita hiru urte dauzkat eta orain arte inoiz ez dizkirate bota halako hitz bortitzak!

Hiru egunetan bost aldiz egon gara harekin. Eta ikusten genuen bakoitzean haserreak hartuta oihuak bota dizkigu. Gu ez gara joan Asahikawaraino haren garrasiak entzuteko, bitartekarien bidez hitz egiteko baizik.

Eta ba al dakizue bitartekariak zer egin duten? «Lasai, Kishino jauna, lasai» eta kito! Hau bada bitartekarien lana, edozeinek balio du horretarako.

Nekazarien sindikatuko abokatuak esan digu Bitartekaritza-auzia izen eztiaren pean lur-jabeen aldeko

lege bat dagoela. Izan ere, hemendik aurrera nekazarien eta lur-jabeen arteko gatazka gehiago izango direlakoan daude. Haiek legearen bidez ekidin nahi dituzte gatazka berriak. Horretarako da legea. Baina izen goxoa daukanez, nekazari inuzente onberak poztu egiten dira, eskertzeko moduko legea dela sinistuz. Oso ondo egina dago!

Bai, halaxe da! Oraingo honetan, ikasi dut ondo baino hobeto. Aurten Hokkaido osoan gaizki atera da uzta. Edozein herritan gerta daiteke gatazka bat. Gertatzen bada, lur-jabeentzat arazo larria da. Horregatik, gure kasua nola edo ala estali nahi dute. Horretarako, lur-jabeak bitartekariekin harremanetan jarri dira.

Erakundeko morroiak zera esan zigun: «Zuek epaitegirako eskaera bertan behera uzten baduzue, Kishinori aginduko diot zuei zerbait ordaintzeko. Gizarte osoarentzat hori litzateke konponbiderik onena.»

Ikusten? Haiek elkarrekin daude.

Beraz, ez daukagu laguntzarik. Egoera honetan zer egingo dugu? Etsipenak hartuta, geure burua urkatuko dugu? Biharko ere jatekorik ez daukagu-eta. Eta, Kishinok auzi hau irabazteko edozer gauza egingo duela esaten du. Ez badugu hil nahi, borrokatuko dugu? Bietako bat egin beharko dugu. Hil ala borrokatu —Ban negarrez ari zen.

Hurrena, nekazarien sindikatuko Arakawak hitz egin zien:

—Oraintxe bertan gatazka antolatu eta borrokarako prestatu behar dugu. Burdina bero dagoenean jo behar da tinko!

Euri hotza ari zuen. Negua zetorren. Konturatu orduko, euria elur bustia bihurtu zen. Errentari onberak berotuta zeuden. Azkenean pazientzia bukatu zitzaizela iruditu zitzaion Keni.

—Maltzur gaiztoak dira! Madarikatuak!

Jendea euripean etxeratu zen. Atarian euritakoa zabaldu zuenean euriaren hotsa handitu egin zen. Batzuek txanoa buruan jarrita sorbaldak bustitzen zituzten. Euriaren zarata baino ozenkiago hitz egiten zuten.

Abe, Ban, Ken, Arakawa, beste hiru errentari eta sindikatuko bi kide bi egunez ia lorik egin gabe izan ziren, Kishinoren landetxeko errentarien matxinada antolatzen ari ziren. Paskinak idazten, inprimatzen-eta jardun zuten. Ken esperientzia berri horrekin hunkituta zegoen.

Gero eta jende gehiago biltzen ari zen. Ordura arte Ken etxez etxe ibili izan zen, etsi gabe, eta horrek errentarien artean batasuna sortzeko balio izan zuela zirudien.

Takeda eta Sassa aitonak, ordea, Ken eta lagunak bisitan joaten zitzaizkienean, eztabaidatzen hasten ziren. Matxinadaren taldekoek ez zuten erantzuten jakiten, urduri jartzen ziren. Orduan biek esaten zieten barre iraingarritz:

—Guk dioguna ulertzen ez baduzue, nola egingo duzue nagusiaren aurka borrokan?

Takeda administratzailearekin errentarien batasuna puskatzen ari zela esaten zuten.

—Takeda, Sassa aitona, eta Nobegenekin kontuz ibili behar dugu. Diruagatik edozer gauza egin dezakete.

Halako batean, Katsu alarguna eta umeak azaldu ziren, bakoitzak bizkarrean patatak eta artoa zekartzaten.

—...!?

Kenek, hunkituta, ozta-ozta eutsi zion negarrari.

—Gehiegi da. Negarrez hasiko naiz. Ezin dizugu dakartzuna hartu.

—Asko eskertzen dizugu, baina gorde zuentzako, zuek jateko! —esan zuen Abek, betiko lasaitasuna galduta, inoiz baino urduriago.

Ban, edozer gauzogatik hunkitzen zen eta negar-zotinka ari zen.

—Aizu, Abe, Katsu zoragarri portatu da, ezta?

—Bai, benetan txundituta nago! Daukan gutxia eman digu... guk hari ezer ere eman gabe. Egoera honetan, egia zein den ondo daki berak.

Hain zegoen hunkituta Keni oilo-larrua jarri zitzaiola.

Banen etxean, bere emaztea eta Aberena ari ziren etxeko lanak egiten. Haiek noizean behin errentarien emazteak bisitatzen zituzten, emakumeen artean ere batasuna sortu nahi zuten.

Kinu zenduaren ahizpa gaztea ere laguntzera etorzen zen. Banen emaztearekin harreman ona zuen eta zoragarri aritzen zen lanean. Paskinak egiten ere laguntzen zien. Kinuren antza handia zeukan. Baina Keni harroputz samarra iruditzen zitzaion eta ez zuen gustuko. Sada laguntzera etorriko balitz ze pozgarria izango litzatekeen pentsatzen hasi eta triste jarri zen. Baina Sadak Ken lehenbailehen saltsa horretatik ateratzea nahi zuen.

Errentariak gatazka horretan hasi zirenetik, Yamarik aldarrikatu zien ez ziela sekula gauzak zorretan salduko. Horrek esan nahi zuen errentariak haren dendan ezin zutela erosi. Hori gutxi balitz, ordura arte zeukaten zor guztia segituan ordaintzeko mehatxua egin zien.

—Sozialisten esanei itsumustuan segituz, nazio honetako tradizio zahar eta onak zikindu dituzue, esker-txarreko alaenak! —esaten zien garrasika dendan.

—Herriko militarren lureko errentariok, gatazkan parte hartzen baduzue, hori gure maiestateari aurka jartzea da. Militarrek ere lotsagarri uzten dituzue!

Horrela esaten ibili zen bai gazteen elkartean, baita Gazteen ikastegian ere.

—Baina Yamari jauna, ez daukagu bizimodurik. Ez daukagu beste irtenbiderik. Zuei bost axola zaizue gure egoera, ondo bizi zarete-eta!

Errentariak Yamariren hitz gogorrek entzunda, pixka bat kikildu egiten ziren. Baina, kontua zen ez zeukatela jateko modurik.

Kenek, ordea, bazekien Yamari halako sermoiak ematen ari zen bitartean, administratzailearekin harremanetan zegoela. Eta Hko jatetxe batean errentarien gatazkari buruz hitz egin zutela.

—Beldurgarria da.

—Bai, horixe! Nor eta nor dauden harremanetan jakiteko, gauzak ondo begiratu behar dira—jarraitu zuen Arakawak.—Hariari jarraitzen badiogu, askotan aurkitzen dugu ustekabekoak ustekabekoarekin harremanak izaten dituela.

Eskolan, Yoshizo eta besteak herriko erdiguneko umeek gaizki tratatzen zituzten.

Eskolako zuzendaria, hain zen gizon bihotz onekoa eta prestuak. Kenek zinez sinisten zuen berarengan! Zuzendariak errepikatzen zuen errentarien gatazka-rengatik herri osoa lotsagarri geratzen ari zela:

—Zuen guraso edo senide bat ekintza gaizto horretan sartuta badago, lehenbailehen uzteko eskatu behar diozue.

Oshizok irakasleek esaten zuten guztia sinisten zuen, eta eskolatik itzulitakoan negarrez hasi zitzaion Keni. Yoshizo batzuetan ez zihoan eskolara, lagun batzuk gaizki tratatzen zutelako. Eta Kenengana joaten

hasi zen. Gutunak eramaten, eta paskinak prestatzen laguntzen hasi zen. «Eskolan baino askoz gusturago nago» esaten zuen.

Kei ilea olioarekin distiratsu zeukan mutil batekin zebilen.

—Ken, jendeak goraipatzen zaitu! —esan zion Keik Ken berandu etxeratu zenean. Kei lurrean etzanda zegoen liburu bat irakurtzen, neba begiratu gabe, barre kaskarin batekin.

—Lotsagabe hori!

—Goraipatzen zaituztela!

Ken gaizki sentitzen zen beti bere ama eta arreba-rengatik Ban eta Aberen aurrean.

11

«Egin ezazue mila aldiz»

Kishinoren landetxeko errentarien matxinadari buruzko asanblada herriko zineman izan zen lehenengo aldiz. Landetxeekin negozioa zeukaten herritarrak eta urrutiko landetxeetako errentariak esku-argiarekin bildu ziren. Zinema jendez gainezka zegoen.

Ken bere bizitzan lehenengo aldiz igo zen oholtza gainera. Odola igo zitzaion burura. Eta hitz egiten ari zenean, ez zekien zertaz ari zen. Asaldatuta geratu zegoen. Noiz behinka txaloak entzuten zituen. «Ados, ados!» eta «Arrazoa daukazu!» esaten zioten. Oholtzatik jaitsitakoan Kinuren ahizpak esan zion:

—Oso ondo, Ken!

Asanbladak oihartzun handia izan zuen. Astebete pasa gabe, landetxe batzuetan errenta jaitsi zuten (gutxi, oso gutxi) gatazkaren beldurrez.

Hala ere, Kishinok esan zien:

—Mila aldiz antola ditzakezu mota horretako bilerak, niri bost axola zait. Eltxo baten ziztada baino gutxiago da niretzat. Egin itzazue gehiago, animo!

Administratzaileak irribarre maltzurarekin ekarri zien nagusiaren esana.

Hiru asanblada antolatu zituzten. Baina tamalez, asanbladek ez zieten emaitza konkreturik ematen. Zer-bait egin behar zuten. Arakawa eta Abe-eta, ataskatuta sentitzen ziren. Pazientzia agortzen hasi zitzairen.

Norabide aldatuta

Kenek ez zeukan idazteko ohiturarik, baina bat-batean otu zitzaion Shichinosukeri idaztea. Eta idatzi zion. Gutun batean beraien matxinadari buruz idatzi zion.

Berehala erantzun zion Shichinosukek.

Otaruko sindikatukoei komentatu diet zuen gatazkari buruz. Eta esan didate Otarura etorri behar duzuela. Izan ere, lur-jabea Otarun bizi da. Zuek herrian gauza asko eginda ere, Kishinori bost axola zaio. Laurehun kilometrorra dagoen su-teak baino kalte gutxiago egingo lioke. Otaruko sindikatuaren laguntzarik gabe, ez duzue sekula irabaziko. Lehenbailehen Otaruko sindikatuarekin hitz egon behar duzue, Otarun bertan borrokan has daitezten.

Postal hark, bidean ataskatuta zeuden errentariei irtenbide bat eman zien ustekabeen.

—Hara! Ez ginen konturatu!

Borrokan ari ziren errentariak animatu egin ziren. Antolaketa berritu egin zuten. Nor arituko zen Otarun, eta nor geratuko zen herrian erabaki zuten. Horrez gain, honakoa ere erabaki zuten: gatazka hau ez zela soilik Kishinoren menpekoena. Errentari guztiena zela etengabe aldarikatuko zuten. Otarun gauzak nola zihoazen ikusita hitzaldiak antolatuko zituzten (horietan txostenak, iradokizunak, eta salaketak jarriko

zituzten), Hitzaldiez S herriko nekazarien sindikatua arduratuko zen.

Kenek Otaruko kargua hartu nahi zuen. Baina herrian geratzea tokatu zitzaion. Bat-batean egiteko asko sortu zitzaizkion.

Laboreen biltegian zeukaten arroza saltzea ere erabaki zuten, diru horrekin borrokan jarrai zezaten.

Ban, Abe eta beste hamaika kide, sindikatuaren bandera eta guzti abiatu ziren Otarura, errentarien agurrak atzean entzuten zituzten. Takeda eta Sassa aitona, haiek Otarura joango zirela enteratuta, hitzarmen bat eskatzea proposatu zieten.

Lauzpabost egun lehenago hasi zen elurra. Ishikari zelaia hortzmugaraino zabaltzen zen basati, eta haize hotz bortitza zebilen kristal puska bezain zorrotz, zelai gaineko elurra airera eramanez.

12

Denok eskutik helduta!

Lehenengo argibidea:

S herriko 15 errentari Otarura joan dira, haien lur-jabea zen Kishino banpiroarekin borroka egitera.

Jarraian, Nekazarien Sindikatua, Sko Matxinadaren Erakundea eta Otaruko Sindikatu Batua elkarturik Lan-gatazkarako Batzorde Batua antolatu dute. Horren helburua, bereziki, langileak eta nekazariak lan-gatazkarako elkarri eskutik helduta egotea da; batuta egotea.

Hiriko langileriak mobilizatu behar du, antzinako sistema feudalean oinarritutako joputzatik gizarte iluminatu batera.

Errentariak lur-jabea bizi den hirira joango dira. Lan-gatazkarako Batzorde Batua tinko antolatu eta nagusiari aurre egingo diote. Hau da Japonia osoan borroka molde honen lehenengo kasua.

Gizarte osoan kapitalismoa azkar hedatzen ari da eta lur-jabeak burgesa bihurtzen ari dira —herritik kanpo, hirian bizi diren lur-jabeak dira horren eredu.— Horrekin batera, nekazarien mugimenduaren

no lakotasuna aldatu behar da. Kishinoren landetxe-ko errentarien gatazkak garrantzi eta esanahi handia dauka.

Bigarren argibidea:

Hilaren hiruan, arratseko seietan, hamabost errentari iritsi ziren Otarura. Otaruko Sindikatu Batuko berrehun kidek ongietorria egin zieten. Berehala joan ziren Kishinok eramaten zituen denda, lantegira, hoteletara eta merkataritza ganbarara, manifestazioa egitera, kemen handiarekin.

Shichinosukeren gutuna:

Geltokira berrehun bat joan omen dira harrera egitera. Bai Ban, bai Abe, txundituta geratu omen dira Negar-malkotan zeuden. Interesgarriena nekazarien jarrera da: sindikatukoek esaten zutenez, langileek hunkiturik zerbait esaten zietenean, nekazariak isil-isilik geratzen omen ziren. Hain pozik ez zeudela zirudien, baina bai zera! Pozik zeuden, baina ez zuten adierazten. Langileek hamar gauza esaten zituzten eta nekazariak hiru: poliki eta mantso. Txanda honetan Bani ez zaio ahots handia ateratzen, ezta barre-algararik ere. Sindikatuko goiko gelan, bazter batean txukun eta isilik eserita egoten omen da. Sindikatuko batek esan zuen «Nekazaria nolakoa den galdetzen badigute, sindikatuko goiko gelako bazter batean eserita isilik egoten dena dela erantzutea nahikoa da» eta barre egin genuen.

Hirugarren argibidea:

Egunero gerriko gorriarekin Kishinoren denda batetara joaten gara eta konturatu gara Otaruko hiritarren artean Kishinoren errentariak ospetsu bihurtu direla.

Hilaren 6an, Otaruarrekiko apelazioa izenburuko paskinak zabaldu genituen: 10.000 ale. Bertan azaldu genituen orain arteko nondik norakoak: «Nekazariok

lan eta lan ibili ondoren, urteko ehunka yeneko zorra izaten dugu». Gure azalpen zehatza dakartzaten paskinak Otaruko hiritarren artean zabaldu egin dira, oihartzun handia daukate.

7an, «Egia zer den jakiteko lehenengo asanblada» antolatu genuen. Baina hizlariei hitz egiten galarazi zieten, eta polizia sartu zen; bost lagun atxilotu zituzten. Baina lekua entzulez gainezka zegoen, baita kanpoan ere ugari, eta zenbait lekutan liskarrak sortu ziren. Hiritar asko gure alde jarri dira.

Shichinosuke naiz. Ban ez zegoen ohituta «Bertan behe-
ra utzi!» edo «Abisu bat da» poliziaren aginduekin. Horregatik
oholtzara igo zelarik, «Amaitu ezazu» esan ziotenean, kasurik
egin gabe hitz egiten jarraitu zuen. Ondorioz, poliziek arras-
taka jaitsi zuten oholtzatik. Sindikatuko Takehata atxilotu
zuten. Ohota idazkariak protesta egin zion poliziarri, orduan,
poliziak «Harroputz lotsagabe hori!» esan zion eta bortizki
jotzen hasi zen. Sindikatuko bulegora itzuli ginen eta Ban eta
Abe, biak ala biak, lur jota zeudean. Normala da...

—Aizu, Shichi, martxa honetan, ondo buka dezakegula
uste al duzu? —galdetu zidan Banek.

Sindikatuko batek esan dit lehenengo aldia dela hain is-
kanbila handia ikusi duela. Eta kikilduta dagoela.

—Horren gogorra da borroka, eta nola mantentzen dute
borrokan jarraitzeko kemena? —zioen Banek sindikatu-
koei buruz. Harentzat ulergaitza da sindikatuko jarrera
kementsua.

Otarun zeudenek herrian aritzen zirenei esan zieten:

—Lehenbailehen antolatu behar dugu Gazteen
taldea eta Emakumeen taldea. Emakumeen taldea era-
tzeko, Banen eta Aberen andreak eta Kinuren ahizpa
mugitzen hasi ziren.

Herrian, Otaruko berriak aztertzeko bilera antolatu zuten. Ken gero eta konfiantza handiagoa du bere buruarengan lan nekosoak egiten.

—Zergatik ez diozu Sadari laguntzeko eskatzen? —
galdetu zion Kinuren arrebak Keni.

Laugarren argibidea:

Kishinoren etxean, dendetan eta abarretan, bat-batean ugaritu ziren zakurrak. Zakur horiek buruan kapela bat eta gerrian ezpata zintzilik zeuzkaten. Argi eta garbi zegoen zertarako ziren. Errentariak Kishinorekin negoziatzera joan zirenean, sindikatuko Mutok lagundu zien. Eta, zakurrek koska egin zioten, eta atxilotu egin zuten.

Negoziolari zegoenez, Kishinok ez du ezer jakin nahi negozio ofizialekin, eta ez du onartu nahi negoziatzailekerik.

Komisariordeak Mutori garbi esan zion:

—Zuek diozuen bezalaxe, kapitalisten zakurrak gara. Gogoan izan.

Egunean bi bilera izaten ditugu, egoera eta gertakari bakoitzarentzat konponbideak bilatzeko.

Bosgarren argibidea:

Donazio zerrenda:

Bost arroz zuri zaku, zaku bakoitzak 72 litro arroz zituen.
Japoniako Nekazarien Sindikatuaren Wko sukurtsalak eta beste hiruk emanak.

«Ezin dugu zuengana joan, baina zuekin gaude. Munduari erakutsiko diogu langileen eta nekazarien garaipena!»
Osakako Nekazarien Sindikatuak.

«Kishino lapur deabrua suntsitu!»

Japoniako Nekazari Sindikatuaren Wko sukurtsalak.

5 yen eta 89 sen: Otaruko 41 garraiolarik.
2 seneko 40 seilu: langile batek.
7 arrautza: langile batek.

Aberen gutuna:

Diru pixka bat bidaltzeko eskatuko diezu, mesedez? Diru gehiago izanez gero, Nekazarien Sindikatuaren aurrean ez gara lotsagarri geratuko, eta hemengo lagunak animatzeko ere balioko du. Zuek hitz egin ezazue eta ahal bada, lehenbailehen bidaltzea espero dugu.

Shichinosukeren gutuna:

Abek esan dit malkotan «Nola litekek Otaruko langileek (sindikatuak direnek eta ez direnek, gainera!) guri nekazarioi hainbeste laguntzea! Batzuk jai hartuta, beste batzuk poliziek atxilotu eta kolpatuta ere... Hori bakarrik ez, gu bezain behartsu direnek hainbeste eskaintzen digute, hori nola liteke?

Nik esan diot:

—Bai langileak, bai gu, pobreak gaituk. Eta haiek kapitalisten, eta gu lur-jabeen menpe gaudek. Egoera berdintsu batean gaudek.

Eta Abek:

—Bai, hala eta guztiz ere... hainbeste laguntzea...

Aberi kostatu egiten zaio hori ulertzea.

Dena den, ni ere txundituta nago nola ari diren borrokan langileak guretzat! Hori ez da askotan gertatzen. Azken finean, langileak eta nekazariak odol berekoak garela esango nuke.

Borrokak luzera joko lukeelakoan bidali dizkiguzue bost zaku patata. Horiek ikusita, hemengo sindikatukoek negar egin dute. Badakizu zergatik? Arrozarengatik! Hemen, langileak, nahiz eta pobreak izan, ez dute arrozik jaten! Ezta patatak ere! Ikusi dute

nekazariak goseak akabatzen daudela hain bizi-maila baxuarekin!

Mutok dio bakarrik arroza jan ahal izateko ere borrokan jarraitu behar dugula, irabazi arte.

Seigarren argibidea:

Otarura etorri ginenetik bi aste pasa dira. Errentari batzuk hasieran zalantzan zeuden. Baina dagoeneko aldatu dira. Eguneroko negoziazioak direla, gure egoera ikasteko bilerak direla, Langile-nekazarien Alderdiak antolatutako Arazo sozialei buruzko ikastaroak direla (hauek tarteka izaten ditugu baina oso eraginkorrak izan dira), gero eta kontzienteagoak gara. Paskinak banatzen animo handiarekin ari dira. Lan-gatazkarako Batzorde Batuan gure bi kide daude sartuta, eta Negoziazio, Bisita, Dokumentu eta Kontabilitate sailetan ere ari gara.

Kenek bazekien, gutxi gora behera, Otaruko mugimenduak nondik nora zihoazen: aztertzen zituen informazio ofizialak, lagunen gutunak eta egunkariek tako artikulua. Otarun bertan, senperenak pasatzen ari baziren ere.

Abek idatzi zidan esanez:

Gu beldurtuta eta urduri gaude ; eta hemengo langileei esker ari gara borrokan jo eta ke. Hona etorri nintzenetik pisu asko galdu dut. Herrian egon nintzenean ez nuen espero honenbesterainokoa zenik kontua.

Kenek ere lagunekin «entrenatu» nahi zuen Otarun.

Zazpigarren argibidea:

Gatazka-mugimenduan hasi zirenetik, berriz eskatua zuten auzitegian Errentamenduari buruzko bitartekaritza-auzia. Horren kontura, Asahikawako

epaitegitik deitu zieten, eta hilaren 15ean, Ban eta beste bat joan ziren.

Epaitegian bildu zirenak Katsumi bitartekaria, epailea, salaketzaileak (Ban eta beste bat) eta Kishino lur-jabea.

—Zuek zintzotasunarekin, pakean konpondu nahi duzue ala gatazkarekin? —epaileak.

—Gu zintzo ari gara, lur-jabea, aldiz, ez da zintzo portatzen —Banek.

—Nolatan antolatzen dituzue hitzaldiak eta bilerak Otarun? Zuek borrokan gogor segitzen baduzue, auzi honetatik erretira zaitezten nahi genuke —epaileak.

—Zuek gatazka irabaziko bazenute, estatu osoan errentariak nagusien aurka jarriko lirateke. Hori arazo larri bat da. Eta zuek, aldarrikatzen duzue ez duzuela ez dirurik ezta jatekorik ere. Baina dirurik gabe, nolatan jardun dezakezue borrokan Otarun, herritik hain urrutiti? —bitartekariak.

—Sindikatuakoen laguntzarekin egiten dugu —Banek.

Goiko elkarrizketa izan zen bezala kopiatu dugu. Ez dago hitz bat ere aldatuta. Epaiketaren zatitxo bat besterik ez da.

Hori ikusita, argi eta garbi dago bitartekaritza-auzia zer den.

Hokkaidoko leku askotan antolatu dituzte Lur-jabeen batzordeak. Beraz, haiek ere hasi dira elkartzten, eta Kishinori laguntzen diote. Lurralde bateko buruak *Errentariak galdu dezatela!* izenburuko dokumentua bidali omen zien lurraldeko handikiei eta agintariei. Ondo da. Guk ere elkartasuna sendotu behar dugu.

Zortzigarren argibidea:

Audientzia bakoitzean, Kishinok gauza desberdinak esaten ditu, eta askotan bere ordezeko bat bidaltzen du. Ez du gutxieneko zintzotasunik.

—Errentariak harrotu eta alfertu egiten bazarete, Hokkaido aurrera eramateko saiatzen ari garenontzat ikaragarritzko kaltea da. Ni ez naiz ari neure burua defendatzen, baizik eta Hokkaido osoko etorkizunari begira ari naiz! Horregatik ezin dut zuen eskaera onartu —bota zuen lotsagabeki Kishinok.

Hokkaidoko etorkizunari begira!? Hitz politikak, hoberik! Horien atzean irakur dezakegu: «Ez dadila neure irabazia gutxitu».

Ia egunero paskinak banatzen ditugu kalean. Hiritar gehienak gure alde daude. Eta orain arazo soziala bihurtzen ari da gure borroka. Dagoeneko ez da soilik «Kishino eta errentarien arteko arazo bat». Guk ildo horretatik jarraitu behar dugu kontziente eta gogor.

Ebazpena:

Sko Kishino landetxeko errentariak Otarura etorri eta errenta jaistea eskatu dute, aurtengo uzta urria delako. Haien erreklamazioa arrazoizkoa eta bidezkoa da. Arazo honi ahalik eta lasterren konponbidea aurkitzeko eskatzen diogu. Ez baduzu konponbidearen bila zintzo jokatzeko, gure merkantzia deskargatzeri uko egingo diogu, zure lantegietan greba egingo dugu, zure dendetan boikota egitea adosteko prest gaude.

Horixe erabaki dugu.

Otaru osoko lehorreko langileen batzordeak

Kishino jaunari

Ebazpen honek Kishino adoregabatu zuen.

Shichinosukek idatzi zuen esanez lantegietan ere mugitzen hasiak zirela.

Bederatzigarren argibidea:

Hilaren 24an izan zen Polizia akusatzeko asanblada. Nola portatu ziren poliziak!? Itsusi eta ero moduan! Ezpata nahi zutenean ateratzeko prest, ehunka polizia kokatu ziren aretoaren barruan eta kanpoan.

Inguruan sokak jarri zituzten eta kotxeei pasatzea debekatu zieten (hura bai zela ezatsegina hiritarrentzat). Bilerara etorri zirenei kontrola jarri zieten, banaka-banaka nor ziren galdetu zieten eta zeramatzatena miatu zuten izua sartu nahian.

Inprimategietan poliziak bidalitako zelatariak dau-de, eta dokumentuak inprimatzea eragozten digute. Bilerak izateko lokalen jabeei mehatxua egiten diete esanaz «Lokala erabiltzen uzten badiezu, izorratu egingo zaitugu». Hori lokalak alokatzen bizia ateratzen dutenei negoziorako eskubidea ukatzea da.

Hala eta guztiz ere, zapalkuntza honek balio du borrokarako gure batasuna sendotzeko.

Elkarrekin lanean aritu ahala, neska harroputz hark gero eta gehiago erakartzen zuen Ken.

—Sadak esan dit triste, zuri pentsaera gaiztoak sartu zaizkizula! —esan eta barrezka hasi zen Kinuren arreba. Neska bizi-bizi ari zen lan mordera egiten.

13

Emakumeak emakumeekin

Lur-jabearen andreari eska diezaiogun.

Bost emazte atzo Otarura ume txikiak bizkarrean hartuta.

Otaru *Egunkariak* honako artikulu hau zekarren hizki handiko titulu baten pean:

—Hilaren 3an Kishinoren landetxetik hamar bat errentari Otarura joan zirenetik, borroka larrian jo eta ke dabilta. Bestalde, herrian dauden haien andreak ere ez daude geldi. Emakumeek ugazabandrearekin hitz egin dezaketelakoan, bost errentarien emazteak abiatu dira Otarura. Etxean utzi dituzte zaharrak eta umeak, eta, kotoi latzezko kimonoa, gomazko zapatak eta artile gorriarekin egindako zango-zorroak jantzita, bizkarrean daramatzate ume txikiak.

Ken emakumeak baino pixka bat geroago abiatu zen Otarura, ordura arte han jardun zuen berri-emai-lea ordezkatzera.

Nola ausartu zarete ni bisitatzera, lotsagabe alaeak!?
Izugarrizko irainak bota dizkiete, baina emazteak ez dira
itzuliko ugazabandrearekin hitz egin gabe.

Otaru Egunkaria:

Erabaki irmoa hartuta Otarura joan ziren bost errentarien emazteak. Iritsi bezain laster, haien ugazabandrea ikustera abiatu ziren. Baina, gaixo zegoenez, esan zieten ezin zela haiekin egon. Emazteek, orduan, esan zieten etxeko ganbaran edo trastelekuan lo egiten uzteko, hartara ugazabandrea sendatu arte hantxe egongo zirela zain. Hala ere, azkenean, sindikatuaren bulegora erretiratu ziren. Umeek aspaldiko partez ikusi zituzten beren aitak, «Aita, aita» deitzen hasi ziren. Aitek besoetan hartu zituzten umeak, eszena dramatiko hunkigarri batean.

Hilaren 21ean, emazteak berriz joan ziren ugazabandrearengana.

Haietako batek, Banen emazteak, zera esan zuen: «Guk Kishino andreaki zehatz-mehatz kontatu nahi genion landetxeko lurra lantzen zer-nolako ahaleginak egiten ditugun, eta orain zer-nolako bizitza miserablea daramagun. Kishino jaunak, aldiz, zera esan zigun “Otarura iji-aja egotera etorri zarete, ala? Nola ausartu zarete hona etortzera?” eta “Zintzoak izaten ikasi arte, ez zarete sartuko etxe honetan!” Pertsona zintzoa izaten ikasi arte? Ez dugu ulertzen zer esan nahi duen horrek. Hala eta guztiz ere, emakumeok elkar uler dezakegulako itzaropena ez geneukan galduta, eta nola edo hala lortu genuen andrea ikustea. Eta zer esan zigun? Gu ikustearekin batera, garrasika bota gintuen: “Ez zaituztet ikusi nahi!”».

Hura ustekabekoa izan zen. Herritik ateratzerakoan, herritarrei esan genien ugazabandreak egoera ulertuko zuela eta hitz eskergarriak emango zizkigula.

—Egunotan ezin izan dut lorik egin! Zuengatik! Esker txarrekoak! —gaineratu zuen.

Eta guk esan genion:

—Zuk ez duzu lorik egiten, eta kito. Baina guk ez dakigu bihar bizirik jarraituko dugun ere. Hil edo biziko kinka larrian gaude.

Eta hark:

—Ez zaituztet gehiago ikusiko, ez dut zuekin sekula hitz egingo! Alde hemendik eta egin nahi duzuenara — Ban andreak negarrez kontatu du.

Horrela, Kishinoren landetxeko errentariaren gatazka gero eta serioagoa eta ezagunagoa zen gizartean.

14

«Bilera bertan behera utzi!»

Batzarra izan zen. Ken atzeko sarreratik sartu zen antzokira, Abe, Ban eta sindikatukoekin batera. Sartzerakoan, poliziak poltsikoak eta maukak miatu zizkien.

—Ados —esan, eta bizkarrean bultza egin zion poliziak.

—Deabru hori! —Ken amorratu zen.

—Ondo lan egin! —poliziei iseka eginez, sindikatu-ko kideak barrura sartu ziren, bata bestearen atzetik.

Goiko pisutik kalera begiratu zuen. Farol elektrikoen argia izotza bezalakoa zen, eta, azpian, elurrez estalitako plaza izoztuak distira egiten zuen. Poliziek kapela buruan, ilaran jarririk, antzokian gainezka zegoen jendea geldiarazten zuten. Goitik poliziak garbi ikusten ziren elurrezko plazan: kapelaren forma borobila banan-banan mugitzen zuten. Han eta hemen liskarrak sortzen ziren, eta liskarren arabera mugitzen zen jendetza. Poliziak eskua ezpatan jarririk zihoazen

korrika. Kanpoan bi mila lagun zeuden amorrazioz beterik, etxerako bidea hartu gabe.

—Mugi zaitezte!

—Ez gelditu!

—Aizue!

Errepikatzen zuten poliziek han eta hemen.

Jendearen elkarriketak eta garrasiak, guztiak batera urtu balira bezala entzuten ziren; tarteka, hitz batzuk garbiago iristen ziren.

—Eskertzekoa da! —pentsatu zuen Kenek.— Eskertzekoa! Eskertzekoa! —errepikatu zuen zentzurik gabe .

Airea izoztuta zegoen. Plazan zarata handia zegoen; izan ere, jendea kolpeka ari zen elurrezko lurraren gainean, oinekin, haien hankapean, zarata ateratzen ari zen zerbait puskatzen ariko balira bezala.

Asanbladan, hasieratik, neurritz kanpoko tentsioa zen nagusi.

—Polizia zapaltzailea...

—Ixo!

Segidan, beste hizlari batek:

—Kapitalisten txakurrak...

—Ixo!

Hizlariak ez zuten bi minutu ere irauten. Hizlari bati ere ez zioten bukatzen uzten.

Bai Abe, bai Ban ere, gero eta trebeago ari ziren jendaurrean hitz egiten. Entzuleak hunkituta zeuden haien hitz zintzo eta xaloekin! Keni malkoak atera zitzaizkion. Negarrari eusteko begiak zabal-zabalik zituela, dena lanbrotuta ikusi zuen, itsasoaren hondoan balego bezala.

Banen emaztea ere oholtza gainera igo zen. Eguzkiak erretoa, aretoa txaloz bete zen azal beltzaraneko emakume mototsdun hura oholtzan azaldu zenean.

Eta segituan isildu ziren. Entzuleak adi-adi zeuden lehenengo hitza entzuteko.

Banen emaztea, hunkiturik, negarrez hasi zen. Negarrari eustsiz atera zituen hitzak, eta jendea hunkitu egin zen. Negar-malkotan zintz egin zuen han eta hemen.

—Gehiegi eskatzen al dugu? Kishino jaunak dio gu animaliak baino gutxiago gabela.

Txalo egiten jarraitu zuten, «Beste bat!» esan nahi balute bezala. Baten batek oihuka esan zuen:

—Ez zaudete oker!

Sindikatu batek, Keni sorbaldan zapladatxo bat eman, eta korrika alde egin zuen.

—Ez gaude oker!

Hurrengo hizlaria Muto zen. Hiru hitz esan, eta segituan, «Utzi!» eta jarraian «Atxilotu!» oihukatu zuten. Poliziak botekin lurra zarataz zapalduz igo ziren oholtzara. Mutok, ordea, hizlarietzako mahaiaren aurrera azkar joan, eta oholtzatik salto egin zuen sindikatuko jendearen artera. Jendetza zurrumbilo erraldoi bat balitz bezala mugitu zen, eta entzule guztiak eserlekutik altxatu ziren. Muto giza zurrumbilo hartan desagertu zen.

—Bilera bukatu da! —egin zuen zorrotz oihu polizia-buruak.

Entzuleak, masa erraldoi bat osatuz, irteerarantz zuzendu ziren, elur-jausi bakar bat balira bezala. Ken ere tartean zegoen; bultzaka eta tiraka kanpora atera zen. Han ikusi zuen Muto, poliziek harrapatuta. Atxilotuak patata-zakuak balira bezala eramateko erabili ohi zuten lera buruz gora sokaz tinko lotuta zegoen. Muto etzanda zegoen, leran lotuta. Poliziari hitz gorriak botatzen ari zitzaion. Baina alferrik, berehala eraman baitzuten. Ehun bat langilek, bata besteari itsatsirik

bola itzel bat osatuta, lerari jarraitu zioten, poliziekin norgehiagokan, Muto erreskatatu nahian.

Lokalaren aurrean barrura sartu ezinda geratu zirenek artean han jarraitzen zuten. Haiek eta barrutik atera zirenak elkartuta, oihuka hasi ziren. Kalea jendez bete zen. Eta kalearen zabalera zeukan erreka beltza poliziengana hurbiltzen hasi zen. Kenek bazekien sindikatuko kide bat ari zela «erreka» hori zuzentzen.

Kenek, jendetzaren atzetik bultzaka, estropezuka eta kolpeka, nola edo hala aurrera eta aurrera eman zituen pausoak. Sentitzen zuen min guztia txikikeria iruditu zitzaion.

Konturatu gabe, ukabildurik zeukan eskuineko eskua.

15

Egoera aldatzen hasi da

Egoera aldatzen hasi zen.

Lur-jabeek batzorde ezkutu bat egina zuten jada. Baina jada gizarte osoan zabaldua zegoen lur-jabeen kontrako giroa, eta gero eta lur-jabe gehiago hasiak ziren pentsatzen horrela jarraituz gero beren kalterako izango zela. Eta Kishinori amore emateko proposatu zioten.

Bestalde, Kishinoren lantegietan, langileak grebarako prestatzen ari ziren. Shichinosuke ari zen horretan jo eta ke. Sindikatuko kide batzuk ere isilpean zebiltzan horretan. Mila bat langile grebarako prest zeudela jakiteak Kishino lurjota utzi zuen.

Borrokan ari zirenek euren bazter guztietan zabalzen zuten beren borrokaren berri. Eta, beren helburua burutzeko, herriko umeak eskolara bidaltzera utzi eta Otarura eramatea erabaki zuten. Eta berri hori egunkarietan azaldu zen. Hori ikusita, beti aurpegi ona erakutsi nahi izaten zuten H herriko eta Otaruko hezkuntza batzordeek arazo larri lotsagarritzat hartu zuten, eta Kishinori abisatu zioten: «Eskatzen dizugu saia zaitezen horrelakorik gerta ez dadin».

Nabarmena zen, gainera, sindikatukoak lagun ziztuzten lantegietako beharginak, lurreko edo itsasoko peoiak eta abar ere nekazari txiroekiko errukiagatik greba egiteko prest zeudela.

Ordura arte Kishinoren alde zeuden kapitalistek ere aholkatu zioten Kishinori saia zedila irtenbide bat bilatzen lehenbailehen.

Egoera azkar ari zen aldatzen.

Berriz ere bitartekariak izendatu zituzten. Otaruko bost zinegotzi, komisarioa, abokatua, sindikatuaren ordezkaria, nekazarien sindikatuaren ordezkaria, errentarien ordezkaria, egunkari handienetako kazetariak

eta Kishinoren aldekoak. Eztabaidatzen zuten bileretan hirutan, lautan, baina ez ziren inoiz ados jartzen.

Azkenean, Sko errentariak Otarura etorri eta 37 eguneko borroka latzen ondoren, Kishinok amore eman zuen. 1927ko abenduaren 23an, iluntzeko bederatzia eta berrogeita zortzian.

Egun hartako albisteen berri, sindikatukoek hirieta-ko langileei eman zieten; Hokkaido osoko nekazarien sindikatukoek, berriz, errentari guztiei.

(...)

Azkenean frogatu da errentariak ez garela bizitzeko eskubiderik gabeko garai bateko jopuak: langile-borrokalarrien zinezko kideak gara.

Borrokatu gaitezen lapurreta feudalaren kontra!

Lurra landatzeko eskubidea nahi dugu!

Izan zaitezte Japoniako Nekazarien Sindikatuko kide!

Langileok eta nekazariok, elkar gaitezen!

Langileok eta nekazariok, elkar hartuta segi dezagun!

Aurrera!

Beste bost falta!

Errentariak Otarutik atera ziren hango sindikatuko enagurak jasoz, hilabete luzeko hil edo biziko borrokaren ondoren. Banek kontatu ohi zuen gogoratze hutsarekin izerdi hotza ateratzen zitzaiola eta emaitza on hura benetan sinestezina izan zela.

—Hko geltokira iristeko beste bederatzia geldialdi falta dira! Zazpi! Lau! Hiru falta dira! —zenbat eta hurbilago, orduan eta urduriago jarri ziren denak. Eta, azkenean, mutu gelditu ziren.

Banek sorbalda sendo eta handiak zituen, eta dardarka hasi zitzaizkion. Bat-batean, negarrari eman zion. Bizarra hazi zitzaion elurrak erretako aurpegi go-

rri-beltzean. Aurpegia besoetara makurtu, eta, ahotsik gabe, negarrez ari zen.

Pozik zegoen. Poza besterik ez zuen. Ez zekien bere poza nola adierazi.

Emazteek ere, hori ikusita, amantalekin aurpegiak tapatu zituzten.

16

Hilabete honetan, egunero-egunero pentsatzen jardun dut

—Aizu, Ken...

Sada zerbait esatera zihoan, baina bazirudien kostatzen zitzaiola.

—Aitak esaten dit... Berehala ezkontzen ez banaiz, lanera joateko hirira! —aitortu zion azkenean.

—Ni... ni... ez naiz zurekin ezkonduko —esan zion Kenek, kostata. Sufritzen ari zen.

—...!?

Ilun zegoen arren, Kenek sentitu zuen Sadari aurpegi-a gogortu zitzaiola, fosilizatu balitzaio bezala.

—Otarutik itzuli nintzenetik, etengabe aritu naiz pentsatzen. Hilabete osoan. Egunero. Eta erabaki dut... Ni joango naizela Asahikawara.

—... zertarako?

—E?

—Zertarako!

—Ikusiko duzu.

—...

Sadak nahi gabe altxatu zuen eskua Kenen bizkarretik.

Ken, erabaki sendoa hartuta, Asahikawara abiatu zen. Kinuren ahizpa agur esatera etorri zitzaion.

Ken Asahikawako nekazarien sindikatuan hasi zen lanean.

Amaiera

**1928KO
MARTXOAREN
15A**

1

Okeirentzat horretara ohitzea lan zaila eta nekagarria zen. Hainbestetan bizitako egoera izan arren, hori gertatzen zen bakoitzean, harritu, izutu eta aztoratu egiten zen. Ryukichi senarrak lasai hartzeko esaten zion, baina emakumeentzat oso kolpe gogorra izaten zen.

Okei eta Ryukichi Ogawa senar-emazteen etxean, sindikatukoak bilduta, honetaz eta hartaz ari zirenean, Okei tea zerbitzatzera igo ohi zen. Eskaileratan gora zihoala, senarraren hizketa entzun zuen:

—Emaztearen pentsaera aldaraztea asko kostatzen zait...

Senarra gisa horretan hitz egiten entzuna zeukan behin baino gehiagotan.

—«Iraultza sukaldean hasten da»... Hori bai dela ezinbesteko printzipioa! Eta Ogawa, zu ez zara kontu horretan bereziki zorrotza!

—Bai, egia esan, ez dago emaztea gainditzerik...

—Emaztearekin eztabaidan beti zara galtzaile —lagunek barre egin zuten. Ematen zuen Ryukichi lotsaren lotsaz kuzkurту egin zela.

Goizean, Ryukichi hortzak garbitzen ari zen. Haren ondoan, Okei ur beroz betetzen ari zen musua garbitzeko palankana.

—Ezagutzen al duzu Rosa? —galdetu zion halako batean gizonak ahoan txotxa mugituz.

—Rosa?

—Bai, Rosa.

—Lenin bai, ezagutzen dut, baina Rosa...

—Tuntun halakoa... —esan zuen senarrak ahopean.

Okeik inoiz ez zuen izan horrelako gauzak ikasteko gogorik, eta inoiz ez zen saiatu ere egin. Ikusten zuen bere burua ez zela horrelako gauzak ikasteko gai, eta iruditzen zitzaion nahiz eta ikasi, ez ziola ezertarako balio izango. Lenin eta Marx-en izenak ere, alaba Yuki-koren bidez ezagutu zituen. Izen horiek ikasi eta gero, etxera maiz etortzen ziren sindikatukoek —Kudo, Sakanishi, Suzumoto—, eta baita bere senarrak ere, izen horiek sarri askotan aipatzen zituztela konturatu zen. Behin, Okeik honela esan zuenean:

—Marx langileentzako jainkoa bezalakoa da, ezta?

Senarrak, harritu aurpegiarekin begiratu eta goretsei nahian-edo galdetu zion:

—Zuk non ikasi duzu izen hori?

Senarrari ondo iruditu bazitzaion ere, Okei ez zen bereziki poztu.

Hala eta guztiz ere, Okeiri ez zitzaion batere gaizki iruditzen bere gizona eta sindikatuko jendea egiten ari zirena. Hasieran, egia esan, beldurra ematen zion sindikatuko jendeak: itxuraz zarpail samarrak, eta eite beldurgarria zeukaten. Jende harengana hurbiltzea erraza ez zelako aierua sortu zen Okeiren baitan. Beste alde batetik, ordea, eskolako maisuekin alderatuta —senarraren lankide ohi haiek, batzuetan ezpainetan irribarre desatsegina zutela hartzen zuten eta besteetan

izugarrizko kortesiarekin hitz egiten zioten Okeiri—, sindikatukoak askoz atseginagoak ziren. Haiek ez ziren tematsuak, ezta kexatiak ere. Zenbaitetan, umeak balira bezala, barre eragiten zioten, eta hasieran, jateko zerbait eskaintzen zienean, lotsatuta bezala hartzen zuten, baina bigarren alditik aurrera, beraiek eskatzen zioten jatekoa. Jatordua ez ezik, bainulekura joateko eta tabakoa erosteko sosak ere eskatzen hasi zitzaizkion. Horiek guztiak ez ziren batere eskaera desegokiak Okeirentzat, oso eskaera simple eta asmo txarrik gabe egindakoak baizik. Eta pixkanaka, gero eta jatorragoa begitandu zitzaizkion sindikatuko kideak.

Portu inguruan greba orokorra izan zenean, Okeik «zurrumurru beldurgarri» asko entzun zituen. Bera-
rentzat ulergaitza zen sindikatuko Kudo, Suzuki eta besteek zuzentzen zituzten grebak eta «greba beldurgarri» haiek gauza bera zirela kontsideratzea.

—Zeinentzat dira beldurgarriak grebak? Aberatsentzat ala pobreentzat? —galdetu zion gizonak. Baina Okeik ez zuen ondo ulertu.

—Kontua ez da teoria hutsa —erantsi zuen senarrak.

Egunkarietan, letra larriz grebari buruzko albisteak zetozen ia egunero. «O hiria argirik gabe utziko dute, dirudunen etxeak erretzeko», «Poliziekin borrokan jardundakoak atxilotu egin dituzte (tartean zeuden Watari eta Kudo)», «Greba orokor hau hiritar guztien madarikazioa da», eta abar... Okeiren senarrak ere, grebak iraun zuen bitartean sindikatuko bulegoan sartuta eman zituen gauak eta egunak, eta horrek kezka sortu zion emakumeari. Senarra, lo gutxi egindako aurpegi hanpatu zurbilarekin itzuli zenean, Okeik galdetu zion:

—Ondo al zaude?

—Nire atzetik zelatari bat zetorren, eta nola edo hala ihes eginda iritsi naiz.

Hori esan eta lastaira gainean etzan zen.

—Bostetan esna nazazu, mesedez.

Okei senarraren ondoan eseri zen eta han egon zen tarte batean. Horrelakoetan, Okeik inoiz ez zion senarrari ezer aipatzen sartuta zegoen mugimendu politikoari buruz. Baina bere baitarako askotan gogoetatzen zuen. —Hainbeste sufrituz eta euren burua tamaina horretaraino sakrifikatuz ari dira borrokan, baina, horrek benetan balio al du ezertarako? Ez zait iruditzen sindikatukoekin ekinbideak jendea xarmatzeko moduko gizartea —proletarioen gizartea— aise ekarriko duenik.

Hor zegoen Yukiko ere, alaba bakarra, eta espero zuen senarrak erokeriarik ez egitea. Iruditzen zitzaion senarra gizartearen onerako egiten ari bide zenak, pobrezia besterik ez zekarkielako etxera, horregatik kezatu gura izaten zen, etxe hartako emazte eta ama zen aldetik.

Hala eta guztiz ere, sindikatukoak zer egiten ari ziren ikasi ahala, eta langileek zeramaten bizimodua zein gordina zen jabetu arren, astiro bazen ere ulertzen hasi zen Okei:

—Langile jendea sufritzen ari da. Horregatik sortzen zaie borrokatzeko gogoa inongo arrazoirik gabe dirua kentzen dien aberatsen aurka. Sindikatukoak langileen borroka bideratzen, zuzentzen eta zabaltzen ari dira.

Nahiz eta etorkizuna argi ikusi ez, bere senarra eta lagunak egiten ari ziren lan handiaz pentsatzean, harrotasun antzeko sentimendua ere sortzen hasia zitzaion Okeiri.

Ryukichi, hirugarrenez atxilotu eta gero, eskolatik bota zuten, eta familia aurrera ateratzeko kinkila-denda

jarri zuen. Zerabilen martxan lehenago edo geroago senarra lanetik botako zutelako ustea izan arren, gertatu zen unean zorabio modukoa sentitu zuen Okeik, kolpe handi bat hartu izan balu bezala. Hala ere, jadanik ez zen kexu senarra kaleratu zutelako.

Ryukichik, eskolarekiko lotura eten ondoren, gogo handiagoarekin ekin zion mugimendu politikoari. Orduan, espioi edo zelatari asko hasi ziren azaltzen. Dendaren aurrean usnan zebiltzan ezezagunak ikustean, hotzikara izaten zuen Okeik. Hori besterik ez balitz, hala ere, gaitz erdi izango zen; batzuetan zelaritarien batek, atariko izen-deiturak irakurrita, dendan sartu, eta «Polizia-etxera joan behar duzu» esanda, senarra eramaten zuen. Bi gizonen artean poliziarengana zeramatelako eszena hori ikustea eramanezina zitzaion. Etxeko bakardade hartan, Okei barruan zulo handi bat zuela gelditu ohi zen. Beharbada normala baino bihotz ahulagoa zuelako-edo, taupadak ez zitzaizkion baretzen. Papera bezain zurbil, bular gainean antxumatuta eskuak, gelan hara eta hona ibiltzen zen etengabe.

Ezin zuen horretara ohitu. Hainbestetan jazoagatik, harrituta, izututa eta aztoratuta geratzen zen beti. Al-diro, lasai egoteko esaten zion Ryukichi senarrak, baina emazteentzat ikaragarritzko sakada zen hura... Okeirentzat hala zen behintzat.

Martxoaren 15ean, goizean goiz, bat-batean esnatu eta etxe osoa arakatu zuten. Senar-emazteei elkarrekin hitz egiten utzi gabe, senarra eraman zuten bospasei polizia eta epaitegiko funtzionario batzuen artean. Okei burua galduta bezala gelditu zen, eta ohe gainean egon zen luzaz. Gero negarrari eman zion.

Goiz hartan, zarata entzun eta iratzarria zen Yukiko. Begiak zabal-zabal eginda, konturatu gabe, gela osoan

begiratu zuen. «Zer ordu da? Egunsentia da?» pentsatu zuen. Alboko gelan bospasei jenderen hizketa hotsa entzuten zen. Gauerdia balitz, ez zatekeen horrelako hizketa hotsik entzungo.

—Baina, argia piztuta dago. Horrek esan nahi du ez duela eguna urratu. Zer gertatzen ote da? Zoruan jende zarata entzuten ari naiz...

—Aldameneko gela ere arakatu egin behar dugu — esan zuen ate ondoan ahots ezezagun batek.

—Aldamenekoa logela da. Hor ez dago ezer — esan zuen amak baxu hitz eginez.

—Araka dezatela nahi badute! —aitaren ahotsak.

—Yukiko esnatu egingo da...

Yukikok hori guztia zatika entzun zuen. Hala ere pentsatu zuen zer gerta ere, hobe izango zuela lo plantak egitea.

Apaletatik gauzak kentzean atera zuten zaratak, egunkariak eskuztatzean atera zuten zaratak, zoru azpiak arakatzean atera zuten zaratak... «Eta tiradera guztiak irekitzen ari dira! Zazpi tiradera atera dituzte!» Horiek ziren Yukikok aditu zituenak. Bere baitan kontatzen ari zen zenbat zarata mota ateratzen ari ziren. Halako batean sukaldeko armairuak miatzen hasi ziren. Yukikok hotzikara sentitu zuen barru-barruan. Gorputza kuzkurtuta ere, eskuinera eta ezkerrera buelta asko emanda ere, hotzikara ez zitzaion joaten, eta dardarka hasi zen. Dardarka, ustekabeen hortz eta hagin-hotsa ateratzen hasi zen. Kokotsarekin indarra eginez, hortzetako karraska isildu zuen. Aitaren eta amaren ahotsik ez zen entzuten «Nola ote daude? Besteak bakarrik aditzen ditut...»

Etxean jende asko sartu ohi zen, baina egun hartan etorri zirenak ez ziren besteetan bezalakoak, oso

desberdinak eta oso beldurgarriak iruditu zitzaizkion Yukikori.

Atea ireki zen. Bat-batean argi distiratsu, zabala sartu zen zeharka. Yukikok azkar itxi zituen begiak. Bihotza taupaka hasi zitzaion. Gorputza jiratu eta begiak erdi-ireki zituen. Ama, eskuak bularrean, lo zetzan alabari begira zegoen. Aurpegi zurbila zuen, beldurgarri samarra. Aita ama baino urrutixeago zegoen, gauzak miatzen ari ziren gizonen eskuei begira. Argiaren ondo-ondoan zegoen, beharbada horregatik, aitak bekozko beltza zuela ematen zuen.

Bost ziren. Bat biboteduna, nagusia ematen zuena, eta karpeta beltza eskuan zuela, miaketa lanean ari zirenei zerbait esaten ari zitzaien. Besteek nagusiak agindutakoak betetzen zituzten. Bi poliziak ziren. Beste bi kaleko janzkeraz jantzita zeuden. «Aitak zer egin ote du? Eta gizon hauek zer nahi dute?» Arrotz haiek Yukikoren eskolako gauzak ukitu, liburuak banaka-banaka orrikatu, eta mota askotako jostailuak lurrean sakabanatu zituzten inongo erreparorik gabe. Yukiko pixkanaka alditxartzen hasi zen. Eta zirgitaldiak begietan malko tantak sortu zizkion.

—Hemen alabaren gauzak besterik ez daude... —esan zuen amak apal. Arrotzek ahopean zerbait erantzun zioten modu ulertezinean, eta araketarekin jarraitu zuten.

Bukatu zutenean, gelari hondar gainbegiratu eman eta atera egin ziren. Atea itxi zuten. Gela ilunpetan geratu zen. Yukiko negarrez hasteko zorian zen.

Aita eta karpeta zuena hasieran ahopean arituak ziren hizketan. Baina, gero eta ozenago ari zirenez, Yukiko ere argi aditzen hasi zen haien hizketa.

—Dena den, gurekin joan behar duzu —esan zuen karpetadunak.

—Zer da «dena den» hori? Ez dut ulertzen.

—Ez daukat hemen esplikaziorik eman beharrik. Gurekin joatea nahikoa duzu —gero eta kortesia guxtiagorekin, gero eta hizkera zakarragoarekin ari zen.

—Zein da arrazoia?

—Ez dakit.

—Orduan, ez daukat zuekin joan beharrik.

—Beharra duzun ala ez duzun, guk...

—Ba al dakizu esaten ari zaren hori legez kanpoko astakeria bat dela?

—Bai zera! Ez da astakeria inondik ere! Esaten dizut gurekin joaten bazara, dena argituko dugula.

—Betiko trikimailua da hori.

—Trikimailua den edo ez, ez da zure kontua. Gurekin joan behar duzu eta kito!

Aita bat-batean isildu egin zen. Atea indarrez ireki eta Yukiko zegoen gelan sartu zen. Haren atzetik zertorren ama. Beste bostak ondoko gelan zeuden zutik hona begira.

—Prakak! —esan zion aitak amari muker antzean. Amak, isil-isilik, prakak eskura eman zizkion. Aitak hanka bat sartu zuen praketan, baina, bestea sartzerakoan, orekari eutsi ezinik, balantza egin zuen. Ondo kostata jantzi zituen. Urduritasunak masailak dardararazten zizkion aitari. Alkandora janzteia eta gorbata lotzea ere ikaragarri kostatu zitzaion. Gorbata lotzeak izugarrizko lanak eman zizkion. Amak, hori ikusita, lagundu nahian eskua luzatu zion.

—Eeeez! —aitak zakar alboratu zion eskua amari. Asaldata zegoen. Urduri, amak ere zerbait esan zion aitari.

—Ez hitz egin elkarri! —moztu zien zorrotz aldame-neko gelatik karpeta-dunak.

Yukiko lo zegoen gela berriz ere ilunpetan geratu zen. Etxe aurretik oin askoren hotsa iristen zen. Atariko atea ireki zen. Orduantxe isildu ziren oinotsak, eta xuxurla batzuk entzun ziren. Yukiko, egon ezinik, ohetik atera zen. Jaiki bezain laster, burutik hanka-puntetaino hotza sartu zitzaion, dardarka hasteko modukoa. Atea pixka-pixka bat ireki, eta kanpora begira jarri zen. Aita atarian, eserita, zapaten lokarriak lotzen ari zen. Arrotzak atarian zutik zeuden. Ama, lehen bezala, eskuak bularrean jarrita, eta zutabe baten kontra zegoen aurpegia zurbil-zurbila zuela. Isilune arraro bat egin zen.

Halako batean, Yukikok ulertu zuela sentitu zuen. Ulertu, dena ulertu zuela. «Lenin!» pentsatu zuen. Gertatzen ari zen guztia Leninengandik zetorrela konturatu zen. Liburu pila bat zeuden aitaren gelako paretetan, Leninen argazki asko zeuden jarrita, eta bere aurpegia argi eta garbi etorri zitzaion gogora Yukikori. Leninek, Yukikoren eskolako langile baten, Yoshida izeneko burusoilaren antza ikaragarria zeukan. Eta, sindikatukoak etxera etortzen ziren bakoitzean, aitarekin batera abesti asko kantatzen zituzten. Yukikok, ume guztiek musikarako daukaten eitea zela medio, sindikatuko inork baino azkarrago ikasi zituen *Bandera Gorriaren Kantua* edo *Langileen Eguneko Kantua*. Abesti horiek, letren esanahiaren arrastorik gabe, nonahi kantatzen zituen —berdin etxean edo eskolan,— *Mandarinondoaren Kantua*, *Kanarioaren Kantua* eta beste askorekin batera. Hori dela eta, sindikatuko jendeak askotan ez tiro ferekatzen zion burua Yukikori. «Aita ez da batiere gizatxarra, ezta gaizkilea ere». Horregatik, Yukikori iruditzen zitzaion gertatzen ari zen guztia Leninek eta *Bandera Gorriak* ekarritakoa zela. Bai, dudarik gabe!

Aita zutitu egin zen. Yukikori, sutea izan zen gauean bezala, kriskitinka hasi zitzaizkion hortzak. Kanpora atera ziren denak. Orduantxe higitu zen amaren aurpegi margula. Ezpainak ere, zer edo zer esan nahi balute bezala, mugitu egin zirela iruditu zitzaion. Baina ez zuen hitzik atera. Behar bada hitzen bat jaulkiko zitzaion, baina ez zuen entzun. Amaren eskuak, zurkaiztua zegoen zutabearen gainean nola zurrundu ziren ikusi zuen. Aitak kapela erantzi eta berriro jantzi zuen, eta amari aurpegira begiratu zion. Ondoren, txalekoko botoi bat askatu eta berriro lotu zuen. Eta berriz emazteari begiratu zion aurpegira. Aitaren gorputzaren erdia kanpora atera zen.

—Kontu egin gure Yukiri —esan zion ahots zakar, lehorrez, eta eztul egin zuen gogoz kontra bezala.

Amak atzetik jarraitu zion kanpora.

Yukiko korrika batean sartu zen ohean, eta burkoaren kontra ahuspez etzanik, negarrari eman zion. Negarrez ari zela, aita eraman zuten gizon haiei herra hartu zien. «Horiek bai direla benetan gorrotagarriak!» pentsatu zuen. Horrela pentsatzeak negargura areagotu zion. Beldurraren beldurrez dardarka, «Aita! Aita!» oihukatu zuen behin eta berriz, eta negar egin eta egin jarraitu zuen.

2

Aireak, espazioan hartzen zuen itxuran, zurbil, izoztuta zegoela zirudien. Isiltasuna zen nagusi, eta ez zebilen inor. Gau iluna zen, hotza sarkorra, goizeko hirurak.

Bat-batean bospasei pertsonaren oin hotsak entzun ziren elur hormatuko bidean, ilunpetan zegoen karrikaren gainean. Isiltasuna zen hiriaren jabe, eta pauso hotsak deblauki ozen entzun ziren. Gero hots haiek argindarraren zutabeetan argi marguleko kale zabalago batera iritsi ziren. Kokospean hedea zeramaten poliziak ziren. Sableak isilaraztearren, eskuaz helduta zeramatzen.

Poliziek sindikatuaren egoitzako goiko solairura egin zuten, zalapartan, oinetakoak erantzi gabe! Ordu-bete eskas egingo zuen sindikatukoak lotaratu zirela. Erabakita zeukaten 15ean, sable-gobernu erreakzionarioaren aurka mitina antolatzea. Horregatik gau hartan kide guztiak elkartu eta hiria afixez betetzen, aretoa alokatzea negoziatzen, batzorde iraunkorra eratzen eta antzeko egitekoetan jardun zuten. Lan guztiok burutu

zituztenerako ez ziren urruti goizeko ordu biak. Orduantxe eraso zien Poliziak.

Zazpi-zortzi kideak ziztu bizian jaiki ziren, poliziek mantak zakar kendu eta zapata muturrekin ostikoka ekin zietenean. Denak jaiki eta tantaiaren pare zutitu ziren, orekari eutsi ezinean zabuka.

Suzumotok, «gureak egin du!» pentsatu zuen. Horrelakoren bat gerta zitekeelako susmoa hartua zegoen. Adierazpen askatasuna pikutara joana zen aspaldi, eta autoritatearen idoloaren, Tanaka lehen-ministroa buru zuen gobernuaren aurkako ekintza antolatu zuten. Jakinaren gainean zegoen 15ean, mitinaren egunean bertan, poliziak bertaratu eta hizlariak eraitsi egingo zituztela; Suzumotok duda gutxi zuen horrela gertatuko zela. Hori gauza ziurra zen. Eta, horretaz gain Suzumotori inoiz burutik pasa zitzaion, bezperan ere zerbait gerta zitekeela, sarekada bat-edo. «Ustea ez zait ustel gertatu» pentsatu zuen.

«Sindikatu On Kixote» ezizena zuen Sakanishi, galtzontzilo hutsik zegoela, ezagutzen zuen zelatari bati kontu eske hasi zitzaion:

—Zer gertatzen da?

—Ez dakit.

—Ez dakizula? Ez adarrik jo, aizu! Lo egin nahi dugu!

Polizia uniformedunen atzetik, kalez jantzitakoak igo ziren, eta paper guztiak miatzen hasi.

—Nola egingo duzue ba zuek ezer probetxuzkorik, alfer handi batzuk besterik ez zarete-eta! —Goraki bota zuen polizia haietako batek, baldar eserita zegoen Kan-u-ren⁴⁵=tankera zuen Suzumotori zorrotz begiratu. Baina Suzumotok ez zuen hari erantzuten hasteko batere asmorik.

45 Kan-u. III. mendeko Txinako militar bat. Bizar ederra omen zeukan.

—Lana egin ezazue, lana; orduan ez zaizue burutik pasako beti bazterrak nahasten ibiltzea.

«Hik segi bakarrizketan! Inork ez dik erantzungo-eta!» egin zuen bere kolkorako.

—Ba, lanpostu bat ematen badidazue ni gustura hasiko naiz lanean... —esan zuen Sakanishik, ohi zuen irribarre bihozberarekin, eta tea zerbitzatzen hasi zen. Sindikatukoek ez zuten Sakanishi balio zuen neurrian estimatzen. Ez zuen ezertarako antzerik, gainera geldo hutsa zen lanerako. Bihotz onekoa zen ordea, eta horretan zetzan haren xarma, horrek estaltzen zituen gainerako gabezia guztiak.

Bat-batean, Watarik, zeharo aztoratuta, eskaileretan behera jaistekoa egin zuen. Ordea, Watariren eta eskaileren tartean polizia bat jarri zen.

—Nora zoaz?

Suzumotori, Watariren jokabidea bitxia egin zitzaion. Hori gutxi balitz, aurpegia zuritu zitzaion. Watari sindikatuko gazteetako bat zen, burdina bezain sendo eta tinkoa, eta beti sindikatuko lanak inork baino lehenago hartu nahi izaten zituena. Arraro ari zen jokatzeko. «Hau ez da gure betiko Watari!», Suzumotok susmo txarra hartu zion.

Denak jaitsi ziren eskaileretan behera, polizia inguratuta. Hala ere adoretu zihoazen, denak Watari izan ezik. Zailduta zeuden. Zaplada bat edo beste entzun zen.

Saito zen une hartan ere gogotsuen ageri zena, bera zen beti edonori «Oldarkorrek izan behar dugu!» oihukatzekeo prest izaten zena. Saito, Suzumotorengana hurbildu eta esan zion:

—Bihar mitina daukagu, eta animoari eutsi behar diogu.

—Bai, horixe behar dugu.

Saitok zerbait gehiago esan nahi izan zuen.

—Aizu!!! —polizia batek lepozamarretik heldu zion Saitori, Suzumotogandik oso zakar bereizi eta beste aldera eraman zuen.

Herriaren bandera, bandera gorria... hasi zen kantari aurrean zihoan norbait. Jarraian zaplazteko baten hotsa etorri zen.

—Kaka zaharra! Alu zikina! —gorputz osoaren indarrez goratu zuen ahotsa. Zaplazteko hotsen artean sable kolpeen zarata ere entzun zen.

Ilaran elkarri eskutik helduta zihoazen, eta oinekin zoruaren kontra gogor joz pauso hots handia ateratzen ari ziren nahita.

—Aski da! —oihukatu zuen Saitok bere txikian, eta gelditu egin zen—. Aizue, gaizki dago arrazoirik gabe inor atxilotzea. Ez da hala? Galdetu egin behar diegu.

—Bai, bai, gaizki dago! —denek egin zuten bat aldarrian.

Suzumotok Watariri begiratu zion. Antzeko egoeretan Watarik malgukiaren pare egiten zuen jauzi baina, oraingoan, erratz makila bezain tente gelditu zen... Poliziek Saito txikia inguratu zuten, eta sindikatukoak polizien sorbalden artean eurenak ziriak balira bezala sartu nahian ari ziren bultzaka. Gorputzen arteko tirabira eta borroka hartan, zurrunbilo txiki bat sortu zen.

—Ergel alaenak, esaguzue zergatik atxilotu behar gaituzuen!

—Kuartelean dena argituko da —betiko azalpena eman zieten poliziek.

—Arrazoa jakiteko beti zulo kirastu horretara joan beharra ere! Hori ez dugu onartuko!

—Giza-eskubideen urraketa da hori! —oihukatu zuten atzetik.

Polizia batek Saito jo egin zuela ematen zuen. Jendez osatutako gurpila mugitu egin zen bat-batean. Sindikatukoak, ukabilak goratuz, zirkuluaren barrura sartzeko indarka hasi ziren. Eta iskanbila areagotu egin zen.

—Zuek... zuek... —Saitoren ahots erdia entzuten zen, itotzeko zorian, ahoa zerbaitekin ixten ziotelako—. Zuek horrela jarraitu arren, zuek mila bider saiatuta ere, gure mugimendua... ez da... ez da inoiz desegingo!

Denek oihu hunkitu bat atera zuten.

Une hartan Watari, ordura arte beste mundu batean ibili zela ematen bazuen ere, bere sorbalda zabalekin, bere gorputz sendoarekin, zurrunbiloan sartu zen betebetean. Suzumotok lasaitua hartu zuen, arestian hari sumatu uste zion jokabide ezohiko hura ezer larririk ez zela iritzita.

—Arrazoia argitu arte, gu ez gara inora joango, zeharo kexu gara —esan zuen zakar, baina tonu apalean. Baxu ahots sakon hark, edonon eta edozeinen aurrean indar handi eta misterioitsua hartzen zuen.

Ishida zurrunbilotik alboratuxea zegoen. Kideak kementsu plantak egiten builaka ikusirik, gogaitu egin zen, eta mutu begiratzen zien. Ishidaren iritziz, batzuetan buila atera beharra zegoen, noski, baina beste batzuetan ez zen egokia hori egitea. Oldarkor noiz agertu behar den eta noiz ez ondo bereizi ondoren isilik egotea, eta borrokarako adore falta izatea ez ziren inondik ere gauza bera. Saito amorruek hartutako gaixoa besterik ez zen Ishidarentzat. Bazekien mugimenduan murgilduta zeudenen artean «Saitoren pareko» asko zeudela. Kide horiekin gogaitu egiten zen. Gisako jokaerei «umekeria» deitzeari gutxi zeritzon, «umekeria» sikiera gizakien gauza baitzen. Egokiera hartan zertarako balio zuen horrela ibiltzeak? A ze

proletario-borrokalari kementsu koadrila! Eta zorura tu egin eta zapata aurrearekin zapaldu zuen.

Watariren ekinak sindikatuko en elkartasuna sendotzea ekari zuen. Berehala zazpi-zortzi bat polizia sartu ziren. Horrek segundo batez sindikatuko en tinkotasuna hautsi zuen. Denak jende anabasa nahasian, atariko atea hautsi beharrean, bultzaka eta tiraka irten ziren kanpora.

Ezpata muturra bezalako hotza sartu zen kanpotik. Egunsentirako gutxi falta zen, airea ederki hotzিতuta zegoen, zeropetik 20 hozka egiteraino. Ohetik atera berri, hotza hezurretaraino sartu zitzaien. Hotzari aurre egiteko, kokotsa eta sorbaldak kuzkurtu zituzten.

Hiria artean ilunpetan zen. Ilunaren azpialdean ortziak elurra zekarren, hiria muineraino zegoen isil. Ibilian zihoazela, bidean zarata sortzen zen, pausoan-pausoan zerbait hausten denean bezala. Saitori eta Ishidari, panazko jakaren azpian alkandora zikina zeramatenenez, hotzaren handia lanik gabe sartzten zitzaien barruraino. Larruan hotzaren errea sentitzen hasi ziren. Handik gutxira, hatz muturrak eta hanka puntak zurmintzen ari zitzaizkiela konturatu ziren, esku-hanken oharmenak alde egiten ziela.

Poliziek banan-banan atera zituzten denak besotik helduta.

Shibata, artean hogeit urte bete gabea, eta sindikatuan astebete lehenago sartu berria, hasieratik zegoen mutututa, eta herioarekin aurpegia modu bitxian zuen okertua. Besteak garrasika hasten zirenean, gauza bera egiten saiatzen zen. Baina masailek, lehortu gabeko buztinezkoak balira bezala, keinu bat besterik ezin zuten osatu, eztarritik hotsik jaulkitzeko ezgauza. Bazekien lehenago edo geroago, haren antzeko egoeraren bat edo beste egokituko zitzaiola, eta horre-

lakoetara ohitzen ikasi beharko zuela, baina Shibatari asko erasan zion estreinakoz bizitzen ari zen gertaera hark. Hain zen handia hartu zuen zartatekoa ezen jo eta zerraldo lurrera bota balute bezala sentitu baitzen. Dardarka ari zen, dardarka, ez hotzagatik ordea, eta ezin zuen hortz karraska hura inola ere isilarazi.

Masa gris bat osaturik, hirian zehar kalez kale zera-matzaten. Hotza arintze aldera, bata bestearen kontra, gorputzak estu-estu eginda, lurra indarrez oinkatzen zuten. Kale isiletan barrena hogeï pertsonaren zapaten risti-rasta, risti-rasta hotsak gero eta areago aditzen ziren.

Sindikatuak isilik zihoazen bidean. Eta bitxia izan arren, denei ari zitzaïen sortzen sentimendu berbera. Papera tintatan sartutakoan bezala, barruan sentimendu hura goitik beheraino zabaltzen ari zitzaïela ematen zuen. Talde bat, norabide bakarrean, modu jakin eta zehatz bakar batean mugitzen zenean, berekoïkeria modu guztiak alboratuz sortu ohi zen sentimendua zen erne zitzaïena. Suzumoto Kan-u, Watari, Sakanishi On Kixote, Saito, Ishida, Shibata kide berria, eta beste hiru kide ziren, bakoitzak bere bazterketa modua bizi zuen eta hori zuen bakoitzak bere nortasun-agi-ria, talde bakarra osatzearen kontzientzia hartzearen barnean, denak norabide bakarrean, kolore bakarreko, tonu bakarreko, intentsitate bakarreko kontzientziaren barnean gero eta sakonago ari ziren sartzen. Horrelako egoeretan beti hutsik egin gabe sortzen zen sentimendu misteriotsua zen hori. Proletarioen burdinazko elkartasuna mamitzeko ezinbesteko sentimendua zen. Hala ere, jasaten ari ziren zanpaketak ez zuen lortzen sentimendu hori alde batera uztea; aitzitik, zanpaketa areagotzen zenean, *Aufheben* bat eragiten zuen. Beraz,

ez zen sentimendu pertsonala, esku bakarrera bildutako askorena baizik.

Une hartan bederatzi sindikalista haiek ez ziren gizabanako soilak, une hartan guztiek tanke bakar bat osatzen zuten. Elkarri besotik helduta, baten sorbalda bestearenari itsatsita, begirada ilun baina zorrotzez zetozen aurrera begira. Helburu zuten iraultzaren bidean aitzina zihoazela ematen zuen.

3

Senarra eraman zutenetik, etxe hartan egotea eramanezina egiten zitzaion Okeiri, hain zen handia hark utzitako zuloa. Etxera maiz etortzen zen Kudo idazkariarenera joatea bururatu zitzaion. Hala sindikatuko jendearen berri jakiteko aukera izango zuen: zer moduz zeuden, zer gertatzen ari zen, eta beste hainbat kontu. Baina Kudo bera ere atxilotu egin zuten.

Polizia harenean sartu zenean, etxea ilunpetan zegoen. Poliziek «Jaiki zaitetzte!» esanez, argiak piztu nahian ingurua haztatu zuten. Hiru haurrak esnatu eta koruan hasi ziren negarrez. Argiaren bila ari ziren polizien eskuak, *yasuna*-dantzan⁴⁶-ari balira bezala mugitzen ziren airean. Halako batean, ilunpetan argiaren botoiaren kliska entzun zen.

—Zer gertatzen da?

—Ez dago argirik.

Ordura arte isilik egona zen Kudoren hitzak izan ziren, polizien aztoramenaren tartean oso tonu lasaian

46 Dantza mota klasiko bat.

esanak, gorrotoa adieraz zezaketen lasaitasun batekin jaulkita.

Kudoren etxean bi hilabete zeramaten argindarrik gabe, ez zutelako argia ordaintzen. Hori gutxi ez eta, ez zeukaten kandelak erosteko adina, ezta lanpara bat inguratzeko modurik ere. Hori zela eta, ilunabarrean umeak aldameneko etxera bidaltzen zituzten lagunekin jolasean ibil zitezen; Oyoshi emaztea, berriz, sindikatuko bulegora joaten zen. Tankera horretan pasa zituzten 60 gau ilunpean. «Argi asko, etxe alaia.» Haiek argi gutxiko bonbillarik ere ez zeukaten, ordea, eta esaera hark ez zien haizea hartzeko ere balio.

—Lasai, ez dut ihes egingo —esan zuen Kudok irribarrez.

Oyoshik, berriz, haurrei hitz egin zien:

—Lasai, ez da ezer berezirik gertatzen, betikoak dira barren. Ez egin negarrik —umeek bata bestearen ondoren utzi egin zioten negar egiteari. Sindikatukoek, erdi txantxetan bazen ere, goretsi egiten zuten Oyoshi, haurrei ematen ziena «klase-heziketa» zuzena zela esanez. Oyoshik, ordea, arrazoi berezirik gabe egiten zuen hori.

Akita eskualdeko nekazari pobre baten alaba gazteena zen Oyoshi. Lehen hezkuntzan bi urte egin ondoren, umezain bidali zuten bertako lurjabearen etxera, eta hamalau urte bete arte han aritu zen lanean. Oso gaizki tratatu zuten: beti bizkarrean hartuta eraman behar izaten zuen ume petral bat, noiznahi jo egiten zuen nagusiak eta haren aldean askoz ankerragoa zen etxeke andrea... bost urtean ez zioten jai egun bat ere eman, eta lanez lehertu beharrean erabili zuten. Gero, bere etxera itzuli zenean, baratzeko lanean jarri zuten. Egun osoa oker eginda jarduten zuen igitaiaren pare. Postura horretan odol guztia burura igotzen zitzaion eta masailak eta betazalak odolez hanpatzen zitzaizkion.

Hamazazpi urte zituela, ondoko herrixkako Kudorekin ezkondu zen. Ezkondu eta bi egunera —nekazarietik uzta bildu berria zutenez— Kudo eta Oyoshi senar-emazteek auzoko lantoki batera joan behar izan zuten orga txikien garraioan lan egitera. Oyoshi trapu zaharra eginda iristen zen etxera, baina etxean lana franko egoten zen haren zain. Oyoshik, lur jota, zorabiatuta, gorputza hebainduta, sukalde eta orga txikien arteko joan-etorri etengabea ibili beharra zuen. Eguerdi batez, artean ohitu gabeko ezkondu bizimoduak zekarren nekea eta hilekoa zirela medio, eguzki galdatan orga txiki bati bultzaka ari zela, konortea galdu zuen eta ahoz gora erori zen zerraldo.

Umea jaio ondoren, gero eta estuago zebiltzan diru aldetik. Kudok egoerari nola aurre egin ez zekiela, Oyoshik eta biek ihes egin zuten herritik, bizkarrean zumezko fardel bana hartuta. Gau iluna zen, elur-e-kaitza ari zuen, eta mendiek orro egiten zuten. Horrela iritsi ziren Hokkaidora.

Otarun biak hasi ziren errementari. Baina, Naichiren⁴⁷—eta Hokkaidoren artean ez zegoen alde handirik. Oyoshi eta senararentzat Hokkaido ere ez zen bizitzeko leku erraza. Baina nora joan behar zuten?

—Ba al dago beste lekurik? Proletarioak, edonon sardinzarra edo soja hostoak bezala hertsatzen dituzte! —Oyoshik, eskuak gorputzaren neurrirako handiegiak izanik, karramarroaren haginak bailiran zeuzkan sorbaldatik zintzilik. Azala, berriz, zuhaitz zuztarra bezain lakarra zuen, eta erdokak belztuta zeukan. Hain barrura sartuta zeukan zikina, ezen ematen baitzuen bizi artean ez zitzaiola kenduko. Haurrak buruan azkura

47 Japoniaren lau uharte nagusietatik handiena Honshu deitzen da, baina Hokkaidokoek Naichi (alegia, Barrualdea) deitzen diote.

bazuen, Oyoshik azkazalekin egin partez, ahur lakarra-
rekin egiten zion hazka. Eta haurrari atsegin zitzaion.

Oyoshik, ordura arte izandako esperientzia luze-
ren bidez, ondo zekien «berak gorroto ezin-handiagoa
ziona» zer zen. Batez ere senarra sindikatuan sartu eta
mugimendu politikoan hasi zenetik, gero eta argiago
zeukan kontua zen hura.

Senarra, sindikatuan sartu ondoren, beharrik gabe
geratu zen; sindikatuko lanak egiten astebete inguru
etxetik kanpo pasatzen zuen askotan. Hori zela eta, be-
rak bakarrik lan egin eta umeak hazi beharrean gertatu
zen. Baina, lehen ez zeukan sentimendu batekin egiten
zuen orain beharra. Oyoshik, hondartzara harrikatza ga-
rraiatu, biltegi batean almidoia eta zerealak gordetzeko
zakuak josi, fabrika batean esportatzeko ilar aleak sail-
katu... edozer lani heltzen zion. Txikiena sabelean zuela,
bederatzi hilabeteko tripa handiarekin, harrikatz zakuak
bizkarrean hartu eta gabarratik biltegira eramaten zi-
tuen. Zaintza lanetan zebilen polizia batek, errieta eman
zion beharginen buruari, ikusi zuenarekin txundituta.

Etxeko *shoji*-ateek⁴⁸, paperez gabetuta, zurezko egi-
tura besterik ez zuten. Haize hotza sartzen zen, baina
ez zeukaten paper berria erosteko dirurik. Horregatik,
sindikatu bulegotik ekarritako Proletarioen Egunkaria
eta Nekazari-langileen Egunkariaren ale zaharren orriak
jarri zituzten. Grebei buruzko artikulua zirikatzaileak eta
«sua» pizten zuten irudiak, batzuk zutik eta zeharka ipi-
nita, batzuk buruz behera, batzuk besteen azpian erdi
estalita. Oyoshik, denborapasa, irakurri egiten zituen,
pixkanaka. Umeek «Zer da hau?» eta «Zer da hura?»
galdetzen zioten, eta egokiera baliatuz irakurri egiten
zizkien. Etxeko hormetan, hauteskundeetan erabilitako
afixak, propaganda-orriak, aldizkarietako iragarki orriak

48 *Shoji*-atea Japoniako ate mota bat da, paperez eta egurrez egindakoa.

ipini zituzten. Watarik eta Suzumotok-eta, etxe hartara joaten zirenean, goresmen asmoz han eta hemen horrei begira egon ondoren, «Hauxe da gure etxea!» esaten zuten pozik.

Jaiki eta janzten hasi zen Kudo. Prestatzen ari zen bitartean, atxiloketa horrek luze joko zuela egin zuen bere kolkorako. Hala bazen, bera falta zen bitartean dirurik gabe familia nola biziko zen pentsatzean, goibeldu egin zen, bizkarrean zama astuna ezarri baliote bezala. Atxilotzen zuten bakoitzean antzera sentitzen zen, eta maiz gertatu arren, eta nahiz eta bera proletarioak askatzeko mugimenduko borrokalari zaildua izan, familiarekiko sentimendu horretara ez zen laketzen. Goibel, zinez triste zegoen. Sindikatuko jendearekin ondo sentitu ohi zen, baina bestela, umeagatik eta emazteagatik kezkatan zegoenean, bihotzko herstura, mina sentitzen zuen. Izan ere proletalgoaren mugimendua ez zen jolasa, ezta arinkeriaz hartzeko kontua ere. Ez horixe!

Oyoshik senarrari janzten lagundu bitartean hitz egin zion:

—Tira ba, joan zaitez.

—Ondo da.

—Zergatik da oraingo atxiloketa? Ba al dakizu?

Senarrak aurrena ez zion erantzun. Halako batean esan zion:

—Moldatuko al zarete? Oraingoa luze samarra izango da.

—Gu? Jakina, moldatuko gara —esan zion Oyoshik, beti bezalako tonu alai eta bizian.

Zer gertatzen ari zen gutxi gorabehera ulertzen zuen ume zaharrenak esan zion:

—Aita, ondo joan zaitez.

—Zer familia klase da hau ordea? Ez dut ezer ulertzen! —esan zuen polizia batek harrituta—. Etxeko guztiek esaten diote joateko, huskeria balitz bezala!

—Atxilotzen gaituzuen bakoitzean negarrez hasiko bagina, gure mugimenduak ez luke asko aurreratuko —esan zuen Kudok ahotik pozoia botako balu bezala, zegoen giro ilun, goibela ezabatu nahian-edo.

—Isilik egon hadi urde zikin hori, bestela emango diat galanta! —egin zuen garrasi polizia batek, arnas-estuka.

—Kontuz ibili —agurtu zuen emazteak.

Kudok zerbait esan nahi izan zion, baina nola gizon isila zen, ez zuen asmatu. Emazteak gaizki pasako zuela pentsatzean (besteen emazteak ere antzera ibiliko ziren, noski), belaunetako indarra joan egiten zitzaiola igarri zuen.

—Benetan, moldatuko gara nola edo hala —esan zion berriz Oyoshik aurpegira begira. Senarrak, isil-isilik, buruaz baietz adierazi zuen.

Atea itxi zuten. Pixka batean kanpotik iristen zitzaizkion oin-hotsei jarri zien arreta.

Oyoshik bazekien garaipenaren ordua heldu arte, ehunka bider berrituko zirela horrelakoak, eta hala ere ez zela nahikoa izango: «Guk, behar bada, hurrengo belaunaldiarentzat lan egin eta horrekin amaituko da gurea». Noizbait entzuna zuen inurri saldo bat bizilekuz aldatzeko bidean jartzen denean, ibai batekin topo egiten badu, aurrean doazenak ibaian sartu eta ito egiten direla, eta atzetik datozenak hilotz horien gainetik pasatzen direla... Eta sindikatuko gazteek askotan aipatzen zuten beraiek izango zirela aurrean zihoazen inurriak. Ezinbestekoa zen hori.

—Oraindik bide luzea dago —esan zion Oyoshik Okeiri.

Okeik, aurpegi ilunez, baina hunkituta, baietz egin zion buruaz.

4

Espero baino leku gehiagotan izan zela sarekada esan zion Oyoshik Okeiri. Altzairutegi bateko langileak laneko arrokekin eraman zituztela, eta portuko zama-ketarien eta biltegietako beharginen artean, egunero bost-hamar bat atxilotu eramaten omen zituzten. Tartean bizpahiru ikasle ere bai nonbait.

Sata, enpresa bateko langilea, Ryukichi Ogawaren etxean asteartero egiten zen mintegian parte hartzen zuenetako bat zen, eta hura ere handik bi egunera atxilotu zuten.

Sata, batzuetan kexu agertu ohi zen Ryukichiren eta beste burkideen aurrean, etxean zeukan arazoarengatik. Izan ere, Satak ama bere kargu hartua zeukan. Semea mugimendu politikoetan sartzen ari zela ikusi zuenean, ama barru-barruraino tristatu zen. Emakume hura zortzi urtez aritu zen lanean eten beharrean semea Komertzio Institutura bidaltzearen, eta horren ondorioz, gorputza trapu zaharraren pare hebaindua zeukan. Esan zitekeen Satak, neurri handi batean, amak sasoa galtzearen kontura burutu ahal izan

zituela ikasketak. Amak espero zuena zen, semeak eskola bukatu eta banketxe edo enpresa batean lanean hasiko zela, auzoko lagunei harro-harro kontatuko ziela semeak zenbat diru irabazten zuen, egunak lagunekin tea hartuz kontu-kontari lasai igaroko zituela, urtean behin-edo Naichiko jaioterrira bisitan joan, eta ordainsari bereziarekin aldiro bainu-etxeren batera-edo joanda ederki biziko zela. Eta behin horretara heldu ezkerro, hileroko ordainketekin gehiago kezkatu beharrik izango ez zuelakoan zegoen, dirurik ez zeukala esaten ibili beharrik gabe, bahi-dendetara joan eta hartzekodunei ordaintzeko bere ondasunak bahi gisa eman beharrik gabe... Bazekien horrelakorik ez zuela gehiago jasan beharko. Hori guztia, bainutik atera eta barruko arropekin leiho ondoan etzatea bezain zoriontsua izatea iruditzen zitzaion. Sataren amak urte asko eman zituen sufritzen, jasandako neke haiek guztiek noizbait lasai bizitzeko aukera ekarriko ziotelakoan. Egunero lan egin, eta ordainetan hileroko soldata jaso hutsik egin gabe. Horrela bizi liteke!

Semeak, eskolak bukatu, lanean hasi eta gutun-azal batean lehenengo soldata ekarri zionean, amak eseri, magal gainean hartu eta ez zuen zirkinik egin. Baina berehala gorputza dar-dar batean hasi zitzaion. Amak behin eta berriz kartazala bekokiaren kontra ipini zuen.⁴⁹ Hori ikustean, Sata espero gabe hunkitu egin zen, eta aldi berean, «Hori da hori antigoaleko keinu txatxua» pentsatuz goiko solairura igo zen. Behean, etxeko aldare budistatik,⁵⁰ txilin hotsa entzun zen.

49 Gutun-azala bekokian jartzea eskerrak adierazteko modu tradizional bat da.

50 Etxeetan egoten den aldare budista bat, budismoko jainkoa eta familiaren arbasoen arimak dauzka. Beraz, kontakizunean Sataren aita zena ere aldare budistan dago eta semearen lehenengo soldata aitari eskaintzeko amak aldare horretan ipiniko du.

Irakurtzen egon zen goiko gelan eta afaltzeko ordua iristean jaitsi zen. Mahaian, ohi baino jateko gehiago eta hobe zegoen. Aldarean kandela guztiak piztuta zeuden, eta ondoan soldataren kartazala.

—Aitari eskaini diot —esan zuen amak.

Ordura arte, bolada batean pozik, zoriontsu bizi izan zen Sataren ama.

Baina semearen gela, pixkanaka, lehen ikusten ez ziren argazkiz betetzen hasi zenean gogoia ilundu zitzaion.

—Nor da gizon hori? —galdetu zion amak, idazmahai aurreko paretan zegoen argazkikoa seinalatuz. Ainu⁵¹ gizasemeek izan ohi zutenaren tankerako bizar handia zuen, bizar ugariaren artetik aurpegia ageri zuela. Semeak irri murrizta egin zuen ahoa ireki gabe.

—Ondo ibiliko zara, ezta? —baten batek semeagatik zerbait susmagarria esana izango zion, baina hori disimuluz galdetzekoa zen. Konturatuta zegoen azal gorriko liburuak ugaritzen ari zirela etxean. Gutun-azalean...

Langile-Nekazarien Alderdia
Tokiko egoitza

...eta gisako helbidearekin idatzitako gutunak iristen zirenean, amak aztoraturik kolkoan gordetzen zituen, eta semea etxeratzen zenean eman egiten zizkion ezkutuko zerbait beldurgarria izango balitz bezala.

—Aizu, zu... ez zara *shugisha*⁵²=direlako horietakoa izango, ezta?

51Hokkaidon bizi den etnia bat da. Bizar handiko gizona ainu etniako gizonen irudi ohiko bat da.

52 *Shugisha* hitza, «-ista» atzizkiaren baliokidea da (idealista, pesimista, komunista, sozialista eta bestelako hitzetan azaltzen den atzizkia). Nobela honen garaian, ordea, *shugisha* hitza ez zen atzizki bat, komunista, sozialista eta anarkista adierazten zuen.

Satak bazekien ama gero eta sarriago egoten zela kopetilun, eta gaua lo hartu ezinik ematen zuela ohean jira eta buelta eguna urratu arte. Lanetik etxeratzean, behin baino gehiagotan harrapatu zuen ama aldare bu-distaren aurrean eserita negarrez. Satak bazekien ondo hori guztia beragatik zela. Nahiko egoera berezian hazitako gaztea zenez, ama goibel zegoela ikusten zue-nean, bihotza pikotxaz joko baliote bezala sentitzen zen. Satak, Ryukichi eta Okeiri askotan azaldu izan zien bere etxeko egoera, amarekin nola jokatu jakiteko aholkua eskatuz bide batez.

Lehen ere, Sata gelan zegoenean, ama etorri ohi ziztaion. Orain, ordea, lehen baino gehiagotan igotzen zen. Eta igotzen zen bakoitzean, beti kexu berbera beritzen zion:

—Zeure ahalegin hutsez ez duzu ezer aldatuko. Eta lana galtzen baduzu, zer egin behar dugu? Zu berez ez zinen jendea beldurtzeko gauzak egiten ibiltzen diren horietakoa, ezin liteke, zerbaitek itsututa zauzka... Egunero eskatzen diot Jainkoari eta zure aita zenari, salba zaitzatela...

—Zuk ez dakizu ezer! —oihukatzen zuen Satak, urduri eta erdi negarrez.

—Ez zaitut ulertzen —erantzuten zion amak, ahul, sorbaldak kuzkurtuta.

Horrelakoetan Sata ezer esateko kemenik gabe geratzen zen, eta ama gelan utzirik behera jaisten zen. Alde egin ondoren ere, kosta egiten zitzaion bere burua lasaitzea.

—Zein eta neure ama ez da ba niri animoa hozten didana...! Ibili-ibili eginda, ama ere gure etsai handienetako bat izango da gainera...! —pentsatzen zuen aztoratuta.

Hurrengoan ere piztu zen betiko sesioa.

—Nahikoa dugu ama! —bota zion brastakoan Satak, muturtuta eta zutik jarririk—. Dena lagako dut, zure esana betetzeko laga egingo dut dena! Pozik egongo zara, ezta?! Utzi egingo diot! Aski da!

Eta ama zakar alboratuta, kanpora atera zen. Kanpoan, ordea, bestela sentitzen hasi zen.

—Nire ama honek ez du ezer ulertzen...

Hilaren hamaseian, burkideek esan zioten sarekada handia izan zela, bai Ryukichiren etxean eta bai sindikatuan. Baina inork ez zekien sarekada horren zergatia. Sata etxeratu eta gero, paper guztiak bildu eta auzoko etxe batera eraman zituen han gorde zitzen. Egun hartan Satari ez zitzaion makurrik jazo. Lasaitu zenean, sindikatura joan eta zer gertatu zen ikustea erabaki zuen. Buruan asmo hori zerabilela, burkide batzuk etorri zitzaizkion, eta jakinarazi zioten kalez jantzitako polizia asko sartu zirela sindikatuko egoitzan eta alderdiko bulegoan, arriskutsua zela hara inguratzea, azaltzen ziren guztiak atxilo hartzen zituztela, nahiz sindikalistak izan ez. Hala, esaterako, hilaren hamabost arratsaldean Kobayashi txikia sindikatuko bulegora joan zenean, kalez jantzitako poliziak zalaparta batean atera eta atxilotu egin zuten. Kobayashiri ziplo atera zitzaion bera inprimategiko langilea zela, eta zor ziotena kobratzera joana zela hara. Orduan poliziek, une hartan bulegoan inor ez zegoenez, alde egiteko esan eta libre utzi zuten. Kobayashik hartu zuen lehenbiziko lana zuzenean burkideen etxeetara joatea izan zen, kontuz ibiltzeko abisatzera. Haiek kontatu ziotena entzunda, Sata lasaitu egin zen pentsatuz ederretik libratu zela sindikatura ez joanda.

Hamazazpiko gaua zen, ordea, Polizia Sata atxilotzera inguratu zenean. Egunkaria irakurtzen ari zen. Inoiz horrelakorik gerta zekiokenerako prest zegoen

nonbait, eta ustekabeko patxadarekin hartu zuen geratzen ari zena.

Sata inoiz barre egindakoa zen, pelikuletan eta antzerki zaharretan pertsonaiak, harriduragatik edo beldurragatik, zutik egon ezinik, plot eginda ipurdi gainean jarrita nola geratzen ziren ikustean. Baina, halakorik! Gelara berokia hartzeko igo ondoren jaitsi zenean, ama ikusi zuen gelako bazter batean, zoru gainean ipurdika jarrita, besoak eta hankak urduri mugitzen zituela. Dar-dar egiten zioten ezpainenek, zerbait esan nahiko balu bezala, baina ezin zuen hitzik lotu; aurpegia beldurrak zurbilduta, zurrun ageri zen, begiak ezker-eskuin eta gora eta behera dantzan zituela. Eskuak eta hankak, zerbaiti eutsi nahian ari balira bezala astintzen zituen airean. Gorputzak, ordea, ez zuen zirkinik egiten. Sata, *shoji*-atea erdi irekita, zutik gelditu zen zuhaitz tantaia bezala.

Hiru poliziak inguraturik irten zen kanpora. Bidean, ama gogoan, poliziak ez konturatzeko moduko negar isilean zihoan.

Kudoren etxetik bueltan, hiriko kalerik jendetsuena zen Hanazono-cho etorbidean zehar zihoan Okei. Gautu berria zen. Ez zuen hotz handiegirik egiten. Jende asko zebilen kale hartan, beti bezala, baita txintzarriak zeramatzaten zaldi-leren, autoen eta autobusen joan-etorri etengabea ere. Denda bateko erakusleihu argitsu baten aurrean, ezkonberria zirudien bikotea hizketan ari zen aurpegia bata bestearen kontra. Soingaineko epelez edo bufanda zabalez jantzitako emakumezkoak, gamelu-ileko berokiekiko gizonetzkoak, mandatutara zihoan mutikoa, bazkaria eramateko ontzi hustua zeraman lanerako jantzitako gizona, umeak... denak zihoazen sorbalda sorbaldaren kontra, hizketan, batzuk presaka, beste batzuk lasaia-

go. Paisaia horri zenbat eta gehiago erreparatu, orduan eta arrotzagoa egiten zitzaion Okeiri. Une hauetan, gu denok gauden hiri honetan, hain gertaera larria ari da jazotzen, eta kale hau soraio zaio gertatzen ari zaigun guztiari. Bidezkoa al da hori? Ehunka jende ari da borrokan beren burua sakrifikatuz; baina noren patua da hori? Ez beste inorena, langile proletarioena baizik! Ez da bidezkoa haien ahaleginari muzin egitea! Okeik ez zuen ulertzen. Iruditzen zitzaion proletalgoaren borrokaren izpirik txikiena ez zela iristen kale horretara. Beharbada gobernuaren maltzurkeriagatik izango zen, prentsari debekatua baitzion zenbait berri zabaltzea. Amarru galanta!

—Zertarako ari dira borrokan senarra eta bere lagunak! —Okei triste eta bakarrik sentitu zen. Ez zitzaion zuzena iruditzen—. Engainatuta daude! Ez, ez da inondik ere bidezkoa! Goibeldura, ordea, laketu egin zen Okeiren inguruan, euliak behorren inguruan bezala.

5

Hilaren hamabosteko egunsenti hartan, kapelaren hede kokospian, polizia mordoa zebilen galdu-gordean, polizia-etxean sartu-irten etengabe; behin eta berriz gertatzen zen joan-etorria zen. Auto urdin argia ere txitean-pitean agertu, eta atarian aparkatzen zuten. Autoa martxan jartzeaz batera, polizia-etxe-ko atea brastakoan ireki eta poliziak ateratzen ziren korrika, sableari eskuaz helduta. Autoak, burrunba ateraz, maldan behera egiten zuen, gurpil arrastoen gainean aurrera, zabuka bistatik galdu arte. Handik gutxira berriro azaltzen zen, atzera beste polizia batzuk eramateko.

Ziega mukuru zegoen. Han zirenak, sarraila hotsa entzutean, hizketari utzi eta isil-isilik, begira-begira jarri eta zain geratu ziren. Sartu zirenak Watari, Suzumoto, Saito eta Sakanishi zirela ohartzean, itsumustuan denak batera bibaka eta goraka hasi ziren pozarren. Zaintzan zegoen polizia, haserre, ardotako sagarra baino gorriago jarri zen, eta hanka-punten gai-

nean zutik garrasi egin zuen isiltzeko aginduz; alferrik, baina. Ziegan bildu zirenak hamalau, hamabost bat ziren, guztiak ere elkarrekin asko ibilitakoak, eta mugimenduaren barruan beti aurreko muturrean jardundako borrokalariak. Hunkiturik eta aztoratuta, goraki hasi ziren eztabaidan Poliziaren legez kanpoko jokabide hura zela eta. Hamasei, hamazazpiren ahotsekin, ziega zarataz bete zen. Hori gutxi ez eta, burkide artean zeudelako adoretuta, oldarkor agertzeko sena piztu zitzaien.

Saitok, gorputza gomazko pilota bat bezala kuzkurturik, ezer esan gabe, zurezko paretari eraso zion. Ezpainak estutuz, aurpegia gorri-gorri, indarka eta zezena bezala kopeta beheratuta, paretaren kontrako eraso behin eta berriz errepikatu zuen.

—Arraioa! —egin zuen, eta alferrik ari zela konturatu zenean, ostikoka hasi zen zaldiaren pare. Beste batzuk ere Saitoren antzera hasi ziren, zurezko paretatik batzuk eskuz eta besteak hankarekin kolpatzen. Ishida, berriz, besoak antxumatuta, ziegaren erdi inguruan zebilen hara eta hona, tarteka bakarriketan.

Atea berriz ireki zuten. Suzumotori eta Watariri deitu eta beste nonbaitera eraman zituzten.

—Zer gertatzen da? —lidertzat zituzten bi kide haiek gabe, animoa makaldu zitzaien besteei. Aurrena batek utzi zion paretatik jotzeari, gero beste batek, hurrena beste bik, ondoren beste batzuek...

Ishida konturatu zen, Ryukichi gelako zoko batean zegoela begiak itxirik, hankak luze-luze eginda eserita. Ishidarentzat, Ryukichi atxilotuta ikusteak, sarekada hura izugarri zabala izan zela esan nahi zuen. Beste alde batetik, ordea, Ryukichi lagun handia zuenez, harekin batera egoteak adorea ere eman zion.

—Ogawa —Ishida hurbildu egin zitzaion.

Ryukichik burua altxatu zuen.

—Zergatik izan da sarekada hau? —galdetu zion Ishidak.

—Neuk ere ez dakit. Watariri-edo, galdetu nahi nion.

—Gaurko gobernuaren kontrako zera hori...

—Baliteke. Baina horregatik balitz, atxiloaldia egun batekoa izango litzateke, baina...

Beste denek inguratu zituzten Ryukichi eta Ishida. Oso haserre zeuden, txakurrak balira bezala sartu zituztelako ziegan. Ryukichi bera ere halaxe zegoen, suminduta.

—Aizue, legeak dio debekatuta dagoela eguna argitu aurretik edota ilundu ondoren, norbere gogoaren kontra, aditu ondo e! Norbere gogoaren kontra, inoren etxean sartzea, salbu eta inoren bizia edo ondasunak arrisku gorrian ez badaude, edo legez kanpoko apustu edota prostituzio jarduerak tarteko ez badira. Oraingoan, gauaren erdian, lotan ginela eraso digute! Eta ziega honetara ekarri gaituzte azalpen arrastorik eman gabe! Horixe da Poliziaren estiloa!

Langileak adi-adi ari ziren entzuten. Eta birao eta hitz gorri artean, hankaz kolpatzen zuten zorua.

Ryukichik artega jarraitu zuen:

—Eta begira, Konstituzioan honela idatzita dator: «Ez da Japoniako herritarrik atxilotuko, ez giltzapetuko, ez galdekatuko, ez zigortuko legearen aginduz ez bada». Eta zer gertatu da gurekin? Inoiz atxilotu, giltzapetu eta galdekatu ote gaituzte legeak eskatzen dituen baldintzak beteta? Gezurra eta zikina besterik ez daukate guretzat!

Denak, une hartantxe, legez kontrako lakirio hartan harrapatuta, gorputza iraulkaturik, Ryukichiren hitzek barruraino erasan zituzten, hortz txantxartuetako nerbioak ziztatuko balizkiete bezala.

—Aizue, denon artean atea botako dugu eta zergatik atxilotu gaituzten galdetzera aterako gara! —bota zuen batek.

—Hori, hori! Goazen! —jarri ziren ados besteak, asaldaturik.

—Ez, ez! —esan zuen Ryukichik buruaz ezetz eginez.

—Zergatik ez? —ekin zion Saitok, sindikatuan sarri egin ohi zuen eran, sorbaldak goratuta otzanduko zuelakoan Ryukichirengana inguratu zen.

—Hemen sartu gaituztenez gero, eginahalak eginda ere, geuk bakarrik ez dugu ezer lortuko. Aitzitik, askoz okerrago tratatuko gaituzte. Gure urrats guztiak... kalearen eta jendearen sostenguarekin egin behar ditugu! Bost, hamar lagunek sortutako istilu eta iskanbila bortitzek ez dute ezertarako balio. Ezin ditugu ahaztu geure printzipioak, eta horri eutsi behar diogu kosta ahala kosta.

—Baina ezin dugu hortzaz gora begira egon! Zure jarduna duintasunez jantzitako teoria besterik ez da! Teoria hutsa!

Ishidak, haien ondoan, «betiko kontua...» egin zuen bere kautan. Eta une hartantxe lau polizia sartu ziren.

Zurtuta, gelditik geratu ziren denak. Bizar lakarreko polizia motz eta mardulak, ziega osoa begiradapean hartu ondoren, esan zien:

—Ondo dakizue kuartelean zaudetela, ezta? Beraz zertara dator iskanbila hau? —eta atxilotu bakoitzari bultzakada eman zion sorbaldan. Saitori ekin zionean, honek pauso bat atzera egin, eta poliziaren eskuak hutsari kolpea eman eta gorputzak balantza egin zuen aurrera. Poliziak, ahots beldurgarri batekin «Kaka zaharra!» esan eta zaplaztekoa erantsi zion Saitori bete-betean. Airean zirkulu-erdia osatuz, hots balda-

rrarekin, Ryukichiren ondoko ohol baten kontra erori zen Saito.

Poliziak, arnasestuka eta artega, zakar antzean hitz egin zien:

—Pentsa gero, sesioa eta iskanbila jartzen baduzue garesti ordainduko duzuela.

Beste polizia batek, paper bat eskuan, izen batzuk irakurri zituen, eta deitu zienei korridorera ateratzeko esan zien. Leotzeko ate nagusi alboko ataskatik atera ziren makurtuta eta marmarka. Ziegan, sei lagun geratu ziren.

Saito, arestian erori eta artean etzanda zegoena, kakarraldo bat bezala mugituz jaikitzen hasi zenean, poliziak bi ostiko eman zizkion zapata muturrarekin.

Handik gutxira, polizia gehiago sartu ziren, eta atxilotu bakoitzaren ondoan bana jarri zen, elkarrekin hitz egin zezaten galaraziz.

Ryukichi goi-goian zegoen leiho txiki baten azpian eseri zen. Argi zikin, lauso harekin guztien soslaia ilun ageri zen, eta ematen zuen itzalak euren kabuz mugitzen ari zirela. Bost minutu pasa, hamar minutu igaro —hasieran larua zen argia, gero eta ahulago bihurtzen ari zen— eta gela osoa marguldu zen eta, astiro-astiro, itsas hondoarena halako kolorea hartzen zihoan. Ryukichi konturatu zen eguna urratzen ari zela, eta mina zuen buruko alde batean. Barruraino sartua zitzaion egunsentiko hotza sentitzen hasi zen. Lo gutxi eginda ko batek aharrausi egin zuen gelako zoko batean; haren ondotik, bata bestearen atzetik hasi ziren aho zabalka. Ryukichik ere, bekokia zimurturik, aharrausi egin zuen. Horrek ez zion arindu, hala ere, arnasa hartzean burua eta bularra hertsatzen zizkion hondarra bezalako zera gogaikarri hura.

Polizia-etxea isiltasunean zegoen. Isiltasun izoztu bat. Noizbehinka, korridoretik korrika eta presaka zihozazenen zapata-zarata ilaunak entzuten ziren. Oin-hotsak isildu eta atea irekitzen entzun zen, izotza haustean ateratzen dena bezalako soinuz. Horrekin batera hanka joka entzun zen, batak besteari besotik helduta, builan eta zalapartan pasa ziren ziega aurretik. Ondoren, berriro egunsentiko isiltasun estrainio samarra nagusitu zen. Kanpoan norbait igaro zen aha-rausi laburra eginez.

—Logura naiz. Ez digute utzi behar lo egiten, ala? — zoko batean xuxurlatu zuen baten batek.

—Egungo da jadanik. Eguna urratzen ari da.

Poliziek ere lo gutxi egindakoaren aurpegi hanpatu, despistatua zeukaten.

Ryukichi begiak itxita, egurrezko paretaren kontra bizkarra bermatuta zegoen eserita. Bai gorputza bai nerbioak, ohikoa ez den moduan neka-neka eginda zeuzkan. Geldirik egon arren, barkuan zebilenean bezala, isil-isilik gorputza balantza handian sentitu zuen. Atxilotzen zuten bakoitzean, Ryukichik beti urrats bertseuei ekiten zien: loturarik gabeko gauzetan pentsatu, imajinatu eta amesteari, eta oroitzapenetan murgiltzeari; horretan aspertzen zenean, irakurrita zeuzkan liburu garrantzitsuak buruz erreparatu, eta hortik sortzen ziren arazoaren teoriari jarraituz pentsatzeari lotzen zitzaion. Eta sindikatuan eta alderdian eztabaidatuak zituzten gaiak berriro ordenatu eta pentsatzen hasi ohi zen. Orduko hartan ere horretan hasi zen.

Ryukichi orain hurrengoko mintegian, Marxen baliok eta Austriar Eskolaren «baliagarritasun marjinal» kontzeptuaren gainean sortu ziren eztabaidei buruz ari zen pentsatzen, berriz ere horretaz hausnartu beharko zuela liburuetan ikasitakoen laguntzaz...

Ryukichi bere senetik aterata zebilen. Prakak janzten ari zela zabu egin eta ia-ia erori zen. Jarrera hari eta bere buruari gogaikarri zeritzen. Baina, une hartan, paperezko atearen atzean zain zeukan poliziaren sablearen metal-hotsa alaba Yukikok adituko zuen beldur zen. Oso zen beldur, ezen Ryukichik bai baitzekien Yukikok hots hori entzunez gero, berari bihotza zartatuko zitzaiola.

—Eskolako lankideekin bidaian noa.

Yukikok begi beltz handi haiek zabal-zabal eginda begiratu zion aitari.

—Zer opari ekarriko didazu?

Ryukichi barru-barruraino hunkitu zen:

—Ba, gauza politak ekarriko dizkizut; asko, gainera!

Une hartan bertan, Yukikok burua ate aldera jiratu zuen. Ryukichik eskuak burura eramane zituen. Krak! Zeramikazko zerbait hautsiaren zarata entzun zuen. Ryukichik, bere baitatik oihu bat ateratzeaz batera, alabarengana hurbildu eta haren bularra ikusteko arropa ireki zuen presaka. Mahaspasa bana zituela ematen zuten titien artean, zeramikazko platera bezalako bihotza zeukan Yukikok... eta ikusi zuen ile izpi bat bezalako pitzadura zuela!

A, a, a... Ryukichik kontrako eztaeratik pasa ezinik zerbait balu bezalako oihua atera zuen.

Begiak irekita, ikusi zuen ziegan egunsentiko argi-errainu zurbil, lausoak sartzen ari zirela. Bere ingurukoak nekatuta, batzuk burua makurturik zeuden, beste batzuk erdi etzanda, eta beste batzuk, lo-eroan bezala, egurrezko paretaren erdi aldeari begira. Ryukichik buruarekin pareta jo zuen zenbait aldiz. Buruaren ezkerreko alde minberatu zitzaion. Izan berri zuen ametsa, barruan tinko txertatuta geratu zitzaion, benetan bizi izan balu baino beldurgarriago.

Hala eta guztiz ere, Ryukichi, atxilotuta ziegan botatzen zutenean, askok nozitzen zuten etsipen sentimentaletik libre zegoen. Etsipen sentimentala edonork izan zezakeen sentimendua zen, benetan edonor ero moduan jar zezakeena, eramanezinezko, irtenbiderik gabeko presio ilun halako bat. Hori eraman ezinik, jende askok utzi izan zuen mugimendu proletarioa, Ryukichik bere bi begiekin ikusia zuen askotan hori. Ryukichi bera ere, mugimendu horretan txerpolariaren pare zebilen, soka gainean orekari nola edo hala eutsiz. Eta legez kanpoko zapalkuntza ankerra jasan behar zuen bakoitzean, artean osorik gelditzen zitzaizkion nerbio periferikoak azkar baino azkarrago higitzen zihoazkion. Txantxarrak jandako hortzetako nerbioak bezain sentibera zuen bere bihotz hura, delikatuegia ere bai inoiz, altzairu urtua bezain sendoa bihurtzen ari zitzaiola sentitu zuen. Hala ere, Ryukichik egun haietan bizi zuen egoera «etengabeko tortura» gisa pairatzen zuen. Hori, ordea, Ryukichirentzat derrigorrez hartu behar zuen ezinbesteko «entrenamendu» eta trebakuntza dosia zen, bera bezalako *intelligentsiako* kide izandako bat, mugimendu hartan, zinez, ez buruarekin soilik, baizik eta bete-betean eta «gorputzarekin» sartuko bazen. Baina, ez zen bide erraza: sigi-saga egiten zuen, malda oso gogorretan gora, eta bazirudien txime-tatik helduta zeramatela arrastaka bidean aurrera.

Jatorriz erdiko klasekoa zenez, Ryukichirentzat *intelligentsiako*a izatea, airean zintzilik egotea bezalako zen, inon egokitu ezinik, eta nekazari-herrietan eta lantegietan entzuten ziren oin-hotsen aurrean indargabeturik erortzea besterik ez zezakeen espero. Edo bestela, *intelligentsiako*ak, mugimendu proletarioetan sartzea lortuta ere, hor beti sentitu behar izaten zuen proletalgoaren mundua ez zela guztiz berea.

Gainera, zeuzkan ikasketak zirela medio, burgesiara jotzeko jaiera erakusten zuen, eta burgesiarenaganako atxikimendua eta interesa sortzen zitzaizkion beti, baztuetan agerian eta ezkutuan bestetan.

Hala, *intelligentsiakoek* maiz erabiltzen zuten garunean, euren burua hipnotizatu nahiko balute bezala, «ni ezgauza naiz, ni ezgauza naiz» leloa eta errepika, Ryukichik ondo zekien bezala, azkenerako ezer egiteko gai ez izatera etorri, eta sor eta lor geratu arte. Azken beltzean ez ziren ezer egitera iristen, eta ezer ez egiteari buruzko teoretan azalpen bila galtzeari ergelkeria hutsa zeritzon. Neurrira egindako teoria baten bila burmuinak kiskaltzen, erotu beharrean ibiltzea arrisku-tsua ez ezik zentzugabekeria handi samarra ere bazen. Ryukichik pentsatzen zuen hautatu zuen mugimenduan bidea aldapatsua eta gogorra izan arren, pausoa noiz luzatu egoki eta sendo aukeratuz gero gora egingo zutela, eta mugimendu proletarioan era horretan hartzen zutela parte esan zitekeela. Gisako oldozpenetan sartuta, aurpegi zuriarekin gertaerei albotik begira jarri eta ezer egin gabe, teoria hutsean murgilduta zeudenen jokaera hura ulergaitza egiten zitzaion.

Gorputzaren oldarrik gabe, buruarekin bakarrik ari-ri-ri badira, gela batean galdutako txoritxo bezala, lau pareta artean itotzera kondenatuko dira! Gauzak buruan bueltaka eta bueltaka ibiltzearekin gogaituta nago! Zuek «teoria» gehiegi dabilzkizue! Teoria hutsarekin inoiz ez da egin etxe bat!

Ryukichi jada ohituta zegoen edozein unetan atxilotu eta polizia-etxera eramanez. Tokioko burkideek kartzelan (gaur egun, finago adierazi nahian espetze esaten diote!) sartzeari eta atxilotuta eramateari «txailetera joatea» deitzen zioten burgesiaren hizkera erara egokituz esamoldea. Jakina, nahiz eta

proletalgoaren aldeko borrokalari porrokatuak izan, ez zuten batere atsegin txaletera joatea, hala ere, preso jaustea jende arruntarentzat oso kontu larria bazen ere, haiei ez zitzaien hainbestekoa iruditzen.

—Mugimendu protelarioetan gabiltzanok kartzelagatik ikaratuta bagenbiltza, doministiku bat entzun orduko beldurtu beharko genuke! Gure mugimendua ez dela asteburuko jolasa, aizue!

Bihotzetik deblauki eta sakon zabaltzen ari zitzaien Yukikoren itzala uxatze aldera-edo, aharrausi handi bat egin zuen Ryukichik. Bazter batean, Saitok, luzatuta zeukan ilea, bi eskuekin atzera orraztu zuen arrasteluaren eitean.

Atxilotu bakoitzaren ondoan zeuden poliziaiei txanda aldatzeko ordua iritsi zitzaien, eta ziegatik atera ziren. Ryukichiren etxean inoiz izana zen polizia bat, Suda zeritzana, alde egitean honela mintzatu zen:

—Aizu, Ogawa, oso gogorra egiten zait. Jai egunetan ere deitzen naute lanerako. Neka-neka eginda bukatzen dut —esan zion Ryukichiri benazko akidurak jota.

Ez zirudien jendea joka eta ostikoka erabiltzen zuen polizia bera zenik hala hitz egiten ari zena, eta sinpatia sentitu zuen Sudarengan Ryukichik. Sudaren benetako izaera ikusi zuela iruditu zitzaion eta hori ustekabekoa gertatu zitzaion.

—Bai ba, izan ere hainbeste lan egiten duzue —ez zen ironia, barruak aginduta atera zitzaion halaxe Ryukichiri.

Saitok «Plazer bat izan da, milesker!» bota zuen lehor polizien bizkarrean.

Beste polizia guztiak kanpora atera ondoren, Sudak xuxurlatu zion Ryukichiri:

—Etxekoentzat mezurik-edo bai?

Ryukichiri ez zitzaion hitzik atera, eta itsumustuan Sudari begira jarri zen bekoz beko.

—Ez, ezer ez... Eskerrik asko...

Sudak buruaz baietz egin eta irten egin zen. Makurtu antzean zihoala, sorbalda biribil haiek errukarriak begitandu zitzaizkion Ryukichiri.

—A... tabakoa erre nahi dut —esan zuen norbaitek bere kolkorako.

—Laster urratuko du egunak.

6

Ryukichirekin batera zegoen Saito komunera atera zenean, eta korridore barreneko gelaren aurrean entzun zen:

—Aizak! —gela barrutik entzun zela iruditu zitzaion. Saito gelditu egin zen.

—Aizak! —Watariren ahotsa zen. Leiho txiki batean ageri zen bere aurpegia.

—Watari! Heu ez haiz ba! Ni nauk! Bakarrik al hago?

—Bai, hala nagok. ...Ondo zaudete denok? —galdetu zion bere ohiko ahots apalez.

—Bai, ondo gaudek. ...bakarrik hago orduan —«bakarrik» hitzak urratu zion bihotza Saitori. Polizia hurbiltzen ari zitzaionez, «Segi ondo» esan eta aurrera jarraitu zuen.

Komunerako bidean, ez zekien zergatik baina arrisku handiren bat gertu zutela iruditu zitzaion. Ziegara bueltatu eta Ryukichiri kontatu zion. Ryukichik isilik, beheko ezpaina hozkatu zuen beti egiten zuen eran.

Isidak, komunean Watari ikusia zuen. Ezin izan zioten elkarri hitzik egin, baina haren betiko aurpegi

sendoa, altzairuzkoa ematen zuen aurpegi gogor, aldaikaitza ikusi zuen.

—Aizak, ezagutzen al duk Bancroft? —galdetu zion Ishidak Saitori.

—Bancroft? Ez. Komunista al da?

—Zinemako artista bat duk.

—Nik nola ezagutuko diat ba, handi-jende hori!

Watari ikusi zuenean, *Hanpa* izeneko filmean lapur handi batena jokatzeko zuen Bancroft aktorearekin gogoratu zen Ishida. Watari eta Bancroft, nahigabe tinko eta sendo lotu ziren Ishidaren gogoan.

Watarik, isolamendu ziegan sartu zutenean (sindikatuan sartu zirenean bezala), uste izan zuen bera zuzentzen ari zen legez kanpoko mugimenduari buruz Poliziak zerbait jakin izan zuela aurretiaz. Oldozpen hori zerabilela, aurpegiko odola joan egin zitzaiola sentitu zuen. Baina hori segundo bateko kontua izan zen, izan ere, berehala suspertu eta atzera bere buruaren jabe egin zen. Gainera, leotz bakartu hartan eserita, lasai eta eroso sentitu zen, bidaia luze batetik etxeratu berritan bezala.

Watari, beste sindikalista guztiak bezala, goizean esnatu orduko, mugimendu politikoak bereganatzen du, mugimendu hori luzaroan zelatan eta haren gose, hura noiz iritsiko, zain egona balitz bezala: esku-orriak hartuta korrika ibiltzen dira; lantegietako eta hiriko egoitzetako burkideak bisitatu, haien txostenei arreta eskaini, aholkuak eman, eta zer egin behar duten erakusten diete; buruzagitzatik txostenak iristen dira; zentrotik heldutako irizpenak, herri bakoitzeko egoerara egokituz, era askotan moldatu behar izaten dira gero; bilerak ere izaten dira; elkarrekin harrika ariko balira bezala, haserre, nekagaitz eztabaidatzen dute; agiriak multikiopiatzen dituzte; sindikalisten heziketa

ere hor dago; mitinak; prestaketa, esku-orriak, ihesa, hitzaldiak, atxiloketak... Haien gorputzak, gurpil zoro baten mende balira bezala, jira-bira etengabeen dabil-tza. Egun bakarreko salbuespenik gabe, etenik gabe, atertzeke, amaierarik gabeko frakzio periodikoa beza-la, irauten du bizimodu honek ezin tinkoago. «Nahikoa da!» esateko gogoia sortzen zaie batzuetan. Sindikatu-ko lanean ari direla, gainera, beti agertu behar izaten dute grinatsu eta adorez gainezka. Bizimodu honetan, «txaletera joateak» arnasa hartzeko beta izateko eta atsedean hartzeko ere balio izaten du. Hori dela eta, «txaletera joateak», zentzu ironikoaz aparte, burgesiak erabiltzen duen moduan, «atsedena» ere adierazten du. Inork, ordea, ez du hitzaren bigarren adiera hori goraki aipatzen. Bai baitakite borrokalari kaskartzat hartuko dutela hori ozen esaten duena.

Watari bi hankak aurrera luze zituela eseri zen. Izterretatik hasita, belaunetan, zango-sagarretan eta orkatiletan masajea eman zuen, eta gero, orkatiletatik hasita izterretaraino gauza bera egin zuen. Ondoren, lepoan eta sorbaldetan kolpeak eman zituen eskuarekin, eta arnasa sakon hartuko balu bezala poliki aharrausi handia egin zuen. Orduantxe konturatu zen Watari, or-dura arte aharrausi lasai egiteko astirik ez zuela izan. Barregura eman zion horrek, eta barrez hasi zen.

Lauzpabost egun lehenago Suzumotok kantatzen zuena entzunez, konturatu gabe ikasi egin zuen. Bai gaez, bai egunez, kartzelak beti daude ilun kantua apal abestuz, eta abestu ahala kantuaeren hitzak dasta-tuz eta gozatuz, gela bakarti txikian bueltaka ibili zen. Watarik buruan ezer ez zeukala esan zitekeen. Baina, egun hartan Japonia osoan gobernu erreakzionarioa iraultzeko egitekoak ziren mitinak bertan behera gera-tu izanak, eta beraien mugimendua momentuz etenda

zegoela pentsatzeak gero eta pena handiagoa sortzen zioten. Ordea, pena hori, Watarik, lokartzeko zorian zegoen hartan, oraintxe bai eta hurrena ez, loturarik gabe, ager ostenska misterioetsuan zerabilen.

Txistuka gelan bueltaka zebilela, pasaeran eskuaz zurezko paretak batzuetan kolpatu eta besteetan igurtzi egiten zituen. Baketsu sentitzen zen oso. Normala zenez, kartzelan jende asko lur jota edo goibel egoten zen, baina Watari ez zen horrelakoa. Hasiera beretik inoiz ez zuen izan horrelako sentimendurik. Ez zituen neskatxa ikasleen tankerako nerbio delikatu, finak. Beretzat beste adar batzuk zituen bizi zuten egoerak: aurrena pentsatzen zuen beraiek misio historiko bati ekiten ari zitzaizkiola adoretzu, eta lan horrek noizean behin kartzelan egon beharra zuela ordaindu beharreko bahi gisa; bigarrenik, bizi zuten kinka gogor horrekin asko sufritzen zutenez, ataka horretatik irteteko borrokan segitzea beste biderik ez zeukaten. Bi pentsamendu horiek Watariren baitan bat egiten zuten arazorik gabe. Inoiz ez zioten nahi zuena egitea eragotzi bere printzipioek eta doktrinek, eta ez zen horregatik errudun sentitu egundo. Gainera, ez zuen pentsatzen bere burua sakrifikatzen ari zenik, ezta justizia sozialaren alde borrokatzen ari zenik ere. Gorroto hutsagatik ari zen borrokan ahalegin berezirik gabe. Gorrotoa, barru-barrutik sortzen zitzaion. Horretaz aparte, izatez saiatua zen Watari. Bai jende aurrean, bai ezkutuan, zernahitan ari zela ere gorputz eta arima saiatzen zenez, batzuetan burkideek konfiantza itsua izaten zuten harengan, baina beste batzuetan, zenbait sindikalistari ezinikusia eta amorrua eragiten zizkion. Kudo, alderdi askotan, Watariren tankerakoa zen, baina ez zen hau bezain monotonoa, eta ez zituen bere pentsamenduak beti horren gordinik agertzen. Horregatik

erdi txantxetan esaten zioten bera zela Watarik aldamenean behar zuen Engels bat. Watarik inoiz ez zituen izaten elkarren kontrako «bi ideia». Ideia batek zerbait egitea agintzen zionean, beste ideia batek ez zion inoiz galaraziko, edo inoiz ez zen erneko zalantzarik bi ideia horien artean. Berez halakoxea zenez, batzuei iruditzen zitzaien Watarik burdinazko borondatea zuela. Edozer gauza zalantza izpirik gabe, geratzeko zirkinik egin gabe burutzen zutenetako zen. Watariri ileak bekokian traba egiten zionez, burua astinduz atzera bota zuen ilea, eta isolamendu gelan bueltaka jarraitu zuen. Hanka mardul, labur antzekoak, judo egiten dutenek bezalako uztai itxuran zeuzkan. Horregatik, bere gorputz-enborra zimendu sendoarean gainean ipinita zegoela ematen zuen. Watarik, orpoetan indar eginez, urratsez urrats, poliki ibiltzeko ohitura zeukan. Zapata zoruak, orpo ertzetatik hasten ziren gastatzen beti. Gelan bueltaka ari zela, burkideak zer moduz ote zeuden pentsatu zuen. Jasaten ari ziren zapalkuntzari beldurra baldin bazioten, zer pasako zitzaien? Kezka horrek hartu zion burua. «Atxiloketa honek luze jotzen badu, gero eta beldur handiagoa izango dute...» Watari konponbideren baten bila hasi zen bere kautan.

Hormetan, azkazalez, arkatzez edo auskalo nola egindako mota askotako zirrimarra eta idazkunak zeuden. Aspertzen hasten zenean, forma haiek banan-banan, zehatz-mehatz ikusi eta irakurtzen zituen. Nonahi ikus zitezkeen gizon zein emakumeen sexu-organoen marrazki handiak.

Ni lapurra naiz.

Kaserna honetako buruak hazpegieta ezagun du sablez hilko dela. Frenologoa.

Sutea, sutea, sutea, sua, sua (Futurismoko artista batena bezalako letraz idatzita!)

Gazte golfoa izatea zer da? Bizitza serioena daramana ez bada? Kar-kar-kar!»

Sozialistak zaretenok, salbatuko gaituzue!

Hi izan hadi sozialista!

Gizonezko sexu-organo bat eta emakumezkoarena elkarren parean marraztuta zeuden, eta horren alboan,

Bizitza honetako tragikomedia, batean hasi eta beste batean bukatu? Ai ene.

Nik ez daukat bizitzeko modurik.

Komisario jauna, zure alabarekin zorri piztu bat bizi da.

Zerritoki honetaz futitzen naiz. Nork dio beldurra leku madarikatu honi?.

Langileok, izan indartsu!

Gela honetara zatozten guztioi abisatu nahi dizuet: utz diezaiogun zirriborroak egiteari, lotsagarria da eta.

Jan ezak kaka!

Legez kontra askatasuna kendu eta hona ekarritakoontzat, pareta hau da paradisua bezalako leku aske bakarra. Gela honetara zatozten guztioi abisatu nahi dizuet: egin itzazue nahi adina zirriborro hemen.

Langileak azken bolada honetan harropuztuta dabilta.

Zital hori, esan berriz! Hilko haut!

Polizia jauna, Yamada auzoko Kiyō Yoshida izeneko emazteak, hiru maitale omen dauzka, eta kondoia hartuta bi egunetik behin banan-banan bisitatzera joaten omen da. Iker-tu, mesedez.

Hi hiru horietako bat haiz?

Emaztea eta umeak ditut. Goseak gaude. Jendarte honi gorrotoa diot.

Bai, gorrotatu, gorrotatu asko!» «Lan egin ezak!

Lan egiteko? Hik zer uste duk, lan eginda bizitza erraztuko zaigula gauden mundu honetan? Hitz egin aurretik pentsa ezak, aldrebes arraio hori!

Gora sozialismoa!

Watarik, ziegan sartzen zuten bakoitzean, hutsik egin gabe zirriborratzen zuen zerbait. Beti egin izan zuen idazkunen bat.

«Azkenean poliziekin harremana izan dut» Gizon tristea. «Polizia batzuen emazteak, pobrezia dela medio, 3 yenen truke lan lizunetan ari dira. Horrelako zortzi daude Otarun» Zulo hau ezagutzen duena.

Testu horien ondoan libre zegoen horma tartean, arreta handiz, azkazalekin marra sakonak eginez zirimarrak egiten hasi zen Watari. Langintza horretan oharkabean joan zitzaion denbora puska. Ekintza hori atsegingarri zitzaion, marrazkiak margotzen ariko baltiz bezala. Horregatik, ahalik eta idazkun luzeena egin nahi izan zuen. Sorbaldekin indarra eginez, lanari ekin zion. Eginkizun batean murgiltzen zenean, konturatu gabe mingainaren punta ezpain artetik ateratzen zitzaion. Horrela, buru-belarri, letraz letra grabatu zituen.

Entzun, adiskideok!

Ziega hau gu pobrei sufriarazteko bakarrik existitzen da!

Polizia, berriz, zakurra bezalakoa da, hesiz inguratutako lorategi erraldoiekiko gaztelu moduko etxetzarretan bizi diren aberatsek diru asko pagatuta enplegatzen dutena.

Poliziek inoiz atzeman dute aberatsik?

Eta guk, benetan, zalantzan eta urduri egoteko astirik gabe, elkartu eta hautsi egin behar ditugu ezertarako balio ez duten aberatsak, poliziak eta ezertarako balio ez duen gaur egungo politika!

Kezkatuta eta urduri jarraitzen badugu, malkoak alferrik galdu besterik ez dugu egingo.

Egin negar eta egin negar jarraitzen badugu, betirako zapalduta egon beharko dugu.

Anaiok!

Lehenbailehen eskutik helduko diogu elkarri. Sendo eta tinko helduko diogu elkarri.

Poliziek lortuko ote dute ba, gure elkartasuna euren sable kamutsekin moztea?

Gu langileok, beti lan eta lan, beti lanean, ia-ia ahuspez erori arte, eten beharrean beti lan egiten, eta hala eta guztiz ere pobre segitzen dugu. Hau burugabekeria!

Mundua lan egiten dugunontzat. Mundua langileentzat eta nekazarietentzat. Interesarekin eta langileei kendutako diruarekin, ezer egin gabe bizi diren aberatsek lur jota utzi duten mundua.

Guk eraikiko dugu mundu hori.

Aizu, lagundu!

Heldu tinko!

Aizu! Zuk ere bai!

Denok! Denok!

Denbora luzea pasa zuen zirriborroak grabatzen. Watarik, berriro dena irakurri eta konforme geratu zen. Txistuka, panazko praktetako poltsikoetan eskuak sartuta hormatik urrunduz eta hormara hurbilduz ibili zen atzera eta aurrera.

Egusentia zen. Argia itzali ondoren, orde, begiak ilunera jarri gabe artean, gela bat-batean itzaletan geratu zitzaion. Paretan idatzi zituenak ere itzali egin zituen ilunak. Goizalbako argi zuraila, leihoaren forma koadratua hartuz, behe aldetik sartzen zen hogeita hamarreko edo berrogeiko angelua eginez. Watarik brastakoan puzker ozen bat bota zuen. Segidan, gelan biraka zebilela, indar eginez puzker mordoa bota zuen. Odoluzkia zeukanez, haizeak erruz atera ohi zitzaizkion. Kirats handikoak ziren, gainera, berari ere nazka emateko modukoak. «Kaka zaharra! Kaka zaharra!» esanez, hanka bat pixka bat altxatu eta puzkerrak botatzen zituen.

Zortzi eta erdiak inguru izango ziren. Ateko sarraillak zarata atera zuen. Atea ireki eta gerrian sablerik ez zeraman polizia bat sartu zen, galtzeta eta txankleta japoniarrez jantzita.

—Kanpora.

—Ni ez naiz zoo bateko piztia.

—Ergela halakoa!

—Askatu egin behar nauzu? Estimatzekoa da, aizu!

—Galdeketa da —esan eta gero, bat-batean hau kiratsa! oihukatuz korridorera atera zen korrika.

Watari bere kausaz zela konturatu zenean, barre-algara batean hasi zen. Izugarrizko barregura eman zion, eta gorputza bihurriturik irri egin eta irri egin jarraitu zuen. Ez zekien zergatik eman zion hainbesteko barregura halako huskeriak, baina bai, barregurari eutsi ezinik segitzen zuen barre karkailaka lehertu beharrean.

7

Hamabostean bertan, beste bospasei langile ekarri zituzten. Ziega txikiegi gelditu zen, eta atxilotuak arte martzialetako gimnasia aldatu zituzten. Gimnasioaren zoruaren erdia tatamizkoa zen eta beste erdia zurezkoa. Gelako hiru horma ia osorik kristalezko leihoek osatzen zituztenez, argitsua zen oso. Hasieran argiak, ilunetik zetozenei, min egiten zien begietan. Erdian estufa handi bat zegoen. Atxilotu gehienek elkar ezagutzen zuten, estufaren inguruan kontu kontari hasi ziren. Lau polizia zeuden begirale, eta haiek ere estufa aldera inguratu ziren.

Atxilotuek mutu iraun zuten estreina, poliziak ondo-ondoan zeuzkatelako. Baina, aspertzen hasi zirenean, noizbehinka poliziei zehar-begiratu motzak botaz, geldiro hasi ziren hizketan, poliziak haserretzen baziren berehala isiltzeko asmoa hartuta. Poliziek, ordea, atxilotuen hizketa entzutean, batzuetan buruaz baietz egiten zuten, eta bestetan keinuekin adierazten zieten jarraitzeko hitz egiten. Azken beltzean, aspertuta zeuden zaindariak ere.

Iluntzean, kanpora eraman zituzten atxilotuak. Atze aldeko irteeratik atera zituzten, eta eraikinari buelta erdia emanda, berriro aurreko sarrera nagusitik sarrarazi. Zentzurik gabeko buelta emanarazi zieten, horrenbestez. Bat-batean aurpegia ilundu zitzaien denei. Zalapartan gimnasia sartu ondoren, bata bestearen ondoan gurpilean bilduta, zer gertatzen zen elkarri galdezka eta jakinguran hasi ziren. Sarekada hark zergati bereziren bat behar zuelakoan zeuden. Salda alargun gaziagia eta gariarekin nahastutako arroz egosia —lehorra eta belztua— jan ondoren, berriro inguratu ziren estufa ondora. Denen kontuak batuta ere, ez zuten zer kontatu handirik osatu.

Zortziak jota, Kudori deitu zioten, irteteko esanez. Besteek ikaraturik begiratu zioten.

Egunsentian, estufa, harrikatz merkea erre beharrez kea zeriola hasi zen, ez zuen ondo berotzen, eta atxilotuei bizkarretik hotza barruraino sartzen hasi zitzaien. Ryukichi, bazter ilun batetik tapaki bat hartzera joan zen. Atzetik jarraitu zion Ishidak.

—Ogawa, gauza bat esan nahi nizun... denen aurrean esatea egokia den ez nekienez, orain arte isilik egon naiz baina... —Ishidak baxu esan zion.

Ryukichik, urdailean berriz ere mina sentitzen hasia, betileen inguruan indarrak bilduz esan zion:

—Zer?

Gimnasioaren aurretik norbait pasa zen pauso hots lehorrarekin.

Lehentxeago Ishida komunera joana zen. Ziega guztientzako komun bakarra zegoenez, geletan sakabanatuta zeuden kideek komunean bakarrik ikus zezaketen elkar, eta onenean aukera hori elkarrekin hitz batzuk trukatzeko baliatu ere bai. Horregatik, komunerako beharra sortzen zitzaienean, baten batekin

elkartzea espero izaten zuten. Ishida sartu zenean, sarrerako ispilu handiaren aurrean, bizkar zabaleko gizon bat aurpegia garbitzen ari zen. Ishida gizon hari pentsakor inguratu zitzaion unean altxatu zuen hark aurpegia. Bien begiradek topo egin zuten.

—Hara! —atera zitzaion Ishidari. Burutik hasi eta hanka muturreraino zuzen-zuzen eta abiada bizian igaro zitzaion zerbait. Gorputza hain arin sentiturik airean flotatzen ari zela bururatu zitzaion. Eta konketaren ertzari esku batez eusten zion bitartean, beste eskuarekin masail aldea igurtzi zuen. Aurpegia!? «Hori aurpegia al da?» esan zuen bere baitan. Berenjena usteldua bezalako kolorea zuen, ikaragarri hanpatua, eta aurpegi hura, norena eta Watarirena zen!

—Polita jarri naitek —esan zuen Watarik, bere aurpegia seinalatuz eta irribarrez. Irribarrez!

Ishidari ez zitzaion hitzik atera. Bihotz zolan kilima balu bezala hasi zen dardarka.

—Baina niretzako hau ez duk ezer.

—Ez?...

—Argi ibili beharra zagok, denok beldurra harrapa ez gaitzan!

Orduan ez zeukaten gehiago hitz egiteko astirik.

—Hau larria dela iruditzen zait —esan zuen Ishidak, haserre itxuran eta apal hitz eginez.

—Bai... Uste dut badakidala zergatik gertatu zaion hori... Dena dela kezagarriena «beldurra» izatea da —esan zuen Ryukichik estufa inguruko kideei eta poliziei begira.

—Bai, ados nago. Baina batzuk sinetsita daude atxilotu eta gero ere adoretu agertu eta oldarkor jokatzea dela benetako borrokalariaren portaera... eta nik uste dut ideia hori aldatu egin beharko genukeela.

Kuartelean lasai agertzea eta beldurrak jota egotea ez dira gauza bera, nire iritziz.

—Bat nator zurekin.

—Saitok —esan zuen Ishidak, estufa ondoan eskuak astinduz hizketan ari zen Saitori begira— bota zuen lehengokoan: atxilotu eta zigor txikiena jasaten duenak lotsatu egin beharko lukeela eta benetako borrokalaria balitz, bere burua hil beharko lukeela lepotik esekita!

—Ba... gure mugimenduan gabiltzanak, sentimentalismo eite baten eraginez-edo, gutxi gorabehera horrela sentitu izan gara askotan... Zigor gutxiena izan baduzu, besteen aurrean gaizki sentitzen zara. Baina, jakina, zuzendu beharreko pentsaera da hori.

Ishidak bere solaskideari aurpegian begiraturaz zer edo zer esateko imintzioa egin zuen, baina ezer esan gabe pentsakor jarri zen.

—Baina kontu korapilatsua iruditzen zait niri. Gordin-gordin esaten badugu Saitorena bezalako jokaera umekeria dela, hala pentsatzen dutenak gogogabetu ditzakegu. Eta grina ezinbestekoa da gure mugimendurako. Noski, umekeriak egitea eta borrokarako grina izatea ez dira gauza bera.

Ishida bueltaka hasi zen ibiltzen oin muturrei begira.

—Garrantzitsuena grina hori, daukaten bezala, bere horretan zuzen bideratzen jakitea dela iruditzen zait. Borrokarako grina eta gogo hori, dudarik gabe, funtsezkoa eta garrantzitsuena dela uste dut —hitzok jaulki ostean, pentsakor jarri zen Ryukichi, eta une batez isildu egin zen—. Esaten da «Teoria iraultzailerik gabe, ez dago iraultza gauzatzerik», esamolde ospetsua da, badakizu hainbeste... Baina, nire ustez, hori ez da nahikoa. Esaldi honen muinean gordean dagoen kontzepturik handiena, grinaren beharra da, dudarik gabe.

—Aparra bezalako grina bada, ezerezean gera dai-teke, ordea. Begira idiei esaterako, zer gerta ere, astiro baina gelditu gabe jarraitzen dute bere bidean aurrera. Horrelakoa da guk behar dugun grina; ahalegin luze, etengabeak eskatzen dizkigun mugimenduan gabiltza-nok premiazkoena duguna grina mota hori da.

—Bai, baina grina bakoitzak bere itxura izan leza-ke. Gure borroka ez da koadrillako hiru-lau lagunen artean egitekoa. Makal doazenen grina eta azkar doa-zenena, maila altuagoko beste grina batekin, kontu handiz nahastu eta bateratu egin behar direla pentsa-tzen dut... Jakina, batzuetan nik ere une desatseginak pasatzen ditut, baina ez da ona horrekin tematzea. Niri ere ez zaizkit gustatzen Watariren zenbait jokabide, eta ez Watarirenak bakarrik, beste batzuenak ere ez... Hala ere, ni ez naiz haiengandik sekula bananduko. Parekoak ez ditugun kideengandik banantzen hasten bagara gureak egin du, ez dugu antolaketa gisa ondo funtzionatuko, eta mugimenduak ez du aurrera egingo.

—Bai, hori hala da.

—Hemendik aurrera ere zailtasun askorekin egingo dugu topo. Eta huskeriarik txikienak gure batasuna hauts lezake. Kontu handiz ibili beharra dugu ezkutuko arrisku horien aurrean, eta huskeriak diruditen gauza larriei behar duten arreta eman behar diegu.

—Hala da, bai —Ishidak baiezkoa berritu zuen.

Biak estufa aldera inguratu zirenean, atxilotuak eta poliziak kontu lizunetan ari ziren. Tartean bizpahiru langile zeuden, zergatik atxilotu zituzten batere argitu gabe ekarritakoak. Horiek hasieratik urduri, lur jota, eta ikararen mende zeuden, eta ikuste soilak pena ematen zuen. Hala ere, batzuetan hartzen zuten parte berriketa lizunetan, eta barre ere egiten zuten. Hizketa eten eta isiltasuna nagusitzen zenean, ordea, aurpegia iluntzen

zitzaien, ortzian abiadan zihoazen hodeien itzala aurpegi gaintek pasako balitzaie bezala.

Saito eskuekin emakumezkoen sexu-organoari buruz imintzio nabarmenak egiten ari zen. Kontakizuna artatsu zeramanez, denak haren gainean zeuden adi-adi. Bukatu zuenean, begirik kendu gabe entzuten egon zen polizia gizen, ile bakanekoari eskua luzatuz esan zion:

—Ishiyama jauna, zigarro bat, mesedez.

Ishiyamak, barre baldar batekin, jakako barruko sakelatik, ia tolestutako zigarro zimur bat atera eta Saitori eman zion.

—Eskerrik asko, eskerrik asko! Orain, zehaztasun gehiagorekin kontatuko dizkizuet kontatzekoak —Saitok begirada maltzur batez so egin eta barre egin zuen. Gero tabako zimurtua kontu handiz lisatu zuen, eta tu eman zion, ahalik eta luzeen iraun zezan isiotuta.

—Ez dut orain erreko. Berehala gastatzea penagarria zait. Gero lasaiago erreko dut —esan eta belarriaren gainean jarri zuen.

—Etxera joan behar dut lehenbailehen —bazter batean esan zuen norbaitek bere kolkorako.

Hori entzunda, bihotzean linterna bat piztu balitzaie bezala sentitu ziren beste guztiak.

—Itsasertzeko lantokitik zuzenean ekarri naute, kezka handitan egongo dira etxean... Lanera joaten ez banaiz, goseak hilko zaizkit andrea eta umeak.

—Gu ere ez gaude hobeto.

—Mugimendu honekin nekatuta nago. Hau ikaragarria da —esan zuen zinez eta bihozminez aspalditik sindikatuan zebilen langile batek.

—Zergatik? —sartu zen tartean Saito.

Saitoren ahotsa entzuteaz batera, langilea mututu egin zen. Saitok haserrea disimulatu gabe, berriz ekin zion:

—Aizu, esan zergatik?

—Lasai! —Ishidak poliziari keinua eginez, Saitori bizkarrean bultzatu zion. Kimura izeneko langile hark denbora luzea zeraman sindikatuan, baina ez zen sindikalista nabarmena. Beti esaten zuen biltegi bateko langilea zela eta lan oso gogorra zela hura. Halako batean jakin zuen, sindikatua langileen egoera eta lan hitzarmenak hobetzeko erakundea zela, eta sindikatuan sartu zen orduan. Baina sindikalista izateagatik preso altxa zezaketenik ez zen haren buruan sartzen, eta nahaste-borraste handi baten mende zegoen. Poliziarentzat, gauzetan parte hartzen zutenak hain «txarrak» izatea zeharo ulertezina zitzaion. Beldurgarria ere egiten zitzaion. Sindikatuak Polizia molestatu gabe langileen alde lan egiten zuelako uste betea zuen. Baina orain oker zegoela konturatu zen. Geroztik askotan pentsatu izan zuen sindikatua uztea. Azken finean, Kimurak, bere borondatez baino, norbaitek lotuta baleuka bezala jarraitzen zuen sindikatuan. Hala, aski zuen eragozpen batekin topo egitea sindikalismoaren trenetik jaitsi nahi izateko. Ez zen zaineko sindikalista grinatsuetako bat, eta ez zien gogoz ekiten sindikatuko lanei, derrigorrean bezala baizik; egiteko agintzen zizkieten lanei bakarrik lotzen zitzaien, txotxongilo baten gisa.

Hauteskunde orokorrak izan ziren egunean gertatu zen. Langileen alderdiko norbaitek aurkako alderdiko hautagai baten afixak kendu zituelako, alderditik deklaratzera joan behar izan ziren. Beraz, baten batek joan beharra izango zuen bere burua sakrifikatuz. Wa-

tarik Kimurari langintza hori bere gain hartzeko eskatu zion, horretarako zenbait ohartarazpen eginez.

—Beharbada jo egingo zaituzte, baina zuk tinko eutsi —esan zion Watarik.

—Ez naiz joango! —erantzun zion takar Kimurak.

Watarik ez zuen ezetza espero, eta harriturik hitzik atera ezinik jarri zitzaion Kimurari bekoz beko begira.

—Aizu, bizpahiru egunez kartzelan egotea egokitzten bazait, gurean goseak hilko gara! Eta nik ez dut hori nahi!

—Ez duzu ulertzen gure mugimendua.

—Zuek bai, zuzendaritzakook, zuek zenbat eta gehiagotan atxilotu, orduan eta ospetsuago, garrantzitsuago, ohoretsuago bihurtzen zarete, baina gu ez! Ez dago ba alderik!

Watari tarte batez ezeztatuta bezala geratu zen zer esan ez zekiela. Ryukichi beste biekini zegoen eta pentsatu zuen: «Asunto txarra dago hemen. Holako gorabehera hutsalagatik zuzendaritzakoak eta oinarriko sindikalistak eztabaidan hastea ez zaigu komeni.»

Eta horrela hitz egin zien:

—Behingoagatik, beste bat bidaltzea badaukagu.

Hori gabe ere, sarekada hura Kimurarentzat sindikatutik irteteko parada aproposa zen. Libre uzten zutenean, sindikatutik atera eta mugimendu politikoa lagatzea erabakita zeukan.

—Oilo ustela ez bestelakoa! —lehenagoko gorabehera hura gogoan zuela esan zuen Saitok, eta beste aldera begiratu zuen.

—Kimura, sindikalista baldin bazara, sindikalista bezala portatu behar duzu. Batez ere orain gauden kinkan, zalantza izpirik gabe eutsi behar diogu geure bideari —esan zuen Ryukichik izter-tartea haztatuz, estufaren beroak eragindako hazkura arintzeko.

Kimurak, ordea, isilik jarraitzen zuen. Ryukichiri otu zitzaion, sindikatu ezkertiarretan Kimura bezalako kide dezente egon behar zuela, eta hori zorrotz pentsatzeko kontua zela.

Shibata, Kimuraren bidez sindikatuan sartu zena, hankak tolestuta zegoen jarrita denei begira.

Shibatak, Kimurarekin lastaira berean lo egina zen aldetik, bazekien Kimura lur-jota zebilena. Shibata bera ere, batez ere sindikatuko egoitzan lo zeudela eraso zietenean, zeharo behera etorri zen, zainetan odolik gabe geratu izan balitz bezala. Baina garbi zeukan horiek eta handiagoak ere pairatu beharreko gorabeherak zirela. Bazekien bera ez zegoela egina horretarako, baina horrexegatik zeukan inork baino gehiago saiatu beharra, ahaleginean bereak eta bi emanda.

Watari, Kudo, Saito, Ryukichi eta abarrek egiten zizutzenak arretaz ikasten zituen, eta bere burua larderia handiz hertsatzen zuen. Sarekada hura, Shibatarentzat, «galbahe estua» ari zen gertatzen. Tristeia zitzaion galbahean behera bata bestearen atzetik trumilka hainbeste burkide erortzen ikustea. Baina beste alde batetik, zitekeena zen gora egiteko igaro beharreko ataka izatea hori ere. Shibatak pentsatzen zuen:

—Eskarmentu gutxikoa, berria eta gaztea izango naiz, bai, baina ni ez naiz jausiko!

Kimuraren kontua tarteko, zurrunbilo hartan estufa inguruko solasaldiak, indarra galdu bazuen ere, hutsa behar izan zen hitz beste egin eta emakumeen gaia berriro pizteko.

Zortzietan, tatami gainean lotarako lekuak prestatu ondoren, binaka lastaira banatan etzan ziren. Lo egitea zen beldurrik gabe haizu zitzaaien plazer bakarra, loa bere orduan etortzen bazitzaaien behintzat.

Gerrikoa eta galtzerdiak eranztearen hotsak zabaldu ziren airean.

—Lehenbailehen lo hartu, eta ametsetan hasiko naiz —esan zuen baten batek.

—Ziegako ametsa?! Amets-loka!

—Kaka zaharra hortako!

Solaskideak barre egin zuen. Ikas-bidaian ostatura iritsi berriak diren ikasleak bailiran, driska sortu zen une batez.

Poliziek noizean behin «Ixo!!» esaten zieten.

Asko erabilitako tapaki zikin, maiztuaren maiztuz txipiroi lehortua bezain mehearen ertzak masaila ukitzen zion, nazkagarri.

—Ai, ai, ai, hau da zerua hau! —mantapetik esan zuen ahots ilaunez.

—Infernuko zerua, ala?

Urrutiko zoko batetik:

—Amets polita izan nahi dut ba.

—Lotara! Lotara!

—Neska batekin oheratuko bazina bezala, ezta?

—Ez aipatu hemen horrelakorik!

—Ai, neskarekin oheratuko banintz...

—Nor ote da artaburu hori?

—Ni ez naiz artaburua!

—Lo egiteko!

Txitean-pitean, han eta hemen entzuten zen bataren eta bestearen jarduna. Denborarekin, ordea, berriketa bakantzen hasi zen. Hogei minutu inguru pasa zirenean ametsetako hitzen bat edo beste besterik ez zen entzuten. Eta azkenerako isiltasuna nagusitu zen.

Gimnasioaren aldera ematen zuten kaleak ilunak eta bakartiak ziren. Jende gutxi zebilenez, elur izoztuan pauso karraskak nabarmen adi zitezkeen norbait igarotzen zen bakoitzean. Kaserna barruan baten bat

beste bati hoska hasten bazitzaion, urrutiko oihartzun bat balitz bezala entzuten zen.

—Lo al hago? —loak hartu ezinik zegoen Ryukichik, berarekin batera zegoen Saitori galdetu zion baxu. Saitok ez zuen zirkinik egin. Zapo zegoen. Loak azkar hartu zuela iritzirik, iruditu zitzaion hori zela Saitoren izaera, eta barre-irudia erne zen Ryukichiren bisaian. Ondoren, tarteka minbera jartzen zitzaion urdaila igurtziz (min-zirria baino ez zuen hala ere), gauza askotan hausnartzen hasi zen...

—Aizue! —mintzo zen hura nor ote zen galdetu zuen berekiko Ryukichik, amorrua eman baitzion molestatu egin zuelako, izan ere une hartan buruz erreparatzen ari zen liburuak arreata handia eskatzen baitzion.

—Aizu! —bat-batean sorbaldatik heldu zioten zakarki. Kaka zaharra! Atzera jiratzekoa egiterakoan, esnatu egin zen Ryukichi. Logurak erreta zegoen. Orduan, argazki lausotu bat ikusteko bezala begiak zabal-zabal ireki zituen ametsa eta errealitatea bereizi nahian. Eta ikusi zuena zera izan zen, polizia baten aurpegi zikin, baldar, bizartsua.

—Jaiki! Galdeketa egin behar dizuegu eta.

Agondu egin zen Ryukichi, harrituta. Erdi lo dagoena harrapatu eta eramatea, polizia-lanbidearen berezkotasuna zen. Giltza-hots beldurgarriari segizio eginez, poliziarri jarraitu zion Ryukichik.

Ordu erdi bat-edo pasa zen. Kudo polizia batekin itzuli zen. Aurpegia karea baino zurbilagoa zekarren. Gimnasia iritsi bezain laster, ordea, bere gauzak jaso eta berriz atera zen poliziak presaturik. Irteterakoan, Kudo lotan zeudenei begira jarri zitzaien zerbaite esan nahian bezala. Baina, ezer esan gabe, gorputza jiratu eta bere bizkar koadratua erakutsiz lekutu zen gimnasiotik. Giltzatu egin zuten atea zaratatsu. Bien

oin-hotsak ez zuten bat egiten. Korridorean zehar denbora luzez entzun ziren haien pausoak.

Lo zeudenek batera eta bestera mugitzean ateratzen ziren zaratak, barruko arnasak, eta gaizki zezeldutako ametsetako hizketak ... han eta hemen sortzen diren zingiren azalera atera ohi den metanoa bezala.

8

Poliziak astebeteen langile mugimendu politikoa-
ren inguruan zebilen oro ehizatu zuen eskubeteka,
berdin zen langilea izan edo haiekin lotura zeukan in-
telligentsiako partaidea izan. Guztira berrehun pertsona
atzeman zituzten, borda batean arkumeak bilduko ba-
lituzte bezala. Behin, mugimenduarekin zerikusik ez
zuen anaia etorri zitzaion bisitan atxilotu bati, jateko
eta janzteko zerbaiten ekartzeko, eta hura ere bertan
atxilotu, kolpeka erabili eta giltzapean eduki zuten as-
tebetez. Hori ordea beste ehun episodioen arteko bat
baino ez zen izan.

Galdeketei ekin zieten. Watari begitan hartuta
zeukaten hasieratik, eta egun horretako komunisten
aurkako operaziorik gabe ere, gizon hura astintzeko
aitzakia handirik ez zuten behar, irrikan baitzeuden.
Aspalditik zebiltzan elementu hura legezko alderdi
hartatik eta mugimendu sindikaletik erauzteko aba-
gunearen peskizan. Eta Watari, egoera horren aurrean
lehoinabarra bezala zebilen, batetik bestera jauzi
handiak eginez. Azkenean, ordea, harrapatzea lortu

zutenez, pozarren jarri zen polizia eta honela zioten: «Hebain-hebain eginda, erdi hilik utziko haugu, zital hori!»

Watarik, galdeketan, ez zien nahi zuten ezer esan.

—Nahi duzuen bezala —ez zuen besterik esan.

—Zer esan nahi duk horrekin? —inspektorea eta Tokkoko⁵³ poliziak euren onetik ateratzen hasiak ziren.

—Zeuek pentsa, edozer gauza...

—Torturatu egingo haugu.

—Zer erremedio.

—Martiri baten gisan jokatu nahi baduk, ederki da mutuko zaik.

—Begirik ez al daukazue aurpegian! Zer uste duzue, torturatzen banauzue eta hilzorian utzita ere, etsi egingo dudala? Ni ez naiz gero txarrean erraz domatzekoa; hainbeste ezagutu behar nindukezue honezkero!

Poliziak asaldatuta zebiltzan. Watari borrokalaria zaildua zenez, esaten ari zenari egia zantzua hartu zioten, eta hala izatekotan buruhaustea franko ekarriko zien. Zer dela hainbeste buruhauste? Gaitz guztien iturri zen buruzagi komunista deabru hari ezer ateratzen ez bazioten (buruzagia zen aldetik, ordea, heriotzaraino sakatzea ez zen komeni) euren lepoa egon zitekeen jokoan. Eta arazo guztien artean, kargua galtzeko arriskua zen larriena.

Watari goi-gorriarik jarri zuten, eta ezer esan gabe, kendoko makilarekin bizkarrean kolpatu zuten bortizki. Indar guztiekin jotzen zuten bakoitzean, banbuzko ezpata, hots erlatsa ateraz, kakotu egiten zen. Watarik, gorputza erabat zurrunduz, min alarau artean jasan zituen kolpeak. Ordu erdi baten ondoren, zoru gainerra erori zen sutan erretako txibia bezain zapal. Azken

53 Tokko (Tokubetsu Kootoo Keisatzuren akronimoa) 1911n Japoniako Inperioak ezarri zuen polizia politikoa.

makilakada oso latza egin zitzaion, eta hanka eta beso gogortuak airean luzatu zituen edena jandako txakurra balitz bezala. Ondoren karranpatu eta konortea galdu zuen.

Watari, estira handiak pairatua zenez, torturei eusteko eskarmentua hartua zeukan, besoak orratzez ziztatzeko edo goritutako kurrikak eskuz hartzeko teknikaz jantzitako zenbaitek bezala. «Torturatu egingo zaitugu!» esaten zioten bakoitzean, atezu jartzen zen, eta konturatu gabe horrek berak ematen zion oinaze haiei aurpegi emateko kemena, eta nahiz eta gogor zurriatu, oinaze haiek barrutik guztiz hautsi gabe jasateko gai zen.

Polizia-etxe hartan, hirurehun edo laurehun urte lehenago Ishikawa Goemon eta Amanoya Rihee-k nozitu zituzten tortura lazgarrien kateak artean eten gabe jarraitzen zuen. Begi-bistako errealitatea zen. Dena den, Zigor Kodeko 135. artikulua honela zioen:

Akusatuak adeitasunez eta gizalegez tratatu behar dira, eta eurentzat probetxugarri direnak adierazteko egokiera eman behar zaie.

Ur perrailkada bota ziotenean etorri zen bere onera. Poliziak orduan jostariago jokatzen hasi ziren.

—Alferrik ari zarete! Ni torturatuta gosea pasatu besterik ez duzue egingo. Ez dut hitz egingo —zioen Watarik.

—Guk dena zekiagu. Aitortzen baduk, zigor txikiagoa izango duk.

—Dena baldin badakizue, gaitz erdi ezta? Nitaz ez kezkatu.

—Watari, horrela ez diagu aurrera egingo.

—Ba jai daukazue. Ohituta nago torturarekin.

Atzean, beste hiruzpalau torturatzaile zeuden.

—Alu hori! —horietako batek Watariren atzetik be-
soak luzatuz lepotik heldu eta estutzen hasi zitzaion—.
Heu bakarrik nahikoa haiz Otaruko bazter guztiak
nahasteko!

Kordea galdu zuen berriro.

Watariri, polizia-etxera eramaten zuten bakoitzean,
barregura eragiten zion pentsamendu bat sortzen zi-
tzaion: kaleko jendeak uste du torturatzailer hauek
direla hiriko lasaitasuna, zorientasuna eta zuzenta-
suna bermatzen duten «polizia jaun prestuak», eta
esker zorrez dagozkie... Izan ere «lilurakeria» zen he-
ziketa burgesaren oinarria eta funtsa, eta trebetasun
harrigarria zuen edozeini zuria beltza dela itsu-itsu
sinestarazteko.

—Aizak, ohituta egongo zara oinazeak eramaten,
baina jakizu behar baldin badugu, Tokiotik hi hiltzeko
baimena ere eman digutela.

—Ederki! Hiltzeko aukerak ez nau batere ikaratzen.
Ni hil eta gero proletalgoaren mugimendua desager-
tuko balitz, orduan bai, orduan inportako litzaidake
hiltzea, baina atzetik borrokalari ugari datorrenez, hil-
tzeko lotsarik ez dut.

Ondoren, Watariri arropa erantzi eta zintzilik jarri
zuten, oin-punten eta zoruaren artean hamar edo ha-
mabost zentimetroko tartea utzirik.

—Baduk garaia aitortzeko, aizak! —esan zion ju-
doko hirugarren maila zuen polizia batek, Watariren
oin-zola bere eskugainarekin indarrrik gabe kolpatuz.

—Ez da berehalakoan iritsiko nik aitortzeko ordua.

—Tonto zikina! Orain pairamendu berria eragingo
diat.

—Zeuk nahi duzun bezala!

—Ikusiko duk.

Tortura joko berria ikaragarri mintsua zitzaion: tamagileen orratz lodiaz ziztaten zuten behin eta berriz. Ziztada bakoitzean tximistak joko balu bezala sentitzen zuen, eta gorputz osoa minaren gune zehatz horretan uzkurtuko balitzaio bezala. Zintzilik, gorputza bihurritu eta okertu egiten zuen, eta hortzak estututa garrasika hasi zen:

—Hil nazazue! Hil nazazue! Hil nazazue!

Eskuaz, edo kendoko ezpataz, edo burdinazko barraz, edo zigorraz jotzea baino askoz okerragoa zen hura.

Torturatzen ari zirelarik, neurririk gabeko gorroto bat, kapitalistenganako gorroto itsua sortzen zitzaion sutsu. Iruditzen zitzaion tortura zela kapitalistek proletalgoari ezartzen zioten zapalketa eta esplotazioaren adierazgarri gorena. Watari inoiz bere «borrokarako grinaz» mesfidatzen eta zalantzan hasten bazen, orduan nola torturatu izan zuten ekartzen zuen gogora. Legez kanpo atxilotu, oinez ibiltzeko gauza ez izateraino hebaindu ondoren etxeratzen zen bakoitzean, barru-barruan goi-klaseetako jendearenganako gorroto «freskoa» oldarrean isurtzen zitzaiola sentitu ohi zuen. Watariren ustez, sentimendu hori ezin zuten garatu Marx eta Leninen teoriak ikasi eta gizartean «justizia» gauzatu nahian mugimenduan sartutako *intelligentsiakoak* eta ikasle jendeak. «Teoriatik ezin da sortu benetako gorrotoa, zorriak bezala!». Watarik eta Ryukichik, gai honi buruz mila eztabaida izanak zituzten.

Ziztada bakoitzarekin, bere gorputzak jauzi egiten zuen.

—Arraioa! Sikiera kiriorik ez baneuka...!

Hortzak estuturik, garunetako txokoren batean jakin zuen burua aurre aldera erori zitzaiola

—Hau ez zaizue ahaztuko! —izan ziren bere azken hitzak.

Watari hiru aldiz hil zen. Hirugarrenean, ordea, bere onera itzuli zen. Gorputza paper puska bezain ahul eta kordea hari mehe batetik zintzilik zeukala sentitu zuen. Behin tamaina horretara iritsita, hari bost gauza guztiak. Konortea keinuka bezala, noiz joango noiz etorriko zuela, horrek anesthesiaren lana egiten zuen kolpea jasotzen zuen aldiro.

Inspektoreak komunisten arteko harremanak azaltzen zituen poliziaren txosten bat erakutsi zion.

—Begira zenbat gauza dakigun —esan zuen Watari zer pentsatzen ari zen jakin nahian-edo.

—Izan ere, hain azkarrak zarete! —Watarik mozkortuta bezala esan zuen.

—Aizu, ez zaigu komeni zuk horrela goraipatzea ere Poliziek ez zekiten beste zer oinaze modu baliatu. Azkenean, amorru ero batek hartuta zafratu zuten ordubete luzez, ahal zuten guztiarekin joz, baita zapaten metalezko zolarekin ere. Patata-zakua bezala erabili zuten Watariren gorputza. Ordurako «Oiwa»rena bezala zeukan aurpegia. Hiru orduko tortura etengabea bukatu ondoren, ziegan bota zuten txerri hil berria bezala.

Hurrengo goizera arte uluka egon zuen, mugitu ezinik, etzanda.

Watariren ondoren, Kudori deitu zioten. Nahikoa otzan jokatu zuen galdeketa saioan. Ez zuen gogor itxurarik egin. Bazekien bere burua kontrolatzen, egokiera bakoitzean komeni zena egiten.

Kudo ere Watari bezala torturatu zuten gutxi gorabehera. Eramangaitzena egin zitzaiona oinutsik zutiaraztea eta atzetik orpoetan ostikoak ematea izan zen. Garuneraino igo zitzaion oinazea. Gelan bueltaka

ibiliz saiatu zen mina arintzen. Orkatiletatik behera, oinak gogortuta zeuzkan zurezkoak balitu bezala. Orpoetatik isuritako odol tantek zirkulua marraztu zuten gelan. Kudok garrasi zoli artean jauzi egiten zuen zaldi ihar baten antzo. Azkenean abailduta eseri egin zen zoru gainean.

Ondoren, eskuak gora begira mahai gainean jarri, eta arkatzarekin ziztatu zuten indartsu. Gero, askotan egiten zuten bezala, hatzen tartean arkatzak ipini eta estutu egin zizkioten. Gisa horretan etengabe jardunda, nekearen eta oinaze latzaren poderioz, atxilotuei kirioak urratzea lortzen zuten, eta ondorioz puska baterako sorgortu antzean gelditzen ziren. Malguki hondatu bat bezala laga ondoren, etsipenak eta axola-ezak habia egiten zuten torturatuaren baitan. Huraxe izaten zen poliziek eramaten zituzten unea, beraiei komeni zitzaiena aitor zezaten.

Suzumotoren galdeketa eta torturen txanda etorri zen gero. Neurri batean hari egindakoak aurrekoenak baino gogorragoak izan zirela esan zitekeen. Jo ez zuten jo, ezta ostikoka erabili ere, baina hura zortzi aldiz jarraian, zortzi bider ito zuten. Saioa hasi eta buka, mediku-polizia batek tarteka eskumuturretik heldu eta pultsua hartzen zion. Lepoa estutzen zioten, eta konortea galtzen zuen. Berehala susperrarazten zuten, eta minutu bateko tarterik gabe, atzera berriz lepoa estutu, atzera konortea galdu, berriro suspertu... Eta horrela zortzigarren aldira arte. Zortzigarrenean, mozkor-mozkor eginda balego bezala gelditu zen. Zeharo elbarriturik, ez zekien burua non zeukan ere. Inspektorea, Tokkoko poliziak, torturazaileak, gela, tresnak... guztiak oraintxe suntsitu eta hurrena berriz agertu egiten zirela iruditzen zitzaion margo espresionista bateko moldez. Erdi esna eta erdi lo zegoela galderak

egiten zizkioten, nagusi batek bera zen haurra sorbaldatik helduta astinduko balu bezala. Suzumotok arriskuan zegoela sentitu zuen. Ez baitzekien galdera bakoitzari zer erantzuten ari zen.

Sata zeukaten ziegan, hainbat arrazoi tarteko atxilotutako beste lauzpabost zeuden. Kuarteleko mutur batean zegoen, eta korridorearen beste aldean zegoen galdeketa gela.

Atxilotu eta polizia-etxera ekarri zutenean, bere buruari esan zion: «Misio historiko, handi bat aurrera eramateko ardura geure gain hartu dugulako tratatzen gaituzte hain gaizki». Behin eta berriz errepikatu zuen lelo hori bere burua konbentzitu nahian. Ustelak gertatu zitzaizkion, baina, ahaleginak oro, sakon-sakonean lur jota baitzegoen gizona. Ziegan sartu bezain pronto dena beltz bihurtu zitzaion, ordura arteko bere bizitza arrunta betiko galdu zuelakoa eginda. Zitzu batean erremediorik gabe amildegirantz doan autoa kontrolatu ezinik, eskuez aurpegia estaltzen duen gidaria bezala ikusten zuen bere burua. Halako etsipen batean gutxi zezaketen Marxek eta Leninek. «Akabo, nireak egin du...». Etsiak algak bezala estali zion gorputz gutzia koska asko osatuz.

Hori gutxi ez eta, bi eta hirugatik biderkatu zitzaizkion etsipena eta goibeldura zabortegea zirudien ziega hartan. Goizez, arratsaldez nahiz gauez, beti ilun eta heze zegoen; erdian bi tatami higatu zituen. Ematen zuen tatamiak azpikoz gora jarriz gero, harrak, zomorroak eta era guztietako sastar ustel, kirastuak azaldu behar zutela bata bestearen atzetik. Aire a hilda zegoen, itogarria zen, eta komuneko sunda zen nagusi. Aire hura arnastuz gero, gorputz barrua kutsatuko ziola iruditu zitzaion; botagura emateko moduko hatsa zen hura, estolda bazterreko ur ustela bezalako airea.

Bankuko bulegaria zenez, beste kideekin batera hartzen zuen parte mugimendu proletarioan, teoria iraultzaileei tinko eutsiz, baina erdi ezkutuan. Hala, ez zuen beti jokatzeko bizitza-maila apalagoko burkideek bezala, izan ere bere inguruko egoera eta bizimodua eta haienak ezberdinak ziren. Baina horretaz ez zen konturatzen normalean, eta hori ez zuen eragozpen haien mugimenduan parte hartzeko, batez ere bera ere bertan buru-belarri murgilduta zebilenean. Estreinako eguna igaro orduko, ziegako airea gordinegia gertatu zitzaion haren gorputz finari. Sarri botalarria eragiten zion eta botatzen saiatu arren, ezin izaten zuen goitika egin. Etxean goizero joan ohi zen komunera, baina ziegan sartuz geroztik ez zen joaten. Jateko eskasak eta ariketa fisiko ezak berehala lehortu zuten. Laugarren eguneko goizean derrigortuta joan zen komunera. Eta ordu erdiko ahaleginen ondoren, sagu buztana bezalako hiru kaka-hari lehor besterik ez zituen egin.

Ziegan, Sata besteengandik urruti, bakarrik egoten zen eserita, itsaso erdiko uharte txikia bailitz. Besteak, non eta ziegan, patxada ederrean elkarrekin kalakan jarduteko gai ziren, eta hori ulertzea kostatu egiten zitzaion Satari. Hala ere, egunak aurrera egin ahala, hitzik egin gabe eta geldirik egotea nekagarri egiten hasi zitzaion; eta zutitu eta itsumustuan ibiltzen hasi zen gelan. Halako batean zurezko paretaren kontra bermaturik, pentsakor geratu zen denbora luzean. Gogoan ama zuen, bera baino askoz tristeago egongo zelako ustean. Amak esaten zuen «bizitza xume, baina zoriontsua» izango zutela biek, baina nork eta Sata berak hautsi zuen aukera hura. Aurrerantzean kartzelaren eta borrokaren artean bizi beharko zuten betiko, batzuetan erortzeko zorian, besteetan balantzaka, goibeltasunean beti... Argi eta garbi ikusten zuen geroak

gordea ziena. Azken beltzean mugimendu proletarioetan parte hartzea hanka-sartzea izan zela iruditu zitzaion. Eta urez asetako esponja bezala, sentimenduzko itsasoan itotzen ari zen.

Hogeita hamar urtetan lapurretan aritu omen zen hirurogei urte inguruko, begirada zorrotzeko gizon batek hitz egin zion:

—Gizajoa, hau ez duk hi bezalako batentzako lekua.

Hitz horiekin hunkitu egin zen Sata, eta ozta-ozta eutsi zion negarrari. Hunkidura hori ezkutatu egin behar zuen, zeren eta, bere adiurreari amore eman izan balio, malkotan urtuko zen.

Hala eta guztiz ere, bat-bateko ziztada gogor haietara pixkanaka ohituz joan zen Sata, eta astiro-astiro sentimentalismoaren erauntsitik ateratzen hasi zen. Sakrifiziorik egin gabe ezinezkoa zen helburua erdiesatea. Bazen jende bat, hatz bat mugitu gabe, eta dena besteek egingo zutelakoan, iraultza osteko mundu batean imajinatzen zuena bere burua. Halakoentzat ziegako esperientzia eskarmentu ona da! Satak logikaz pentsatzea lortu zuen, eta lasaitasuna berreskuratu zuen. Mugimendu proletarioa ez zela ari bera bezalakoan alde, eta bertan muturra sartu ez balu, bitzta xume baina erosoan eraman zezakeelako burutazio burgesak noiznahi sortzen zitzaizkion. Langileak, aldiz, mugimendu horietan buru-belarri ari ziren, ez inoren alde, ordea, baizik eta beraien sufrimenduak arintze aldera. Satak eta beste hainbatek, berriz, «Guk beste langileentzat egiten dugu borroka, ez geure buruaren alde» pentsatzeko joera zeukaten, eta kontu egiten ez bazioten, pentsaera hura, katetik askatu nahi duen txakurra bezala, azalera ateratzen zitzairen. Hori arriskutsua zelakoan zegoen, eta une hartan arrisku

horretan erortzeko zorian zegoela ikusirik, Sata txun-ditu egin zen bere itsuskeriagatik.

Hala ere, Satak ez zuen lortu bere pentsamendua erabat eta oso-osoa finkatzea. Egunero, eta egunean behin baino gehiagotan, elkarren aurkako pentsamenduak jabetzen ziten txandaka Sataren gogoaz. Batekin malenkoniatsu jartzen zen bezala, jarriko zen bestearekin pozik. Beste egitekorik gabe, gela bakar batean denbora luzea pasa behar zuenez, zer pentsa egoten zen.

Gau batez, gauerd inguruan, Sata esnatu egin zen aldamenean etzanda zuen alproja gazteak gorputza astindu zionean.

—Aizu, aizu... Entzuten al duzu? —esan zion isilki, ilunpetan.

Satak hasieran ez zuen ulertzen zer esan nahi zuen.

—Isilik egon hadi.

Biek arnasari eutsi zioten. Gorputz osoa belarri bihurtuta bezala zeuden. Gau beranduan askotan gertatzen den moduan, belarrien sakonean zerbait entzun zuen. Apurka logura joan egin zitzaion Satari.

—Entzuten duzu, ezta?

Urrutitik, kendoko ezpaten tapatekoak entzuten ziren, arte martzial horretan ariko balira bezalakoa. Tarteka pertsonen ahotsa ere entzun zen, baina ez ulertzeko eran.

—Hori... hori... hori... entzuten duzu, ezta? —esan zion gazteak.

Hotsa gero eta argiago entzuten zen.

—Zeren zarata da? —galdetu zion Satak.

—Tortura.

Bat-batean ahoko zuloan burdinazko barra sartu baliote bezala sentitu zen.

—Entzun ondo. Hori, torturatuaren kirrinka da.

Satak ez zuen ulertu zer oihukatzen ari zen torturatu, baina, ahots hura, behin entzunez gero, ahaztu ezinik bizitza osorako bere baitan gelditzeko moduko txilio oinazetsua zen. Satak zurtuta entzuten jarraitu zuen, eta dardarka hasi zen, gauez kanpai beldurgarria entzunez sute bat ikusten ari balitz bezala. Hortz-haginak karraska zituen. Konturatu gabe, esku batekin lastairaren ertz bat zeukan helduta indar guztiekin.

—Bai, entzuten dut, «hil nazazue, hil nazazue» dioela ematen du.

—Hiltzeko?

—Bai, entzun ondo!

Biek, berriz ere arnasari eutsirik, adi-adi jarri ziren. Garrasiek, urrutitik, biolinaren soinu zoliena bezain zorrotz eta mehe, tinpanoak zulatu zizkien bie. «Hil nazazue! Hil nazazue!»

—Bai, dudarik gabe, horixe dio!

Sata, belarriak eskuekin estalirik, izerdi usaina zerrion lastaira zikinaren gainean ahuspez jarri zen. Hala ere, garrasiek belarri eta burmuinaren sakonenean oihartzuna egiten zuten. Laster isildu zen. Galdeketa-gelako atea zabaltzen zela entzun zen. Biek ziegako leihatilara gerturatuz aurpegia, korridorera begira egon ziren. Hanka bat arrastaka, oin-hots irregularrak, bi pertsona ikusi zituzten hurbiltzen. Argi lausopean, ez zuten bereizi nor ziren. Aiene txikiak eta barruko arnasa sakonak aditu ziren karrajuko isiltasunean. Ziega aurretik igarotzean, polizia batek esan zuen:

—Egoskor samarra haiz horratik.

Satak lorik egin gabe pasa zuen gaua, eta buruko minez jaiki zen.

«Tortura» hitzaren inguruan pentsatze hutsarekin bizkarra karranpatu eta minberatu egiten zitzaion. Belaunak dardarka hasi zitzaizkion eta bertan eroriko

zela pentsatu zuen. Ondoren, ahoko lehorra eta egarri handia sentitu zuen.

Handik pare bat egunera zaintzako poliziak Sata esnatu zuen. «Nire txanda!» etorri zitzaion burura. Nola edo hala jaikitza egin zuen, baina gorputzak, zuhaitzgerria balitz bezala, ezin zuen mugitu. Poliziari zerbait esatera deliberatu zen, baina kokotsa behera joan zitzaion deblauki eta haur txiki baten pare «ahuha, ahuha, ahuha...» ahoskatzea besterik ez zuen lortu.

—Zer gertatzen zaik? —galdetu zion ahotik ke-eraztunak botatzen ari zen poliziak, Sataren jokaera ulergaitza egiten zitzaionlarik.

Ryukichi, eskolan lanean ari zela, hiru bider atxilotu zuten. Orduko galdeketak, ordea, beste gauza bat ziren. «Ergela» edo «kaiku alaena» bezalako hitzik ez zuten erabiltzen, eta errespetuz hitz egiten zioten. Gainera ematen zuen poliziak Ryukichigandik gauzak ikasteko gogoz zeudela. Baina, irakaskuntza utzi eta mugimendu proletarioan aurrean ibiltzen hasi zenean, poliziaren jokabidea arras aldatu zen. Hitz itsusiak eta begirunezkoak nahasten hasi ziren, eta batekoz bestera jokatzen hasi ziren. Hala ere, *intelligentsi*akoa zenez, Watari, Suzumoto eta Kudori baino askoz tratu hobea ematen zioten Ryukichiri. Irri herabea egin ohi zuen Ryukichik horren kontura.

—Ogawa, Poliziak ondo astintzen zaituenean etorkizun handiko bihurtuko zarela nago! —Watarik esan zuen noizbait, gauzak gordin esateko bere joera harekin.

—Zu baino sentikorragoa naizenez, erdiak hartuta ere, erasana zurearen neurrikoa da.

Ryukichik, ordura arte, zaplada batzuk besterik ez zituen jaso Poliziaren aldetik. Baina zegoeneko Watari

bezainbateko herra hartua zioten. Ryukichirentzat zartako bortitza izan zen aldaketa hura.

Galdeketa-gelako sabaian txirrika bat zegoen jarrita, eta soka luze bat zintzilik. Ryukichiri orkatilak lotu zizkioten, eta buruz behera zintzilikatu zuten. Erortzen utzi eta buruarekin zorua joarazten zioten. Odola burura igo zitzaion ur jauzi bat bezala, eta buruan lehertu eta kanpora egin behar ziola sentitzen zuen. Burua eta aurpegia, suzko bola bat bihurtu zitzaizkion. Begiak, berriz, gorri-gorri eginda hanpatu egin zitzaizkion.

—Lagundu! —garrasi egin zuen.

Ondoren, ur irakinetan sartu zizkioten eskuak.

Ryukichiren burkide batzuk polizien tortura ankerren ondorioz hil izan ziren. Batzuk gertukoak ziren, eta beste batzuen berri egunkari eta aldizkarietatik izan zuen. Haien gorpu birrinduak itzultzen zirenean, poliziek beti esaten zuten «Bere burua hil du». Gezur handia zen hura! Baina, non salatu behar zenuen? Auzitegian? Auzitegia ere, beste zerbaiten itxura eman arren, azken finean Poliziaren konplize da! Hori dela eta, polizia-etxean legez kanpoko tratua ematen bazieten ere, atxilotuek ezin zuten ezer egin.

—Hau dugu orain protagonista —esan zuen torturatzailleak.

Ryukichik zorabiatuak entzun zuen. Ondoren, gainean zeraman jantzia kendu eta hiru soka mehe elkarrekin bildutakoekin jo zuten. Gorputza konkortu zitzaion. Sokaren muturrak bularreko mamiak harapatu eta oinaze lazgarria eragin zion. Barruko elastikoa txiki-txiki egin zitzaion. Gorputza erdi elbarri, polizia baten sorbaldan bermaturik nola edo hala eramanean zuten korridorean zehar balantzaka. Tortura besteek esandakotik besterik ezagutzen ez zuenean, pentsatze soilarekin ikara eta laborria sentitu ohi zuen. Baina,

orain, lehenengo aldiz torturatu ostean, oker zegoela ikasi zuen. Torturari aurrea emateko egokiera etorri zitzaionean, «erresistentzia» misteriotsu hori norbere gorputzean bizi zela jakin zuen. Indarkeria anker jasanazinarean aurrean, torturatuek hiltzeko eskatzen dute, baina egia esateko, torturatzen ari ziren bitartean ez zuen sentitzen ez ankertasunik eta ezta oinazirik ere. Bizi zuena «berealdiko», bai, «berealdiko tentsioa» zen. «Gizakia ez da erraza hiltzen». Hori egia borobila zen. Ryukichik hala pentsatu zuen arlote, alproja, eskale eta abarren ziegan sartu zutenean. «Sartu naute» pentsatzen ari zela, konortea galdu zuen.

Hurrengo goizean, sukar handia izan zuen Ryukichik. Adineko polizia bat jarri zen zaintzan, eta bekokia hoztu zion esku-oihal bustiarekin. Bitartean, ametsetan bezala marmarka segitzen zuen. Egun baten buruan, sendatu zen Ryukichi.

—Zure ametsetako hitzak... bai direla zerak... — esan zion arloteak.

Ryukichik, izuak hartuta, eta arloteari bukatzen utzi gabe eztulka galdetu zion:

—Baina zer? Zer? Zer esan dut? —ezen beldur zen ondoan zaintzako polizia zuela ez esan beharrekoren bat aipatu ote zuen. Libururen batean-edo, irakurrita zeukan atzerrian, nonbait, ametsetan hitz eragiteko likidoren bat txertatzen zietela atxilotuei, eta haiek konturatu gabe hitz egindakoak frogatzat hartzen zizutela gero. Amarru zantarra.

—Esaten zenuen, «Ez naiz erraz hilko!» eta handik pixka batera berriz ere, «Ez naiz erraz hilko!». Ez dakit zer esan nahi zenuen, baina hamaika bat aldiz esango zenuen gutxienez.

Ryukichi, sorbaldekin indarra eginez arnasari eutsiz entzuten ari zen gizonaren erasia, baina lasaiturik,

algaraka hasi zen ezustean. Segidan ordea, ai batean garrasi egiteari ekin zion barreak gorputz osoan oina-zea eraginda.

Gimnasioan esaten zuten Saito burutik nahastuta gelditu zela torturatu ondoren. Galdeketa egin ostean «beti moduan» torturatzen hasi zirenean, Saito bat-batean ai batean garrasi eginez zutitu, eta gelan eskuak, hankak eta gorputza astintzen zituela, «Uaaa! Uaaa! Uaaa!» oihukatuz korrika hasi zen. Poliziak, aho bete hortz, makila balira bezala geratu ziren mugitzeko ezgauza. Ohikoa ez zuten ikara sentitzen zuten. «Torturako ordua iritsi dela jakinda, odola burura igo zaio, eta erotu egin da» pentsatuz, inork ez zekien zer egin.

—Gezurretan ari da. Ekin! —esan zuen inspektoreak hoztasunez, arkatz muturrarekin paper gaina kolpatuz. Poliziek, antzerkiko soldadu traketsak balira bezala, txahal txoroaren pare jauzi bortitzak egiten ari zen Saito inguratu zuten. Jo egin zuten. Lehen kolpeen ondoren, ordea, poliziek betiko «torturarako kontzientzia» berreskuratu zuten. Batek aurpegiaren ederra erantsi zion kendoko banbuzko makilaz. Odol zipriztinak hedatu ziren airean «oparo», su festa legez. Arroparen aurrealdea gorritz tindatu zitzaion. Saitok, «Uaaaa! Uaaa!» garrasi eginez, —aiene haiek etsipenera makurtuak ziren ordurako— jauzika jarraitu zuen. Aurpegia goitik behera odoleztatuta zeukan, odolez betetako baineran sartu-atera balute bezala.

—Horrela ezin da jarraitu. —esan zuen inspektoreak— Utzi! Utzi! Hurrengorako utziko dugu.

Eta odoleztatutako arropa kendu zion polizia batek, torturaren frogarik gera ez zedin.

Geroztik Saitok hamar bat egun igaro zituen galdeketaryk gabe. Gimnasioan hiru egun egin ondoren, ziega batera eraman zuten. Torturatu ondoren, hala

ere, lehen baino askoz kementsuago ageri zen. Ez ordea era naturalean, baizik eta modu behartu eta artifizial samar batean. Baten batek zerbait esaten zionean, askotan burua beste nonbait izaten zuen, eta isilik egoten zen bakanetan bere buruarekin marmarrean jarduten zuen.

Langile asko eta asko ekartzen zituzten, jario etengabea, laneko arropaz jantzita. Egunero, hamar egunean jarraian, hogeitau egunean jarraian, sarekadak izan ziren. Jai zeukaten polizia guztiak, salbuespenik gabe, lanera deitzen zituzten eguneko yeri erdi baten truke. Goizetik hasi eta gauera bitartean, batetik bestera eten beharrean ari behar izaten zuten lanean, leher egin arte. Hain ziren neke, zaintza egokitzen zitzaienean loak hartzen zituela. Eta zeini, eta beraiek atxilotu zituztenei kontatzen zieten gero hain juxtu ere, zein bizimodu neketsu eta gogorra zeramaten! Polizien kexuak entzun beharra zeharo bitxia gertatzen zitzairen atxilotuei, izan ere polizia haiexek ziren euren torturatzailleak, eta oso ondo zekiten zenbateraino ziren erreakzionarioak.

—Bai, egia da, poliziak ere langile jendea dira! Kontua da, begiak kartolekin ixten dizkietela nolabait, eta hori gutxi ez eta metodo hipnotikoekin engainatuta dauzkate. Baina zer egin beraiekin? Nork demontre kendu behar die estalkia begietatik, eta efektu hipnotiko hori desegin? Ondo pentsatuta, sakon-sakonean polizia hauek ez dira izatez gure etsaiak izango, behar bada! —bai Ryukichik eta bai beste guztiek berdintsu pentsatzen zuten gai horri buruz.

Azkenean, atxilotuak poliziekiko errukia izaten hasi ziren hain lan gogorretara jartzen zituztelako. Inongo lantegitan beharginei horren baldintza eskasak ezartzen zizkietenik ez zuten ikusi ordura arte.

—Epaia edozein izanda ere, guri bost. Honekin bukatzea da kontua. Lehenbailehen bukatu nahi dugu. —esan zion Ryukichiri buruan ile gutxiko poliziak, aurpegi zurbilean egunetako bizarra nabari zitzaiola— Aizu, hogeit egun hauetan ez ditut umeak ikusi, hogeit egun!, erraz esaten da!

—Ba benetan sentitzen dut.

—Jai egunetan lanera joaten banaiz... Ez, lanera eramaten banaute, yen erdia ordaintzen didate. Baina diru hori bazkaria eta afariarekin xahutzen dut, horrek esan nahi du azken finean musutruk egiten dugula lana. Diru horrek ez du ematen hiru otordu ordaintzeko. Hori iseka egitea da!

—Aizu, Mitobe jauna, ez dakit ondo dagoen zuri hau esatea, baina gu egiten ari garena, gure borroka azken batean horretantxe oinarritzen da.

—Bai, bai, badakit —Mitobe apal-apal hasi zitzaion hizketan bat-batean—. Egia esan, guk ere badakigu zuen mugimendua zertan den, zeren atzetik dabilen, baina...

—«Baina» hori dago soberan, ordea... —esan zuen Ryukichik irribarrez.

—Bai... —polizia pentsakor jarri zen— Itxura bate-ra dirudiena baino bizimodu gogorragoa daramagu. Zu irakaslea izandakoa zarenez, isilpean esango dizut. —Ryukichik irribarre makurra eginez baietz egin zuen buruarekin— Atzo, nekearen nekez, logurak erreta zoru gainera erortzeko zorian nengoen eta lo gelditu nintzen zaintza orduan. Eta, zer eta lasai ederrean lo gozotan nintzela, hor dator berriz ere sarekadara joateko agindua. Neure onetik atera nintzen. Hala ere, gogoz kontra bada ere, lau joan ginen. Eta bidean, hasi ginen esaten, «zergatik ez dugu greba egiten?»

—Bai, horixe! Ederra kontua, polizien greba! —irri-irudia marraztu zen ia Ryukichiren ezpainetan, baina poliziaren aurpegi serioa ikusita, barreari eutsi zion.

—Greba egitea nahi badugu, horretan adituak diren «maisua» asko dauzkagunez hemen, zuengandik ikas dezakegu. Gainera, sarekada hau Japonia osoan egin denez, leku guztietako poliziak gabiltza ito beharrean, eta erabakitako greba egiten badugu, seguru gaude ondo aterako zaigula.

Ryukichiri zeharo gustagarria gertatu zitzaion poliziaren kontakizuna.

—Batek esaten zuen bere nahi bakarra dela, gure nagusia hartu eta makilarekin egurtu ondoren, luze-luze etzan eta gau batez, gau bakar batekin aski zuen, lo lasai egitea. Beste batek zioen gure nagusia pozarren dabilela, zergatik eta sarekada honen ordainetan hiriko lur-jabeek eta aberatsek eskupekoa emango diotelako...

Ryukichi gorputz eta arima ari zitzaion entzuten.

—Bero-bero jardun genuen. Denok genioen nazka-nazka eginda gaudela. Propio ibili ginen makal, eta bidean hitz egiteko atsedean hartuko genuela ados jarririk, barrutiko polizia postu batean geratu eta han hitz-aspertu bat egin genuen.

—Eta gero?

—Besterik ez.

—...

—Hau gure artean esango dizut: polizia guztiok berdin pentsatzen dugu. Baina, poliziak garenez, eta polizia lanetan aspalditik gabiltzanez, arima zeharo kutsatuta daukagu, eta ikaragarri kostatzen zaigu barruko zorne hori garbitzea.

Ryukichik burua zeharo berotuta zuen. «Hau oso garrantzitsua da» pentsatu zuen. Mitoberi begira zegoen,

estreinakoz orduantxe ikusiko balu bezala. Mandarina-kaxa baten gainean eserita zegoen, korridore aldera jarrita. Sorbalda sendo eta zabalak zeuzkan, eta aurre aldera makurtu samartua zegoela ikustean, Ryukichik begikotasuna sentitu zuen harengana, eskueran besarkatzeko moduan zeukala iritzirik. Arropa zaharren sorbalda parean buruko zahiaren edo hautsaren arrastoak ikus zitezkeen zuri, eta Ryukichik eskua bertan pausatu eta «Aizu» esateko puntuan egon zen, bihotza alai eta pozik.

9

Ryukichi gimnasiotik eraman baino bizpahiru egun lehenago gertatu zen. Lau edo bost egun aurretik Kinoshita izeneko langile bat galdekatu eta 1 zenbakidun ziegan sartu zuten. Sindikatutik ezagutzen zuen burkidea. Gaueko hamarrak aldera, Kinoshita gimnasiotik etorri zen polizia batekin. Haren gauzak jasotzen hasi zirenean Ryukichi esnatu egin zen.

—Kaixo —esan zion baxu.

Kinoshita, Ryukichiri begira, buruaz baietz egiten bezala ari zen.

—Sapporora bidaliko naute —esan zuen isilean.

Ryukichiri «E?» besterik ez zitzaion atera eta, tustean eta bortitz bihotza atzaparrekin estutu baliote bezala sentitu zen. Sapporora bidaltzeak esan nahi baitzuen puska baterako harenak egin zuela.

Gimnasiotik galdeketara eraman aurretik, Kinoshitak ile luzea zuen, baina orain motz-motza zeukala konturatu zen Ryukichi, buruko azal zuria agerian.

—Eta ilea? —galdetu zion.

Kinoshitari aurpegia goibeldu zitzaion.

—Tiraka gogor ekiten ziotenez, moztu egin dut.

Gauza guztiak pakete batean bilduta, poliziak bu-ruarekin ateratzeko keinua egin zion. Irteterakoan Kinoshitak zerbait esan zion poliziarri duda-mudatan bezala. Poliziak, Ryukichirengana inguratu eta nagi bota zion:

—Esaten du tabakorik baldin baduzu, emateko.

«Bai! Akordatu naiz!». Sindikatuko bulegoan ere, Kinoshita beti tabako eske ibiltzen zen, bati bat eta hurrengoari bi zigarro eskatuz. Eta gogo handiz, gozatzu erretzen zuen. Sapporora zihoan kideari tabakoa emateak poza sortu zion Ryukichiri, une hartan beste ezer baino pozgarriago gertatzen zitzaion aukera hura. Aztoratu samar, bere gauzak zeuzkan tokira korrika joan, eta presaka haztatu zuen Batto pakete baten bila. Eta, zer diren gauzak! Pakete bakarra dago-eta! Gainera ez dauka pisu handirik! Zori txarreko garaian dena ateratzen zaigu gaizki... Hiru zigarro! Hiru zigarro besterik ez zeuden. Ryukichik, bihurrikeria galanta egindako umea balitz bezala asko sentitzen zuela adierazi zion:

—Hiru besterik ez daukat.

—Ondo, ondo! Nahikoa da! Eskerrik asko, eskerrik asko! —Kinoshitak, umeek zerbait eskatzen zutenean bezala, bi eskuak bata bestearen gainean jarrita luzatu zizkion.

—Batekin nahikoa duzu!

Eta ikusterako bi zigarro kendu zizkion ondoan zuen poliziak. Bi atxilotuak sor eta lor geratu ziren.

—Erretzeko edo pipatzeko baimena ematea bera ez duzu nolana hiko mesede eta grazia!

«Hara asto bat irrintzi egin nahian!». Ryukichi, suminduraren suminez gorputza dardarka zuela kon-teratu zen. Hala ere, esan zion:

—Mesedez! Hiru bakarrik dira! Eta Kinoshitari erre-
tzea bereziki...

Ez zion utzi esaldia bukatzen.

—Hiru bakarrik direla? Eta zer?

Kinoshita, aurpegia harria bezain zurrun, isilik zegoen. Zigarro bakarra zuen esku ahurra hosto bat bezala zuen ikara. Alde egin zutenean, Ryukichik, Kinoshita zein triste eta goibel egongo zen imajinatuz, erdi-negarrez, poliziak itzultitako zigarro biak birrindu egin zituen.

Hiru egun, lau egun, hamar egun pasa ziren. Baina denbora luzea, mugarik gabeko zulo handia iruditzen zitzaien. Watari, Kudo, Suzumoto eta beste batzuk, ordea, leku aspergarri horretara ere ohitu samar zeuden. Eta, laketzen ez baziren ere, haien kirioak ez zirenez Ryukichi eta Satarenak bezain sentikorrak, errazago eramaten zuten. Sata, aldiz, lur jota zegoen.

Sataren ziega ez zegoen Watarirenetik urrun. Gaez, bere burua non zegoen ere ez zekiela, solasik gabe, urduritasunez pozoiturik, erdi tentelduta zegoela, hainbeste ate giltzaturen ostetik apal-apal entzun zen:

Bai gaez, bai egunez,
Kartzelak beti daude ilun
Deabruak leihotik hona begira
Denbora guztian.

Watari ari zen kantari. Zaintzako poliziek zegoene-
ko ez zioten eragozpen handirik jartzen.

Jagon nazazue, nahi baduzue,
Gu askatasunik gabe
Kateaz loturik.

Azkeneko lerroa, «Kateaz loturik» zioen hori Watarik, ohi bezala, indarrez kantatzen zuela konturatu zen Sata. Lelo hura behin eta berriz errepikatzen zuen beti. Watariren sentimendua zorrotz sartzen zitzaion Satari barru barruraino.

Sata beti egoten zen Watariren kantua entzuteko gogoz. Iluntzean izaten zen. Garai batean kantu mota horri «herritarren artea» deitzen zion destainaz. Baina orain ez. Kantuak ez ezik, kalean zebiltzanen oin-hotsek, eta bide elurtuetan entzuten ziren soinuek ere, arretaz entzunda, musika-eskala misteriotsuak zeuzkatela konturatu zen. Urrun galduetan entzuten ziren jendearen xuxurlek ere ñabardura musikal, delikatuak zeuzkatela. Teilatu gainean erortzen ziren elur pinporten hots atzemangaitzak aditzen ordu bete, bi ordu pasatuko zituen. Soinu horiek mila eratako irudipekin nahasten zituen, eta hala ez zuen aspertzeko beldurrik. Satak ez zuen beste ezer behar, hotsekin aski zuen. Artean bizidun gisa jokatzeko gai baldin bazen, hori zaratei, hotsei zor zien, edozein soinu entzun orduko piztu egiten baitzen. Ziegako lagunek hainbat gorabehera kontatzen zizkieten, alproja gaztearen neskatan egiteko zertzeladak zirela, arlotearen bizitza miserablearen mami eta batez ere hezurak zirela... Hasieran interesatzen zitzaizkion kontuok, baina bizpahiru egunen buruan nazkatu egin zen.

Otaruko bereizgarrietako bat «iragartzailea» zen. Denda jabeek pregoilari berezi haiei eskatzen zieten euren dendaren propaganda egiteko. Pailazo jantzita ibiltzen ziren kalean jo goiak eta jo beheak, doinu barrregarritz iragarkiak esaten, danborra eta txistua lagun hartuta. Egun batean, kartzela ondora azaldu ziren. Bi egur-pusketaren atabal jotzea zen hasieraren seinale, eta ondoren, hasi ziren iragarkiak esaten.

Tximista batean oldartu ziren atxilotu guztiak goiko leihora, zein baino zein azkarrago iristeko lehian. Atzetik zetorrena aurrean zuenari bizkar gainera igo zitzaion, eta bigarrenaren gainera beste bat igo zen. «Hotsak» entzuteko irrikan zeuden denak, ez Sata bakarrik!

Satak askotan egiten zuen amarekin ametsetan. Batez ere ama bisitan joan zitzaionetik, lo hartu bezain laster ama azaltzen zitzaion, esnatu, eta atzera lokartu orduko amarekin hasten zen berriro ametsetan... eta horrela eguna urratu arte.

—Argaldu egin zara... eta zurbilduta zaude —esan zion amak bisitan, arnasestuka.

—Lehenbailehen irten zaitezten egunero egiten diot otoitz Budari —esan eta aurpegia estali zuen zapi zimurtu, zikin batekin. Buda zioenean Sataren aita zena esan nahi zuen. Ama oso garbia zen, eta horren zapi narrasarekin ikusteak bihotza erdiratu zion semeari. Amak zentzurik gabeko gauzak murmurikatzen zituzten ahopean negar-zotinka. Semeak beste aldera begiratzen zuen. Amak eskuak luzatu zituen semearen atorraren lepoa txukuntzeko. Satak baldar makurtu zuen lepoa, eta geldi-geldirik jarri zen. Amaren usaina aditu zuen.

Ziegara itzuli eta amak ekarritako paketea zabaldu zuen. Gauza askoren artean, botilatxo more bat zegoen, begietarako tantak zituena. Satak etxean ohera baino lehen begietan tantak botatzeko ohitura zuen.

—Ama etorri zaizu? Ama bisitan etorri zaizu, ezta? —sartu zuen muturra gazteak, aldamenetik Satak paketea nola irekitzen zuen ikusten ari zela—. Nire ama ere bizirik dago.

Handik lauzpabost egunera askatu zuten Sata.

Non zebilen ez zekiela atera zen kanpora. Dudarik gabe, kalean zegoen. Elurrak distira egiten zuen karrika batean zegoen. Kanpora ateratzearekin batera, amilizua sentitu zuen. Kalean nago! Halakoren etxea da hango hura! Zeraren denda da hori! Zerako zubia da harakoa! Dena ezagutzen dut! Ortzia, argindar-zutabeak, txakurrak! Txakurrak benetan existitzen dira! Umeak, pertsonak, askatasun osoz dabilen jendea, txoria baino libreago! Ai, itzuli naiz-eta mundura!

Bai umeei, bai gizonezkoei, bai andrazkoei, kalean zebiltzan guztiei, hitz erdiren bat esateko, irribarre egiteko gogo bizia sortu zitzaion, baita lasterkan hasteko grina zoroa ere. Sentimendu hori ez zen desmasia hutsa. Bihotza, trumilka gorputzaren erditik sortzen ari zitzaion pozari eutsi ezinik zeukan.

—Azkenean, azkenean atera naiz! —ustekabeen negarrari eman zion. Negarrez hasita, malkoak turrustan atera zitzaizkion bihotzeko pilpira bezala taupaka. Kalean zihoazenak, gelditu eta begira jartzen zitzaizkion han zerbait desegokia balitz bezala, baina berari ez zion axola. Ozen eta zotin batean jarraitu zuen negarrez. Ez zuen ezertan pentsatzen. Bere burua ez zen beste inorentzat ez zegoen! Ez zegoen beste inorekin arduratzeko.

—Azkenean aske nago! Azkenean!!

Sata askatu zutelako berria, ahoz aho, ziega guztietara zabaldu zen. Watariri ez zitzaion zirrara berezirik sortu. Pozgarria zen, hala ere, kartzela ez baitzen gustuko lekua inorentzat. Watarik ez zuen Sata ondo ezagutzen. Biak mugimendu proletarioko kide izan arren, bulegariak eta *intelligentsiakoak* beste mundu batekoak ziren Watarirentzat. Ez zuen esango gustuko ez zituenik, kontua zen ez zitzaizkiola interesatzen haiekiko harremanak.

Kudok, aldiz, bestela pentsatzen zuen: Ryukichi bezalako *intelligentsiako* asko behar zirela haien mugimendua aitzinatzeko, haiek gauza askotan jakintsuak baitziren, eta eskarmentu gutxiko burkideen jokaera monotonoak zuzentzeko gai ziren, sendotasuna eta sarkotasuna erantsiz. Satak bazituen bere akatsak, hori bistakoa zen, baina baziren Satak inork baino hobeto egin zitzakeenak, eta dohain horiek erakutsiz gertatuko zen denentzat probetxugarri haren lana. Kudok, egin beharreko asko geratzen zitzaizkiela pentsatzen zuen.

Poliziek deabruak legez jarraitzen zuten galdeketak egiten, hemen kontatu ahal izateko episodio anker larregi sortuz. Pasadizo horiekin soilik osa zitekeen liburu bat.

Epaia jaso zutenak, banaka-banaka Sapporoko auzitegira bidali zituzten, lehen instrukziora eramateko.

Hara baino lehen, atxilotuei galdeketak egin zizkieten inspektoreak eta Tokkoko poliziek, beraien poltsikotik ordainduta sushi eta beste jateko batzuk ekarrarazi eta atxilotuei eman zizkieten. Bat-batean, jakiak elkarbanatuz, jatortasun izun batekin hasi ziren jokatzeko.

—Edozein modutan —bota zuten nahi gabe bezalala—, hemen egindako adierazpenak berritu besterik ez duzue egin behar Sapporon. Bestela, zuen jokaera gaizki hartuko dute eta hori ez zaizue komeni...

Eta berriro hasi ziren hitz eta pitz, eta gauza bera errepikatzen zuten.

—Honenbeste jateko guri ematea ondo ote dago? —jukutria haren berri bazekiten Watarik, Kudok eta Suzumotok iseka egin zieten.

—Ondo da, ados, ez dugu ezer esango. Arrazoi duzue —erdi barrez, buruaz baiezkoa egin zuen poliziak hainbat bider.

Saitok, Ishidak eta beste batzuek, lehenengo aldiz atxilotu zituztenek, bere aldiko aurpegia jarririk, gonbidapena onartu zuten. «Arraro samarra da» pentsatzen zuten, baina ez zitzaien burutik pasa hori Tokkoko en eta inspektoreen amarru bat zenik. Zeren eta haiek idatzi baitzituzten galdeketetako txostenak; eta Sapporoko instrukzioan atxilotuek txosten horietan zegoenaren kontrakorik esaten bazuten, haien «lepoa» arriskuan jarriko zen, edo mailaz igotzeko aukerarik ez zuten izango, euren nagusien begikotasuna galdurik. Watarik dena zekien eta Sappororako bidean, tren-geltokian, bere zaintzako Tokkoko poliziari trenean jateko otordua eta gozokiak eskatu zizkion.

—Gizajo honi ez eskatu gehiegi, e! —azkenean erreguka hasi zen Tokkoko.

Apirilaren hogeirako, Otaruko polizia-etxean giltzapetuta zeuden guztiak bidali zituzten Sapporora. Bat-batean hustu zen polizia-etxea. Horman idatzitako zirriborroak bakarrik ageri ziren garbi jenderik gabeko geletan. Atxilotuak egon ziren ziegetako hormetan, ondoko lerroak zeuden arreta handiz idatzita, pareta guztietan berdintsu, alde zurretik denen artean adostutakoa izkiriatu izan balute bezala.

Ez ahaztu martxoaren hamabosta!
Gora Alderdi Komunista!



OHARRA

«Ez ahaztu X-ren X-a» esaldiak esanahi historikoa dauka Otarun. Jendeak buruan sakon irarrita baitauka Nikolaievsk-eko Sarraskia izan zenean hormetan odol ez idatzita azaldu zen esaldia: Ez ahaztu maiatzaren hogeita laua.

Gogoan izan martxoaren hamabosta.
Gora Japoniako Alderdi Komunista!
1928-03-15
Hil dezagun Tanakaren gobernu erreakzionarioa!
Gora Alderdi Komunista
Gora Langile-nekazarien Alderdia
Herri guztietako langileok, batu gaitzen!
Gogoan izan martxoaren hamabosta.
Ez ahaztu martxoaren hamabosta.
Eraiki dezagun langileen eta nekazarien gobernu.
Gora Japoniako Alderdi Komunista!

POLIZIAK TAKIJI KOBAYASHI HIL EGIN DU

Japoniako komunisten kontrako terrorearen azken biktima Takiji Kobayashi⁵⁴ idazle proletarioa izan da. Hogeita hamar urte zeuzkan soilik hil zutenean eta bere ospea oso zabala zen Kanikosenen arrakastarengatik (*The Jungleren antzekoa*⁵⁵) baita bere gainontzeko narrazio militanteengatik.

Takiji Kobayashi kartzelan izan zen aurretik, nahiz eta duela urte bete poliziak bere etxean egin zuen segada batetik alde egitea lortu zuen. Klandestino-ki kolaboratzen zuen Alderdi Komunistarekin 1933ko otsailaren 21ean eguerdiko ordu bata aldera kalean zebilela atxilotu zutenean. Bost orduren ostean torturerengatik hil egin zen. Bere atxilotzearen unean ordu erdiz egon zen indarka poliziarekin eta ia lortu zuen eskapo egitea. Azkenean, komisariara arrastaka eraman

54 1933an argitaratu zuten lehenengoz Kanikosen ingelesez New Yorken: itzultzaileak ezizen bat erabili zuen eta zentsura gainditzeko pasarteak kendu eta moldatu zituen. Autorea hil eta hilabete gutxirako argitalpena izan zen eta testu hau orduko ediziorako idatzi zuen argitaletxeak.

55 Upton Sinclair-ek 1906an idatzitako nobela. Bertan XX. mende hasierako AEBetako okel industriako langileen baldintza latzak azaltzen ditu.

zuten eta hirugarren gradua⁵⁶ aplikatu zioten. Hala ere ez zuen ezer aitortu eta ez zuen inoren izenik eman. Altzairuzko borondatea zeukan eta konortea galdu arte eutsi zien torturei eta heriotzak salbatu zuen infernu hartatik. Poliziak gorpua ospitale batera eraman zuen, agiri faltsu bat eskuratu zuten, bertan medikuak zioen ohiko gaixo bat zela eta bihotzeko gaixotasun batek hil zuela.

Bere senideak deitu zituzten gorpua eraman zeza- ten. Bere ama, Oseisan, hirurogei urteko emakume on bat zen, bere semearen ideologiarekin beti egin zuen bat eta eskatu zuen ez zezala lurperatze erlijiosorik izan, baizik eta langile bati zegokiona. Gorpua ikus- tean, bertan ziren poliziengana jo zuen eta esan zien, begietara begira, inoiz ez zuela heriotza naturalaren is- torioa sinistuko.

Bere lagunek beste ospitale batzuetan autopsiak es- katu zituzten, batek ere ez zien baiezkoa eman. Ospitale batek hasieran baietz esan zuen, baina gorpua eraman zutenean eta jabetu zirenean nor zen hildakoa uko egin zuten; garbi zegoen aginduak jasotzen zituztela, ala errepresalien beldur zirela. Polizia departamen- duak ez zuen aurreko azaroko akatsa errepikatu nahi, Unibertsitate Inperialeko medikuek demostratu zute- nean Iwata burkidearen heriotza hilketa bat izan zela.

Ordea, gorpuaren argazkiak egin zituzten. Argi ikus zitezkeen zauri ikaragarriak. Lepoaren inguruan ube- luneak zeuden, soka fin eta zorrotzu baten ondorioz. Eskumuturretan —horietako bat hautsita zegoen— eskuburdinen markak zeuden. Bizkar guztia erreta zegoen eta belaunetatik iztartera haragia puztua eta morea zegoen barruko hemorragien ondorioz. Hil os-

56 Hirugarren graduan mehatxuak, koakzioa eta tortura fisiko eta mentala eragiten diote atxilotuari bere burua erruduntzat jo dezan.

tean, polizia ez zen pozik geratu: bere hilkutxaren inguruko beilatokiko hirurehun lagun atxilotu zituzten eta hiletako lore-koroak itzuli zituzten, baita Idazleen Federazioak bidali zuena (erakunde burges bat). Segidan, burkideek langileen eta nekazarien hileta handi bat antolatu zuten bere omenez. Martxoaren 15a hautatu zuten egun gisa, hori zelako burkide komunistak masiboki atxilotu zituzten bosgarren urteurrena, Takiji Kobayashik bere ipuinetako batean glosatu zuena.⁵⁷

Egun hartan poliziak Numajiri herria antzeztea debekatu zuen, aktore guztiak atxilotu zituen. Nahiz eta poliziak guztiak mobilizatuta zeuden protestei aurre egin eta matxinadak ekiteko, langileek eta ikasleek hiri guztietan egin zituzten manifestazioak, kaleak bete zituzten, krimen nazkagarria salatzeke paskinak banatu zituzten.

Kobayashi burkideak bere irudimenarekin eta kemen proletarioarekin egin zuen lan gogoangarria gogoratzeko martxoak 15a Kulturaren Eguna izango da, langileek bere oroimena gogoan izan dezaten eta kultura proletarioa zabal dezaten.

57 Ale honetan bertan irakurri duzun 1928ko martxoaren 15a eleberria hain zuzen.

Liburu hau 2017ko maiatzak 10ean sartu zen inprentan.
1872ko egun berean aurkeztu zuen bere burua AEBtako
presidente izateko Victoria Woodhull sufragistak:
lehenengo emakume hautagaia izan zen.
Berak argitaratu zuen, lehenengoz, *Manifestu komunista*
ingelesez eta maitasun librea aldarrikatu zuen.

共闘

